


IKASKETA FEMINISTAK ETA GENEROKOAK MASTERRA

2015-2016 ikasturtea

Euskara generoaren ispiluan barrena

Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta
Pasai Donibaneko nerabeen artean



Egilea:

Jaime Altuna Ramírez

Tutorea:

Jone Miren Hernández García

2016ko Iraila

Laburpena

Ikerketa lan honetan generoa eta hizkuntza lotzeko ahalegina egin dut, sozializazio sexistak euskararen praktika sozialean duen eragina aztertuz. Pasai Donibane eta Lezoko 13 eta 16 urte bitarteko nerabeekin egindako ikerketa etnografikoa izan da, euren perspektiba erdigunean jarritz. Antropologian ohikoak diren teknikak erabiliz haur eta nerabeen hizkuntza sozializazioan ematen diren prozesuetara hurbilketa egin dut, nerabeen praktiken azterketa eginez eta nerabeen hausnarketetatik abiatuz. Modu horretan ondorioztatu dut, batetik, Pasai Donibane eta Lezoko nerabeen artean euskararen erabileran sexuen arabera ezberdintasuna ematen dela, neskek euskara gehiago erabiltzeko joera dutela berretsiz. Bestetik, hizkuntza erabiltzeko moduetan ezberdintasun argiak ematen direla jaso ahal izan dut. Azken finean, hizkuntza-praktiken inguruan genero perspektibarekin egindako ibilbide etnografiko honen bidez, emakume eta gizonen arteko desberdinkeria azalarazi dela esan daiteke.

Hitz-gakoak

Hizkuntzaren Antropologia, Generoa, Nerabezaroa, Euskara, Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologia, Etnografia

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa	4
Lehen atala. Generoa, nerabezaroa eta hizkuntza lotzen dituen ikerketa bat	6
1.1. Sarrera	7
1.2. Ikerketaren interesa	8
1.3. Helburuak	9
1.4. Hipotesiak	9
1.5. Metodologia	10
1.6. Teknikak	11
1.7. Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen testuingurua	14
Bigarren atala. Transmisioa eta errua: emakumearen rola euskararen sozializazioa	17
2.1. Sarrera	18
2.2. Emakumearen rola euskararen sozializazioan	18
2.2.1. XIX. mendeko pentsamendu modernoak: euskara eta emakumeak etxera	20
2.2.2. XX. mende hasiera: hasierako planteamenduak emakumeari buruz	22
2.2.3. Emakumeen lehen urrats publikoak euskararen arloan	26
2.2.4. Garai berritzaileak eta etxerako itzulera	29
2.2.5. 1960ko hamarkada: berritze prozesuen aktibazioa	31
2.2.6. 1970eko hamarkadako gorabeherak	33
2.2.7. Azken hiru hamarkadak	35
2.3. Euskararen transmisioaren ardura femeninoaren iraupena	38
2.4. Euskararen galeraren errua emakumeen bizkar	41
2.4.1. Emakumeen ahultasuna eta desbideraketa	41
2.4.2. Emakumeei buruzko irakurketak euskararen inguruko lehen gizarte ikerketetan	42
2.4.3. Euskalgintza eta feminismoaren arteko harremana	44
Hirugarren atala. Hizkuntza, generoa eta adina. Kokapen teoriko-metodologikoa	46
3.1. Nerabe eta gazteak: prozesuan dauden subjektuak	47
3.1.1. Sarrera	47
3.1.2. Gazteria eta nerabezaroa zehaztu nahian	47
3.1.3. Nerabezaroa, helduarorantza trantsizioa?	48
3.1.4. Helduzentrismoa: oraindik ez vs dagoeneko bai	50
3.1.5. Prozesuan dauden subjektuak	50
3.1.6. Nerabezaroa eta gaztaroa ezberdindu al daitezke?	51
3.1.7. Nerabezaroaren trantsizioa eta generoa	52
3.1.8. Haurtzaroa eta nerabezaroaren antropologia	52
3.1.9. Nerabezaroaz gaur eta hemen	54

3.2.	Gizonak eta emakumeak: boterezko eta desberdinkeriazko harremanak	<u>56</u>
3.2.1.	Sarrera.....	<u>56</u>
3.2.2.	Genero identitatea: subjektu ezberdinak eta harreman hierarkiak sortuz	<u>56</u>
3.2.3.	Hizkuntza eta boterea: kapital sinbolikoaren lehia	<u>59</u>
3.2.4.	Hizkuntza-ikerketak genero ikuspegiarekin	<u>60</u>
3.2.5.	Eckerten azalpena generoaren arabera hizkuntza-jokabideen inguruan	<u>61</u>
	Emakumeak: Izan. Irudia, hitza, isiltasuna, ahanztura.....	<u>63</u>
	Gizonak: Egin. Hitza, aitortza, protagonismoa	<u>64</u>
3.2.6.	Jolasa eta jokoa	<u>65</u>
3.2.7.	Hizkuntza femeninoa eta maskulinoa	<u>67</u>
3.2.8.	Kategoria dikotomikoei buruzko oharra	<u>69</u>
3.3.	Paradigma berria: hizkuntza-sozializazioa, praktika komunitatea, hizkuntza-mudantza	<u>71</u>
3.3.1.	Sarrera	<u>71</u>
3.3.2.	Hizkuntzaren Antropologia	<u>71</u>
3.3.3.	Paradigma berria: hizkuntza-sozializazioa eta praktika-komunitatea	<u>73</u>
3.3.4.	Gazteak, nerabeak eta euskara	77
3.3.5.	Azken urteetako ikerketen harira	81
	Laugarren atala. Analisia.....	<u>85</u>
4.1.	Lezo eta Pasaiako nerabeen identitateak eta praktikak	<u>86</u>
4.1.1.	Sarrera.....	88
4.1.2.	Gazte-identitatea: zer da gazte izatea?.....	88
4.1.3.	Gazteen praktikak.....	91
4.2.	Lezo eta Pasaiako nerabeen hizkuntza-sozializazioa	98
4.2.1.	Hizkuntza-sozializazioa.....	<u>99</u>
4.2.2.	Hizkuntza-mudantza	<u>103</u>
4.2.3.	Hizkuntza-alternantzia	<u>106</u>
4.2.4.	Ohitura eta hizkuntza-ideologia	<u>108</u>
4.3.	Generoa hizkuntza-praktiketan.....	<u>112</u>
4.3.2.	Neska eta mutilen arteko ezberdintasuna?	<u>113</u>
4.3.3.	Hizkuntza-praktiketan ezberdintasunak?	<u>119</u>
4.3.4.	Neskek euskaraz egiteko joera handiagoa dute	<u>120</u>
5.	Ondorioak.....	<u>133</u>
	Erreferentziak	<u>142</u>
	Eranskinak.....	<u>148</u>

Aitzinsolasa

Ziur aski, ikerketa lan bat bidaia moduan irudikatzea oso metafora errepikakorra da, baina originala ez naizela onartuz, nik ere irudi hori erabiliko dut: 2015eko udazkenean abiatu zen bidaia honi Alizia izeneko neska batek egin zituen bidaien antza hartu diot. Alizia bezala, hilabete hauetan abiatu naiz, bidean galdu egin naiz, zenbaitetan mugitu ezinik geratu naiz, geldi, bestetan aguro mugitu naiz, bidegurutzetan zein bide hartu behar nuen jakin ezinik ere egon naiz, nora iritsiko nintzen eta bidearen amaieran zer aurkituko nuen ez nekiela, edo noraino iritsi nahi nuen zalantzaz...Alizia bezala, bidaia honetan jende asko topatu dut, eta denek eman dizkidate gakoak aurrera jarraitzeko, eta askotan, une horretan esandakoak zentzu handirik ez zutela pentsatu arren, amaieran erabat zentzudunak eta argiak zirela konturatu naiz.

Aliziak bi bidaia egin zituen. Lehenengoan Mundu Miresgarria bisitatu zuen eta bertan topatu zituen oso ezagunak egiten zaizkigun pertsonaiak: Untxi Zuria, Sonbrailugilea, Martxoko Erbia edo Bihotzetako errege-erreginak. Bigarrenean Alizia Ispiluan Barrena murgildu zen beste aldean zegoena ezagutzeko irriketan zegoelako. Nik ere, nerabeen hizkuntza-praktikak eta generoa uztartuz bi bidaia egin ditut. Lehenengo bidaietan, tunel luzean murgildu naiz euskara eta emakumeak lotzen duen azken bi mendeetako testuinguru historiko-soziala zeharkatuz. Bertan, pertsonaia ezagunekin egin dut topo, baina baita ere ezagunak ez ziztaizkidan eta miresgarriak iruditu zaizkidan emakume askorekin. Tunelean barna denbora luze egin eta gero, oso interesgarria den nerabezaro, generoa eta hizkuntzaren mundu miresgarrian zehar bidaia egin dut. Mundu horretan, hiru ardatz hauen inguruan azken hamarkadetako ahots interesgarri asko entzun ditut, planetamendu teoriko-metodologiko oso baliagarriak topatuz. Egin dudan bigarren bidaia, nerabeen ispiluan barrena izan da. Nerabeekin egon ondoren hizkuntza-praktiken ispiluaren ifrentzua ikusi dut eta irakaspen anitz jaso ditut generoa eta hizkuntzaren inguruan. Baina, beste ispilu bat zeharkatu dudala ere uste dut: genero-rolak hain gardenki erakusten digun ispilua. Geure burua begiratu eta “mutila zara” edo “neska zara” etengabe adierazten digun ispilua.

Ibilbide honetan bidaide asko izan ditut alboan: Lezoko eta Pasai Donibaneko nerabeak, hauen begiraleak, iritzia eman didaten lagun eta ezagun guztiak, masterreko irakasleak eta ikaskideak eta, batez ere, nire lana hain egoki, zuzen eta jator bideratu duen nire tutora: Jone Miren Hernandez.

*Horrela sortu zen (...) istorioa;
Horrela piskanaka, banan bana,
itxuratu ziren bere gertakizun bitxiak,
Eta orain istorioa eginda dago¹.*

Master Amaierako Lan honek UPV/EHUko Berdintasunerako zuzendaritzaren diru laguntza izan du Genero ikuspegia barne hartzen duten master amaierako lanak egiteko laguntzen deialdian (2015/2016)

¹ Lewis Carroll idazlearen Alice izeneko liburuaren sarrerako poesiaren zatia.

Lehen atala

Generoa, hizkuntza eta nerabearoa lotzen dituen ikerketa bat

1.1. Sarrera

Hizkuntza eta bere erabilerak gizartearen isla dira. Hizkuntza ez da diskurtso, arau, uste eta praktiketarik aparte dagoen egitate autonomoa, eta gizarte egiturek eta agentziek hizkuntzen bizitza bideratzen dute. Bestalde, gizartea generoaren arabera antolatua dago eta, norbanakoien sozializazio prozesuan “bi sexuen” arabera bereizketa egiten indar eta energia handia erabiltzen denez, esperokoa da horrek hizkuntzaren gizarte erabileran ere eragina izango duela.

Ikerketa lan honetan, beraz, generoa eta hizkuntza lotzeko ahalegina egin dut, sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean duen eragina aztertuz. Genero perspektibarekin egindako hizkuntzaren azterketa sozialaren bidez, emakume eta gizonen arteko gizarte desberdinkeria ikusarazi eta azaldu daitekeela uste dut, eta ikuspegi honek estrategia edo ildo eraldatzaile batzuk eskaini ditzake.

Nerabearora mugatutako ikerketa da. Batetik, nire azken urteetako lan esperientzia eta interesa nerabeekin lotuta egon delako, bestetik, uste dudalako hizkuntza eta nerabearoa lotzeko gizarte interesa handia dela. Gainera, euskararen erabileraren inguruan azken urteotako hainbat ikerketetan diferentziak nabaritu dira neska eta mutil gazteen arteko hizkuntza-praktiketan, nahiz eta gaia ez da sakonki aztertu.

Nerabeak ikertzeko azterketa lan honetan gaztetxoaren perspektiba zentrala izatea nahi izan dut. Aktoreen iritzia eta hausnarketarik abiatu naiz eta horretarako Hautzaro eta Nerabearoaren Antropologian oinarrituko naiz. Antropologian ohikoak diren teknikak erabiliz haur eta nerabeen hizkuntza sozializazioan ematen diren prozesuetara hurbilketa egin dut, nerabeen praktiken azterketa eginez eta nerabeen hausnarketarik abiatuz. Hortaz, Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeekin denbora luze egon naiz eta haien ahotsak ikerketa honen erdigunea dira.

Ikerketa-lan hau abiatzeko ideia Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailaren Euskara Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde-atal Bereziaren eskariz egindako lan bat izan da. Batzorde horretan gazteak eta euskararen arteko lotura ikergunea izango zuen azterlana burutzea adostu zen, eta hala garatu zen Jone Miren Hernandez-en zuzendaritzapean, *Gu, gazteok* izeneko ikerketa. Egindako ikerketa hartan generoa aldagaiak hizkuntza-praktiketan eragina zuela zantzu argiak agertu zirenez, esku artean duzun azterketa hau egitea erabaki nuen.

Txosten honetan nerabeak eta hizkuntza praktikak genero-ardatzaren bidez aztertzeko egin dudana lanaren emaitza aurkeztuko dut. Esploratzaile izaera eduki nahi duen ikerketa

etnografikoa izan denez, saiakera berezia egin dut lana teorikoki eta metodologikoki ondo oinarritzeko, aurrera begira, ildo beretik egin nahiko nituzke antzeko ikerketa-etnografikoetarako baliagarria izan dezan. Idatzia, beraz, bost ataletan banatu dut. Lehen atala ikerketaren berri ematen du, helburuak, hipotesiak, interesa eta ikerketa enpirikoa egiteko erabilitako metodologia eta teknikak azalduz. Bigarren atalean azterketa sozio-historikoan murgildu naiz, euskararen sozializazioan emakumearen rola zein izan den ulertzeko. Jarraian, hirugarren atalean, lan enpirikorako beharrezkoa izan zaidan kokapen teoriko-metodologikoan sakondu dut, ikerketaren ardatza diren hiru aldagaiak kokatuz: nerabearoa, generoa eta hizkuntza. Laugarren atala egin dudana lan etnografikoaren analisisa da. Azkenik, ikerketa-lan honen ondorio nagusiak aurkeztu ditut.

1.2. Ikerketaren interesa

Urteak eman ditut haur eta gazteen heziketaren arloan lan praktikoa egiten. Denbora horretan alderdi ezberdinak jorratu baditut ere, bereziki hizkuntzarena izan da gehien landu izan dudana esparrua. Lan praktikoa horretatik abiatuta, azken urteetan, hizkuntza eta nerabeak lotzen zituzten hainbat ikerketetan parte hartzeko aukera izan dut, eta lanketa horien bidez euskararen inguruan ikertzeko beharra nabaria dela konturatu naiz. Izan ere, euskararen biziberritzeko prozesuan ekimen ugari egiten badira ere, ezagutza arloa, maiz, hankamotz geratu izan da, eta zenbaitetan geratu eta gertatzen ari dena ondo aztertzeko beharra izaten da modu eraginkorrean ekiteko. Iñaki Arruti euskara teknikariak azaltzen duen bezala (2013):

Bistakoa da euskal kulturak ekintzatik gehiago izan duela ikerketatik baino, intuiziotik gehiago pentsamendutik baino, bihotzetik eta eskuetatik gehiago burutik baino... Eta? Txarra al da ba? Ez nuke nik esango txarra izan denik. Are gehiago, handik honantz egin dugun bidea egiteko agian ibilgailu egokiena bera izan da. Agian bai. Egun, ordea, txarra ez izan arren, hankamotz geratzen zaigu egiten ari garen biderako, herren hemendik harantz joateko. Orain, bidean ibiltzeko, beste gailu bat behar dugu, beste ibilgailu bat, eta, horretarako, gutxienez, gelditu, aztertu eta pentsatu egin behar dugu (Arruti, 2013).

Gainera, hizkuntza oso elementu berezia da gizarte eta kultura bat ulertzeko eta kultura bati begiratzeko. Jose Maria Sanchez Carrionek idatzi zuen bezala “El lenguaje es un elemento muy especial dentro de una cultura, que además de tener identidad independiente actúa como espejo y corriente de transmisión de todo lo demás” (1981:32). Hizkuntzak gizartea erakusten digu, antolakuntza sozialaz informazio handia ematen digu, kultura nolakoa den ulertzeko eta

azaltzeko tresna ezin hobea da, eta gizarte antolakuntza horri genero perspektibatik behatzea interesgarria izateaz gain, erabat beharrezkoa dela uste dut.

Horregatik, sarreran aipatu dudan bezala, generoa eta hizkuntza lotuz, sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean duen eragina aztertu daitekeela uste dut, emakume eta gizonen arteko gizarte desberdinkeria ikusaraziz. Nire iritziz, hizkuntzaren eta generoaren ikuspegiak uztartuz estrategia edo ildo eraldatzaile batzuk eskaini daitezke gizarte berdinzaleagoaren bidean. Egin dudan ikerketa honekin, hortaz, generoa eta hizkuntza lotzeko ahalegina egin dut, sozializazio sexistak euskararen praktika sozialean duen eragina aztertuz eta neska eta mutilen arteko hizkuntza-praktika ezberdinak genero sistemaren logikan baitan kokatuz.

1.3. Helburuak

Ikerketa honen xede nagusia nerabeen hizkuntza-praktiketara eta diskurtsuetara gerturatzea da genero-rol araberako ezberdintasunik ematen ote den esploratuz. Sozializazio sexistak hizkuntzaren erabileran sozialean duen eragina behatu nahi dut, helburu zehatz hauen bidez:

1. Sozializazio sexistak 13-16 urteko nerabeen euskararen praktika sozialean duen eragina esploratzea.
2. 13-16 urteko nerabeen bizipenetan eta diskurtsuetan genero-rolen araberako hizkuntza ezberdintasunik identifikatzen eta deskribatzen ote duten jasotzea.
3. Hizkuntza ezberdintasun horien nolakotasuna identifikatzea eta genero ikuspegi baten bidez ulertzea.

1.4. Hipotesiak

Hipotesi nagusia da, sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean eta hiztunen hizkuntza-iruditegian eta diskurtsuetan ageriko eragina duela. Sozializazio horrek gizarte honetan bizi garen pertsonen bizipenak eta praktikak baldintzatzen ditu eta baita hizkuntza-praktikak ere, genero sisteman txertatuta dauden botere harremanak mantentzen lagunduz. Hipotesi orokor horretatik abiatuz, beste hiru hipotesi definitu ditut:

1. Euskararen erabileran sexuen araberako ezberdintasuna ematen da: neskek euskara gehiago erabiltzeko joera dute.

2. Hizkuntza erabiltzeko moduetan ezberdintasunak ere ematen dira: mutil eta nesken artean egoera komunikatiborako erabiltzen duten hitz egiteko moduetan eta hizkuntzarekiko duten harremanean diferentziak daude.
3. Historikoki euskararen zaintzeko eta transmititzeko ardura emakumearekin lotu izan da, eta euskara eta emakumea uztartzen duen iruditegi hori bizirik dirau, hizkuntzaren biziberritze praktikak eta estrategiak femenino omen diren ezaugarri batzuekin lotuz.

1.5. Metodologia

Ikerketa hau nerabeen hizkuntza-praktikei hurbilketa etnografiko bat izan da. Batez ere, euren egunerokotasunaren praktiketara eta bizipenetara hurbildu naiz ikuspegi antropologikoarekin garatu den ikerketa kualitatibo baten bidez. Hiru oinarri metodologikoak erabili ditut²:

- 1) **Hizkuntzaren antropologian** azken urteetan erabiltzen ari diren oinarri teoriko-metodologikoak aplikatu ditut: etnografiaren bidez hizkuntza-sozializazioaren azterketa egiteko paradigma. Euskal Herriko hizkuntza iker-eremuan hurbilpen etnografikoa ez da oso erabilia izan, nahiz eta badira egile gutxi batzuk euskararen egoera etnografikoki aztertu dutenak: José Maria Sanchez Carrion, Teresa Del Valle, Jacqueline Urla, Xabier Erize, Jone Miren Hernandez eta Paula Kasares. Ikerketa honetan, beraz, euskararen inguruan gutxi jorratutako bide etnografikoan oinarritu naiz, hiztun taldeen jarduera sozial eta kulturala deskribatzeko eta interpretatzeko oso metodo eraginkorra delako.
- 2) **Egunerokotasuna eta hiztunengan zentratutako etnografia** egin dut. Gaur egungo norbanakoaren egunerokotasunetik gizarteari, hizkuntzari eta kulturari begiratzeko saiakera egin dut. Hizkuntza-sozializazioaren gaineko ikerketek egin duten ekarpenik handienetako bat eguneroko bizitzari aitortu dioten garrantzia da: eguneroko solasaldi arruntak bide sozializatzaile eraginkorra dira eta horiek hizkuntza jarduera gisa ikusteak mintza-errutinei erreparatzeko aukera ematen du. Ikerketa hau egunerokotasunetik abiatuz, hizkuntza-egoeraren gizarte konplexutasuna ulertzeko bide ezberdin bat egiteko ahalegina izan da.
- 3) Azkenik, **Hautzaro eta Nerabezaroaren Antropologiak** proposatzen dituen ildoak jarraitu ditut. Ikerketa hau gaztetxoekin eta euren ikuspegitik egiten saiatu naiz. Adela Franzé, M^a Isabel Jociles, Begoña Leyra, Ana M^a Bárcenas eta Teresa Gonzalez

² Atal honetan oinarri metodologikoei buruz azalpenak laburrak emango ditut, hirugarren atalean (Hizkuntza, generoa eta adina. Kokapen teoriko-metodologikoa) sakon aztertu ditudalako.

bezalako egileek gaztetxoei toki berezia emateko beharra azpimarratzen dute, hainbat tresna metodologikoak proposatuz. Ikerketa honetan, nerabeen kolektiboari protagonismoa eman zaio, ikergaiaren barrutik errealitate linguistikoari begiraturaz: lagunartean, kalean, aisialdia bertatik.

1.6. Teknikak

Esan bezala, metodo antropologikoa erabili dut eta metodo hau, kontzeptu bakar batekin laburtu daiteke: behaketa. Behaketaren barnean hiru elementu sartzen dira: behaketa-parte-hartzailea (jendearen praktiken behaketa), elkarrizketa (jendearen diskurtsoen eta hitzen behaketa), eta dokumentazio lana (idatzitakoaren behaketa) (Diaz de Rada, 2014). Ikerketa honetan behaketaren hiru elementuak uztartzeko saiakera egin dut. Horretarako, etnografia lanetan ohikoak diren hiru teknika erabili ditut: 1) Behaketa-parte-hartzailea eta talde-dinamiken bidezko hausnarketak; 2) Talde-elkarrizketak ; 3) Dokumentazio-lana.

1) Behaketa parte-hartzailea eta talde-dinamiken bidezko hausnarketak

Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeekin egon naiz; zortzi arratsalde pasa ditut beraiekin. Behaketa hauetan behatutako praktiken ohiko jasoketa egiteaz gain, elkarrizketa informalak bideratu ditut eta Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologian proposatzen diren zenbait talde-dinamika erabili ditut.

Behaketa Gipuzkoako bi herritako “Kuadrillategi”³ aisialdiko egitasmoaren baitan garatu dut: Pasai Donibanen eta Lezon. Guztira, 13 eta 16 urte arteko 65 gaztek parte hartu dute. Lezon lau ostiral arratsaldetan izan nintzen, eta Pasai-Donibanen beste lau arratsaldetan, denak 2015eko udazkenean. Behaketak aisialdiko programa honen barruan egiteko arrazoiak bi ziren: batetik, herri hauetako nerabe asko biltzen diren gunen batean egoteko aukera ematen zidan; bestetik, egoera erabat informala ez bada ere, programa honetan nerabeak lagunarteko egoera ez-formaletik oso gertu egoten dira. Gainera, Kuadrillategi programak beste baldintza egoki batzuk eskaintzen zizkidan ikerketa hau garatzeko. Hasteko, tipologia ezberdinetako gazteak biltzen dituen egitasmo iraunkor bat da, ikasturtearen zehar gauzatzen dena. Antolaketa sendo eta,aldi berean, malgua du, eta, zentzu horretan, aukera eskaintzen du jarduera ezberdinak

³ Lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzeko helburuz garatzen den programa. Astean behin, ostiraletan bi orduz, 12 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartzen dute, 20 eta 50 arteko kidez osatutako taldeetan, bina aisialdiko hezitzaileekin. 2015/2016 ikasturtean Kuadrillategi programa honako herri hauetan garatzen da: Lezo, Pasaia, Oiartzun, Errenteria eta Lasarte-Oria, guztira 600 bat gaztek parte hartzen dute. Kuadrillategi egitasmoa 2001. urtean abiatu zen Pello Jauregi ikerlariaren eskutik.

modu zuzenean gazteekin lantzeko. Azkenik, egitasmoaren arduradunak (Ttakun elkarte eta Lezo eta Pasaiako Udalak) prest agertu dira ikerketa bideratzen laguntzeko, eta horrek ere erraztu du nire lana. Hauek dira egin ditudan behaketen egutegia:

Pasai Donibanen: urriak 30, azaroak 13, azaroak 20 eta abenduak 11.

Lezo: urriak 23, azaroak 6, azaroak 27 eta abenduak 4.

Esan bezala, behaketa hauetan etnografian ohikoa den jasoketa (grabazioak, egunerokoa...) egitearekin batera Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologian proposatzen diren zenbait talde-dinamika erabili ditut⁴. Talde-dinamiken bidez gazteen egunerokotasunera hurbiltzeaz gain, euren diskurtsoak jaso nahi izan ditut. Horrela, behaketa lana egiten egon naizen egun bakoitzean bina dinamika proposatu nizkien. Dinamika hauetan, lehendabizi, nerabeak, 5-6 lagunez osatutako taldeetan elkartzen ziren proposatutakoa egiteko. Ondoren, talde txikietan osatutako dinamikaren emaitza elkar banatzen zuten, talde handian denon artean landu nahi den gaiari buruz hausnarketa eginez. Dinamika hauetan sortutako material guztia (kartulinetan egindako grafikoak, mapak, bideoak...) jaso dut informazio iturri garrantzitsua dela iruditzen zaidalako. Ez zen lehen aldia tresna metodologiko hau erabiltzen nuena, teknika hauek erabili izan ditut, eta emaitza interesgarriak lortu dira, aurretik garatutako bi ikerketetan⁵.

Behaketa saioetan Parte hartu duten nerabeen datuak:

	Lezo		Pasai Donibane	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
1. Eguna	15	19	10	6
2. Eguna	11	22	18	4
3. Eguna	13	7	16	4
4. Eguna	12	26	16	4
Guztira, 65 nerabek parte hartu dute: 41 Lezon eta 24 Pasai Donibanen. Horietako 33 neskak eta 32 mutilak.				

⁴ Garatu ditudan dinamiken azalpen zehatza eranskinetan dago.

⁵ Aurretik egin ditudan bi ikerketa honako hauek izan dira: (1) *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea* (2016). Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzorderako Jone Miren Hernandezek eta biok egindako ikerketa. (2) *Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan* (2015). Nik neuk Donostiako nerabeekin egindako ikerketa eta bigarren saria lortu zuena Soziolinguistika Klusterrak antolatutako Hausnartu sariaren 2015. urteko edizioan.

2) Talde-elkarrizketak⁶

Elkarrizketa hauek aztertu nahi dudan nerabeen multzoan ematen diren diskurtso nagusiak identifikatzeko egin ditut. Ez ditut iritzi partikularra edo originala duten informatzailerik bilatu, ikerketa parte hartu duten nerabeen kolektiboko partaide diren pertsona guztien diskurtso oro kolektiboa ere badela uste dudalako. Ikerketa honetarako bost talde-elkarrizketa egin ditut, behaketa-parte-hartzaileak egin ondoren eta behaketa hauetan ateratako datuen lehen azterketa egin eta gero. Lehen lau talde-elkarrizketako nerabeek behaketa saioetan parte hartu zuten. Azken talde-elkarrizketakoak, ordea, ez zuten behaketa egin nituen egunetako dinamiketan parte hartu. Azken hauekin, beraz, ordurarte nik egindako azterketen emaitzak kontrastatzeko aukera izan nuen. Elkarrizketa hauetarako gidoi bat⁷ osatu banuen ere, solasaldirako eskema gisa erabili nuen eta elkarrizketatuak izan diren pertsonen arabera moldatu dut, hau da, laguntza bat izan da eta ez dut hitzez hitz jarraitu ezta ordena mantendu ere ez. Asmoa elkarrizketatutako gazteekin solasaldi ahalik eta erosoena edukitzea izan da, euren esperientziak, diskurtsoak eta hausnarketa pertsonalak jaso ahal izateko. Hona hemen talde-elkarrizketen datu orokorrak:

	Tokia	Data	Adina	kopuruak		
				Neskak	Mutilak	Guztira
1	Lezo	2016-02-19	13-14	2	2	4
2	Lezo	2016-02-19	13-14	0	4	4
3	P. Donibane	2016-02-26	13-14	3	0	3
4	P. Donibane	2016-02-26	14-15	6	0	6
5	Lezo	2016-06-29	13-14	1	2	3
Guztira				12	8	20

3) Dokumentazio lana

Testuinguru kultural, sozial eta linguistikoa ulertzeko dokumentazio lan handia egin dut. Marko teorikoa osatzeko bi bloke nagusi osatu ditut, eta esan daiteke, bi marko osatu ditudala. Lehena, euskararen azken bi mendeetako errepaso sozio-historikoa izan da genero ikuspegitik⁸.

⁶ Talde-elkarrizketa kontzeptua erabili dut Francisco Ferrandis-en *Etnografías contemporaneas* liburuan proposatutakoari jarraituz (Ferrandis, 2011:117).

⁷ Gidoia eranskinetan dago.

⁸ Txosten honen bigarren atala osatzen du.

Bigarren blokea, egungo nerabeen artean hizkuntza-praktiken azterketa egiteko ezinbestekoak iruditzen zaizkidan hiru ardatz jorratu ditut⁹. Batetik, gizarteak egituratzen dituen bi botere-harremani buruz arituz: adinaren arabeko botere harremanak eta genero harremanak. Hirugarren ardatza ikerketarako Hizkuntzaren Antropologiak eskaintzen dizkidan tresna teoriko-metodologikoen zehaztapena izan da.

4) Etengabe aktibatutako etnografia¹⁰

Ikerketak iraun dituen hilabeteetan gaiari buruzko hausnarketa informal asko jaso ditut. Egiten ari nintzen lanari buruz lagun edo ezagun artean hitz egindakoan oso elkarrizketa interesgarriak sortu dira. Bestetik, etengabeko behaketa lana ere ia ohargabean egin dut, inguruan ikusten nituen nerabeen hizkuntza praktikak behatuz. Behaketa eta elkarrizketa informal hauen apunteak nire kuadernoan idatzita geratu dira, eta gehienak ez dira modu egituratu batean txosten honetan islatuak gelditu. Gutxi batzuk analisiaren atalean agertuko dira, beste asko ez, baina, hala ere, hemen idatzitako guztian eragina handia izan dute eta aurreko hiru puntuetan azaldutako tekniken bidez jasotako informazioari forma eta testuingurua emateko oso beharrezkoa izan dira.

Izandako elkarrizketen artean, bi izan dira izaera formal edo egituratuagoak eduki dutenak:

- Joxe Mari Iraola-rekin 2016ko ekainaren 1ean izandako elkarrizketa. Iraola Lezoko Udal Euskara Teknikaria denez, berarekin izandako solasaldia herri honen testuinguru soziolinguistikoa ulertzeko oso baliagarria izan zen.
- Alazne Madinabeitia-rekin 2016ko otsailaren 27an izandako elkarrizketa. Pasai Donibanen bizi den hezitzailea eta Kuadrillategi programaren begiralea. Ikerketak Feministak eta Generokoak Masterra egina duenez bere ikuspegia oso interesgarria suertatu zait.

1.7. Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen testuingurua

Aurreko atalean azaldu dudan moduan, ikerketaren behaketetan 65 nerabek parte hartu dute, eta horietako 20k talde-elkarrizketetan egon dira. Nerabe ia guztiek Lezo eta Pasai Donibanen bizi dira. Bi gazte soilik ziren Donostian edo Errenterian bizi zirenak, baina hauen lagunarteko

⁹ Txosten honen bigarren atala osatzen du.

¹⁰ Mari Luz Estebanek *Crítica del pensamiento amoroso* liburuan proposatutako kontzeptua da “etnografia siempre activada” (Esteban, 2011:28)

harremanak Pasaian garatzen ziren. Jarraian, beraz, Pasai Donibane eta Lezoko errealitate orokorrari hurbilketa egingo dut ikerketaren partaideak testuinguruan kokatu ahal izateko.

Lezo eta Pasai Donibanen Gipuzkoako Oarsoaldea eskualdeko bi herri dira. Oarsoaldea Oiartzun ibaiak zeharkatzen dituen lau udalerrik eratzen dute: Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia. Lezo eta Pasai Donibane elkarren ondoan dauden Pasaia portuaren inguruan sortutako herriak dira. Lezo udalerria osatzen badu ere, Pasai Donibane Pasaiko udalerriaren barruti bat da (beste hiru barrutiak Pasa Antxo, Pasai San Pedro eta Trintxerpe dira). Barruti horietako bakoitzak nahiko izaera berezia du eta lau barrutiak Pasaia badiaren bidez lotuta badaude ere, barrutien arteko lurreko lotura zuzenik ez dago; beste udalerrri batzuetatik pasa behar da batetik bestera joateko. Nik aztertutako Pasai Donibanereren kasuan, adibidez, lurrez Pasaia beste udalerrrietara joateko Lezo eta Errenteria zeharkatu behar dira.



Biztanleriari dagokionez, Oarsoaldean 71.136 pertsona bizi dira¹¹. Horietako 6.056 Lezon bizi dira¹² eta Pasai Donibanen¹³ 2.309. Haur, nerabe eta gazteen populazioari erreparatuta, Lezon 1.178 biztanle dira 19 urte baino gutxiago dituztenak (%19,45). Pasai Donibanen 428 dira 0-19 urte bitartekoak (%18,53).

Hizkuntzari dagokionez, Eustat-ek emandako datuen arabera Lezoko hizkuntza-gaitasun datuak hauek dira: *euskaldunak* (%56,8), *ia euskaldunak* (%24) eta *erdaldunak* (%19,2). Ohartarazi behar da ez ditudala topatu Pasai Donibaneko biztanleak euskararen gaitasuna adierazten datu zehatzik. Pasaian, lau barrutiak kontutan hartuta, biztanleen hizkuntza-gaitasunaren datuak honako hauek dira: *euskaldunak* (%38,2), *ia euskaldunak* (%28,2) eta *erdaldunak* (%33,6).

¹¹ Oarsoaldea Garapen Agentzia web orritik ateratako datua: <http://www.oarsoaldea.eus/eu/oarsoaldea/oarsoaldea-eskualdea/datu-interesgarriak>

¹² Eustat Euskal Estatistika Erakundeak emandako datuak: http://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.html

¹³ Pasaia Udalaren web orritik ateratako datua: <http://www.pasaia.net/eu/html/1/13.shtml>

Pasai-Donibaneren testuinguru soziolinguistikoa ezagututa, pentsatzekoa da euskaldun kopurua handiagoa izango dela eta Lezok dituen datuen antzekoak izango dituela.

Nire ikerketan adina aldagaiak garrantzia izango duenez, adinaren araberrako gaitasunaren datuak aurkeztea interesgarria deritzot:

	PASAIA (lau barrutiak)			LEZO		
	<i>euskaldunak</i>	<i>Ia euskaldunak</i>	<i>erdaldunak</i>	<i>euskaldunak</i>	<i>Ia euskaldunak</i>	<i>erdaldunak</i>
2-14 urte	84,2	11,9	3,9	88,53	9,42	2,03
15-34 urte	55,8	26,3	18,0	73,46	17,46	9,07
35-64 urte	25,2	37,6	37,2	40,66	34,47	24,85
>64 urte	22,3	20,0	57,8	52,27	13,29	34,43

Bi herri hauetan maiztasun handiz egiten diren Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketak¹⁴ euskararen erabileraren datu zehatzak eskaintzen digu. Pasai Donibanen 2015ean euskararen kale-erabilera %35 da. Lezon, 2014ean, %35,8. Bi herrietan beraz, euskararen praktika soziala oso antzekoa da. Adinez, aztertuta ikusten dugu haurrak direla, diferentzia handiz, euskara gehien erabiltzen duen adin tartea:

	PASAIA (lau barrutiak)	LEZO
Haurrak 2-14 urte	39,4	55,4
Gazteak 15-24 urte	17,6	16,1
Helduak 26-63 urte	18,8	32,0
Nagusiak >64 urte	8,7	27,3

¹⁴ Soziolinguistika Klusterraren EDB datu basea: <http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=aurkezpena>

Bigarren atala

**Transmisioa eta errua: emakumearen rola euskararen
sozializazioan**

2.1. Sarrera

Genero ikuspegiarekin ikertzeak, hau da, generoa analisi kategoria gisa erabiltzeak, genero harremanak botere harremanak direla ikusarazten ahalbidetzen digu. Euskal Herrian hizkuntzaren esparruan, zenbait diskurtso, irudi eta kontakizun eraiki izan dira euskara eta emakumea lotuz baina, esan genezakeen, gutxitan kontutan hartu izan dela genero eta botere harremanen arteko lotura. “Transmisioa eta errua: emakumearen rola euskararen sozializazioan” izeneko atal honen bidez, euskararen inguruan emakumeari ezarri izan zaio eta, oraindik orain, lotzen zaion paperaren inguruko azterketa burutu dut. Horretarako, XIX. mendetik hona emakumeek egindako lanaren errepaso egin dut, jokatu duten paperaren garrantzia azpimarratuz eta aitortuz.

2.2. Emakumearen rola euskararen sozializazioan

XIX. mendeko nazionalismoetan ohikoa izan zen nekazal mundua erreferentzia idilikotzat hartzea. Euskal Herrian ere baserria hartu zen bertako esentziaren ikurtzat, eta euskal emakume baserritarraren prototipoa eraikitzen. Horren arabera emakumeak ama moduan ikusiak dira eta familia barruko gune zentraltzat hartuak dira: “así aparecen como roles claves aquellos de: cuidadora, transmisora y socializadora” (del Valle, 1999:40). Emakumeentzat etxea, espazio domestikoa, ia leku sakratua da. Euskal iruditegi ideal horretan egitura familiarra oreka-egitura moduan aurkezten da, eta, bertan, emakumeak lekua zentrala duenez andreak burutzen dituzten aldaketak gaizki ikusiak dira.

Euskal emakumearen boterea, beraz, ez da emakume gisa duen boterea, ama den emakumearen boterea baizik: “vemos de nuevo lo femenino confinado a un estado estático, latente, que no siempre alcanza una realización satisfactoria” (Acosta, 2013). Andreak gizarte prestigioa lortzeko bide garrantzitsuena familia unitatea mantentzea eta seme-alabak izatea da. Baina, bestalde, emakumeari lotu izan zaizkio ardura horiek ez dira gizartean balorazio altuena duten jarduerak: “Así, la mujer se encuentra asociada con aquellos elementos identificados con la naturaleza, y que por ser extensibles a todas las mujeres, no se les reconoce un mérito especial” (Del Valle, 1985, 293). Egoera kontraesankor honek mugatzen du emakumeek arlo publikoan bidea egiteko aukera, bere autonomia eta erabakitze ahalmena murriztuz.

Kontraesan hauek baretzeko bidean, euskal matriarkatuaren ideologia estrategia gisa erabili izan da, errealitate sozialean ematen den desberdinkeria konpentsatu nahian. Matriarkatuaren mitoaren bidez euskal kulturaren antzinatasunean euskaltasun mistika bat eraikitzen da (Esteban, 2004:13) eta horrek emakumeen egoera kontraesankorra ezkutatzen laguntzen du:

(...) impidiendo a la mujer ver claramente la situación de contradicción en la que está inmersa y dificultando la iniciación de proyectos y la aceptación de nuevos valores que le permitan definirse desde ella misma como sujeto activo dentro de la sociedad y cultura vasca (Del Valle, 1985:293).

Hala ere, azken hamarkadetan aldaketak eman dira, eta emakume baserritar idealaren irudia indarra handia galdu du. Amatasunaren garrantziaren irudi soziala bizirik irauten badu ere, emakume askok soldatapeko enpleguetan aritzeko aukera dute, eta horrek erabakitze eta boteretzeko ahalmena eman die (ibid: 287). Euskal Herriko egungo andreen errealitatea anitza da, testuinguru soziokulturala bera ere konplexua delako. Horregatik, zaila da emakume figura bakar baten ikuspegia edukitzea, eta, horregatik, antropologiaren begirada lagungarria zaigu emakumeen rola, iruditegia eta praktikak aztertzeke.

Jarraian, azken bi mendetan euskararen inguruan garatu diren prozesu sozialetan emakumeek hartu duen papera aztertzeaz gain, euskararekin lotutako iruditegian feminitateak izan duen tokiaz arituko naiz. Determinismo biologiko eta esentzialismoaren diskurtsoetan emakumearen natura izaera bi muturretan kokatu izan da: batzuentzat (eta batzuetan) aingeru, besteentzat (eta besteetan) deabru. Hau da, askotan, euskararen zaintzeko eta transmititzeko ardura emakumearekin lotzen da, baina, era berean, maiz emakumeei egotzi izan zaio euskararen galeraren errua. Horrela, XIX mende bukaeratik, gutxienez, emakumea eta euskara lotzea konstante bat izan da. Horregatik, euskara eta emakumeen inguruan garatu izan diren diskurtsuak errepassoa egitearekin batera, hizkuntzaren arloan emakumeek izan duten presentzia eta egin duten lana gainbegiratuko dut¹⁵.

Hasteko XIX. mendean emakumeak eskubide unibertsalen aldarrikapenetik, eta ondorioz botere guneetatik, kanpo geratu zirela gogoratzearekin batera, euskarari ere arlo publikoaren ateak nola ixten zaizkion ikusteko aukera izango dugu. XX. mende hasieran, aurretik zetorren pentsamendu ildo horri jarraituz eta euskal nazionalismoaren sorreran bidez euskara emakumearen ardurapean euskararen transmisioa geratu zela konturatuko gara, nolabaiteko euskararen feminizazioa ematen delarik esparru pribatuaren arloan.

¹⁵ Errepasso partziala izango da lan honen luzera muga hala eskatuta. Bestalde, nire ikerketa lana Gipuzkoako bi herritan (Lezo eta Pasaia) egingo denez, testuinguru sozial eta historikoa lantzerakoan, batez ere, Hego Euskal Herriko errealitatea jorratuko dut.

Bigarren etapa batean, 1920. urtetik aurrera, emakumeak familia sozializazio egile izatetik bigarren sozializazioan eskuhartzera pasa ziren, euskarazko irakaskuntza eta literatura esparruan umeak eta gazteak hezitzearen ardura hartuz. 1950eko hamarkadatik aurrera garatu zen mugimenduan, batez ere, eskolen inguruan sortutako dinamika aztertu dut, hor emakumearen presentzia oso nabarmena izan zelako eta gertatu ziren dinamikak ondo azaltzen dutelako emakumeari ematen zaion transmisore rola eta ukatzen zaion protagonismo publikoa.

Azken hiru hamarkadetan euskararen biziberritze prozesuan urrats garrantzitsuak eman dira, baita emakumearen askapenerako dinamiketan ere. Ikusiko dugun bezala, bi mugimenduak modu paraleloan garatu dira eta euskararen aldeko lanean emakumeen presentzia nabarmena izaten jarraitu badu ere, botere eta ardura publikoetako guneetan ikusezintasuna mantendu da eta euskararen transmisioaren ardura eta rola bizirik iraun du elementu sinboliko batzuen bidez.

2.2.1. XIX. mendeko pentsamendu modernoa: euskara eta emakumeak etxera

*Aspaldian, Joxepa,
famatua zeunden,
gu berriz ikusteko
desiotan geunden;
Hondarribi aldian
aditzen genduen
dama bertsolari bat
nola bazegoen
zeiñak euskalerrian
parerik etzuen¹⁶.*

Indalezio Bizkarrondo *Bilintx* bertsolariak egindako bertso horretan XIX. mendean Hondarribian Joxepa izeneko bertsolari bati buruz hitz egiten digu. Garai hartan famatua izan arren, Bilintxen bertso horiek dira emakume bertsolari honen dugun erreferentzia bakarra. Ez da Joxeparen bertsorik iritsi geurera, ezta plazetan aritzen zen beste emakumeren erreferentziarik ere (Larrañaga, 1997:63). Jakin badakigu, XIX. mendean zehar emakumeak bertsotan eta bestelako literatura alorretan aritzen zirela¹⁷, baina, oso eskasak dira guregana iritsi diren aipamenak eta izenak. Antzeko panorama agertzen zaigu garai hartako euskal literaturan. Bi erreferentzia besterik ez dira azaltzen, Bizenta Mogel-ek 1804ean idatzitako *Ipui onak* liburua eta Frantziska Inazia Arrue-ren *Euskaldunen Bikaintasuna* 1887koa (Olaziregi, 2003). Mende horretan zehar emakumearen ahanztura eta bazterketa oso nabarmena izan zen,

¹⁶ Bilintx (1831-1876) egindako bertso baten zatia da hori. Hondarribiko Joxepa izeneko bertsolari ezagun bat omen zen baina ez zaigu bestelako erreferentziarik iritsi (Larrañaga, 1997:62)

¹⁷ 1895ean Lore Jokoetan parte hartu zuten Marie Argain Kanboko eta Maria Etchegaray Hasparrengo aipatzen digu Carmen Larrañagak (ibid, 1997:63)

eta Euskal Herrian eman zen beste dinamika baztertzailer batekin batera gertatu zen: euskararen bazterketa.

Europar XVIII. mende amaiera arte ez da nazio eta hizkuntza arteko erabateko identifikazioa ematen (Burke, 2004:76). Aurreko mendeetan hizkuntzen artean gatazkak eta dinamika ezberdinak gertatu ziren, eta estatu eta inperio boteretsuenek hizkuntza zehatz batzuen aldeko indarra egin zuten (frantsesa, ingelesa, alemaniera, gaztelania...), baina XVIII. mende erdialdetik aurrera estutu ziren hizkuntza eta nazioaren arteko harremanak¹⁸. Peter Burkerentzat garai honetan egin zen “hizkuntzaren bigarren aurkikuntza”:

Basado esta vez en la unidad en lugar de la variedad, como sucedía en los siglos XVI y XVII, y vinculado al descubrimiento o, como prefieren llamarlos algunos investigadores, a la “invención” de la nación (Burke, 2004:185)

Garai horretatik aurrera, beraz, nazioa hizkuntza bakar bat duen komunitatearekin lotuta agertzen zaigu. 1789tik Estatu Zentralaren garaia abiatzen da eta antolaketa politiko berri honen bidez garatzen diren erakundeek hizkuntza bakar baten eredia indartu egiten dute: nazio-armada, hezkuntza unibertsala eta komunikabideak. Euskal Herrian ere, Estatuko erakunde zentralista horiek frantsesa eta gaztelania ezartzeko lan handia egin zuten. Hezkuntza arloan islatzen da hoberen hizkuntza-ordezkapen prozesu bortitz hori, eta Espainiar Estatu mendeko euskal lurraldeetan, esaterako, gaztelaniazko alfabetatzea askoz zabalduago egon zen Espainiako gainontzeko tokietan baino:

El hecho de que las tres provincias Vascongadas y Navarra figuren entre los primeros lugares respecto al resto del Estado en lo que se refiere al nivel de alfabetización en castellano, nos parece sintomático para detectar el grado de penetración en las escuelas del modelo liberal uniformador del sistema de enseñanza, y la progresiva pérdida del euskera como vehículo de una cultura alfabetizada, manteniéndose en su oralidad. De esta manera se diferenciaban dos ámbitos culturales asociados a lenguas distintas: el euskera queda relegado al ámbito de la familia y la religión en tanto que el castellano será mediador en las entidades públicas (Davila eta Zabaleta, 1990; in Fernandez 1994:12-13).

Euskara, beraz, eredu ilustratu horren arabera emakumeei “dagozkien” esparruetara bideratzen dute. Izan ere, pentsamendu modernoaren hiritar berria gizonzkoa da. Hiritartasunetik emakumeak baztertuak izan ziren eta eskubide naturalak dituen norbanakoa, soilik, gizon heldua da. Jean-Jacques Rousseau-ren *Emilio* tratatu pedagogiko ezagunean hezkuntza bidea neskentzat erabat itxita geratzen ez bada ere, emakumeei zuzendatutako irakasgaiak erlijioa,

¹⁸ Peter Burke-k jartzen duen adibide honetan argi ikusten da eboluzioa: “En el imperio de Carlos V las cartas oficiales solían escribirse tanto en latín, francés e italiano como en español y alemán” (Burke, 2004:76). XVIII. mendean, ordea: “Carlos III de España decretó que en su reino circulara una única moneda y se hablara una única lengua” (ibid., 185)

familia, zaintza eta etxeko lanei bideratzen dira. Horren adibidea da, Espainiako 1857ko Moyano Legea¹⁹. Lege honen 5. artikuluan zientzia ikasketak alde batean uzten dira emakumeentzat:

Art 5º: En las enseñanzas elemental y superior de las niñas se omitirán [la Agricultura, la Industria, el Comercio, la Geometría, el Dibujo Lineal, la Agrimensura, la Historia y la Geografía] reemplazándose con:

Primero. Labores propias del sexo.

Segundo. Elementos de Dibujo aplicado a las mismas labores.

Tercero. Ligeras nociones de Higiene Doméstica. (Jagoe et al, 1998:148)

Ikusten da, beraz, Euskal Herrian hizkuntza-ordezkapen prozesua eta emakumeen bazterketa era paraleloan gertatu zirela. Biak esparru publikotik at geratu ziren, edo beste hitz batzuekin esanda, modernitateak euskara eta emakumeak etxera bidali zituen. Egon ziren, hala ere, XIX. mendean zehar bi arlo horietan bazterketa dinamika horien aurkako mugimenduak. Mende horretan Estatu Espainiarrean emakumeen heziketa aldarrikatu zutenen artean Emilia Pardo Bazan litzateke ezagunena, eta, Gasteizen jaio zen Maria de Maeztu pedagogoa ere emakumeen hezkuntza librea defendatuz nabarmendu zen²⁰. Bestalde, Agustin Paskual Iturriaga edo Luis Astigarraga pedagogo liberalak aipatu ditzakegu euskararen irakaskuntza eta euskarazko eskolen alde lanean aritu zirenen artean. Bi eskakizunak batera aldarrikatu zuenik, ordea, ez zaigu iritsi gurera. Baina liberalismo eta tradizioaren arteko borroka urte haietan, euskararen alde eta emakumearen eskubideen alde egindako lanak XX. mende hasieran nolabaiteko uztardura eduki zuten, euskal nazionalismoan militatu zuten emakumeen bidez.

2.2.2. XX. mende hasiera: euskal nazionalismoaren hasierako planteamenduak emakumeari buruz

*Zuk hazitako semeak,
zuk egindako ikurriñak
lortu-iragarriko dabe
Euskadi-askatasuna.
Itxartu, eusko alabea;
jagi, ba, emakumea!*

“Itxartu eusko alabea, jagi, ba, emakumea!” aldarrikatzen zuen Sorne Unzueta-k 1931n idatzitako olerki batean (Unzueta, 1931) eta, gaur egungo begiradarekin deia, eta olerkiak bera ere, gehiegi harritzen ez badigu ere, garai hartan eta aurreko hamarkadetako testuinguruan hitz

¹⁹ Moyano Legea Frantziako ereduari jarraituz lege zentralista eta homogeneizatzailea izan zen. Espainian zegoen analfabetismo tasa handiari aurre egiteko jaio zen eta hurrengo 100 urtetako espainiar Hezkuntza Sistemaren oinarria bihurtu zen.

²⁰ Maria de Maeztu 1888an jaio zen Gasteizen eta irakasle izateko ikasketak egin zituen Salamancan, Filosofia eta Letren Fakultatean. 1915.urtean Madrilen Nazioarteko Andereñoen Egoitza sortu zuen.(Razkin, 2016)

horiek adierazgarriak ziren. Euskal nazionalismoaren lehen hamarkadak ziren, baina urte gutxi horietan gizarte eta politika mailan aldaketa sakonak eman ziren. Testuinguru horretan euskal nazionalismoa sortu eta hazi egin zen, sekulako indar soziala lortuz, eta emakume abertzale askok toki propioa aldarrikatu eta topatu zuten identitate femeninoa eraikitzeke eta garatzeko, euskarak zentralitatea eta garrantzia handia hartuz.

Euzko Alderdi Jeltzalea izeneko alderdi politikoa Sabino Arana Goirik sortu zuen 1895. urtean. XIX. mendearen nazionalismo erromantikoaren funtsetan oinarritutako alderdi kristaua eta errepublikarra zen eta, Mercedes Ugalde-k dionez, garai hartan Euskal Herrian eman zen industrializazio prozesu azkarraren eraginaren aurkako mugimendu gisa sortu zen (1995:140). Euskal hiri burgesiaren zati batek, nazio eraikuntzaren proiektu honen bidez, bat bateko industrializazioak eta Karlista Gerren ondorioz galdutako foruek eragindako krisiari aurre egin nahi izan zion.

Hasiera batean euskal ezaugarri esentzialak omen zirenak (arraza, erlijioa, hizkuntza, ohiturak eta lege tradizionalak) kontserbatu eta biziberritu behar zirela aldarrikatzen zuen mugimendu antiliberal eta antisozialista zen. Leheneago aipatu dudan bezala, nekazal mundu idealizatua nazionalismoaren erreferentzia gisa ageri zaigu, baserria eta bertan bizi zen familia ideal honen oinarri bihurturik. Gizon baserritarra arrazaren prototipoa zen eta emakumeak arrazaren eta euskal ezaugarri esentzialen erreproduktzioaren funtzioa zuen (ibid:141). Ideologia nazionalista honetan modernitatearen pribatua/femeninoa eta publikoa/maskulinoa dikotomia *etxeko andre* eta *etxeko jaun* figuren bidez irudikatzen dira (Llona, 2002:169). Kontsideratu daiteke, hortaz, mugimendu nazionalistaren modernitatearen ezaugarri bat aberriaren eraikuntza prozesuan emakumeari paper bat ematea dela.

Paper hori modernitatearen testuinguru katolikoak emakumeentzat ezartzen duen ezaugarriekin bat egiten du: fedea, tradizioa, iragana eta erlijioa. Hala ere, testuinguru protestanteak emakumeari uzten dion espazioa edo feminitatearen ikuspegi berritzailea euskal nazionalismoak erreproduzitzeko nahia ere ageri zen. Nerea Aresti-k azaltzen duen bezala, ikuspegi liberal protestante honen arabera, amatasunaren bidez emakumea familiaren erdiguneko elementua bihurtzen da, gizonak baino moralitate eta espiritualitate handiagoa duela kontsideratuz (Aresti, 2000:364).

Hasieratik euskal nazionalismoak, garai hartako beste nazionalismoekin bat eginez, amatasunaren aldarria egingo du. Ugaldek dio Sabino Aranak amaren paperaren garrantzia azpimarratu zuela:

La importancia que para Sabino Arana tenía la raza otorgó también a las mujeres un papel de extraordinaria importancia en el nacionalismo vasco ya que a través de la maternidad ellas tenían en sus manos no sólo la socialización nacionalista de las nuevas generaciones sino además la pervivencia o muerte física de la raza o, lo que venía a ser lo mismo, la pervivencia o muerte del proyecto nacionalista. De ahí la preocupación de Arana y de sus seguidores por convencer a las mujeres de que debían evitar los «matrimonios mixtos» y de ahí también la exaltación y sacralización que llevaban a cabo de la maternidad vasca, con la trascendental aportación de la religión católica y de su mitología mariana (Ugalde, 1995:141)

Emakumea, beraz, amatasuna, tradizioari eta erlijioari atxikitua agertzen zaigu nazionalismoaren sorreratik, diskurtso katolikoa eta liberala nolabait nahastuz. Amatasunaren diskurtsotik abiatuta, beraz, euskal nazionalismoak toki bat eman zion emakumearen ekintzari, nahiz eta ekintza hori esparru mugatu batera murriztuz. XX. mendearen hasieratik, beraz, Eusko Alderdi Jeltzaleak emakumearen akziorako espazioak eta mugak ezarri zituen. Modernitatearen eredu binarioaren arabera, emakumearen esparrua emozio eta sentimenduekin lotura duen guztiari atxikitzen zaio. Emakumearen ekintza abertzalea, beraz, “bihotzarekin” lotzen da. Gizonaren ekintza, ordea, esparru politikoa da, pentsamendu arrazionalaren alderdia. Eusko Alderdi Jeltzalearen lelo nagusia zen “Jaungoikoa eta Lagi Zaharra” baliatuz 1908an Ramón Bikuña-k muga hauen zehaztapenak egin zituen. Llonaren azterketaren arabera, “Jaungoikoaren” esparruaren transmisioa emakumearen ekintzarako espazioa dela argi ikusten da “Practicarlo: todos; propagarlo: nadie mejor que vosotras. Y aquí encajan las instituciones benéficas, roperos vascos, escuelas dominicales, enseñanza del catecismo en Euskera” (Llona, 2002:171). “Lagi Zaharra”, aldiz, esparru politikorekin lotutako kontzeptua da, baina Bikuñak topatzen du horren barnean emakumeentzat egokia izan daitekeen espazioa: hizkuntza²¹.

No se os va a pedir que subáis encima de una mesa y que endilguéis discursitos mitinescos, ni se exige de vosotras que vayáis estaca en mano a velar por la pureza del sufragio en caso de elecciones, no (...) Pero el cocepto lagi zaharra entraña varios extremos en alguno de los cuales podéis laborar. Me refiero al idioma (ibid.).

Modu horretan, ekintza sozialaren (femeninoa) eta ekintza politikoaren (maskulinoa) arteko banaketa artifizial bat ezartzen da. Hala ere, muga hauek erretorikoagoak dira praktikoak baino eta etengabeko berdefinizioan egon ziren (ibid.). Euskararen transmisioa, beraz, emakumearen ekintza sozialaren oinarri bat bihurtzen da, eta horrek genero rolak eta botere harremanak mantentzeaz gain, nazionalismoaren difusioan gizarte kide guztien inplikazioan laguntzen zuen.

²¹ JEL leloaren “berinterpretazio femenino” hau ondo islatutako geratzen da Sorne Unzuetaen “Itxartu, eusko alabea!” bertsoaren zati honetan: “Geure goiko Jaun onari egin otoi, euskeraz, eskatu, Euskadirentzako betiko askatasuna, geure Aita bigun onak entzungo deusue-ta”. Erljioa eta euskara aberriaren askatasunaren ardatz gisa zehazten ditu eta hurrengo lerroetan ere euskara eta “euskal baloreen” transmisioan intsititzen du “olerki aberkoiak” eta “eusko abesti gozoak” abesteko eskatuz (Unzueta, 1931)

Teresa del Valle-k *Mujer vasca* liburuan dioen bezala, arrazaren erreprodukzioari begira emakumea amatasunarekin eta familiarekin lotuta agertzen zaigu, baina kontzientzia nazionala eta hizkuntzaren transmisioaren funtzioa ere bere ardurapean geratzen da seme-alaben heziketaren bidez:

Podemos decir que el nacionalismo histórico presenta una imagen de mujer vasca asociada a su rol de madre y cuyo espacio fundamental es el familiar. Sus valores se concretan en ser buena educadora, capaz de crear futuros patriotas, mujer fuerte que en los momentos difíciles sea consuelo y alivio, buena organizadora de su casa e incansable trabajadora, atenta al mantenimiento de la cohesión familiar, así como de la moral cristiana y las buenas costumbres. Es la madre que mantiene la raza a través de su descendencia, pero también de ella depende la conciencia nacional y el mantenimiento de la lengua que actúa como símbolo de identidad nacional, mediante la actuación inmediata en la educación de los hijos (Del Valle, 1985:233)

Baina del Valleren testu horretan ikusten den bezala, hasiera batean gutxienez, hizkuntzaren transmisioa seme-alaben heziketarekin lotzen zen. Hasierako planteamendu haietan emakumearen ardurak euskara kontuetan ere etxearekin eta zaintzarekin lotuta jarraitzen zuen. Ainhoa Acosta-k aipatzen dituen Lopez Alen idazle donostiarrak 1907an idatzitako hitz hauek argi erakusten dute euskaltzale ziren gizon haien planteamenduak:

A la reunión celebrada sobre el vascuence hemos de hacerle presente, ante todo, que el vascuence se debe hablar en ambas clases, entre los de arriba y entre los de abajo; lo mismo debe hablarlo la mujer que viste sombrero, que la que lleva mantilla, que la que no lleva nada. El vascuence, si se quiere que subsista, es preciso que se hable en la familia, y que se oiga lo mismo en la cocina como en el gabinete de la señora. Por eso hemos citado el caso femenino: en todas las casas vascongadas es preciso rendir pleito homenaje a la lengua vascuence (Acosta, 2013)

Gizarte-klaseaz gainera emakumeen izaerak berdinduz, nazionalismoaren inguruan mugitzen ziren gizon hauek etxe giroari lotutako euskararen ardura ematen zieten emakumeei. Acostak aipatzen duen bezala, Lopez Alenen hitzetan espazio pribatua eta publikoen arteko mugak ezarrita geratzen dira “es preciso que se hable en la familia, y que se oiga lo mismo en la cocina como en el gabinete de la señora”. Beti ere, emakumearen tokia etxea dela garbi zehaztuz “Por eso hemos citado el caso femenino: en todas las casa vascongadas es preciso rendir pleito homenaje a la lengua vascuence”. Acostak ondorioztatzen duen moduan nazionalismoarekin batera euskara feminizatu zela esan dezakegu “el euskera se ‘feminizó’ en cierto modo, de acuerdo con las esferas de la vida diaria en las que se hizo uso de él y su estatus en la sociedad del momento” (ibid).

Izan ere, garai hartan euskara gutxiagotutako hizkuntza zen eta botere esparruetatik erabat kanpo zegoen. Geroz eta indar ekonomiko eta kulturala handiago zuten hirietan euskararen presentzia oso txikia zen. Euskaraz mintzatzen zuen landa eremua, aldiz, bigarren mailan

geratzen ari zen. Aritz Farwell ikerlariak baieztatu ahal izan duenez XX. mendeko hasiera hartan:

Euskal gizartean iritzi zabala zen euskararen modernitaterako eta progresurako gaitasun eza: alderdi politiko eta intelektual progresistentzako —errepublikanoak, sozialistak, liberalak.— ideia eta bizitza eredu berriak zabaltzeko oztopoa zen; hots, gehienek esaten zuten euskara ez zela erabiltzen ari ideia modernoak, abstraktuak edo jazoak adierazteko. Alderdi edo intelektual kontserbadoreek ere —karlistek, abertzaleek, monarkikoek— pentsamendu bera zuten, horientzat ere euskara ideia eta bizitza eredu berriak zabaltzeko oztopo bat zen; azken finean, ideia ezmorealen aurkako ezkutu bat. (Farwell, 2016)

Nazionalismoaren hastapen haietan, beraz, ahulduta dagoen hizkuntzaren feminizazioa ematen da, eta, hala ere, emakumeei euskararekiko ardura mugatua zen. Horretaz jabetzeko XIX. mende amaieratik euskararekin lotutako gizarte jarduera publiko guztietako protagonismoa eta boterea gizonezkoena zela ikustea besterik ez dugu: 1901. urtean sortutako Euskaltzaleen Biltzarra, 1918an jaio zen Eusko Ikaskuntza edo urte bat beranduago sortutako Euskaltzaindia erakundeetan emakumerik ez zaigu ageri. Dena den, beste arloetan bezala euskararen esparruan ere emakume eta gizonen artean ezarritako mugak hainbat emakumeren ahaleginaren bitartez gainditu ziren.

2.2.3. Emakumeen lehen urrats publikoak euskararen arloan

Esan bezala, beraz, euskararen arloan ere emakumeari etxeko bidea erakusten zaio jarduera publikorako hormaren atea itxiz. Dena den, emeki-emeki pitzadurak sortzen hasi ziren murrurrun horretan, batez ere, irakaskuntza eta literaturaren bitartez.

XX. mende hasierako Euskal Herrian emakumeak irakasleak izatea ez zen gauza arraroa. Ugaldek aipatzen digunez “Para 1909 (...) la carrera de Magisterio se había prácticamente feminizado en Bilbao. En 1901 se había cerrado la Escuela de Maestros y en 1902 se inauguraba la Normal Femenina.”(Ugalde, 1995:78) Baliabide ekonomikoak zituzten emakume gazteentzat lana egiteko aukera erakargarria zen, eta zainketa eta heziketari zuzendutako profesioa izanik, garai hartako gizarte diskurtsoetan ondo egokitzen zen. Beraz, nazionalismoaren inguruko emakume ugari arlo publikoan txertatzeko aukera izan zuten magisteritza ikasketen bidez. Horren adibide dira Eusko Abertzaleen Batzain nabarmendu ziren hainbat kide: Polixene Trabudua, Sorne Unzueta, Elbira Zipitria eta abar. Lehen bi hamarkadetan irakasle lana egiten zuten emakume horietako askok lehen euskarazko eskolen sorreren protagonistak izan ziren.

Literatura arloan emakumearen presentzia ez zen hain nabarmena izan edo, agian, ez zaigu nahiko informazioa iritsi garai hartan emakume askok izengoitiekid idazten baitzuten. Hala ere, Euskal Jaietako eta Lore Jokoak izeneko literatura lehiaketetan hainbat emakume parte hartzen hasi ziren. Gauza bera gertatzen da, *Euskal Esnaleak* edo *Euskalerriaen Alde* bezalako aldizkarietan antolatzen zituzten sariketetan eta bultzada honi esker zenbait emakume publikoan idazten hasi ziren²². Prentsaren arloan, 1906an *Aberri* aldizkariak emakumeei bere idatziekin parte hartzeko egin zuen deialdia kontsideratu izan da esparru honetan eman zen lehen urratsa. Antzerkia ere abertzaletasunaren idealak transmititzeko esparru egokitzat hartzen zenez hainbat emakumek antzerki lanak itzuli eta idatzi zituzten. Izan ere, garai hartan antzerki lanetan helburu didaktiko garbia zegoen eta xede hau sentimenduen bitartez lortzen zenez (Ugalde,1995:182) emakumeari lotzen zitzairen ezaugarriekin bat zetorren esparrua zen. Euskaraz idazten zuten emakume horietako askok, urte batzuk beranduago alor politikoan aritu ziren mitinak ematen, diskurtsoak idazten edo propaganda egiten Emakume Abertzaleen Batza erakundearen bidez.

Euskal nazionalismoaren barruan politikoak kontsideratu daitezkeen lehen mugimendu antolatuak 1919tik aurrera sortu ziren eta 1922an Emakume Abertzaleen Batza (EAB) jaio zen. Urte hartan nazionalismoan bi sektoretan banandua zegoen eta EAB “Aberria” izenez deitzen zen sektorearen partaide zen Elias Gallastegik bultzatuta sortu zen (Ugalde, 1995:143). Irlandan Sinn Féin alderdi barruan jaio zen C'umann na mBan edo Emakumeen Liga izeneko erakundea eredu hartuta EABk helburu bat zeukan: gizonen politikan egiten zuten lanaren osagarri izatea, beti ere gizonen aurretik jartzeko asmo barik. Horixe zen, behintzat, emakume horientzat nazionalismoak ezartzen zuen muga berria. Hainbat jarduera garatu ahal izan zituzten hezkuntza, propaganda eta ongintza esparruetan, emakumeei eta hurrei zuzendutako formazio ikastaroak antolatu zituzten eta agerraldi politikoetan parte hartzeko aukera izan zuten.

Emakume hauen zeregin nagusia amatasuna eta tradizioari lotuta jarraitzen bazuen ere, mende hasieran ezarri zitzairen ekintzarako esparru estua zabaltzea lortu zuten. Hogeigarren hamarkadan nahiko ohiko bihurtzen hasia da abertzaletasunaren inguruan mugitzen diren emakume batzuk irakasle eta hirugarren sektoreko zenbait lanetan edo/eta idazle gisa aritzea.

²² Hauek dira Amaia Alvarez-ek aipatzen dituen horietako batzuk: Petra Belaustegi, Maria Artiñano, Rosario Artola, Errosa eta Basilia Bustintza, Katalina Elizegi, Sorne Unzueta, Maria Dolores Elizondo, Inazia Pradere Arruti, Tene Muxika, Maria Dolores Agirre, Maria Etxabe, Rufina Azkue, Joakina Garaialde Julia Gabilondo, Maddi Ariztia, Maria Pilar Lekuona, Josefa Martiarena, Juiene Azpeitia, Julia Fernandez Zabaleta.

Dena den, EABren lehen etapa hau oso motza izan zen, 1923an Primo de Riveraren diktadura ezartzearekin batera desagertu baitzen.

Baina zenbait arloetan EABk piztutako mugimendua ez zen ahuldu eta hizkuntzarekin zuzenean lotutako heziketa eta eskolaren arloak 1920 eta 1930eko hamarkadetan garapen handia eduki zuen. Izan ere, Idoia Fernandezek *Oroimenaren hitza* lanean aipatzen duen moduan EABren sorrerak aldaketa nabarmena ekarri zuen: “emakumea familia sozializazio egile izatetik bigarren sozializazioan eskuhartzera pasatzen da, umeak eta gazteak mobilizatzeko eta hezitzearen ardura ematen zaielarik”(Fernandez,1995:36). Ikusi dugun bezala, aurreko urteetan hainbat eta hainbat neska gazte etxeko horretatik ateratzen hasiak ziren magisteritza ikasketak egiteko eta eskoletan lanean hasteko. Emakume hauetako asko EABren kideak ziren eta erakunde honen sortze manifestuan heziketaren lana nabarmentzen da:

A este efecto creará clases y fundará escuelas para niños, fomentará su literatura adecuada con cuentos, narraciones, lecciones, etc; iniciará el teatro infantil, cultivará su inteligencia con clases de solfeo y piano; ordenará sus aficiones con grupos de hilandera, ezpatadantzaris y juegos propios; creará su amor a la lengua, estableciendo clases de euzkera y preparará a la mujer patriota con enseñanzas prácticas, labores domésticas etc. (Fernandez,1995:36)

Gaur egungo begietatik planteatzen zen heziketa eredu hori zalantzazkoa izanik ere, ohartarazi behar da emakume nazionalista hauentzat aurrera pauso eta aitortza nabarmena izan zela. Bestetik, ikusten da heziketa ardura honen barruan euskarak garrantzia duela. Emakumearen arloa kontsideratua izan zena berriro agertzen zaigu nabarmenduta “bihotzarekin” estuki lotuta: “creará su amor a la lengua”.

Aurretik euskaraz irakasten zuten eskola batzuk sortuak baziren ere²³, Eusko Ikaskuntzak 1918an euskal irakaskuntzaren beharra zabaldu zuenean “euskal ikastetxe” gehiago zabaldu ziren Euskal Herriko txoko ezberdinetan²⁴. Gainera, Primo de Riveraren diktadurak ezartzen zituen debekuen gainetik emakume nazionalisten jarduera 1920ko hamarkada osoan zehar mantendu zen kultur eta euskararen aldeko elkarteak ugarituz. Baina, batez ere, Espainiako Bigarren Errepublikarekin batera iritsi zen arlo honetako mugimendu indartsuena 1932an Eusko Ikastola Batzaren (EIB) sorrerarekin. Prozesu honetan emakumeak protagonistak izan ziren ikastoletako maistra guztiak EABko militanteak baitziren. Gainera, garaiko udal eta auzo eskoletako maistra asko ere erakunde honen kideak ziren (Fernandez, 1995:37).

²³ Idoia Fernandezek jaso ditu 1884tik sortu ziren horietako eskola proiektu txikien erreferentzia batzuk (Fernandez, 1995:21)

²⁴ Ordu arte hezkuntza antolaketa Estatuak zentralizatuta zuten, eta Hego Euskal Herrian heziketa ofiziala gaztelaniaz garatzen zen. Eusko Ikaskuntzak 1918an Oñatin burutu zuen lehen batzarrean eskola eredu horrek euskararentzat ekartzen zuen kaltea salatu zen eta ikasleek euskaraz ikasteko eskubidea eta beharra aldarrikatu zen. Hortik aurrera sortuko ziren euskarazko eskola eredu ezberdinak (ibid.:18-19)

2.2.4. Garai berritzaileak eta etxerako itzulera

Aurreko hamarkadetan hasi eta hazi zen mugimenduak 1930eko hamarkadan ikusgarritasun handia hartu zuen emakumea subjektu sozial gisa ikusaraziz. Heziketa eta eskola arloan emakume nazionalistek protagonismoa eta zentralitatea hartu zuten²⁵, baina ez zen hori izan esparru bakarra. Mende hasierako diskurtsoetan gizon eta emakumeen artean ezarritako muga zurrunean zirrikituak asko agertzen hasiak ziren eta Espainiako Bigarren Errepublikak gizarte arlo guztietan ekarri zuen ez tandarekin, eta, zehazki, euskal nazionalismoak lortu zuen gizarte atxikimendu zabalarekin batera emakume nazionalistek ordurarte aitortzen ez zitzairen subjektu politiko garbia eskuratu zuten. 1931n Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatu eta gutxira AEB birsortzen da aurreko urteetan emakumeek itzalean egindako lana argitara indarrez agertu zen.

Bestetik, ekintza politikoan zenbait molde apurtzen dira eta emakume hauek propagandan, mitinetan eta bestelako aldarrikapen jardueretan protagonismo handia hartu zuten, emakume kontzientzia eta espazio publikoaren mugen transgresioa agertzen direlarik (Llona, 2002:199). Horren adibide argia da 1932ko Aberri Eguna. Lehen aldiz emakumeak eta gizonak elkarrekin parte hartzen zuten horrelako manifestazio handi batean, eta, garai hartako pentsamenduarekin bat eginez, gertaera horrek “inteligentzia” eta “bihotzaren” arteko batuera gisa ulertu zen. Llona jasotzen dituen garai hartako “Las emakumes y el día de la Patria” testuan hala dio:

Todas las idas y venidas del Partido Nacionalista (...) estaban saturadas del frío raciocinio; pero hoy en día se ha incorporado la mujer, se ha formado la personalidad completa, se ha unido el corazón representado por la mujer para darle calor y hacerle sentir y amar. Todo está junto, inteligencia y corazón (Llona, 2002:188)

Hitz hauek emakume eta gizonen arteko ustezko ezberdintasun naturalen gainean eraikitako diskurtsoak badira ere, mende hasieran ekintza politikorako emakumeei ezarritako harresia gaituta geratzen da. Murrua ez da desegin baina emakume askok debekatuta zuten aldera salto egin zuten eta euskal nazionalismoaren gizonen errealitate berria onartu behar dute. Honek, hala ere, ez zuen diskurtsoetan erabateko haustura ekarri, emakumeei zuzendutako mezuak amatasunarekin, bihotzarekin eta erlijioarekin lotuta jarraitzen baitzuten eta, gainera, 1936an piztuko zen gerrak atzerakada nabarmena ekarri zuelako bai genero berdintasunaren arloan, baita euskararen aldeko dinamiketan ere.

²⁵ Urte hauetan sortu zen Euzko Ikastola Batza izeneko eskola antolaketa berritzailearen (hizkuntza eta pedagogia ikuspegitik) eragile nagusia EABko emakumeak izan ziren (Fernandez, 1995:25)

Ikusten ari garen bezala, XX. mendean zehar emakumearen jarduera mugatua izan arren, baimentzen zieten arloetan oso modu aktibo eta eraginkorrean aritu ziren. 1936an Espainiako Gerra piztu zen arte, zalantzarik gabe, etxeko esparrutik arlo sozialera modu aktiboan pasatzeko aukera onena irakaskuntza arloa izan zen, Polixene Trabudua-k memoria liburuan azaltzen duen bezala:

Si en algún período de mi vida fui idealista pura, de religiosidad sin duda, fue cuando, recién obtenido el título de maestra en la Escuela Normal de Bilbao, fui nombrada Andereño de la primera Ikastola de Sondika (Trabudua, 2002:71)

Baina gerra eta frankismoarekin batera irakaskuntza jarduera hori klandestinitatera pasa zen. Euskararen erabilera publikoa debekatu zen, eta, hizkuntza etxeko arlora murriztu zen. Horrek, euskaraz irakasten zuten emakumeen lana ezkutatzea ekarri zuen arren, ez zuen hasitako lana erabat desgitea lortu. Espainiako Gerra ondorengo urteetan 1940ko hamarkadan erregimen politiko diktatoriala ezarri zen Espainian eta errepresioa nagusitu zen gizarte eta kultura arlo guztietan. Euskararen erabilera arlo publiko guztietan debekatu zen, eta emakumeen eskubideak erabat murriztuak geratu ziren. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, gainera, mendebaldeko herrialdeetan emakumea etxera itzultzeko mugimendua zabaldu zen: gerra aurretik eta gudan bertan emakumeek egiten zituzten lanak eta okupatzen zituzten espazio publikoak murrizteko joera eman zen. Hego Euskal Herrian, bi ezarpen horiei beste bat gehitu zitzaion: gerra aurretik irakasle izandako emakume gehienei lanbide horretan jarraitzeko debekua ezarri zieten, edo hare larriago: batzuk fusilatuak izan ziren, beste batzuk atzerriratuak eta hainbatek erbestera ihes egin behar izan zuten (Abasolo et al., 2004:54).

Euskara, beraz, familia eremura mugatua geratu zen berriro ere, eta hor sortu zen zirrikituak ondoren garrantzi handia izango zuen euskararen biziberritze prozesuan: etxe-eskolak. Eskola hauek etxe partikularretan eratzen ziren modu ez-ofizialean. Eredu honen baitan zegoen ideologia “familiarren ideologia” zen: “nazionalismo tradizionalari jarraiki, eta, horretan, emakumearen ama funtzioa, hizkuntza eta tradizioaren kontserbatze funtzioa eta elebitasunezko planteamenduak gorpuzten ziren” (Fernandez, 1994:44). Etxe-eskola horien erreferentzia nagusia Elbira Zipitria donostiarra izan zen. 1942tik 1946 arte Donostiako familia ezberdinen seme-alabeei etxez-etxe eskolak eman zizkien. 1946an bere etxe-eskola sortu zuen eta 20 urtez aritu zen bertan eskolak euskaraz ematen eta beste emakume gazteak formatzen²⁶ (Abasolo et al., 2004:75).

²⁶ Ziptriarekin formatu ziren irakasle horietako batzuk, ondoren, herri ezberdinetako ikastolen sortzaileak izan ziren (Abasolo et al., 2004:75)

Etxe-eskola hauetan aritu ziren emakumeak²⁷ 1920ko hamarkadan emakumeek abiatutako mugimendua (autarkia frankista suntsitu zuena) eta, 1960ko hamarkadatik aurrera sortuko diren ikastolen arteko lotura egin zutela esan daiteke, berriro ere, hizkuntza eta kultura transmisio ardura beraien gain hartuz²⁸. Azpimarratzekoa da eskola hauetan hezkuntza funtzioa betetzen zuten emakume komunitatearen nortasuna oso nabaria dela (Fernandez, 1994:158). Emakume sareen bidez antolatu ziren etxe-eskolen funtzionamendurako behar ziren alderdi guztiak: egoitzak, kuotak, jaiak... Zaintzaz eta heziketaz arduratzen diren emakumeak dira, emakumeei zuzendutako rola betetz, baina kudeaketarako autonomia handia edukiz. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zait aipatzea urte hauetatik aurrera garatu zutela euren lana Euskal Herriko antropologiaren oinarritzotzat hartzen diren bi pertsonak: Joxemiel Barandiaran eta Julio Caro Baroja. Eta, bi hamarkada beranduago argitaratuko ziren euren lanetan ere emakumea eta hizkuntza transmisioa eta sozializazioarekin bidez lotuta agertzen da.

2.2.5. 1960ko hamarkada: berritze prozesuen aktibazioa

Aurreko bi hamarkadetan garatu ziren ekimen sakabanatuek euste funtzioa izan zutela esan genezake. Euskara eta euskal kulturarekiko errepresioa gogorra zen, gerra aurretik sortutako ekimenak deseginda zeuden eta, hortaz, zirrikituak bilatu behar izan zituzten hizkuntzaren ordezkapen prozesua nolabait eusteko. 1960ko hamarkadan aldaketa nabarmenak eman ziren Europan zehar, eta Estatu espainiarrean ere eragina izan zuten. Politikan, ideologian eta ekonomian arloan gertatutako mugimenduek euskararen berreskuratze prozesuan eragina izan zuten, baita genero arloan ere. Euskal politikan haustura moduko bat gertatu zen gerra ondorengo belaunaldiko gazteek euskal kultura eta euskararen alde EKIN²⁹ sortu zutenean. Mugimendu berri honek hizkuntza jarri zuen euskal identitatearen erdigunean eta euskalduntze prozesu aktiboago bat aldarrikatu zuen: “euskararik gabe ez dago Euskal Herririk”. Gazte hauentzat etxe-eskolen eredia hauspoa eta inspirazioa izan bazen ere, urrats handiagoak egiteko nahia zabaldu zen “eskola saio hori emakumeen sareetatik kanpora *kaleratu* behar honek Zipitriak ezartzen zituen baldintza batzu bermoldatzea derrigortzen zuenez, horri ekin zioten”(Fernandez, 1994:83). Testuinguru berri horretan sortu zen, beraz, ikastolen mugimendua.

²⁷ Idoia Fernandezek, besteak beste, izen hauek aipatzen ditu: Faustina Karrik, Itziar Arzelus, Dolores Goia, (Fernandez, 1994)

²⁸ Etxe-eskolekin batera, beste hainbat ekimen interesgarriak izan ziren hauren euskarazko alfabetatzea lortzeko: Nafarroan sortu zen “Umeen Deia” aldizkaria (1959-1966), Baionan 1959an sortu zen Ikas elkarte, zentro erlijiosoen bidez kristau ikasbideak euskaraz egiteko jarduerak eta abar. (ibid.:97)

²⁹ EKIN taldetik sortu zen ETA erakundeak euskal nazionalismo berria ekarri zuen. Ideologikoki arraza edo etnial oinarritutako nazionalismotik hizkuntza (planteamendu etno-linguistikoa) eta klase sozialetan (planteamendu iraultzailea) oinarritutako abertzaletasunera pasa ziren, eta, frankismoren aurka ekiteari eman zioten.

Fernandezek dio etxe-eskolak eta ikastolen artean etena eman zela loturak eman ziren arren (1994:111). Eten ideologikoaz gain, hasieratik ikastolen helburua askoz hedadura handiagoa izango zuen egitasmoa sortzea izan zen. Batetik, lehen hizkuntza euskara ez zuten haurrak euskalduntzeko asmoa zutelako, eta, bestetik, proiektu koordinatu gisa eratu zelako. Sortu ziren ikastolen arteko komunikazioa eta elkarlana oinarritzkoa izateaz gain, beste hizkuntza eta kultura proiektuekin lortu zen lotura ere oso garrantzitsua suertatu zen (euskal kantagintza, literatura, gau eskolak, arte adierazpen berritzaileak...).

Baina, genero ikuspegitik ere haustura uneak ziren. Mundu mailan 1950eko hamarkadan emakumearen amatasunean oinarritutako ereduari (etxera bidaltzeko saiakera) aurre eginez, Bigarren Olatu Feminista sortu zen. Euskal Herrira eredu berri hau beranduago iritsi bazen ere (1970eko hamarkadan) emakume asko nortasun berria aldarrikatzen hasi ziren, amatasun eta familia funtzioetatik haratago. Honetan ere, nolabaiteko etena gertatu zen ordurarte emakumeek bultzatu izan zuten euskarazko eskolen eta ikastola berrien artean. Eredu berriko *andereñoak* gizarte eragile rol aktiboagoa hartu baitzuten, ordu arte azpimarratzen zen ama funtziotik nolabait aldenduz:

60ko hamarkadako *andereñoak* ez ziren iadanik Emakume Abertzale Batzako partaide, ezta testigu ere. Beraientzat emakumearen paper soziala beste ezaugarri batzurekin osatzen ari zen, eta abiapuntua sekularizazioa eta generoaren eraikuntza berrietatik gertuago zegoela uste dugu (Fernandez, 1994:117)

Ikastolek euskara biziberritzeko prozesuaren oinarrietako bat bihurtu ziren. Esan daiteke ordu arte galera prozesuari eusteko lana egin zela eta ordutik aurrera euskara biziberritze edo indarberritze-prozesua aktibatu zela. Ikastolak euskararen gune enblematikoak eta erreferentzialak bihurtu ziren: “eskolarizazio maila guztiei erantzuten zaie; irakaslegoa era espezifikoa batez formatzen da; ikuspegi pedagogiko kritiko batetatik egiten da lan; elkarlanerako mekanismoak antolatzen dira; partaidetza oso zabala da” (ibid:136).

1960an Donostian Santo Tomas Lizeoa sortu ondoren ikastolak sortzen hasi ziren beste hainbat herrietan: Bilbo, Hernani, Pasaia, Andoain, Elgoibar, Irun, Deustu, Olereta, Lazkao, gasteiz, Algorta eta abar. Hamarkada honetako ikastolak hezkuntza sistema ofizialetik kanpo eratu ziren, oso izaera herrikoa izan eta gurasoen inplikazioa oso garrantzitsua zen. Bestalde, lehen hamarkada honetan irakasle guztiak emakumeak ziren: *andereñoak*. Hori hala izateko arrazoi ezberdinak zeuden. Batetik, arrazoi legalak topa ditzakegu: Espainiako Legeak ezartzen zuen oinarritzko irakaskuntzaren irakaslegoa emakumezkoa izan behar zuela. Bestetik arrazoi sozio-ekonomikoak zeuden; garai horretan magisteritza ikasketak ez zeuden ondo baloratuak eta

irakasle lana ez zegoen ondo ordainduta. Gizonezkoek bestelako ikasketa eta lanak aukeratzen zituzten eta “historikoki behin eta berriro gertatu izan den bezalaxe, emakumezkoak gizonezkoak «libre» uzten zituzten lan esparru horiek betetzen hasi ziren (Fernandez, 1994:151)”. Azkenik, genero-ideologia ere aipatu behar da. Aurreko hamarkadetan ikusi dugun bezala, garai honetan ere, emakumeari egokitzen zaion zaintza rola *andereño* hezitzaile eta zaintzaile paperarekin ondo egokitzen baitzen.

Ikastoletan eta, ondorioz, euskararen biziberritze prozesuaren lehen urte haietan, beraz, emakumeen protagonismoa oso garrantzitsua izan zen, baina ez erabatekoa. Antolaketa egiturak gizon eta emakumeez osatuak zeuden (gurasoak, herritarrak...) eta, esan daiteke, emakumeen presentzia eta garrantzia emeki apaltzen joan zela, aurretik emakume sareak zirenak herri mugimendua bihurtuz. Aldaketa hau, batez ere, 1970eko hamarkadan nabarmendu zen.

2.2.6. 1970eko hamarkadako gorabeherak

*Orain,
batere zaratarik gabe
joan hatzaigu,
eskoletan ere,
euskal eskoletan ere,
klaseen arteko burruka
gogorkien
lehertzen zenean,
zeinean
gizonak
gizonaren kontra,
eta euskaldunek
euskaldunen kontra
dihardukaten³⁰.*

Adela Ibabe izeneko *andereño*aren omenez Gabriel Arestik idatzitako olerki honek oso ondo erakusten du hamarkada haren emakumearen eta gizartearen egoera Euskal Herrian (Arana, 2012). Arlo sozio-politikoan zeuden gatazkak (*klaseen arteko burrukak*), euskararen inguruan zeudenak (*euskaldunek euskaldunen kontra*) eta hamarkada horretan mugimendu feministaren aldarrikapen garrantzitsuena bihurtuko zen abortua gurutzatzen dira Ibaberen bizipen tragikoan.

³⁰ Bertso hori *Adela* izeneko olerkiaren zati bat da. Gabriel Arestik 1972an idatzi zuen Oskorri musika taldearentzat. Abortu klandestino baten ondorioz hil zen Adela Ibabe *andereño*aren omenez idatzi zuen. Urtebete lehenago Ibabe Arrasateko Ikastolatik kaleratua izan zen instituzionalizazio prozesuan sortutako liskarren ondorioz (Arana, 2012)

1970ean Espainiar Estatu mailako hezkuntza lege berri bat ezarri zen eta ikastolek erabaki zuten legeztatze prozesua abiatzea. Ordurako, euskararen aldeko mugimendua argiki indartzen ari zen, eta horren abangoardia zen ikastolen kopurua nabarmen handitu zen³¹. Baina garaietako egoera sozio-politiko gogorak euskararen aldeko mugimenduan eragina izan zuen, eta istiluek, erreferentea zen ikastolen mugimenduan izan zuten isla nagusia. Generoari dagokionez, legeak ezartzen zituen baldintzak betetzeko, besteak beste, ikastolek irakasle tituludunak behar zituzten, eta ordu arte ibilitako andereño gehienak ez zituzten titulu ofizialak. Bestalde, apaiz seminarioetan sekularizazio prozesu handia eman zen, apaizgaiak ziren gizon horietako asko tituludunak zirenez ikastoletan irakasle lanetan hasi ziren (ordurako ikastolako irakasle izatea euskararen aldeko militantzia kutsu eta prestigio handia zuen). Gainera, legeztatze prozesua elizaren babesean egin zen, eta horrek ahalbideratu zuen erakunde honen ordezkariak (gehienbat gizonezkoak) ikastolen mugimendu barruan erabakitzeak ahalmena edukitzea. Eskolen barruko funtzioak espezializatu eta zatikatu ziren, egitura piramidala ezarriz (Fernandez, 1994:232). Profesionalizaziorako joera honek emakumeen protagonismoa eta erabakitzeak ahalmena nabarmen murriztu zuen.

Antzeko zerbait, gertatzen zen euskararen inguruko bestelako erakundeetan. Nahiz eta hamarkada horietako euskararen aldeko ekimenetan emakumeen papera ezinbestekoa izan, erakundeetan ez ziren ageri. Euskaltzaindiak gakoak kontsideratzen diren bi batzar egin zituen 1956an eta 1968an eta bertan parte hartu zuten guztiak gizonak ziren. Ezin da esan, garaiko emakumeek hizkuntzalaritzaz interesik ez zutenik; Elbira Zipitria, adibidez, euskara batuaren oso aurkakoa agertu zen eta saiakerak egin zituen planteamendu horien kontra (Abasolo, 2004:57-58). Baina ez Zipitria, ez beste emakumerik ez zen erabakiak hartu ziren guneeetan egon. Baina, orain arteko errepasso guztian zehar ikusi dugun bezala, zirrikituak ere ireki ziren, eta emakumeen askapenerako mugimendu feministaren olatu berria Euskal Herrira ere iritsi zen. Europa mailan lortzen ari ziren hobekuntzak euskararen inguruan sortu zen dinamiketan ere islatzen hasi zen andereño, gau-eskolako irakasle, musikarien eta bestelako ekintzaileen artean zabalduz. Izan ere, eskolen inguruko mugimenduan emakumeen presentzia nabarmena izan bazen ere, une horretan euskararen inguruan sortu ziren bestelako herri ekimenetan ere emakumeek parte hartu zuten. Adibidez, Euskal Kantagintza Berrian³², gogoratzen diren

³¹ Idoia Fernandezek datu hauek jaso zituen. Ikastola kopurua: 1960an 3, 1965ean 29, 1970ean 103, 1975ean 160 eta 1980an 243. Irakasle kopuruak: 1965ean 596, 1970ean 8255, 1975ean 26936 eta 1980an 60529 (Fernandez, 1994:198)

³² 1961. urtetik aurrera abiatu zen mugimendu artistikoa izan zen. Gerra ondorengo folklorismoari aurre eginez, adierazpen artistiko berriak sortzea zuen helburu; Euskal Herriko mugimendu politiko, sozial eta kultural errebindikatzaile berrien ildotik, protesta eta askatasun-mezu sozial eta politikoa azaltzen zuen euskal musika eta abesti berriak landuz. (Agirrezabal et al., 2009:50)

abeslari gehienak gizonezkoak izanik ere, hainbat emakumek parte hartu zuen: Lourdes Iriondo, Miren Aranburu, Estibaliz Robles-Arangiz *Estitxu*, Maite Idirin, Maite Aizkorreta, Mari Jose Fernandez, Itziar Maritxalar, Analupe Fernandez... Edo berritu zen euskal literaturan: Arantxa Urretabizkaia edo Mariasun Landa.

2.2.7. Azken hiru hamarkadak: euskararen transmisioaren ardura femeninoaren iraupena

*Kanpai baten bortxaz deitzen du
txirrina jotzen hasten dun misioa
euskararen misiolaria; eskolegunetako modelo B.
Garraxi egiten dudala, ixilik
horrela aginduz irakasten dun hizkuntza
hire misioa ondatuz, eskolegunetako modelo B.
Eusko Jaurlearitzaren peoia,
noiz arte iraungo dun horrela?*³³

Espanian ia 40 urtez iraun zuen diktadura amaierarekin batera, hainbat gauza aldatu ziren eta azken bi hamarkadetan sortu ziren mugimenduak (ikastolak, helduen alfabetatze eta euskalduntzea, euskal kantagintza, bertsoaritza, aldizkariak, argitaletxeak...) erakundetzen eta zabaltzen joan ziren. 1980ko hamarkadatik aurrera euskara biziberritzeko urrats garrantzitsuak eman ziren, besteak beste, 1982an lehen aldiz euskara ofiziala izatea lortu baitzen lurralde batzuetan³⁴. Horrek administrazio publikoan euskara txertatzea ekarri zuen, nahiz eta, oraindik orain, bere erabilera ez da erabat zabaldu erakundeetan.

Bestalde, hedabideen arloan, aurretik garatu ziren aldizkarietaz gain (*Jakin* edo *Argia* esate baterako), euskarazko komunikabide berriak sortu ziren, besteak beste: Euskal Telebista eta Euskadi Irratia 1982an, Irulegi Irratia eta Gure Irratia 1981ean, Euskaldunon Egunkaria 1990ean eta abar. Herri mugimenduei dagokionez, Euskal Herrian Euskaraz erakundea aldarrikatzailea 1979an sortu zen helburu honekin: euskaraz biziko den herria, elebakarra, baina herritar eleanitzez osatua. 1990eko hamarkadan herri mailako euskara elkarteak sortzen

³³ “Miren modelo B” izeneko abesti hau Hertzainak taldea sortutakoa da 1989 urtean “Aitormena” izeneko maxi-singlerako (Elkar argitaletxea)

³⁴ 1982an Euskararen Legea onartu zen Eusko Autonomia Erkidegoan. Horren ondorioz, euskara eta gaztelania Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba lurraldeetan hizkuntza ofizialak dira. Nafarroako Foru Erkidegoko euskararen legea 1986. urtean onartu zen eta horren arabera herrialdea hiru eremutan banatu zen euskarak hartzen zuen babesaren arabera ofizialtasuna partziala edukiz. Ipar Euskal herrian euskara ez da hizkuntza ofiziala.

hasi ziren. Haien helburua euskararen normalizazioa bultzatzea zen, une eta herriko eremu guztietan hizkuntza nagusi izan zedin³⁵ (Agirrezabal et al., 2009:54).

Helduen euskalduntze arloan aurretik sortua zen AEK erakundea³⁶ zabalpen garrantzitsua izan zuen eta, horretaz gain, Eusko Jaurlaritzak HABE erakundea sortu zuen Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hainbat herrietan euskaltegiak irekiz. Baina, ziur aski, hezkuntza eremua izan da euskararen biziberritze prozesuan lan sakonena egin duen eremua. Ikastolek hasitako bidea 1980ko hamarkadan beste eskola ereduera zabaldu zen. 1983an Eusko Jaurlaritzak onartu zuen haur guztiek euskara eta gaztelera jakiteko eta ikasteko aukera bermatzeko asmoz. Horretarako, hezkuntza elebidunaren oinarriak ezarri ziren: A, B, eta D ereduak³⁷, eta gaur egun haur eta gazte gehienek euskaraz ikasten dute (Barandiaran, 2013:28).

Azken hiru hamarkadetan, euskalgintza³⁸ deitu izan den mugimenduan, emakumearen presentzia nabarmen handitu dela esan daiteke, baina desberdinkeria mantentzen da. Horren erakusle, ondorengo bi adibide hauek lirateke. Eskoletan aritzen diren langileen artean emakumeak dira gehiago zabala. Jarraian EUSTAT-ek argitaratutako datu esanguratsu batzuk ikusiko ditugu:

EAEko irakasleak, sexu, maila, lurralde historiko eta titulartasunaren arabera. 2013/2014			
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ikasketa maila guztiak	42011	13025 (%31)	28986 (%69)
Unibertsitatez kanpoko mailak	36231	9704 (%20)	28986 (%80)
Unibertsitatea	5780	3321 (%57)	2459 (%43)
Lanbide Heziketa	3875	2203 (%57)	1672 (%43)
Haur Hezkuntza	9870	833 (%8)	9037 (%92)

Iturria: EUSTAT.eus

Datu horiek argi azaltzen digute irakaskuntza oso feminizatutako lan eremua izaten jarraitzen duela, 10 irakasleetatik 7 emakumezkoak baitira (8 unibertsitatez kanpoko ikasketetan). Gainera, ikasketa mailak behera joan ahala proportzio hauek nabarmen handitzen dira eta Haur Hezkuntzako irakasleen artean 10etik bakarra da gizonezkoa. Esanguratsuak dira Lanbide

³⁵ Arrasaten sortu zen lehena (AED) eta geroztik ehun elkarte inguru sortu dira. Topagunea izena duen federazio baten bidez koordinatuak daude elkarte guzti hauek.

³⁶ Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) helduei euskara irakasten diharduen erakundea da. 1968an sortu zen Euskaltzaindiaren babesean eta 1974tik aurrera erakunde autonomo gisa eratu zen.

³⁷ A eredu: irakasgai guztiak gaztelaniaz. B eredu: gaztelania eta euskara ikasgaiak lantzeko hizkuntzak. D eredu: irakasgai guztiak euskaraz.

³⁸ Euskalgintza definitzen duen egilerik ez dut topatu baina horrela azaldu dezakegu euskalgintza zer den: Euskara biziberritzeko egiten diren saio, jarduerak eta dinamika multzoa eta haiek garatzen dituzten gizarte eragileak.

Heziketa eta Unibertsitate mailako datuak, bietan gizon gehiago baitaude, eta hain zuzen ere, ikasketa maila hauetan euskararen presentzia ez da hain garrantzitsua. Esan daiteke, beraz, azken urteetan euskaren biziberritze prozesuan lan bereziena egin duen eskola arloan emakumeak gehiago zabala direla, emakumeak euskararen transmisioa eta zaintza figurarekin lotuta mantentzen direlarik.

Datu horiek Euskaltzaindia erakundearen datuekin konparatzen baditugu alde nabarmena da. Euskaltzaindian prestigio duten goi karguak “euskaltzain” izenez ezagutzen dira. Gehienez 32 euskaltzain egon daitezke eta 1918an sortutako erakundea izanik ere 1992ra arte ez zen emakume euskaltzain bat izendatu (Miren Azkarate izan zen lehen emakume euskaltzaina). Gaur egun 28 euskaltzain izendatuta daude eta horietako 5 besterik ez dira emakumezkoak (Sagrario Aleman, Miren Azkarate, Aurelia Arkotxa, Lurdes Oñederra eta Ana Toledo). Erakunde honetako zuzendaritza taldeko kidea den Xabier Kintana-k 2014ean elkarrizketa batean gai honi buruz egin zituen adierazpenak nahiko adierazgarriak dira. Emakumeen presentzia urriaz galdetuta hauxe erantzun zuen: “Logikoa da andreak Euskaltzaindian sartzea, baina, ezin genuen horretarako maila jaitsi. Zorionez emakumeen maila gizonen mailara edo gorago iristen den neurrian onartzen ditugu”(Otaegi, 2013:4).

Literatura arloan ere aldaketak eman badira ere, prestigio gehien duten euskal idazleak gizonezkoak izaten jarraitzen dutela ematen du: “a visit to a bookstore in the Basque Country is an exercise in female invisibility”(White, 1998; in Echeverria, 2001:343). Horren adibide da, Txema Arinas 2016ko ekainean idatzitako artikuluan idatzitakoa. Arinasek euskaraz idazten duten idazleen erreposoa egiten du eta azken urteetan emakume idazleen ekarpena aitortzen du horietako batzuren izenak aipatuz: Katixa Agirre, Estibalitz Alberdi, Karmele Jaio, Irati Jimenez, Jasone Osoro, Eider Rodriguez. Baina, artikulua hasieran prestigio handiena duten hiru idazle aipatzen ditu modu honetan: “Badugu, jakina, euskal idazlerik famatu zein goretsien hiruko santua. Aurrena, Bernardo Atxaga (...) Bigarrena, Ramon Saizarbitoria (...) Hirugarrena mitoa dugu³⁹” (Arinas, 2016).

Argi geratzen da, beraz, euskararen arloan ere oraindik orain prestigio eta kudeaketa lanetan gizonezkoak nabarmentzen direla, nahiz eta euskararen irakaskuntzan eta sustapen lan garrantzitsuetan emakumeak gehiengo izan. Modu honetan euskararen transmisioaren ardura emakumearen bizkar uzten jarraitzen da, hizkuntza genero harremanak zehazteko tresnatzat hartzen dela ikusten dugularik. Jarraian, iruditegi horrek irauteko gaitasuna eduki

³⁹ “Mitoa dugun” hirugarren horren izena aipatzen ez badu ere (mitoa denez denek ezagutu beharreko izena delako) ematen dituen azalpenen bidez argi dago Joseba Sarrionandia-z ari dela.

duela eta presente jarraitzen duela egiaztatzeko azken hamarkadetako bi adibide ikustearekin batera, irudi hori iraunarazten lagundu duten bi kontzeptu landuko ditugu.

2.3. Euskararen transmisioaren ardua femeninoaren iraupena

Orain arte azaldu dudanaren arabera euskal emakumearen eredu ideala euskararen arloan oso nabarmena izan dela ikusi da. Emakumea amatasunarekin lotzen da eta, beraz, euskararen transmisioa bere ardurapean geratzen da. Eredu hori gaur egun arte iritsi da eta 1990ean Zuriñe Mendizabal-ek *Emakunde* aldizkarian idatzitako “Emakumea, euskara. Iragan hurbila eta etorkizuna” artikulua horren adibidea litzateke. Artikulua aitorpen moduko bat da urte luzeetan zehar euskararen transmisioan lan handia egin duten emakume anonimoei. Mendizabalen idatzia ama eta irakasle izan diren emakumeei zuzendua da eta honela hasten da: “Zu, emakume, funtsezko izan zara azken hamarkadetan, euskara gure herria den Euskal herri honetan transmititu dadin (...) zu, emakume, hainbatetan oharkabe eta anonimo pasa izan zaren hori (...) zeuk landu duzu euskararen etorkizuneko eremua, gure hizkuntza XXI: mendera pasa ahal izateko” (1990:59). Hau da, eremu pribatua *amatxo* eta *andereño* (sic.) horiek haurrak euskara ikasteko egindako lanak mende arteko euskararen transmisioa ziurtatu luke, dimentsio sinboliko handiagoa emanez. Acostak zehazten duen bezala: “las mujeres vascas se vieron en una posición de responsabilidad ante el futuro del pueblo vasco, pero aún seriamente constreñidas en su acceso al espacio social”(2013).

Lau urte beranduago, 1994an, Jasone Aretxabaleta-k “Lehenengo andereñoak” artikulua idatzi zuen aldizkari berean, 1970eko hamarkada arte euskarazko eskolak ematen lanean aritu ziren irakasle emakumeak omenduz. Egileak euskarazko irakaskuntzaren aitzindariak izan ziren hainbat irakasle⁴⁰ aitortzen ditu haien bizitzaren biografia laburtuz. Aretxabaletaren testuak ez du Mendizabalena bezain beste tonu epikoa, baina honetan ere euskararen transmisioa ardatzen du artikulua: “hizkuntzaren aldetik transmisioari eman zion garrantzia: haur jolasak, abestiak, ipuinak...”. Hala ere, honako idatzian emakume hauen jarduera publikoak izan zuen garrantzia ere azpimarratzen da. Horrela, emakume hauek idazle, ikastolen sortzaile, pedagogia arloko berritzaile, edo gizarte eragile gisa agertzen zaizkigu. Nolabait, irakasle hauek hezkuntza eta hizkuntza arloetan jokatu zuten paper aktiboa azpimarratzen zaie:

⁴⁰ Zehazki, Julene Azpeitia, Elbira Zipitria, Maritxu Ituarte eta Libe Altuna irakasleak aipatzen ditu.

Emakume hauek egin duten lana benetan bikaina izan da: ez bakarrik gure andereño edo gure gurasoen andereño izan direlako, baita, euren bizi-bidea banderatzat hartuz, euskararen aldeko borrokan jardun dutelako ere (Aretxabaleta:1994:40).

Hogei urte pasa dira bi idatzi hauek argitaratu zirenetik eta, gaur egungo perspektiban Mendizabal eta Aretxabaletaren moduko artikulua emakumearen zainketa eta afektibitatearen rola gehiegi azpimarratzen dutela irudi dezake. Baina, oraindik orain, emakumea euskararen transmisore papera indartzen duen sinbologia sendo dirau Euskal Herrian eta baita kanpoan ere. Acostak euskal diasporako emakumeekin egindako ikerketaren ondorioetan honela azaltzen du:

La responsabilidad de las mujeres como agentes transmisores del idioma y la cultura ha sido absorbida a través de generaciones de manera más o menos consciente (...) Prácticamente todas las mujeres entrevistadas para éste trabajo han aprendido Euskera en los países de acogida y dedican una parte de su tiempo a enseñarlo a las nuevas generaciones: a través de clases de Euskera, trabajo en las Euskal Etxeak, Blogs, traducciones, etc. las mujeres han asumido el papel de transmisoras culturales, trabajando por el idioma tanto dentro como fuera del ámbito del hogar y contribuyendo de una manera visible y más reconocida al mantenimiento de la cultura y el idioma vascos fuera de Euskal Herria. Esta actividad fue anteriormente infravalorada, ya que al considerarse asociada a la función reproductora de la mujer y su rol como madre, era algo considerado innato, sin mérito: algo que sucedía naturalmente (Acosta, 2013)

Argi ikusten dugu, beraz, euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako arloan emakumeari, batez ere, transmisioa deitu izan den ardura ematen zaiola. Teresa del Vallek duela 30 urte hau guztia ondo azaldu zuen euskal emakumeen inguruan egin zituen azterketetan.

Cuando se examina la contribución de la mujer al desarrollo del euskara, la tarea que cobra mayor importancia es la de transmisora, actividad que asocia a la mujer con su role dominante dentro del grupo doméstico y con su responsabilidad en la socialización de los hijos. Esta relevancia, por el hecho de estar asociada con el ámbito familiar, no alcanza el reconocimiento y el peso social que objetivamente le corresponde. Es más, el recalcarlo y priorizarlo reduce las posibilidades de proyección amplia de la mujer, mientras que se exige al hombre de responsabilidades que debieran de ser compartidas, otorgándole un mayor protagonismo a éste en la dimensión pública de la lengua. Así, el interés y el trabajo que muchas mujeres vienen asumiendo en el desempeño de la escolarización en euskara, y que valorado objetivamente constituye una aportación significativa al desarrollo de la lengua, no recibe la misma valoración que el que realizan los hombres. (del Valle, 1987:14)

Emakumeei arlo pribatuaren ardura ezarri, gizonezkoei lan honetaz deskargatzen da eta, gainera, hizkuntza kontuetan ere erakunde eta lan publikoaren ardura hartzeko libre geratzen da.

El reconocimiento por un lado de la continuidad establecida por las mujeres y al mismo tiempo su exclusión de las esferas donde se decide ampliamente sobre la lengua y donde ésta tiene un mayor prestigio social, encierra una contradicción que sólo puede resolverse elevándolo a una

categoría especial cual sería la de considerar la lengua como algo connatural a la tarea de la mujer como procreadora (ibid.)

Aurreko ataletan ikusi den bezala, dinamika hori etengabe errepikatu da euskararen inguruan sortu diren dinamika guztietan: emakumeek lan eta ardura handia hartu bazuten ere, erakundeetan (Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Ikastolak eta abar) gizonek hartu dute parte. Horri gehitu behar zaio proiektzio publikoa duten bestelako jardueretan ere emakumeek presentzia urria izan dutela (bertsolaritzan, literaturan, musikan edo prentsan, adibidez) eta arlo horiek hizkuntzaren dimentsio publikoaren erakusle dira eta ez dira lotzen etxearekin edo haurtzaroarekin. Hizkuntza emakumearen “berezkotasunari” eta bere funtzio sortzaile eta sozializatzaileari lotuta manendu bada ere, azken hiru hamarkadetan aldaketa nabarmenak eman direla esan daiteke. Del Vallek Korrikaren inguruan egin zuen ikerketan nabaritu zituen zabalpen horren zantzuak:

Hay indicios que pueden interpretarse como formas de transcender el marco de la naturaleza, que implica la "domesticidad" y el universo familiar, con el que se la ha asociado aun en algo que pertenece claramente a la cultura, y actuar desde la variedad de tareas que conlleva el desarrollo total de la lengua (del Valle, 1987:20)

Ezin da ukatu euskararen arlo publikoan aldaketa ugari eman direla, eta emakume idazle, bertsolari edo euskaltzain kopurua nabarmen handitu dela. Euskara elkarteen, euskalgintzako erakundeetako edo eskoletako zuzendaritzak ere ez dira gizonez soilik osatzen, baina, hizkuntzaren transmisio funtzioaren naturalizazioa oso bizirik jarraitzen du⁴¹.



Bigarren atal honetan orain arte ikusitako guztia laburbilduz, emakumei ezarritako papera hizkuntzaren birsorkuntza ziurtatzea izan dela azpimarratu beharko genuke. Amaren figuraren bidez, iragana eta etorkizunaren arteko lotura irudikatu da (eta irudikatzen da), horretarako transmisioaren ardura estrategia sinboliko indartsua bihurtuz: “La mujer tiene un peso simbólico ya que se la considera el nexo de unión entre el presente y el pasado” (Del Valle, 1999:40). Hala ere, emakumei transmisore papera aitortu bazaie ere, euskararen biziberritze dinamiketan ez zaie protagonismoa aitortu, Hernandezen hitzetan “transmisore papera aitortu zaio, paper horri garrantzia eman zaio, baina euskararen ikuspegitik garrantzi hori ez da azaleratu, antzeman, ez dauka isla argirik prestigioan, sormenean, boterean” (Irureta, 2016). Horrela, euskararen aldeko dinamiketan, eta erakundeetan emakumeen ikusezintasuna

⁴¹ Hau argi ikusten da oso zabaldua dauden hainbat adierazpenen bidez. Adibidez, “amaren sua” metafora eta “ama-hizkuntza” kontzeptua.

nabarmena izan da. Azken finean, transmisioa nahiko rol pasiboa da, ez da dinamikoa. Zuk duzun zerbait ematen duzu, baina ez da oso ekintza sortzaile aktiboa. Gainera, transmisioak oso modu linealean eta murriztean ulertzen denez ez du beti eman beharko lukeen emaitza lortzen. Eta emaitzarik ematen ez duenean emakumeak erruduntzat hartzea ohikoa ere bada, jarraian ikusiko dugun bezala.

2.4. Euskararen galeraren errua emakumeen bizkar

Orain arte emakumea eta euskara landu izan diren diskurtsuetan euskararen transmisio rola azpimarratu dela nabarmendu dut. Azken bi mendeetako diskurtsuetan eta praktketan konstante gisa agertu zaigun transmisio ardura hori, ordea, beste diskurtsu mota batekin batera etorri da: euskararen galeraren errua (Hernandez, 2004). Esan daiteke, hau ere konstante bat dela XIX. mende amaieratik, transmisioaren ardura eta euskararen galeraren errua txanpon beraren bi alde gisa agertuz.

2.4.1. Emakumeen ahultasuna eta desbideraketa

Modernitatean subjektuaren identitate eraikuntza bi kategoriaren arabera zehazten da: emakumea eta gizona. Kategoria horietako bakoitzari ezaugarri batzuk egozten zaizkio; gizonentzat arrazoia, indarra, heziketa, progresua eta zientzia; emakumeentzat, aldiz, fedea, ahultasuna, tradizioa, iragana eta erlijioa. Horrek bi multzoen artean harreman hierarkikoak ezartzen ditu eta kategoria horien ezaugarriak naturalizatzeko prozesua ematen da hierarkia horiek indartuz. Euskararen arloan ere, botere harreman hauek irauteko estrategiak aktibatu eta mantendu izan dira eta, bide horretan ez da zaila emakumeen ahultasun posizioa adierazten dituzten testuak topatzea euskaltasunaren inguruko diskurtsuetan. Sabino Aranak, adibidez, horrela idazten zuen emakume irakasle batzuen kontra: “De las maestras no nos extraña que hayan caído en el lazo: al fin la debilidad es innata en la mujer” (Acosta, 2013). Beste idatzi batean ere antzera argudiatzen du, emakumeen “berezko ahultasuna” azpimarratuz:

¡Qué pluma podrá describir tantos encantos como encierra su cristiano corazón!. Ciertamente, la genuina mujer vasca va siendo cada vez más rara: ya en muchas la pérdida de aquellas virtudes se revela en el vestir. Pero es esto también fruto de la influencia exótica. ¿Tienen ellas la culpa?. No cabe dudarlo, puesto que voluntariamente aceptan el contagio. Pero que mucho que la débil mujer sea seducida, si el hombre que la dirige esta ya extraviado? (Acosta, 2013)

Lehenago aipatu dudana bezala, XX. mendearan hasieran alderdi edo intelektual kontserbadoreek uste zuten euskara ideia berritzaileak eta ez-moralak gelditzeko tresna zela,

eta ardura horretan emakumeen rola azpimarratzen zuten. Izan ere, emakumeei zegokien tradizioa (eta euskara hala kontsideratua zegoen) gordetzea. Horregatik, emakumeek modernizatzeko ematen zituzten urratsak zigortua izaten ziren, eta abertzaletasunak sortutako diskurtsuan ikusten da amatasunaren eta hizkuntza transmisore funtzio hori mantentzearen beharra, eta desbideraketak saihestu nahia:

El objetivo fundamental de esta imagen de mujer vasca es preservar la estructura familiar como estructura fuertemente estabilizadora, incidiendo negativamente ante posibles cambios que pongan en entredicho su rol tradicional (del Valle, 1985:61)

Diskurtso anibalente hori etengabe errepikatua izaten zen, batzuetan, emakumeek beraiek ere halakoak esaten zituztela. Adibidez, Robustiana Muxika “Tene-k” hala zion: “La mujer es la que come el Euskera de raíz; la mujer es en Euskal Herria la mayor fuerza que empuja el Euskera hacia la perdición, y si se quiere liberar nuestra lengua, a la mujer es a la primera que hay que poner a su favor” (Acosta, 2013). Alde batetik, emakumeak erruduntzat hartzen zituen, baina bestetik, beraien ardura eta jarduera beharra azpimarratzen zuten:

Para que viva y no sea una lengua muerta, por encima de todas las demás cosas lo primero que necesita es la acción de las mujeres. En primer lugar la salud de la lengua está en su juventud, para seguir existiendo necesita que los jóvenes la empleen generación tras generación y esa juventud euskaldún la proporcionan las mujeres, son los niños cuyo crecimiento impulsan las madres’ (ibid.)

Irudi bikoitz hori XX. mendean zehar mantendu da eta 1960eko hamarkadatik aurrera euskararen galeraren prozesua aztertzen duten ikerketetan, emakumearen ezegonkortze irudi hori oso presente egon da.

2.4.2.Emakumeei buruzko irakurketak euskararen inguruko lehen gizarte ikerketetan

Euskararen galeraren errua emakumearen “berezko ahultasunari” egoztea ohikoa izan zen 1960ko hamarkadatik aurrera garatu ziren hausnarketa eta ikerketetan. Horren adibidea da Joxe Azurmendik 1964ean Jakin aldizkarian idatzi zuen artikularen izenburua “Neskatxak ez dute euskeraz itzezin nai”. Idatzi honetan Azurmendik emakumearen izaera naturala omen den “ispilu-zaletasunarekin” lotzen du euskaraz ez hitz egitearen afera: “Ta ezaguna da emakumeen ispilu zaletasuna (...) Orrelaxe egitea baitagokie naturalezak eurai eman dien eginkizunaren arabera” (Azurmendi, 1964:63). Bere ustez emakumeak ahulagoak izango lirатеke eta errazago makurtuko lirатеke kanpoko moda eta hizkuntza ohiturei, nahiz eta “kopiaketa au ez da beti borondatezkoa ta apropos egiña. Aitzitik, instintoz egiten dugu batez ere” (ibid.:64).

Urte batzuk beranduago, Euskal Herriko soziolinguistikaren erreferentzia izan den José Maria Sánchez Carrion Txepetx-ek egindako *El estado actual del vascuence en Navarra* (1972) eta *La Navarra Cantábrica* (1981) ikerketa etnografikoetan ere, emakumea agertzen da euskararen galeraren protagonista nagusi gisa. Hernandez-ek dioen moduan lan honetan “Euskarak izandako atzerapena aztertzen zuen, eta oso argi esaten zuen galera horren ‘errua’ edo arrazoi indartsu bat behintzat euskararekiko emakumeek zuten jarrera zela”(Irureta, 2016:34).

Paula Kaseres-en arabera, Txepetxek lehen lanean hitzun elebidunen jokabidearen oinarrian dauden arrazoi psikologikoak nabarmendu zituen, neskak alderdi psikologikoekin sentiberagoak direla esanez (Kasares, 2014:77). Berriro ere, emakumeari berezko ezaugarri “natural” batzuk atxikitzen zaizkio:

La relación idiomática que rige entre madre e hija, es con frecuencia en castellano, en medio de un ambiente vascófono. Influye también en ello motivaciones profundamente enraizadas en la psicología femenina: la relación madre-hija es distinta de la de madre-hijo. La mujer tiene un sexto sentido encaminado a crear su nido. Y la madre orienta, ayuda a su hija en este aspecto. Y no hay duda que con los condicionantes culturales de la Vaconia de nuestros días, el castellano le es en este sentido más útil que el vasco: le da cierto aire de “señorita”, le abre nuevos caminos, nuevas posibilidades (Sánchez Carrión, 1972; in Kasares, 2014:79)

1981ena argitaratutako testuan ere Sanchez Carrionek emakume eta gizonen arteko hizkuntza portaera ezberdinak haurtzarotik ematen direla nabarmentzen ditu “el comportamiento lingüístico de niños y niñas difiere entre sí desde la más tierna infancia” (Sanchez Carrión, 1981:62), baina ezberdintasunak, bereziki, gazteen artean ikusten ditu:

Con respecto a los jóvenes la “escapada” hacia el castellano sigue ejerciendo un gran poder de atracción entre el elemento femenino como modo de evadir los condicionantes más inmediatos (tipo de trabajo, control social, etc.) de un entorno cuya limitaciones disatisfacen, los varones en cambio se acomodan preferentemente a la fidelidad lingüística como modo de hacer suyo tal entorno que, en general, es aceptado. (Sanchez Carrión, 1981:40)

Egoera azaltzeko sozializazio prozesu ezberdinduez hitz egiten digu. Neskek garai horretan sozializazio hizkuntza gisa pertzibitzen duten gaztelaniara jotzen omen zuten, nahiz eta ez izan beraien lehen hizkuntza. Mutilek ordea euskararekiko atxikimendu handiago adierazten zuten, beraien nortasun hizkuntza gisa pertzibitzen baitzuten (ibid.:64). Txepetxen ustez komunitate euskaldunaren trinkotasuna gizonezkoen arteko kideetasun harremanetan finkatzen zen.

Lluis V. Aracil-ek “L’esprint de les dones” artikuluan Sanchez Carrionen ildo bereko ondorioak planteatzen ditu. Aracilek dio, hizkuntza-minorizazio prozesuetan emakumeen elebiduntzea gizonezkoena baino beranduago hasten dela, baina, hala ere, azkarrago amaitzen dutela prozesua. Hau da, emakumeak beranduago hasten dira hizkuntza nagusia ikasten, baina

azkarrago “ahazten” dute euren jatorrizko hizkuntza (Aracil, 1998:117). Ondorioz, gizonezkoak lehenago bilakatzen dira elebidun eta denbora luzeagoz irauten dute elebidun. Emakumezkoak, oster, gizonezkoak baino beranduago bilakatzen dira elebidun, eta ondoren gizonezkoak baino lehenago bilakatzen dira elebakar. Beraz, etapa elebiduna laburragoa da emakumezkoengan gizonezkoengan baino. Aracilek ezberdintasun hauek unibertsalak eta naturalak ez direla esaten badu ere, negatibitatez betetzen du emakumearen rola:

Gizonezkoen elebitasuna emakumezkoena baino iraunkorragoa dela egia baldin bada, horrek esan nahi du, gizonezkoek nahiko modu neurtu eta lasaian burutzen dutela aldaketa-segida hau; eta emakumezkoek, oster, arrapaladan eta oldarka ibiltzen dute bide berbera. Laburketak berak adierazten du, gizonezkoekin parekatuz gero, emakumezkoek bide-zidorra hartu eta erre egiten dituztela etapak, aldaketa-segida hura arinagotuz eta teleskopatuz. Pixka bat exajeratuz, joera gradualaren eta bat-bateko bultzadaren arteko kontrastea da. Nolanahi ere, honi dagokionean, gizonezkoen elebitasuna kronikoa dela eta emakumezkoena larria dela esan dezakegu. (ibid: 118)

Dena den, Aracil eta Sanchez Carrionek ematen dituzten azalpen horiek nahiko kritikatuak izan dira hainbat egileren artean⁴². Kasaresek ohartarazten digu Txepetxi gizartearen bizitzaren oinarrian dauden emakumeen elkartasun gune eta bideak ikusezin gertatu zitzaizkiola, eta erabilitako ikerketa soziologikoetan ohikoak diren dikotomia pareetan eratutako azterketak ez direla *continuumeko* azalpenak bezain eraginkorrak (ibid.,82-83).

Gainera, Kasaresek ez du uste euskararen jarraipena ulertzeko euskal emakumeen erdararen aldeko joera-hautua azalbide egokia denik, hainbat ikerketak emakumeen euskara gaitasun, erabilera eta jarrerak gizonezkoenak baina hobek izaten direla azaleratu baitute (Kasares, 2014:80). Antzeko irakurketa egin zuen Kike Amonarriz-ek 1995ean idatzitako “Euskararen erabilpenaren feminizazioa” artikuluan “gaur egun, eta batez ere neska gazteek euskararekiko atxikimendu-maila altuago azaltzen dute” (1995:93)⁴³. Nik ere, Kasaresek eta Hernandezek ikuspegiarekin bat eginez, Txepetxen eta Aracilen ereduetan emakume eta gizonen portaerak eta izaerak esentzializatzeko joera ikusteaz gain, emakumeen gizarte errealitatera erabat iritsi ez zirela uste dut.

2.4.3.Euskalgintza eta feminismoaren arteko harremana

Euskal Herrian, beraz, hizkuntza-ordezkapen prozesua eta emakumeen bazterketa era paraleloan gertatu zirela ikusi dugu lehen atal zabal honetan. Biak esparru publikotik at geratu ziren, eta azken hamarkadetan “etxetik ateratzeko” ahalegina handia egin bada ere (euskararen

⁴² Horien artean lan honen erreferentzia diren Idoia Fernandez eta Jone Miren Hernandez

⁴³ Hurrengo kapituluan azken 10 urteetan sexu aldagai kontutan hartuta egin diren ikerketen emaitzen eta ondorioen errebasoa egingo dut.

biziberritze prozesuan urrats garrantzitsuak eman dira, baita emakumearen askapenerako dinamiketan ere), oraindik bide luzea egin beharko dela dirudi. Izan ere, euskararen aldeko lanean emakumeen presentzia nabarmena izaten jarraitu badu ere, botere eta ardura publikoetako guneetan ikusezintasuna mantendu da, euskararen transmisioaren ardura eta rola bizirik iraun duelarik elementu sinboliko batzuen bidez. Dena den, azken urteetan bide interesgarria sortu da feminismoaren oinarri batzuk euskararen biziberritze prozesuan lanean dabiltzan eragileen lanean txertatzeko. Ez da lan honen objektua sortutako bide berri hau aztertzea, baina ez nuke atal hau amaitu nahi Antropologia Feminista inguruan euskalgintza eta feminismoa uztartzeko azken bost urteetan egin diren proposamen interesgarriak aipatu gabe⁴⁴. Datozen urteetan ikusiko da hasi berria den bide honek zer fruitu ematen dituen.



*Kantu leunak
Nahi nituzke jarri.
Eguzkia
Ainubian denari.*

Euskararen inguruan emakumeari ezarri izan zaio eta, oraindik orain, lotzen zaion paperaren inguruan burutu dudan azterketa honetan, beraz, ikusten dugu euskara eta emakumeak uztartuz garatu diren diskurtsuetan paradoxa handi bat eman dela. Oihana Garcia-k adierazten duen bezala: “Paradoxikoa da (...) transmisioak horrelako funtzio neuralgikoa betetzen duela aitortu eta transmisio horren eragile nagusi izan diren emakumezkoak itzalean geratu izana. Eta emakumeak aipatu direnean, gainera, batzuetan kontrako mezuarekin izan da, duela lauzpabost hamarkada emakumeek landa-eremuan euskarari uko egin ziotela azpimarratuz eta transmisioa etetearen ardura emakumeei leporatuz” (Garcia, 2016).

Derrigorrezkoa da, hortaz, emakumeek euskararen biziberritzeko egin duten lana itzaletik atera, eguzkian jarri beharko genituzke *ainubian* hainbeste denbora egondakoak eta ikusezintasun eta isiltasun horretatik ateratzea. Ikerketa lan honekin urrats batzuk ematen saiatuko naiz, gaur egun genero harremanek hizkuntza praktika, diskurtsu eta gogoetetan nola operatzen duten argitzeko bidean.

⁴⁴ Hauek dira proposamen hauen atzean dauden izen batzuk: Mari Luz Esteban, Jone Miren Hernandez, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel, Aizpea Otaegi, Oihana Garcia... Argia aldizkarian Onintza Iruretak bide honen kronologia egiten du artikulu honetan: <http://www.argia.eus/albiste/feminismoa-eta-euskalgintza-bi-borroken-hurbilketa-xumearen-kontakizuna>

Hirugarren atala

Hizkuntza, generoa eta adina. Kokapen teoriko- metodologikoa

Gizarte zientzien ikerketan adina eta sexua gizarte-antolaketaren printzipio unibertsal gisa hartu izan dira. Master Amaierako Lan honetan begirada androzentrikoa eta helduzentrikoa gainditzeko saiakera egin dut. Horretarako, egin dudan ikerketa-etnografikoaren abiapuntu gisa hartuta, egungo gizarte antolaketan dauden botere harremanetan eragina nabarmena duten hiru elementuen inguruan hausnarketa egin dut: adinaz, generoaz eta hizkuntzaz. Hiru aldagai hauek jorratzeko gizarte-zientziek garatu dituzten zenbait tresna teoriko-metodologikoak erabili ditut. Jarraian, beraz, nire kokapena azalduko dut aipatutako hiru kapitulu hauen bidez:

3.1. Kapituluua. Nerabe eta gazteak: prozesuan dauden subjektuak

3.2. Kapituluua. Gizonak eta emakumeak: boterezko eta desberdinkeriazko harremanak

3.3. Kapituluua. Paradigma berria: hizkuntzaren sozializazioa, praktika komunitatea eta hizkuntza-mudantza

3.1. Nerabe eta gazteak: prozesuan dauden subjektuak

3.1.1. Sarrera

Kultura gehienetan adina gizarte antolaketaren oinarria da eta pertsona bakoitzaren kokapen soziala jaio den unetik pasa den denboraren arabera da. Mendebaldeko kulturaren bizi-eraketa modu linealean gauzatzen da, heldutasuna bizi-helmuga bihurturik. Iruditegi sozial horren arabera, heldua da erreferentzia eta eredu; haurrek, nerabek eta gazteek iritsi (heldu!) behar duten tokia. Argi dago, bada, Mendebaldeko egungo gizarteak oso izaera helduzentrikoa dutela eta izaera horren arabera botere harreman batzuk ezartzen eta garatzen direla.

Bigarren atal honetan, nik garatutako ikerketan protagonistak izan diren pertsonen adin tartearen inguruko esplorazio teoriko-metodologikoa egingo dut. Nerabezeroaz eta gaztaroaz arituko naiz, adinaren gaian nire kokapen teorikoa zehaztearekin batera, ikerketa etnografikoan erabili ditudan Haurtzaro eta Nerabezeroaren Antropologiak oinarri metodologikoak azalduz.

3.1.2. Gazteria eta nerabezeroa zehaztu nahian

Gazteria sortutako gizarte kategoria da, eta kategoria horri loturiko hainbat kontzeptu, besteak beste nerabezeroa, “asmakizunak” direla kontsideratu dezakegu; testuinguru sozial eta historiko jakin batean sortutako gizarte eraikuntzak dira. Izan ere, tokia eta denboraren arabera haurra, nerabe edo gaztea izatearen forma, funtzioa, eraikuntza eta bizipena ezberdinak dira. Bizitzan zehazten diren etapak ez dira berdinak kultura guztietan, eta haurren eta nerabeen garapena ez da gauza bera testuinguru kulturalaren arabera, garapen horri egozten zaizkion balore eta ezaugarriak ezberdinak direlako.

Gaztaroaz hitz egitea ez da gauza berria. Aristotelesek edo Platonek badituzte horren inguruko hausnarketa idatziak, baina ez dirudi XVIII. mende amaiera arte nerabezeroak gizarte interes berezirik sortu zuenik. Rousseau hartu izan da nerabezeroaren teoria modernoak abiatu zituen egile gisa, *Emilio* idazlanean kapitulu oso bat adin tarte honi eskaini baitzion (Santrock, 2011). Hala ere, XX. mende hasiera arte nerabezeroa ez zen garapen etapa independente gisa hartu izan.

Gaur egun ezagutzen dugun nerabezero kontzeptua 1904ean agertu zen Stanley Hall-ek idatzitako *Adolescence its psychology and its relations to physiology, anthropology, sociology*

sex, crime, religion and education liburuan. Rousseuren ideia asko berreskuratuz, psikologia eta eboluzionismoan oinarritzen da, eta ondorioztatzen du giza garapena genetikoki determinatutako faktore fisiologikoen arabera kontrolatua dagoela, testuinguruak apenas garrantzirik ez duelarik. Hallen ustez nerabezaroa instintuaren indarraren bidez biologikoki determinatutako garaia da (Shaffer eta Kipp, 2007).

Hallen teoriaren erreakzioa gisa, Margaret Mead antropologoak 1928an *Coming of Age in Samoa* liburua idatzi zuen. Lan honetan haurtzaroaren garapen eboluzioari buruzko ikuspegi biologizistak zalantzan jartzen zituen, nerabezaroa kultura bakoitzaren beharren arabera eraikitzen den zerbait gisa deskribatuz. Honek, genero gaian urte batzuk beranduago gertatu zen bezala, haurren heziketa ulertzeko modu berritzailea ekarri zuen, nahiz eta ez zuen behar zuen jarraipen eta indar nahikorik lortu. Hall eta Meaden planteamenduei jarraituta nerabezaroaren inguruko bi ikuspegi nahiko antagonikoak egon direla esan daiteke. Batetik, Hallen ikuspegi biologizistararekin bat eginez Anna Freud, Sigmund Freud, Jean Piaget edo Lawrence Kohlberg bezalako egileek nerabezaroa gizakiaren garapenaren etapa gisa kontsideratua izan da, arrazoi psikologiko eta genetikoengatik modu naturalean ematen dena. Hauen arabera, nerabezaroari lotutako ezaugarriak berdin ematen dira ezaugarri kulturalak edozein direla. Bestetik, soziologia eta antropologiaren ikuspegiaren arabera kulturak eta une sozio-historikoak berebiziko garrantzia du nerabezaroaren konfigurazio eta ulermenean.

Gaur egungo ikerlariak bi ikuspegi horien artean kokatzen dira. Jaume Funes-ek (2005:78), esate baterako, ezaugarri fisiko eta psikologikoak onartuta, nerabezaroa testuinguruaren arabeko produktu bat dela dio. Bere ustez, hiru dira nerabeengan eragin handia duten faktoreak: 1) Garai historiko zehatzak; 2) Espazio, lurralde edo ingurune aniztasuna; eta 3) Beste pertsonekin dituzten elkarrenergina (ibid.). Ikuspegi horri jarraituz, eta, bide batez, nire kokapena finkatuz, garbi adierazi dezakegu nerabezaroa ez dela gizarte eta garai guztietan finko eta komuna den eboluzio-etapa naturala, oinarri biologikoa duen eraikuntza kulturala baizik.

3.1.3. Nerabezaroa, helduarorantza trantsizioa?

Atal honen sarreran aipatu dudana bezala, Mendebaldeko gizarteetan biziaren modu linealean irudikatzen da, heldutasuna bizi-helmuga bihurturik. Heldutasuna da iritsi beharreko estadioa, eta aurretik pasatzen diren urteak horri begirako entrenamendu eta prestaketa dira. Ikuspegi horren arabera, nerabezaroa eta gaztaroa heldutasunerako trantsizioa garaia kontsideratzen dira; haur izateari utzi eta heldu bihurtu arte pasa beharreko etapa. Nerabezaro horrela ulertuz gero, beraz, garrantzia ematen zaio aro honek heldutasuna lortzeari begira duen iragate izaerari.

Paradigma horretan trantsizio aroa amaituta pertsona heldu bihurtzen da fisiko, emozional, sozial eta intelektual alderdiak kontutan hartuta, forma ezberdinak hartuz testuinguru sozial, kultural eta ekonomikoaren arabera (Larson y Wilson, 2004).

Ezin da ukatu nerabezaroan eta gaztaroan aldaketa garrantzitsuak ematen direla, eta, hortaz, trantsizio garaiak direla. Baina, era berean, aro hauei ematen zaie transito izaera horrek arazotsua bihurtzen da. Klaudio Duarte soziologoaren ustez, nerabeen edo gazteen identitatea irudikatzen da “bila” dabilen identitatea legez, eta horrek botere harremanak bideratzen ditu:

Gaztaroaren trataera bada “identitate disgregatua” edo “bila dabilen” identitatearena, heldutasun ezarena finean, ondoriozta genezake helduek ahuldade guztiak gainditu dituztela eta, estereotipoari jarraiki, gaztaroa definitzen duen identitate gatazkatsua gainditu dutela. Hasieran, galderak nagusi badira ere, erantzuna edo emaitza bizitzaren beste une batetara atzeratzen da, “heldua izan arte”. Gazte izatearen definizio baztertzaila horri gaineratu behar zaio “bila egotea” ekartzen duen gutxiespena; hori baita identitate abstraktu, definitu gabekoaren eta nahasiaren funtsa. Zalantzarik gabe gaztaroaren inguruko baieztapen horiek helduen ikuspegitik egin dira, izan ere, horien bitartez helduek haien identitatea berresten dute. Berrespen hori oinarritzen da zenbait ezeztapenetan, “besteek ez dute” edota “besteak ez dira”. (Duarte, 2006:15; in Fernandez, 2016)

Ondorioz, Modernitateak hain gustukoa duen sailkapen dikotomiko jokoan, haurrak, nerabeak eta gazteak ez-heldua kontsideratzen dira, helduen mundutik banandua daudenak:

(...) el modelo de “infancia moderna” en tanto separada del mundo adulto y en transición hacia él es un constructo forjado y delimitado bajo las constricciones, cambios productivos y demográficos correlativos al capitalismo industrial. El interjuego de las ideologías reformadoras de raíz judeo-cristianas da lugar a la invención de instituciones específicas que separan al niño del mundo adulto, tornándolo objeto de políticas y prácticas educativas específicas, de cuidado y protección, que propenden a la dilación y graduación de su incorporación al mundo adulto (Jociles, France eta Poveda, 2011: 16)

Foucaultek banaketa honen iturria identifikatzen du *Vigilar y castigar* liburuan. XVII eta XVIII. mendeetatik giza gorputza esploratzeko, desartikulatzeko eta birmoldatzeko garatu diren diziplina tekniken bidez haurtzaroa helduaren mundutik erabat banatzen dela aipatzen du “Es este tiempo disciplinario el que se impone poco a poco a la práctica pedagógica, especializando el tiempo de formación y separándolo del tiempo de adulto” (Foucault, 2002: 147). Haurra eta nerabea bukatu gabeko zerbait gisa ulertzen da, pixkanaka betetzen joan behar den hutsik dagoen ontzi bat bezala. Hizkuntzak oso garbi adierazten digun haurtzaroaren kontzepzio hori. Adin-gabeak deitzen diegu 18 urte bete ez dituztenei.

3.1.4. Helduzentrismoa: oraindik ez vs dagoeneko bai

*Ser joven es un delito.
La realidad lo comete todos los días, a la hora del alba;
y también la historia, que cada mañana nace de nuevo.
Por eso la realidad y la historia están prohibidos⁴⁵.*

Gironako Unibertsitateko Ferran Casas-en ustez haur eta gazteentzat helduena ez den beste kategoria bat sortu da: “oraindik ez” taldea. Oraindik ez dira helduak, oraindik ezin dute erantzukizunik eduki, oraindik ez dakite zer den bizitza, oraindik ez dituzte eskubide berdinak. Eurak “oraindik ez” taldekoak dira eta helduak “dagoeneko bai” taldekoak dira. (Casas, 2006:40). David MacDougallek dioen bezala, helduentzat haurrak bukatugabeko izakiak dira (adult-in-waiting), sozializazio prozesuan eraikitzen ari direnak (MacDougall, 2005:70). Horrela, helduok ahaztu egiten dugu sozializazioa etengabeko prozesua dela, bizitza osoa irauten duena eta gizakiak hasiera-hasieratik izaki sozial gisa funtzionatzen duela⁴⁶. Haurtzaroaren eta nerabezaroaren trantsizio izaera honek, beraz, gizarte mailaketa eta botere harreman bat ezkututzen du, eta mailaketa sozial horren barnean, gorputz umoak posizio eta aukera berezituak eskuratzen dituzte (Fernandez, 2106). Botere harreman hori izendatzeko Duartek “helduzentrismo” hitza erabiltzen du:

“(…) giza iruditegi horrek heldu izanaren eta heldutasunaren nozio zehatza ezartzen du, haur eta gazteek izan beharko diren erreferentzia moduan gizarte helduzentrikoetan. Jatorriz eraldatzeko beharra dago gizarte horretan aintzat hartzeko, bizitzaren zikloan definitutako esentzia horien arabera. Iruditegi helduzentriko horrek jatorri soziokulturala du eta heldutasuna definitzen du izate boteretsu, baliagarri eta erabakitze eskubidea duena bezala; haurtzaroa, gaztaroa eta zahartzaroa gutxiesten dituen bitartean. Uste da lehenengoak etorkizuneko momentu nagusi horretarako “prestatzen” egongo liratekeela, eta azkenak, berriz, une nagusi horretatik “ateratzen” egongo lirateke. Era berean, iruditegi horrek ikusezin bilakatzen ditu gutxiesten dituen horien ekarpenak, baina, ikuspegi baikor batetik, haur eta gazteengan aldaketa eta etorkizun txertatzen ditu.” (Duarte, 2012: 120 in Fernandez, 2016)

3.1.5. Prozesuan dauden subjektuak

Azken urteetan, gizarte zientzietan mailaketa hori gainditzen hasteko proposamen batzuk egin dira. MacDougallek, esate baterako, dio zaila dela kulturak itzultzea edo interpretatzea eta norbanakoan zentratuagoa den antropologia bat proposatzen du, “kontzientziaren antropologia”

⁴⁵ Eduardo Galeanoren hitzak *Días y noches de amor y de guerra* liburuaren “El sistema” kapituluaren (2000:74)

⁴⁶ Haurrari eta nerabeari ematen zaion etorkizuneko izakiaren funtzio honek, bestalde, arduraz betetzen du euren motxila, “carrying on their shoulders all the hopes of the adult world” (MacDougall, 2005: 67). Hau da, agentziarik onartzen ez bazaio ere, gizarte hobeagoren etorkizuneko esperantzak betebeharrak bihurtzen zaio. Hala egiten da, adibidez, ikerketa-lan honetan oinarritzakoak diren bi gaietan: euskararen biziberritze prozesuan eta genero desberdinkeria gainditzeko prozesuetan. Egoera eurekin hobetuko dela espero da, gainontzeko adin tartean ardura nolabait arinduz.

(MacDougall, 1998:78). Proposamen hori haur/nerabeen eta haur/nerabeekin antropologia egiteko interesgarria dela iruditzen zait, batez ere, antropologia mota horretan pertsonak “prozesuan dauden subjektu” gisa hartzen direlako. Haur/nerabe/gazte zein helduak prozesuan dauden subjektuak kontsideratuz, bi kategoria hauek mugatzen duen ezaugarri nagusiena suntsitzen da gizakiari begirada berri batekin ikusteko aukera paregabea eskainiz:

Es importante (...) contemplar a los actores sociales no como personalidades fijas sino como lo que Julia Kristeva llama “sujetos en proceso”: individuos en un continuo estado de transformación personal, a veces más rápido (como en la niñez y en la adolescencia) y a veces más lento. El descubrimiento y la creación del propio ser no ocurren de manera aislada, sino en relación con otros y en interacción con ellos. (ibid:82)

Ikerketa lan honetan, beraz, nerabeak “prozesuan dauden subjektu” gisa hartu ditut, aipatutako ikuspegi helduzentriko hori gainditu nahian, edo ahalik eta gehien gutxitzeko. Horri begira, Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologiak eskaintzen dituen tresna eta ikuspegiaren aldeko apostua egin dut jarraian datorren atalean azalduko dudan bezala. Hala ere, ez nuke atal hau amaitu nahi nerabezaroaren trantsizio garai gisa hartzeak sortzen dituen beste bi alderdi labur-labur aipatu gabe.

3.1.6. Nerabezaroa eta gaztaroa ezberdindu al daitezke?

Ikusi dugun bezala nerabezaroa eta gaztaroa kategoriak gizarte eraikuntzak dira, eta, hortaz, garaiaren arabera definitu eta pentsatzen dira. Gaur egun, ordea ez da erraza adostasun orokor bat topatzea aro hauek mugatzen dituzten adinen inguruan. Osasunaren Munduko Erakundeak dio nerabezaroa 10 eta 19 urte arteko garaia dela, eta gaztaroa 15 eta 24 urte arteko aroa litzateke. Definizio horren baitan, beraz, kontraesana ageri zaigu, 15 eta 19 urteko pertsonak nerabe eta gazte gisa hartu baitaitezke⁴⁷. Ziur aski trantsizio izaera horrek berak eta heldutasunari iristeko erritu zehatz eta garbi ez egoteak nahasmen hori eragiten du, biak prozesu beraren parte baitira. Horregatik zaila da argi bereizten noiz hasten den eta noiz amaitzen den fase bakoitza. Azken hamarkadetan, gainera, gaztetasuna ezaugarri positiboz bete denez, gaztaroa luzatzeko joera nabari da. Horrek dakar gaztaroaren trantsizio izaera nolabait ahuldu dela, baina era berean, “helmugara” ez iristearen sentsazio eta presioa areagotzen dela. Ondorioz, nerabezaroa ere luzatu dela dirudi, lehenago hasiz beranduago bukatuz.

Edonola ere, ikerketa honetarako adin eta aro zehaztapenen debateetan ez sakontzeko hautua hartu dut. Lan honetan parte hartu duten subjektuak 13 eta 16 urte bitartekoak dira. OME-ren

⁴⁷ EUSTAT-en arabera gazteak 15 eta 29 urte bitarteko hiritarrak dira.

sailkapenaren arabera denak nerabeak lirateke, eta batzuk gazte gisa ere izendatu litezke. Nire ustez, gure ingurune sozio-kulturalean adin hori duten pertsonak haurtzarotik gertu daude, baina haur izan gabe. Era berean, helduen ereduari etengabe begira daude, baina argi edukita heldu gisa hartuak izateko oraindik bide luzea egin behar dutela. Beraz, ikerketa honetako subjektuak gaztaroa eta nerabezaroak suposatzen duen prozesu horren lehen etapetan kokatu ditzakegu. Hori dela eta, nerabe gisa izendatuko ditut gehienetan, nahiz eta gazte izendapena ere maiz erabili dut nerabezaroa gaztaroaren prozesu horretan txertatua dagoela iruditzen zaidalako.

3.1.7. Nerabezaroaren trantsizioa eta generoa

Nerabezaroari eta gaztaroari egozten zaion trantsizio izaera horrek badu, bestalde, maiz ikusezin bihurtutako beste alderdi bat: generoaren arabera heldutasunera iristea esanahi ezberdin duela. Carles Feixa-ren ustez helduarora iristea inoiz ez du esanahi bera eduki gizonentzat, emakumeentzat edo bestelako genero adskripzioa dutenentzat (Feixa, 1999:19). Areago oraindik, Feixak uste du gazte trantsizioa, batez ere, genero zehatz batekin identifikazio prozesua dela:

De hecho, la transición juvenil es esencialmente un proceso de identificación con un determinado género, aunque a menudo se haya confundido con un proceso de emancipación familiar, económica e ideológica que históricamente ha sido privilegio casi exclusivo de los varones (y aun de los pertenecientes a determinados estratos sociales) (Feixa, 1999:19)

Zehaztapan hau oso kontutan hartzekoa dela iruditzen zait, eta hala egingo dut ikerketa honen emaitzak aztertzeke garaian.

3.1.8. Haurtzaro eta nerabezaroaren antropologia

*No speak about,
speak near to*⁴⁸.

Adela Franzé, Maria Isabel Jociles eta David Povedak idatzitako “El estudio etnográfico de la infancia y de la adolescencia: posibilidades y retos” artikuluan haurtzaro eta nerabezaroaren inguruan egindako ikerketen erreposoa egiten dute, Charlotte Hardmand-ek 1973. Urtean luzatutako galdera bat oinarri hartuta: *Haurtzaroaren antropologia egin al daiteke?*. (Hardman, 2001). Dirudienez, haur eta nerabeen jarduera kontutan hartzea ez da hain kontu berria gizarte ikerketetan; Marcel Mausek edo Margaret Meadek, adibidez, oso kontutan izan zituzten

⁴⁸ Thrin Mihn-Ha zuzendariak 1983ean eginiko *Reassamblages: From the Firelight to the Scream* filmatik ateratako esaldia.

beraien hainbat azterketetan. Hala ere, haurtzaro eta nerabezaroari toki bereizia emateko beharraren debateak azken hamarkadetan hartu du garrantzia.

Hardmanek hurrek eta emakumeek “isildutako taldeen” ezaugarria partekatzen zutela adierazi zuen eta, bide hori jarraituta Franzék, Jocilesek eta Povedak haurtzaro eta nerabezaroaren etnografia egiteko beharra azpimarratzen dute haurrak eta nerabeak subjektu pasibo gisa hartzeari utziz. Izan ere, askotan eskema honekin funtzionatzen baitugu: haurrak/nerabeak/gazteak etorkizuna dira, helduak oraina eta adinekoak lehenaldia. Eredu hau apurtzeko antropologiak aukera ugari ematen digula uste dut; adin guztiek, bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela, orainaldiaren parte aktiboa direla erakusteko. Gizarte zientzien (eta gizarte iruditegiaren) “diskurtso klasiko” honen arabera haurrak eta nerabeak etorkizuneko belaunaldien ordezkari pasiboak besterik ez dira. Franzék, Jocilesek eta Povedak ikuspegi hau aldatzeko antropologia tresna egokia dela iradoki dute:

Indudablemente, el sello antropológico que invita a hacer familiar lo extraño y a extrañar lo familiar, y por tanto a no dar nada (o casi nada) por sabido, anima a las necesarias rupturas con lo obvio y con lo que se nos “ofrece” como tal, al sentido común. (Jociles et al., 2011:20)

“Isildutako” norbanako hauek gizarte ikerketen subjektu bihurtzeak haien “agentzia” eta ekiteko gaitasuna berreskuratzeko lagungarria izan daiteke. Horregatik, ikerketa lan honetan “haurtzaro eta nerabezaroaren antropologiak” proposatutako tresna metodologikoetan oinarritu naiz. Jarraitu ditudan oinarri horiek sei oinarritan laburbildu ditut, Begoña Leyra Fatou-k eta Ana María Bárcenas-ek *Reflexiones etnográficas sobre el ocio infantil* artikuluan idatzitakoari jarraituz (2014):

- 1) Haurrak eta nerabeak giza aktore gisa eta nerabezaroa eta haurtzaroa gizarte fenomeno gisa hartzea.
- 2) Haur eta nerabeak euren haurtzaro eta nerabezaroaren eraikitzaile gisa ikustea. Era berean, gizartearen parte aktibo gisa hartzea, eta ez determinazio estrukturalen subjektu pasibo gisa; nahiz eta helduekiko duten dependentzia estatusak askotan euren gizarte ikusezintasuna eragiten die.
- 3) Helburu bat da haur eta nerabe kolektiboari ikusgarritasuna ematea da, euren ikasketa prozesua eta erabaki ahalmenaren protagonista gisa aintzat hartuz.
- 4) Nerabeek eta hurrek euren (eta bestelako) arazoak identifikatzeko, horien inguruan hausnartzeko, duten garrantziaz jabetzeko eta irtenbideak proposatzeko gaitasuna dute.
- 5) Haur eta nerabeak ikerketaren parte aktibo bihurtzen saiatzea “emic” ikuspegia ahalik eta gehien txertatuz.

3.1.9. Nerabezaroaz gaur eta hemen

Nerabezaroaz, beraz, gaur eta hemen hitz egitea komeni da. Ez baitira gauza bera XX. mende hasierako nerabeak eta gaur egungoak, eta ez baita gauza bera Euskal Herrian nerabe izatea edo, adibidez, Sri Lankan. Eta ez da ahaztu behar gazte eta nerabe bakoitza pertsona bakarra dela ere (Feixa, 2006:42). Ez da nire asmoa, hala ere, egile ezberdinek egungo gazteriaren ezaugarriei buruzko errepasso sakon bat egitea. Ikerketaren azken asmoa ez baita nerabezaroaren erradiografia bat egitea, eta, gainera aurreko puntuan azaldu dudan bezala, batez ere, ikerketan parte hartu duten nerabeei ahotsa eman nahi diet. Hortaz, nerabeekin lana egin duten bi egileren proposamenak hartu ditut erreferentzia gisa, ondoren datu enpirikoen azterketarako baliagarriak izango zaizkidan analisi kategorio gisa.

Nire ikerketaren abiapuntu gisa nerabe edo gazte izateak zer den jakitea interesgarria iruditzen zait. Nerabeek euren buruak nola ezaugarritzen duten, nola definitzen duten gazte izatea zer den, abiatzeko oinarri sendoa dela uste dut. Horretarako, Carles Feixa-k egindako lan etnografikoa eta proposatutako markoa oso baliagarria da, gazteek helduen mundutik bereizteko talde identitate autonomoak nola sortzen dituzten azaltzen digulako. Egile honen arabera gaztetasunaren inguruan azken bi mendeetan hiru eredu edo narrazio mota eratu dira Mendebaldeko gizarteetan (2011:107). Lehena, *Tarzan sindromeaz* izendatua, Rousseauarekin abiatuko zen. Eredu horren gaztea zibilizatu beharreko “basati ona” litzateke. Bigarren eredu, XX. mendearen bigarren zatian sortu zen eta *Peter Pan sindromeaz* izendatzen du. Narrazio honen nerabea “iraultzailea” litzateke; helduen aurka matxinatzen da, eta gizarte heldu horretan parte hartzeari uko egiten dio, “hobe da gazte izatea (edo gazte itxura edukitzea) heldua baino” (ibid, 108). Azkenik, *Blade Runner* sindromeaz izendatzen duen hirugarren eredu genuke. Azken urteetan sortzen ari den narrazioa litzateke, eta horren araberrako nerabeak izaki artifizialak lirateke, helduei diote obediencia eta hauengandik askatzeko duten behararen artean nahastuta (ibid.). Gazte-kulturak, beraz, bigarren ereduarekin sortzen dira. *De jóvenes, bandas y tribus* liburuan Feixak gazte-kulturak definitzen ditu:

Las culturas juveniles son las maneras en que las experiencias sociales de los jóvenes son expresadas colectivamente mediante la construcción de estilos de vida distintivos, localizados fundamentalmente en el tiempo libre o en espacios intersticiales de la vida institucional (Feixa, 1999:84).

Modu honetan gazteek onarpen identitario bat bilatuko lukete *gotiko*, *heavy*, *emo*, *cani* edo *skato* gisa agertuz. Gazte-kultura hauek ez dira homogeenak, ezta estatikoak ere, eta estiloen arteko trukeak ohikoak izateaz gain, mugak ez dira oso zurrinak Feixak bost faktore

zerrendatzen ditu gazte-kulturak sozialki egituratzeko: belaunaldia, generoa, klasea, etnizitatea eta lurraldea (ibid:87-96). Gizarte baldintza horien arabera egituratzen dira gazte-kultura hauek espazio publikoan estilo zehatz baten bidez agertzeko.

El estilo puede definirse como la manifestación simbólica de las culturas juveniles, expresada en un conjunto más o menos coherente de elementos materiales e inmateriales, que los jóvenes consideran representativos de su identidad como grupo. (ibid:97)

Estilo zehatz bat definitzeko kultura elementu ezberdinen konbinaketa ematen da. Feixak hauek azpimarratzen ditu: hizkuntza, musika, estetika, kultura produkzioak eta jarduera edo erritu bereziak (ibid:100). Hizkuntzak, beraz, garrantzia du gazteen talde identitateak definitzeko:

Una de las consecuencias de la emergencia de la juventud como nuevo sujeto social es la aparición de formas de expresión oral características de este grupo social en oposición a los adultos: palabras, giros, frases hechas, entonación, etc. Para ello los jóvenes toman prestados elementos de sociolectos anteriores (...) pero también, participan en un proceso de creación de lenguaje (ibid:101)

Hain zuzen, Jone Miren Hernandezek hizkuntzak gazteen identitatearen agerpen sozialean duen garrantziaz aritu zen *Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak* ikerketa-lanean (2005). Bere ustez hizkuntza non, noiz eta zenbat ikusteaz gain, hizkuntza bat edo beste erabiltzen dutenean, gazteen helburuak zein diren aztertzea garrantzitsua da. Izan ere, nerabeen artean zerbait komunikatzea baino norberaren komunikatzailea izateak garrantzi handiago du. Bilbon nerabeekin egindako ikerketa horren emaitzetatik, nire ikerketarako garrantzia eduki ditzakete hainbat hausnarketa baliagarriak zaizkit. Batetik, Hernandezek dio nerabezaroa gatazka garaia dela eta gatazka horrek gaztetxoek hizkuntzarekin duten harremanetan ere isla du. Bestetik, nerabeak hezitzen ari direla ohartzen dira eta prozesu horri hizkuntza erabilera, jokaera eta jarrera ezberdinak dagozkiela badakite: umetan izandakoak ez dira gaztaroan baliagarriak. Horrekin lotuta, helduek sortutako eta hizkuntzaren inguruan garatutako diskurtsoak ez dituzte gustuko: batzuk, zuzenean aginduarekin identifikatzen dutelako; beste batzuk identifikazio politikoarekin lotzen dutelako; azkenik, beste multzo batek, egunerokotasunean sumatzen ez duten errealitate batekin lotua ikusten dutelako.

Hernandezen ustez, egungo gazteen artean euskara pisu gutxiko aldagaia da. Indar oso gutxi du egun euskarak gazteen unibertsoan sartzeko eta irmoki txertatzeko. Ikuspuntu horretatik, eta aurreko hamarkadekin konparatzen badugu, badirudi euskarak egungo gazte-kulturak osatzeko eta sendotzeko gaitasuna galdu duela.

3.2. Gizonak eta emakumeak: boterezko eta desberdinkeriazko harremanak

3.2.1.Sarrera

Aurreko kapituluan adinak duen gizarte eraginaz aritu naiz, Mendebaldeko egungo gizarteak oso izaera helduzentrikoa dutela eta izaera horren arabera botere harreman batzuk ezartzen eta garatzen direla azalduz. Jarraian antzeko azterketa egingo dut gizarte desberdinkeria ezartzen duen beste ardatz bat hartuta: generoa. Izan ere, generoa aldagaia kontutan hartzea ezinbestekoa da edozein talde edo jarduera soziala ulertu ahal izateko, eta generoa analisi-kategoria gisa erabiltzeak, genero harremanak botere harremanak⁴⁹ direla ikusarazten ahalbidetzen digu. Atal honetan, beraz, nire ikerketan oinarritzkoa izango den generoaren inguruko esplorazio teoriko-metodologikoa egingo dut, beti ere, hizkuntzaren praktika sozialean ardatz horrek duen eragina azpimarratuz.

3.2.2.Genero identitatea: subjektu ezberdinak eta harreman hierarkiak sortuz

Kritika feministak aspaldidanik zehaztu du emakume eta gizonen kategoriak eta bien arteko harremanak gizarte eraikuntzak direla. Virginia Maqueirak idatzi zuen bezala, “boterezko eta desberdinkeriazko harremanak genero desberdintasun gisa eraiki izan dira sare soziokultural osoan” (2001:129). Modernitatearen identitate eraikuntza bi kategoria horien arabera eraikitzen da, sozializazioa prozesua zeharkatzen duen generoak banakako jarraibideen aukerak murriztuz eta elkarren artean ezberdinak diren subjektuak eraikiz: gizonak eta emakumeak. Gainera, bi multzoen artean harreman hierarkikoak ezartzen dira, gizonen ezaugarri maskulinoak prestigiatuz eta gizonen botere posizioa eta hegemonia ahalbideratuz (Connell,1997:39). Izan ere, Carmen Diez Mintegi-k nabarmentzen duen bezala, generoa gizarte antolaketaren oso oinarri indartsua da:

⁴⁹ Boterea definitzeko Flavio Guglielmi-k Bourdieu eta Foucault-ei proposamenetan oinarrituta proposatzen duen definizio honi jarraituko diot: (...) en ambos autores las relaciones de poder se construyen cuando ciertos individuos pueden afectar las acciones de otros. Dicha relación implica una imposición por parte de un sujeto o grupo que se desarrolla a partir de una desigualdad o distinción (sea de bienes, capacidades, autoridad, etc.) la misma se encuentra administrada desde una economía que permite gestionar los medios para actuar de un modo óptimo (aunque corresponde a cada caso particular establecer lo que se considera óptimo), y responde a una estrategia como una estimación en un juego de acción y reacción entre agentes relativamente libres que no agota la totalidad de las acciones posibles.(2013:1)

Con el concepto de género se hace referencia a un principio de organización social dinámico, cambiante y muy poderoso, que atrapa a las personas ya casi desde el momento de su concepción y que *intenta* modelar, de acuerdo con unos cánones prefijados, los cuerpos, los sentimientos, las emociones, las aficiones o las expectativas laborales, es decir, los proyectos de vida, en una relación dinámica y muchas veces conflictiva, a través de prácticas y mandatos culturales o leyes (Diez, 2002:160)

Generoaren bidez, beraz, identitateak sortu eta birsortu egiten dira (Del Valle, 2015:15), kontrakoak diren bi unibertso (maskulinitatearena eta feminitatearena) eraikiz. Horrela, pertsona bakoitzari gizon edo emakume kategoria esleitzen zaio eta kategoria horren arabera jokatu behar du. Norbanakoak, gorputzak, gizarte rolak eta botere harremanak generoaren arabera arautzen direnez gizon eta emakume kategoriek ez dute ezberdintasuna adierazten, desberdinkeria baizik, emakumea izateak menpekotasunezko posizioan egotea ekartzen baitu. Feminismoak oso argi adierazi du genero sistemaren bidez botere maskulinoa ezartzeko dauden mekanismoak. Margaret Mead 1935ean *Sex and Temperament in Three Primitive Societies* idatzi zuen sexu jokabideak kulturalak zirela adieraziz. Simone de Beauvoir-ek, hamalau urte beranduago “emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da” idatzi zuen *Le Deuxième Sexe* izeneko liburuan. Baina, zalantzik gabe, Gayle Rubin-ek 1975ean idatzitako *The traffic in Women: Notes on the ‘Political Economy’ of sex* zehaztu eta zabaldu zuen diferentzia sexualaren eraikuntza sozialaren ideia. Rubinen aburuz:

Un sistema de sexo-género es el conjunto de disposiciones por el que una sociedad transforma la sexualidad biológica en productos de la actividad humana, y en el cual se satisfacen esas necesidades humanas transformadas (Rubin, 1986:97)

Rubinen ustez, beraz, gizarte orok sexu-genero sistema bat du gizon eta emakumeak sortzen dituen haien arteko ezberdintasunak azpimarratuz, eta antzekotasunak ezabatuz (ibid.:115). Mendebaldeko egungo gizarteetan bereizketa kulturaren sozializazioaren bidez ezartzen da: “mutilak eta neskak, hau da, etorkizuneko gizonak eta emakumeak, balio eta printzipio diferenteekin eraiki behar dira, eta euren bizitzei zentzu diferenteak eman, heldu bihurtzean gizartean funtzio desberdinak -eta hierarkizatuak- bete ditzaten” (De Miguel, 2015). Sozializazio horren arabera, Modernitatean zirriboratu ziren eta gaur egun arte iritsi zaizkigun, gizon eta emakumeen ezaugarri ezberdinak ezartzen dira. Gizonari arrazoa egozten zaio, ezaugarri hauen bidez definituz: indarra, aktibitatea, autonomia, independentzia, sexualki oldarkorra... Emakumeari, ordea, natura egozten zaio ezaugarri hauen arabera: pasibotasuna,

ahultasuna, besteen iritzien menpekotasuna, apaltasuna, lotsa, umiltasuna, sedukziorako gaitasuna...

Ezberdintasun hauek garai eta tokiaren arabera ñabarduraz betetzen dira, baina oinarrian dauden sailkapen dikotomikoaren ezaugarriak bizirik mantentzen dira. Egungo kultura hegemonikoan ere, eskema horren arabera neskak perfekziorako sozializatzen dira eta mutilak ausardiarako. Hala adierazten digu Reshma Saujani-k, XXI. mendeko gizartearen erdigunean genero sistemaren araberako desberdinkeria mantentzen eta elikatzen dela erakutsiz:

Socializamos a la mayoría de las niñas para ser perfectas, evitar riesgos y fracasos, a sonreir, jugar seguro, sacar excelentes notas y (...) a la mayoría de los niños para ser valientes, jugar rudo, columpiarse alto, subir hasta la cima y después saltar. Al ser adultos están acostumbrados al riesgo (Saujani, 2016).

Lezo eta Pasaian garatu dudak ikerketa zehatzera joanez, bertan parte hartu duten nerabeak aipatutako ezaugarriak betetzen dituzten mutil eta neska bezala sozializatuak izan dira. Sozializazio prozesu hori, gainera, indar handiz aktibatua dago gazte hauek bizi duten bizitzaroan: nerabezaroan. Hau da, gizon edo emakume kategorietan kokatzeko behar dituzten identitate-ezaugarriak jasotzen dituzte etengabe. Dena den, horrek ez du esan nahi sozializazio prozesuak erabateko eraginkortasunez funtzionatzen duenik. Nik behintzat, norbanakoak askatasunerako tartea duela uste dut, eta horregatik ikerketa honetan konstruktibismo kritikoa kokatuko naiz. Izan ere, Mari Luz Estebanek aipatzen duen bezala: “gizakiak ez dira makina biologikoak, baina ezta gizarte edo sinbolo kulturalen bidez definitutako robotak ere” (Esteban 2011:156).

Ikuspegi konstruktibista horretatik abiatuta, azken urteetako feminismoak identitatea osatzeko prozesuaren inguruko planteamendu berritzaileak proposatu ditu performance kontzeptuaren bidez. Judith Butler-en ustez, ekiteak eraikitzen gaitu, ez dago ezer zehatzik aurretik osatzen gaituenik. Generoa etengabe jokatzen (performatzen) dugunez, generoa ez da identitatea, errituala baizik. Identitatearen osaketan, beraz, izateari baino ekiteari begiratu behar zaio, etengabea den prozesua dela kontutan hartuta: “(el genero) no es una tarea prescriptiva que tengamos que empeñarnos en realizar, sino una tarea en la que estamos empeñados todo el tiempo”. (Buttler, 1990:198).

Hizkuntza-identitatearen osaketa prozesurako, feminismitik proposatutako kontzeptu eta ikuspegi hauek oso interesgarriak suertatuko zaizkit. Baina, hizkuntza eta generoa lotzen duten

planteamenduak aztertu aurretik, hizkuntza-boterea nola operatzen duen zehaztea komeni dela uste dut.

3.2.3.Hizkuntza eta boterea: kapital sinbolikoaren lehia

Daniel Bertaux-ek zion mundu sozialaren osotasunean (*mesocosmos*) gertatzen diren logikak, modu berean ematen direla berau osatzen duten *microcosmos* bakoitzean (2005:18). Argudio horri jarraituta esan dezakegu hizkuntza, dituen berezitasunak dituela, gizarte logika orokorrez zeharkatuta dagoela. Ferdinand de Saussure-k linguistikaren bereizketa hau egin zuen XX. mendearen hasieran: 1) Kanpo-linguistika (gizarte erabileraren zientzia) eta 2) Barne-linguistika (hizkuntzaren zientzia). Bigarren hau litzateke Saussuren ustez benetako linguistika, hizkuntza objektu autonomo gisa jorratzen duena, eta horren gainean eraiki zuen estrukturalismoa. Pierre Bourdieu (1985), ordea, ez dago ados planteamendu horrekin:

El poder de las palabras sólo es el poder delegado del portavoz, y sus palabras (...) sólo pueden ser como máximo un testimonio, y un testimonio entre otros, de la garantía de delegación del que ese portavoz está investido (...) la autoridad llega al lenguaje desde fuera. (...) Como máximo el lenguaje se limita a representar esta autoridad (Bourdieu, 1985:67-69)

Bere ustez, hizkuntzaren erabilera, hitz egiteko era eta diskurtsuaren edukia, hizlariaren posizio sozialaren araberakoa da (ibid.:69). Gainera, hitzen boterea hizlariaren bozeramaile paperean datza:

El poder de las palabras reside en el hecho de que quien las pronuncia no lo hace a título personal, ya que es sólo su “portador”: el portavoz autorizado (...) en la medida en que su palabra concentra el capital simbólico acumulado por el grupo que le ha otorgado ese mandato y de cuyo poder está investido (ibid. 69)

Horren arabera, beraz, hizkuntza ez litzateke giza espeziaren konpetentzia natural bat, edo izatekotan partzialki litzateke, hizkuntza konpetentzia soziala ere badelako: pertsona bakoitzaren kapital materiala eta kapital sinbolikoaren emaitza da. Hori dela eta, hizkuntza-truke orok ekonomia printzipiotan oinarrituta dago eta irabazi sinbolikoa (pertsonala eta soziala) irabazteko helburua du.

El intercambio lingüístico [...] es también un intercambio económico que se lleva a cabo en una cierta relación simbólica de fuerzas entre un emisor, dotado de un cierto capital lingüístico, y un consumidor (o mercado) capaz de procurar una cierta ganancia material o simbólica. En otras palabras, los discursos no son únicamente [...] signos destinados a ser comprendidos, descifrados; son también signos de riqueza, destinados a ser valorados, apreciados y signos de autoridad, destinados a ser creídos y obedecidos. [...] En la vida ordinaria es muy raro que el lenguaje funcione sólo como puro instrumento de comunicación. (Bourdieu, 1985:40).

Askotan hizkuntza komunikazio tresna besterik ez dela adierazten bada ere, argi dago hizkuntza egitate konplexuagoa dela eta hizkuntzaren bidez botere sinbolikoa ezartzen dela. Bourdieuren ustez gaitasun linguistikoa ez da soilik gaitasun teknikoa, estatus gaitasuna ere bada, eta, gainera, gaitasun teknikoa estatusaren menpe dago, nahiz eta ohikoa da alderantziz dela ulertzea: gaitasun teknikoak estatusa ematen duela. (ibid:43). Ikuspegi honen arabera, hizkuntza-trukeak ez dira soilik mezu-trukeak, elkarrizketetan parte hartzen dutenen gizarte egitura guztiak presente daude: generoa, klasea, adina, norberaren kapital materiala eta abar. Ondorioz, hizkuntza-erabilerek merkatu bat osatzen dute, ondorioak baitituzte norberak lortu dezakeen kapital sinboliko eta kapital ekonomikoan. Kapital sinbolikoa pertsonen atxikitutako gizarte balioarekin lotuta dago: “el peso de los diferentes agentes depende de su capital simbólico, es decir, del reconocimiento, institucionalizado o no, que obtiene de un grupo” (ibid:46). Kapital ekonomikoa dirua eta ondarea mugitzeko eta lortzeko gaitasunarekin lotuta dago.

Hizkuntzen erabileraren bidez, beraz, botere harremanak ezartzen dira, eta aurrerago ikusiko dugun bezala sortzen diren hierarkia horietan generoa garrantzitsua da. Hau da, gizonen eta emakumeen hizkuntzaren bidez lortu dezaketen kapital sinbolikoa ezberdina da eta desberdinkeriak sortzen ditu.

3.2.4.Hizkuntza-ikerketa genero ikuspegiarekin

Ikusi dugun bezala, genero sistemaren bidez aurkakoak diren bi subjektu mota sortzen dira, gizarte antolaketa guztia eredu binario hau zeharkatuz. Hizkuntzaren bidez ere desberdinkeriak eta botere harremanak ezartzen dira. Gizarte-zientzietan badira hainbat ikerketa-lerro hizkuntza eta generoa harremanetan jarri dituztenak. Antropologian, esaterako, XX. mende hasieratik mendebaldekoak ez ziren kulturetako gizon eta emakumeen arteko hizkuntza ezberdintasunak jaso zituzten. Hala ere, 1960ko hamarkadan, soziolinguistikaren garapenarekin batera, iritsi ziren arlo honetako azterketa sendoenak. William Labov-ek New Yorken egindako ikerketan aipatu izan da erreferentziazko lan gisa. Lan horren arabera, sexua ezinbesteko aldagaia zen ikuspuntu eta azalpen soziolinguistikoa garatzeko orduan eta garai hartan jasotako datuak generoaren arabera jokoera ezberdinak azaleratzen lagundu zuten. Hortik aurrera, eta teoria feministak garatzearekin batera, hainbat proposamen garatu ziren emakumeen eta gizonen arteko hizkuntza-ezberdintasunak genero sisteman oinarrituta zeudela aldarrikatuz: Robin Lakkoff, Barrie Thorn, Nancy Henley... (Hernandez, 2004).

Baina nire ikerketarako bereziki interesgarria suertatuko zaidan ildo Penélope Eckert-ek garatutako ikerketa eremua eta planteamendu teoriko-metodologikoak izango dira. Eckert-errek hiztunen hizkuntzen erabileraren nolakotasuna abiapuntutzat hartuta, erabilera horretan generoak eta hizkuntza-komunitatearen egituraketak duen protagonismoari erreparatu zion (Hernandez, 2005:49). Generoa erdigunean jarrita, “Gender roles and ideologies create different ways for men and women to experience life, culture and society” (Eckert, 1989:247) hizkuntzaren praktika sozialean aldagai horrek duen eragina aztertu zuen, soziolinguistikan adina eta klase aldagaiekin egiten ziren azterketekin konparatuz eta osatuz. Izan ere, Eckert-ek ustez hizkuntzaren azterketa egitean sexuarekin batera arraza, klasea, eta adina bezalako elementuak kontutan hartu behar dira. Abiapuntu horretatik Eckertek eta Sally McConnell-Ginet-ek *praktika-komunitatea* kontzeptua proposatu zuten testuinguru sozialean hizkuntza aztertzeko⁵⁰, eta hortik abiatuta hainbat ikerketa-lan interesgarri osatu dituzte gazteekin.

Euskal Herriko ikerketari dagokionez lan honen *Emakumeei buruzko irakurketak euskararen inguruko lehen gizarte ikerketetan* atalean azaldu dudana bezala (Bigarren atala), 1960ko hamarkadatik aurrera garatu izan den euskal soziolinguistikan oso urriak dira genero aldagaiari erreparatzen dioten azterketak. Gainera, elementu hori kontutan hartu izan denean, emakume eta gizonen portaerak eta izaerak esentzializatzeko joera egon da, edo datuak sexuaren arabera xehatu izan dira baina genero ikuspegi argirik gabe aztertuz. Azken urteetako euskal antropologian, ordea, genero ikuspegiari erreparatzen dion etnografia-lan interesgarri bat dugu: Jone Miren Hernandezek (2005) Bilboko ikastetxe batean garatu zuen *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak* ikerketa-lana. Lezoi eta Pasai Donibanen generoak nerabeen hizkuntza-praktiketan duen eragina aztertzeko garatu dudana ikerketan Eckert-ek jarraituz Hernandezek proposatzen duen planteamendutik abiatu naizenez, jarraian ildo horren zehaztapena aurkeztuko dut.

3.2.5. Eckert-ek azalpena generoaren arabera hizkuntza-jokabideen inguruan

Gorago aipatu dudana bezala, Eckert-ek ikerketa ildo interesgarria garatu du praktika-komunitatea proposamen kontzeptualetik abiatuz. Daniel Maltz eta Ruth Broker-ek garatutako hipotesiari jarraituz, Estatu Batuetan gizonezkoak eta emakumezkoak azpizalde

⁵⁰ Nire ikerketan kontzeptu honek garrantzi handia izango duenez, datorren kapituluaren sakan azalduko dut horren esanahia eta erabilera (3.3. kapitulu)

soziolinguistiko ezberdinetan hazten direla diote, eta ondorioz, batzuek eta besteek hizkuntza erabilera eredu ezberdinak garatzen dituzte:

Nesken eta mutilen arteko ezberdintasun horiek gaztaroan azaltzen dira, adin horretan generoa erabateko eragina duen aldagaia baita. Nerabezaroan, beraz, haurtzaroan zehar neskek eta mutilek garatutako hizkuntz eredu ezberdinak areagotu egiten dira, eta batzuek eta besteek estatusa lortzeko eta adierazteko dituzten berezko tresnak garatzen dituzte. Prozesu horretan, neskek eta mutilek sexu bereko taldeetan bilatzen dituzte erreferenteak. Ondorioz, mutilek eta neskek sexu bakoitzaren ereduak zorrotz finkatzen dituzte, unibertso zehatz batekiko lotura adieraziz. Unibertso ezberdin horietan hizkuntzak funtzio ezberdina betetzen omen du (Hernandez, 2005:52).

AEBtako eskoletan egindako azterketetan agerian geratu zen, mutilek ezberdintasun objektiboetan oinarritzen dute beraien arteko lehia, indarra edo abilezia erabiliz. Nesken identitatea, aldiz, adiera sinbolikoetan oinarritzen da. Horrela itxura fisikoa, arropa, edo hizkuntz erabilera, nesken identitate adierazgarri garrantzitsu bilakatzen dira (ibid.). Eckertek jokabide ezberdin hauek botere-ezaren teoriak azaltzen ditu. Horren arabera, emakumeek bere estatusa botere-sinbolikoaren metaketaren bidez, soilik, lortu dezake. Gizonek, ordea, botere-sinbolikoaz gain bestelako elementuen metaketaren arabera adierazten du estatusa:

Women are thrown into the accumulation of symbolic capital. This is not to say that men are not also dependent on the accumulation of symbolic capital, but that symbolic capital is the only kind that women can accumulate with impunity. (...) Whereas men can justify and define their status on the basis of their accomplishments, possessions, or institutional status, women must justify and define theirs on the basis of their overall character (Eckert, 1989:256).

Ondorioz, mutilek zer egiteko gai diren erakutsi behar dute. Neskek, aldiz, bere izaera zertan datzan adieraztea dute helburu. Planteamendu hauetatik abiatuta eskema hau osatu daiteke:



Emakumeak: Izan. Irudia, hitza, isiltasuna, ahanztura.

*...eta mintzo garenean beldur gara
gure hitzak adituko ote diren
ondoetorriak izango ote diren;
baina isilik gaudenean ere,
beldur gara oraindik.
Beraz, hobe da hitz egitea
gogoan izanik
ez gintuztela bizirauteko sortu⁵¹.*

Genero sistemaren arabera mundu femeninoari egozten zaizkion kodeak adiera sinbolikoekin lotura zuzena dute. Emakumeek botere sinbolikoa metatzeko beharra lukete, eta, hortaz, euren identitatea *izaterarekin* lotuta dago. Horregatik, nesken nortasun adierazleak itxura fisikoa eta janzkera dira. Botere-sinboliko horretan hizkuntzak garrantzi handia du, hizkuntza pertsonaren aurkezpenari oso lotua dagoen elementua baita. Neskei egozten zaizkien jardueretan hitza presentzia handia du: solasaldiak, txutxumutxuak... Hori dela eta, hizkuntzaren inguruan gertatzen diren izaera ezberdinetako aldaketak nabarmenago agertzen dira emakumeentzako, hizkuntzarekiko eta komunikazioarekiko arreta bereziagoa landu izan baitute (Hernandez, 2005:52).

Baina, era berean, “isiltasun” emakumeen adiera litzateke. Hitzari lotuta egon arren, gizonei baino gutxiago entzuten zaie. Eckert-ek adierazi bezala, hitzaren botere sinbolikoa ez baita emakumeen eskusibotasuna, gizonen estatusa definitzeko hitzak ere garrantzia baitu, beste aldagai batzuekin batera. Beraz, paradoxa batekin topo egiten dugu: emakumeen nortasun sozialean hitzak garrantzia badu ere, isildutako taldea bihurtzen da.

Euskararen testuinguruan paradoxa hau urteetan zehar mantendu izan dela sakon aztertu dugu lan honen bigarren atalean; euskararen transmititzeko ardura emakumeari egozten zaio, emakumeak dira urteetan euskararen biziberritze prozesuan lana egin dutenak (hitza erabili dutenak), baina lan hau guztia isildua, mutua edo ez-aitortua izan da. Esparru publikoan, ordea, hitzarekin zerikusi duten adierazpenak gizonen jabetza bihurtu dira. Teresa del Vallek (1985) zuzendutako *Mujer Vasca* liburuan hala jasotzen dute emakume eta gizon kontalariei buruz: emakume kontalariak ipuin-kontaketa etxean egiten duten bitartean, gizonezkoak arlo publikoan aritzen dira. Emakumeek ez dute onarpen publikorik jasotzen eta berezko gaitasuna dutela ulertzen da, naturala. Gizonezkoak ezagunak dira eta duten gaitasuna aitortzen zaie.

⁵¹ Audre Lorde-ren (2016) “Letania bat, biziraupen alde” izeneko poemaren zati bat da.

Antzeko panorama erakutsi zuen Carmen Larrañagak “Del bertsolarismo silenciado” artikuluan (1997). Bertsolaritzaren harira emakumeak isiltzeko mekanismoen berri ematen digu plazetako bertsolaritza eta bertso-jarriak deitzen den modalitatea (idatzizko bertsoak) bereiziz. Izan ere, jende aurrean toki publikoetan egiten den bapateko bertsolaritzan duela urte gutxi arte emakumearen presentzia oso anekdotikoa izan da. Bertso-jarrietan, aldiz, emakume bertsolarien presentzia nabarmenagoa izan da, baina hala ere “ahaztuak” izan dira. Larrañagak bertsolaritzaren historia berrosatu nahi du marginalak izan diren elementuak berreskuratuz eta bertso-jarrien bidez emakume bertsolarien memoria berreskuratuz⁵²

(...) un silencio arrastra a otro, de ahí que fijarnos en los bertso-jarriak tiene aquí especial relevancia por todo lo que al concentrarnos en ellos desvelan: la contribución de las mujeres al quehacer del bertsolarismo. (Larrañaga, 1997:59)

Azken hamarkadetan, plazetan egiten den bapateko bertsolaritzan emakumeen presentzia handitu bada ere, oraindik orain, %15 besterik ez dira emakumezkoak (Alberdi, 2013). Uxue Alberdi bertsolariaren ustez, hala ere, kopuruaz gain hizkuntzan legoke desberdinkeria gainditzeko gakoak, bertsoetan (hizkuntzaren beste esparru publikoetan bezala) prestigiatzen den hizkera gizonena baita, gizonena da hizkera normala⁵³. Horra hor, beraz, hizkuntzari lotutako paradoxa: emakumeen nortasuna adierazteko hizkuntza elementu garrantzitsua den arren, lehenesten den hizkera gizonena da. Izan ere, Henrietta Moore-k dioen bezala: “No es que las mujeres estén calladas, es que no se las puede oír (Moore, 1988).

Gizonak: Egin. Hitza, aitortpena, protagonismoa

(...) gizontxoak sentitzen ginen arrak ginelako; gizontxo eta boteretsu, jaun eta jabe.(...) Zeinen tontozakilak ginen!. Mirespenez begiratzen genien nagusiagoei, ahoberoenei, harroxkoenei, eta haiek ziren gure eredu. Ustezko berdintasunean hezi bagintzuten ere, matxismo eta misoginia nazkagarri artean hazi ginen eta, geroago konturatu naizenez, leku guztietatik iragazi eta erarik sotilenean itsatsi zaizkigun m letraz hasten diren bi gaitz larri horiek⁵⁴.

Gizonek botere-sinbolikoaz gain bestelako elementuen metaketaren arabera adierazi dezakete estatusa. Zer diren baino, mutilek zer egiteko gai diren erakutsi behar dute eta, hortaz, euren identitatea *egitearekin* lotuta dago, eta etengabeko ekintza horren adierazle garrantzitsuak

⁵² Larrañagak emakume bertsolarien errepasso bat egiten du erakutsiz ahanztura nola ematen da. Emakume bertsolariak egon direla badakigu baina oso datu gutxi ditugu. Hiru emakumeren adibidea zehazten ditu: Joxepa Hondarribikoa, Joxepa Antoni Aranberri Petrirena ‘Xenpelar’, Sor Justina Aldalur eta Sebastiana Gesalaga Zaldubi ‘Sor Niño Dios’.

⁵³ Hori gainditzeko Estitxu Eizagirrek proposatutako “emakumera batua” izan daitekeela defendatzen du: emakumeok publikoki (gizon eta emakumeekin) konpartituko luketen kodea.

⁵⁴ Unai Villenak idatzitako Hautz haietatik eleberriaren pasarte bat da (Villena:2016:66)

kirola eta jokoa dira. Bestalde, gizonezkoak nabarmendu egiten dira, protagonista bihurtzeko beharra dute boterea agertuz: maskulinitatea etengabe erakutsi behar dutenaren logika ikasten dute. Agerpena hau, askotan, indar⁵⁵ erakustaldiaren bidez egiten da. Gauzak horrela, esan daiteke gizonen ezaugarriaren arabera nortasun dinamiko eta aktiboa sustatzen dela. Emakumeen rolerako, aldiz, nortasun pasibo eta estatikoa eraikitzen da.

Hitzari dagokionez, ikusi dugu gizonentzat hitzak ere garrantzia duela estatusa definitzeko. Ez da erdigunean dagoen aldagaia, aipatu ditugun beste elementuekin batera (indarra, ekintza...) operatzen duen elementua da. Hala ere, gizonen hitzari emakumeen hitzari baino aitorten handiago ematen zaio. Euskal kulturaren goiko adibideetan hori argi ikusi da eta Hernandezek elkarrizketa batean aipatzen duen moduan “Egia da euskal kulturaren gizonen hitza aitortua eta goraiptua izan dela, eta askotan, Joseba Zulaika antropologoak ere esaten du, gizona eta hitza sinonimotzat hartu dira” (Irureta, 2016:34).

3.2.6. Jolasa eta jokoa

Euskal kulturaren testuinguruan, aurreko atalean zehaztutako gizon eta emakumeen arteko banaketa horrek badu harremana hitz-pare batekin eta bakoitzari ezartzen zaizkion ezaugarriekin: jolasa eta jokoa. Bi hitzak, maiz, sinonimotzat hartzen badira ere, hainbat egilek kontzeptu hauen arteko ezberdintasunak bereizi egin dituzte. Ziur aski, Joseba Zulaika antropologoa da bereizketa horretan lanketa interesgarriena egin zuena. *Violencia Vasca* (1988) eta *Bertsolariaren jokoa eta jolasa* (1985) liburuetan jokoa eta jolasa kulturalki bereiztu zituen. Bere ustez, jolasean ez dago lehiarik, metaforikoa eta gezurretakoa da. Haurrak jolasean aritzen dira eta helduak, ordea, jokoan (Zulaika, 1991:207). Jolasean ez bezala, jokoan dena literala eta zehatza da, irabazi edo galdu egin behar delarik tartean geratu gabe. Jokoa lehia eta benetakoa da. Zulaikaren iritziz euskaldun gizonen ikuskeran jokoa oso txertaturik dago. Izan ere, jokoz blaiturik dago euskal kultura. Jokoak erabat bipolarak dira, beti dagoelako irabazle eta galtzaile bat. Bere hitzetan, jokoan dabilenak desafioa du maite, erronka bilatu behar du eta harrokeria pixka bat lagungarri egiten zaizkio. Bereizketa kontzeptual honen arabera Zulaikarentzat pilota, herri-kirolak, ehiza, mus karta-jokoa eta apustuak jokoaren multzoan sartzen dira. Haur jolasak, antzerkia edota emakumeen karta-jokoak, aldiz, jolasaren multzokoak dira. Irakurketa honen arabera, beraz, emakumei eta haurrei dagozkien jarduerak

⁵⁵ Euskal kulturaren *indar* kontzeptuaren garrantzia azpimarratua izan da maiz. Sandra Ott edo Teresa del Valle-k hitz egin dute *indarrari* buruz. *Mujer Vasca* liburuan, adibidez, bereizketa hau agertzen da: “culturalmente la *indarra* masculina se expresa por medio de la acción, la *indarra* femenina lo hace fundamentalmente en el estar, el contener, el apoyar (Del Valle, 1985 :182)

ludikoak jolasa lirateke, eta, hortaz, garrantzi gutxiagokoak. Hitzarekin harremana duen bertsolaritza, ordea, egoera paradoxikoan kokatu zuen Zulaikak. Bere ustez, bertsolaritza jolasa da, bertsogintza metaforikoa eta anbigua baita, ziriak presentzia handia duelarik. Jolasean esana ez da literala, hitzek benetan esaten dutena ez delako “egia”. Baina ikusi dugun bezala, bertsolaritzaren esparru publikoa oso maskulinoa da eta emakumeen presentzia ikusezin bihurtu izan da. Paradoxa honek aurreko atalean hitzaren balore-sinbolikoarekin zerikusia eduki dezake. Emakumeen nortasun hitzkuntza erdigunean badago ere, horrek ez du esan nahi gizonen estatusa definitzeko mintzamina garrantzirik ez duenik. Bestetik, bertsolaritzaren jolas izaeraren inguruan zalantza batzuk agertu daitezke, baina ikerketa-lan hau ez da lanketa hori egiteko marko egokiena. Ohar gisa, soilik, Imanol Lazkano bertsolariaren hitz iradokitzaile hauek utziko ditut⁵⁶: “Bertsoak jolasetik asko du, baina bertsolaritza beti da norgehiagoka. Beti bestea baino hobea izan nahi dugu. Jokotik gehiago du jolasetik baino”.

Lazkanoren planteamendutik gertu dago Olatz Gonzalez-ek (2005) “Pelota Vasca: un ritual, una estrategia” lanean proposatutakoa. Gonzalezek jolas eta jokoaren arteko bereizketak beste ezaugarri batean oinarritzen da: bestearrekiko ezartzen den harreman motan.

De estas distinciones entre la parte más informal del juego (jolas, paideia, play) y la más formalizada (joko, ludus, game), son destacables varios pares de oposición: mundo infantil/mundo adulto; mentira/verdad; trivial/serio; en solitario/con otros; ausencia de norma/norma; caos/orden; etcétera. Sin embargo, ninguno de ellos acierta a definir de manera determinante ambos niveles de juego. Cualquiera de las categorías anteriores puede darse en uno u otro de los dos niveles, aunque todos ellos contienen de algún modo lo que se quiere plantear aquí: que la diferencia esencial entre estos dos comportamientos lúdicos descansa en el tipo de relación que se establece con lo otro, no necesariamente presente, y por tanto con uno mismo. (Gonzalez, 2005:224)

Jolasean besteak eta norberak bat egiten dute, helburua jolasa bera denez parte hartzaileek batasun bat osatzen dute. Jokoa aldiz, norbera eta bestearen arteko bereizketa oso garbia da. Lehiakidea agertzen denez norberaren pertzepzioa ere garbi azaltzen da. Jolasean partaideen arteko disoluzioa ematen da eta jokoa, aldiz, lehia eta borroka. Lehia hori gertatzeko oso garrantzitsua da bi lehiakideen artean berdintasuna izatea. Jokoa egoteko bi alde simetrikoen arteko oposizioa egotea beharrezkoa da. Hizkuntzari dagokionez, orain arte ikusitako guztiak aztertu ondoren, jokozat hartu daitekeen hizkera eta jolozat hartu daitekeena bereizi

⁵⁶ Imanol Lazkanok hitz hauek esan zituen Jesus Larrañaga-k Villabonako Mintzola aretoan emandako “Jolas Sakona” izeneko hitzaldiaren ondorengo eztabaidan (2013-11-06)

daitekeela uste dut. Jokoan bestea agertzen da eta modu horretan erabilitako hizkuntza oso maskulinoa litzateke. Txantxa, erronka, iraina eta ziriak betetako hizkera da eta mutilak hizkera horretan trebatuak dira. Beste aldean, jolas gisa definitu daitekeen hizkera dago. Hizkera honen ezaugarri nagusia elkarrizketa da, parte hartzen dutenen arteko nolabaiteko disoluzioa ematen da. Hizkera hau femeninotzat hartuko litzateke eta neskak horretan trebatuko lirateke⁵⁷.

3.2.7. Hizkuntza femeninoa eta maskulinoa

Gizon eta emakumeen artean komunikazio estiloen artean ezberdintasunak ote dauden aztertzeke ikerketa ildo nahikoa garapena eduki du. Hizkuntzalaritzatik nahiko gertu dagoen esparrua izanik, ez da nire ikerketa-lan honetan erdigunean egongo den gaia, eta, hortaz, ez dut teorikoki sakonduko. Hala ere, ezinbestekoa ikusten dut ikerketarako interesgarriak izango diren puntu batzuk labur-labur aipatzea, nerabeekin egindako behaketetan jasotako hizkera aztertzeke baliagarria izango baitzait. Amaia Alvarez Uria-k (2004) "Euskara hizkuntza sexista al da?" artikuluan *sexulektoak* (hizkera femeninoa eta maskulinoak) izenez deitzen den esparruaz aritzen da. Alvarezek, Deborah Cameron-i jarraituz, dio esparru horretan dauden ikerketak datuetan oinarritutakoak izan beharrean, susmoetan eta aurreiritzietan oinarritutakoak direla. Hauek lirateke Cameron-en arabera hizkera femeninoari buruz dauden usteak:

- Etorririk eza (hitz egitean emakumeek ez dute gizonezkoek duten jarotasuna).
- Esaldi amaitugabeak (emakumeek hizketa informala darabilte, ahozko komunikazioa dute oinarri).
- Hurrenkera logikorik gabeko hizketa (pentsamendu logiko-matematikoa gizonezkoena denez, gai batetik bestera "saltoka" hitz egiten dute emakumeek).
- Galdera doinuko baieztokak (auto-estimua baxua berriro ere, besteen onespina behar dute emakumeek bere hizketarekin jarraitzeko).
- Gizasemeek baino gutxiago hitz egitea (bere sexu/generoari "dagokio" hitz egiten egon beharrean entzutea, rol pasibo-hartzailea "beraiaena" den heinean).
- Konpetentzia-ak baino kooperazio-ak estrategien erabilera (konpetitibitatea balio maskulinoa omen da, arlo publikoa maskulinoa omen den bezala) (Alvarez, 2004)

Luce Irigaray-k, esaterako, dualismo erradikalaz hitz egiten du emakume eta gizonen arteko hizkuntzak bereizteko:

Mientras el hombre habla con "la lógica de la razón" y escucha imponiendo unas "casillas prefabricadas, un código preparado de antemano" sobre lo que oye, la mujer dice palabras aparentemente contradictorias, que exige que se las escuchen de manera diferente, para oír otro significado, que está constantemente en proceso de tejerse a sí mismo, abrazando palabras sin

⁵⁷ Oso adierazgarria da euskaraz jolas hitza eta elkarrizketa hitza sinonimoak direla ikustea. Agustin Pascual Iturriagak 1842 idatzitako *Jolasak, dialogos basco.castellanos* izeneko liburua, euskarazko elkarrizketa ikasteko gida-didaktiko bat da. Zenbait herrietan, Hondarribian adibidez, duela gutxi arte jolas hitza elkarrizketa moduan erabiltzea oso ohikoa zen eta jolastu adiera ludikoa esateko jostatu aditza erabiltzen zen.

cesar, y sin embargo arrojándolas para evitar volverse algo fijo, inmovilizado (Irigaray, 1980; in Castellanos, 1995:51).

Honela, gizonaren hizkuntza ez litzateke, soilik, prestigio eta boterea duen hizkuntza. Egituratutako sistema baten indarra ere badu. Emakumeena, ordea, kaotiko eta poetikoa litzateke, kulturaren kanonetik kanpo geratuz (ibid.). Alvarezen ustez “hizkera femeninoaren ezaugarri hauen atzean pentsamolde patriarkala/androzentrikoa agertzen da, rol femeninoa eta maskulinoa zehatzen dituen, bakoitzari portaera eta balio jakin batzuk emanez, sexu/genero bereko pertsona guztiak arau orokortzaileen bidez berdindu nahian” (Alvarez, 2004).

Dena den, uste eta aurreiritzi hauez gain, ildo hau jorratu duten hainbat egile interesgarri topa daitezke. Horien artean Robin Lakoff litzateke erreferentzia nagusia. Haren lanetan bi puntu hauetaz hitz egiten du: hizkera femeninoaren balorazio sozialari buruz, eta emakume eta gizonen artean hizkuntza erabiltzeko modu ezberdinei buruz. Lakoffen ustez (1981) gizon eta emakumeen artean komunikazio estiloen artean dauden ezberdintasunak neska eta mutilek dituzten sozializazio prozesu ezberdinduen ondorioz dira. Lakoffek ezberdintasun hauek topatu zituen “la selección y frecuencia del vocabulario; en las situaciones en que se emplean ciertas lenguas de sintaxis; en la entonación y en otros esquemas suprasegmentales” (Lakoff, 1981; in Gutierrez, 2016:25). Zerrendatutako jokaera horiei jarraituta azken hiru hamarkadetan azalpen eta teoria ezberdinak garatu dira, baina Arantza Gutierrez-en ustez (2016) emakume eta gizonen artean komunikazio estilo ezberdinak egotea ez da harritzekoa sozializazio prozesu ezberdinduak ematen direlako, botere harreman ezberdinduak daudelako eta emakumea arlo pribatuan eta isiltasun publikoan kondenatuta utzi duen egitura patriarkalak daudelako (ibid.) Hala ere:

Como señala Mercedes Bengoechea, eso no quiere decir que un diferente estilo comunicativo signifique un peor estilo (esa sería una visión androcéntrica), y muchas veces lo que es visto como dudas, vacilaciones, (preguntas a los interlocutores, escucha activa, atenuación de las críticas ajenas o méritos propios...) no es sino una invitación a nuestras interlocutoras a una participación activa en debates y conversaciones. (Gutierrez, 2016:25)

Euskararen kasuan hizkera maskulinoa eta femeninoa aztertzerakoan, hizkuntza berari begiratu izan zaio euskara hizkuntza sexista ote den aztertuz. Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit hitanoaren erabileraren inguruan egindako azterketak. Hitanoa erabiltzeak aurrean duzun pertsona emakume edo gizona den ezberdintzera darama. Gizonezkoekin erabiltzen den hika forma egotea ekartzen du, *toka* izenekoa, eta emakumezkoen hika forma ere agertzen da, *noka* deiturikoa. Azken hamarkadetan eman den euskararen biziberritze prozesuan, ordea, generoa

ezberdintzea eskatzen ez duen *zuka*-ren erabilera zabaldu da. Hala ere, hitanoaren formen erabilera bizirik dirau zenbait inguruneko gazteen artean, berriki egindako ikerketa batzuk adierazi duten bezala (Ozaita, 2014; Beitia, 2016) . Ikerketa hauetan argi geratzen da emakumezkoaren forma desagertzeko bidean dela, neska gazteen artean hikaren erabilera oso txikia baita, eta erabiltzekotan gizonetzkoen *toka* forma erabiltzen dutela. Esandako testuinguru horietako mutilen artean, aldiz, hika erabiltzen da lagunarteko hizkera ez-formal gisa.

Joera horiek aztertzeke interesgarria izan daiteke Begoña Echeverria-k (2001) idatzitako “Privileging masculinity in the social construction of basque identity” artikuluari erreparatzea. Hizkuntza-ideologia esparruan kokatu dezakegun azterketa-lan horretan, Etxeberriak ondorioztatzen du euskal “benetako” identitatea, kultura eta maskulinitatearen artean harreman ikoniko bat sortzen dela (2001:259). Harreman hori bide ezberdinen bitartez egiten da (eskola-liburuen testuak, herri-kirolen iruditegia...), eta hizkuntzaren arloan Echeverriak dio hika formaren erabilera dela harreman ikoniko hori sortzeko bidea: “hika is primarily a marker of male-male solidarity” (ibid.:257). Modu horretan hika maskulinitatearen bereizgarri den indarrari lotuta agertuko litzateke eta, batez ere, mutilen arteko txantxa edo eztabaida solasaldiei: “as male use of hika is solified as an essential part of their being, use of hika by women occupies a more ambiguous social space” (ibid.:259).



Laburbilduz, kapitulu honetan zehar ikusi ahal izan dugu genero harremanak desberdinkeria sortzen duten botere harremanak direla, eta hizkuntzaren praktika sozialean eragina zehatza dutela. Sozializazio prozesuaren bidez sortzen diren norbanako ezberdinak (gizonezkoei eta emakumezkoei) hizkuntza-praktika bereziak ezartzen zaizkie, beti ere, hizkuntzaren ezberdintasun horren bidez boterea gizonen esku mantenduz. Izan ere, Uxue Alberdik dioen bezala: hizkuntza normala gizonena da (Alberdi, 2013).

3.2.8.Kategoria dikotomikoei buruzko oharra

Ez nuke atal hau amaitu nahi, genero-azterketak egitean agertu daitezkeen bi arriskuaz aipamen labur bat egin gabe. Dikotomia-pareetan oinarritutako ikerketak egiteak (neska/mutila dikotomia, adibidez), askotan, azterketa zurrunezia egitera garamatza. Halakoetan, kategoria dikotomikoak oso modu itxian ulertzeko arriskua egon daiteke, ñabardurarako aukera gutxi utziz. *Continuum* moduko markoa erabiltzeak konponduko luke arazoak, baina generoaren kategoria hain indartsu ezartzen den testuinguru kultural honetan gizarte-errealitatetik at geratzea litzateke. Horregatik, nire ikerketan zehar neskak eta mutilak kategoriak ezberdindu

ditut etengabe, ikerketaren helburu nagusia generoak euskararen praktikan duen eragina aztertzea baita. Zehazte aldera, esan beharko nuke nire begiradaren arabeko kategorizatu ditut ikerketan parte hartu duten pertsonak neska edo mutil kategorietan, ez baitiet euren genero kokapenari buruz galdetu.

Bi kategoria hauen arabera azterketa egiteak bi arrisku ditu. Batetik, argi eduki behar dugu neska guztiak ez direla berdinak, ezta mutil guztiak ere. Horregatik, generoz gain beste aldagai batzuk kontutan hartu ditut eta nerabeen praktiketan murgildu naiz ahalik eta informazio zabalena jasotzeko asmoz. Horretaz gain, behaketetan jaso ahal izan ditut genero-arauarekin guztiz bat ez zetozen jokabideak eta analisisian jasota geratu direnak. Salbuespenezko adibide hauek oso interesgarriak direla iruditzen zait, arautik kanpo edo mugan dauden subjektuak eta jokabideak araua bera eta erdigunea argien erakusten digutenak baitira. Hauxe liteke bigarren arriskua: mutil eta nesken ezberdintasunak deskribatzeak hauen naturalizazioa indartzea ekar dezake. Mari Luz Estebanek *Crítica del pensamiento amoroso* liburuaren kontra-azalean honela formulatzen du arrisku hau: “¿Nola idatzi etnografía bat nahi gabe gizon eta emakumeak sortzen dituen?” (2011). Genero dikotomiak dakarren botere harremanak gainditzearen beharra argi daukat, baina bide horretan kulturaren arlo ezberdinetan dualismo horrek nola eragiten duen argitzea eta azalaraztea garrantzi handia duela uste dut. Batez ere, ikerketa honetako ikergaiarekin gertatzen den bezala, gai hori (generoaren eragina euskararen praktikan) gutxi landu denean. Azken finean, oraindik orain, generoaz aritu behar gara generoa desagerrarazteko. Hori dela eta, ikerketa honetan generoa landu dut subordinazio ardatza bezala eta baita azterketa kritikoa egiteko kategoria gisa ere.

3.3. Paradigma berria: hizkuntzaren sozializazioa, praktika komunitatea eta hizkuntza-mudantza

3.3.1.Sarrera

Lan honen bigarren atalean ikusi izan dugun bezala, euskararen transmisioaren ardura emakumeen esku utzita funtzio honen feminizazio esentzialista eta, zenbaitetan, euskararen galeraren erruduntasuna gauzatu izan da. Hirugarren zati honetako aurreko kapituluetan (3.2 eta 3.3.) egungo nerabeen artean hizkuntza-praktiken azterketa egiteko ezinbestekoak iruditzen zaizkidan bi ardatz jorratu ditut, gizarteak egituratzen dituen bi botere-harremanei buruz arituz: adinaren araberako botere harremanak eta genero harremanak. Marko eta kokapen hau amaitzeko, hizkuntzaren ikerketan begirada androzentriko eta adultozentrikoa gainditzeko bidean erreparatu beharreko kontzeptu batzuen inguruan arituko naiz. Horretarako Hizkuntzaren Antropologiak eskaintzen dizkigun tresna teoriko-metodologikoetan oinarrituko naiz.

3.3.2.Hizkuntzaren Antropologia

Europako hizkuntza ikerketetan etnografiaren erabilera ohikoa izan ez den arren, Ameriketako Estatu Batuetan ohitura luzea dute etnografian oinarritutako hizkuntza antropologia egiten. Hizkuntza sozializazioaren esparrurako metodo honen baliagarritasuna egiten diren azterketa mikro eta kualitatiboek eskaintzen dituzten datuetan oinarritzen da. Hizkuntzaren azterketa bi motakoa izan daiteke bereizi ohi da: estatusaren ikerketa eta corpusaren azterketa. Corpusaren azterketa filologiarekin zerikusia du (sintaxia, morfologia, joskera...), eta hizkuntzak berak duen kodeari buruzko ikerketa da. Estatusarekin lotutako ikerketak eta plangintzak, aldiz, hizkuntzek gizartean duten egoeraz eta prozesuez arduratzen dira: hizkuntzen erabilera, prestigioa, ezagutza... Hizkuntzaren Antropologia bigarren ikerketa-esparru horretan kokatzen da, hizkuntza prozesu sozial gisa hartuz. Ikuspegi horren barruan, antropologiak berak hizkuntza ikuspegi ezberdinetatik aztertu izan du. Izan ere, hizkuntza bat ikertuz kultura bat ezagutu dezakegu, baina, bestetik, hizkuntzak berak kultura hori eraikitzen du. Hau da, hizkuntza aztertu daiteke antolaketa sozial zabal baten pieza, ikur edo ta adierazle gisa; eta baita gizakiok gure errealitatean eragiteko dugun bitarteko eta estrategia bezala (Hernandez, 2008:27)

Antropologia arloan hizkuntza ikertzea ez da berria, noski, antropologoak beste tokietara bidaiatzerakoan hizkuntza berriekin egiten baizuten topo, eta, hortaz, beharrezkoa baizuten hizkuntza horien ezagutza bereganatzea murgiltzen ziren kultura horien ezagutza egokia eduki ahal izateko. XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierakoak, ordea, hizkuntzaren gramatika eta lexikoa interesatzen zitzairen⁵⁸.

XX mendeko 60ko hamarkadan antropologia barruan paradigma berri bat sortu zen Noam Chomsky hizkuntzalariaren proposamen berrien harira. Planteamendu berri hauek hizkuntza gizarte praktika edo fenomeno gisa aztertzeke beharra azpimarratzen zuten. Bide horretan, John Joseph Gumperz eta Dell Hathaway Hymes komunikazio-gaitasuna terminoa sortu zuten, Kontzeptu honen bidez, hiztunak interakzio egokiak gertatu ahal izateko gizartearen funtzionamenduaren ezagutza behar-beharrezkoa duela adierazi nahi zuten (Zarraga, 2010:34). Egile hauek hizkuntza aztertzeke etnografiak duen garrantzia aldarrikatu zuten. Urte batzuk beranduago, egile batzuk (Alessandro Duranti, Penelope Echert, Sally McConnell-Ginet) aurreko ildo horri jarraituz urrats berri bat ematea proposatzen dute: hizkuntza bigarren planora pasatzea hizkuntzaren gizarte praktika hobeto ulertu ahal izateko. Alessandro Duranti-k proposatzen du hizkuntza formak bigarren mailan uztea, eta bai gizarte formazioek (hierarkia, prestigioa, eta abar), bai prozesu sozialek (hizkuntz komunitatea, hiztunaren konfigurazioa) protagonismoa irabazten joatea (Hernandez, 2008:28). Horren arabera hizkuntzak lagundu dezake egungo gizartearen gizarte egitate konplexuak ulertzen. Planteamendu honek ikerketa-prozesua konplexuago bihurtzen duenez, ikerketa-objektuak mugatuagoak bihurtzen dira, mikro izaerako ikerketa lokalizatuak eginez.

Aurretik azaldu dudan bezala, Euskal Herrian ere egin dira ikuspegi antropologikoarekin hizkuntzaren inguruko ikerketa etnografiko gutxi batzuk. Besteak beste, hauek lirarteke ikerketa etnografikoak egin dituzten egileak: Jose Maria Sanchez Carrión (1981), Teresa Del Valle (1988), Jackie Urla (1999), Jone Miren Hernandez (2005) eta Paula Kasares (2014). Lezon eta Pasaian burutu dudan ikerketan, azken urteetan hirugarren paradigma horretan kokatu diren

⁵⁸ Franz Boas, adibidez, antropologiak lau gai nagusi dituela esan zuen: biologia, arkeologia, kultura eta hizkuntza. Gainera, Boasen ustez antropologia egiteko ezinbestekoa zen kultura bakoitzaren gramatika eta hiztegi gintza ikertzea.

Hernandez⁵⁹ eta Kasaresen⁶⁰ planteamenduei jarraitu diet. Horregatik nerabeen eguneroko praktiketarik abiatu naiz gero hizkuntzara iristeko, hau da, gazteen praktikak oinarritzat hartuta Euskal Herriko hizkuntza-errealitatera hurbilpen bat egin dut. Jarraian, beraz, euskararen ikerketan berritzailea izan den paradigma horren kontzeptu nagusi batzuen zehaztapena egingo dut, nire ikerketarako oinarrizkoak izan baitira.

3.3.3.Paradigma berria: hizkuntza-sozializazioa eta praktika-komunitatea

Euskararen biziberritze prozesuan egiten ari den lan teoriko eta aplikatua bada kontzeptu bat asko errepikatu eta erabili izan dena: hizkuntzaren transmisioa. Euskararen belaunez belauneko jarraipena adierazteko erabiltzen den terminoa, ordea, ez zait erabat baliagarria egiten. Gurean Kasaresek eta Hernandezek proposatutako hizkuntza-sozializazioa eta praktika-komunitatea kontzeptuak askoz egokiagoak iruditzen zaizkit garatu nahi dudana ikerketa lan-ildoak burutzeko. Jarraian, beraz, kontzeptu hauetatik abiatuko naiz, hizkuntzaren antropologian baitan nire kokapen teoriko eta metodologikoaren ardatzetako bat azalduz.

Hizkuntza-sozializazioa

Haur, nerabe eta gazteen hizkuntza ohituren inguruan hitz egiten denean belaunez belauneko jarraipenaz edo hizkuntza transmisioaz aritzea ohikoa da. Soziolinguistika arloan, transmisioa hizkuntzen bizitzaren oinarrian dagoen prozesu gisa hartu izan da, eta horregatik hizkuntza baten biziraupenerako gaztetxoaren hizkuntzaren ezagutza eta erabilera oso garrantzitsua kontsideratzen da (Fishman, 1991).

Esan bezala, ikerketa lan honetan transmisioaz hitz egin ordez hizkuntza-sozializazioa terminoa eta honek inplikitzen duena erabiliko dut. Horretarako, euskararen ikerketan Paula Kasares ikerlariak azken urteetan plazaratu dituzten planteamenduak erabiliko ditut. Kasaresek dio

⁵⁹ Jone Miren Hernández-ek euskararen transmisioaren gaineko ikerketa antropologikoa egin zuen 2007an. Euskara albo batera utziz euskara ikertzeko azterketa lana izan zen. Memoriaren eraketan zentratu zen, komunitatea euren memoria nola eraiki nahi zuen aztertuz. Metodologikoki, gerturapen etnografikoan kokatuta, bizitza-historiak erabili zituen.

⁶⁰ Paula Kasaresek 2014ean “Euskaldun hazi Nafarroan.Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan” lanean diziplinartekotasunaren aldeko hautua egin zuela dio. Dena den, ikerketa honen datu bilketa etnografikoa da. Kasaresek teknika etnografiko hauek erabili zituen: hizkuntza portaeren behaketa zuzena eta partehartzailea, elkarrizketak eta glotobiografiak.

literatura antropolinguistiko anglosaxoian hizkuntza-transmisioa *language socialization* ikerketa arloan jorratu dela:

1980ko hamarkadaren erdialdean Estatu Batuetako zenbait hizkuntzalari eta antropologo hizkuntza sozializazioaren ikerketa lerroa garatzen hasi ziren. Arlo horretako ikertzaileek giza garapenera hurbiltzeko diziplina desberdinak izan dituzte abiaburu (antropologia, [sozio]linguistika, soziologia eta psikologia), aztertzen dituzten gertakarien ikusmolde ahal den holistikoena eta integratzaileena eratzeko. (Kasares, 2014:47)

Ikerketa lerro berri horren arabera, hizkuntza sozializazioa haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da (ibid.). Elinor Ochs eta Bambi B. Schieffelin egileen arabera sozializazioa prozesu jarraitu eta amaigabea da, haurtzarora mugatzen ez dena, heldu jendeak jarrai baitezake sozializatzen rol, estatus edota jarduera berrietan. Hizkuntza sozializazioa haurraren harreman sozialak hasten diren unean abiatzen da —hizketan hasi baino lehenago ere— eta gizon-emakumeen bizitza osoan jarrai dezake. Gainera, hizkuntzaren eta kulturaren elkarrekiko menpekotasuna ematen da: hizkuntza ikastea eta ezagutza soziokulturalaz jabetzea elkarri jositako bi prozesu dira. (ibid.).

Bestalde, hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu: haurrak eta nerabeak nola diren sozializatuak hizkuntzaren bidez eta haurrak eta nerabeak nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko. Alde horretatik, garrantzitsua da nabarmentzea gazteenak hizkuntzaren erabilerarako arauz jabetzen direla hizkuntza gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta (Schieffelin eta Ochs, 1986:184).

Horrekin batera, hizkuntza-sozializazioaren arloko ikerketen arabera nabarmentzen dute —erreprodukzio ideiaaren kutsu mekanikoaren aurrean— haurrak hizkuntzaz jabetzeari gurasoen erabakiek eta nahiek ez ezik, beste faktore gehiagok ere eragiten diotela. Hau da, hizkuntza-sozializazioaren izaera elkarreragilea azpimarratzen da: hiztunak gizarte eta hizkuntza aldaketara egokitzeko gauza da (Kasares, 2014:50). Honek, transmisioaren goitik beherako eta noranzko bakarreko prozesuaren ideia (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana) gainditu egiten du. Gurasoek haurren hizkuntza jarduerak eta jarrerak eratzen dituzte, baina familiaren “hizkuntza ekologian” haurrak eragile dira objektu baino gehiago.

Idea hau oso interesgarria zaigu haurtzaro eta nerabezaroaren antropologiaren ikuspegitik hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragilea haurra edo nerabea ezagutza sozialaren hartzaile pasiboa baino gehiago, gizataldeko bertze kideekin dituen elkarrekintzetan esanahi eta

emaitzen emaile aktiboa baita. Alde horretatik, Debra Friedman-en planteamendua azpimarragarria iruditzen zait:

Debra Friedmanek mintzairen biziberritze prozesuak hizkuntza sozializazioaren paradigmatic egindako ikerketetan bereziki aipatzen dituen alderdietako bat haurren egintzaitasuna (agency) da. Ikertzaileek hizkuntza indarberitze prozesuetan haurrek jokatzen duten rolari jarri diote arreta: neska-mutikoak eraldatzaile aktiboak dira, ez heldu eta zaintzaileen ideologia eta portaeren jasotzaile hutsak. Horretaz gain, sozializazio prozesuan adinkideen eragina ere nabarmendu dute (Friedman, 2012; in Kasares. 2014:57).

Genero ikuspegitik ere, hizkuntza-sozializazioaren izaera elkarreragilea oso interesgarria da, amatasunaren bidez emakumeen gainean jartzen den transmisioaren ardura “deszentralizatzeko” aukera ematen duelako. Hau da, lehen kapituluan argi ikusi dugun emakumeen gain geratzen den euskararen transmisioaren ardura, gizarte elementu anitzen gainean geratzen da.

Baina hizkuntza-sozializazioaren gaineko ikerketek egin duten ekarpenik handienetako bat eguneroko bizitzari aitortu dioten garrantzia da: eguneroko solasaldi arruntak bide sozializatzaile eraginkorra dira eta horiek hizkuntza jarduera gisa ikusteak mintza-errutinei erreparatzeko aukera ematen du. Nire ikerketan puntu honek ere garrantzia izan du nerabeen egunerokotasuneko jarduera eta ekintzetan oinarritu bainaiz. Izan ere, hizkuntza-sozializazioaren ikerketa paradigmaren formulazioan jardueraren teoria funtsezkoa izan da, eta eredu indartsu baina malgua garatu du errutinetan eta ekintzetan oinarritutako hurbilketa analitikorako.

Paradigma berri honetatik, beraz, hizkuntza-komunitatea⁶¹ kontzeptuari kritika egiten zaio gizarte errealitate askotarikoen irudi bateratua idealizatzen duelako, eredu berri bat proposatuz: jarduera-komunitatea (*community of practice*). Ikus dezagun zer den zehazki jarduera edo praktika-komunitatea.

Jarduera edo praktika-komunitatea

Hernandezek idatzitako “Euskara birpentsatu beharra. Ekarpen batzuk antropologiatik” artikuluan, praktika-komunitatea kontzeptua erabiltzeko proposamena egin zuen (2008:35). Praktika-komunitatearen bidez hizkuntza ez da elementu aske eta isolatutzat hartzen, gizarte egiturarekin jartzen da harremanetan “eta hau da, hain zuzen ere errealitatean aurkitzen dugun

⁶¹ Hizkuntza-komunitatea soziolinguistikak aztertzen duen unitate sozial nagusia da. Soziolinguistika Hiztegiaren arabera honela definitu daiteke: lehen hizkuntza bera duten edo hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa (Eusko Jaurlaritza, 2010:34)

egoera. Hiztunak komunitate bateko kideak dira, baina zein paper jokatzen du hizkuntzak komunitate horretan?” (ibid.).

Nire ikerketan, Janet Holmes eta Miriam Meyerhoff-ek “La comunidad de práctica: teorías y metodologías en investigación de lengua y género” artikuluan aipatzen duten Eckert eta McConnel-Ginet-en definizioa erabiliko dut praktika-taldea erabiltzeko garaian:

Un conglomerado de personas que se reúnen alrededor de un compromiso mutuo para llevar a cabo algo. Formas de hacer cosas, formas de hablar, creencias, valores, relaciones de poder – en una palabra: prácticas – surgen en el curso de ese esfuerzo mutuo. Como un constructo social, una CP es diferente de la comunidad tradicional, ante todo porque se define simultáneamente por su membresía y por la práctica en la cual esa membresía se emplea (Lave eta Wenger (1991); in Holmes eta Meyerhoff, 1999).

Egile horiek praktika-komunitatearen kontzeptua hizkuntza-komunitatearekin (speech community) alderatzen dute, eta testuinguru sozialean hizkuntza aztertzeke askoz erabilgarriagoa dela diote. Praktika-komunitatea kontzeptuak norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da. Hizkuntza-komunitatean, ordea, hizkuntza arauak partekatzen dituen homogeneoa den komunitate bat irudikatzen da; taldea norbanakoaren gaineratik dago. Horregatik, hizkuntza-komunitatea aztertzerakoan makrogoa den ikuspegia erabiltzen da (Hernandez, 2008:35).

Kasaresek ere praktika edo jarduera-komunitatearen ereduaren erakargarritasunaz ohartarazten gaitu. Bere ustez, jarduera-komunitatea ez dute kideek bakarrik definitzen ez eta jarduerak bakarrik ere, biak lotzen dituzten harreman kontzeptuek baizik. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekitzat ikustea da:

Jarduera komunitatearen ereduak edozein taldetan aniztasuna dagoela aurreikusten du eta komunitate batean baino gehiagotan (sarritan gainjarrita egonda) parte hartzeko eredu dinamiko eta aldakorak onartzen ditu (Kasares, 2014:54).

Honek guztiak, hizkuntza prozesu sozialak eta norbanakoak dinamiko eta aldakorak direla onartzera behartzen gaitu. Ez dira egitate egonkorak, bilakaeran dauden fenomenoak baizik. Hurrengo kapituluetan, dinamismo honetan sakonduko dugu feminismoak performatibitatearen inguruan egindako hausnarketak hizkuntzaren arlora ekarriz. Baina, horretan sartu aurretik, nerabezaroaz eta adin tarte horretan ematen diren hizkuntza dinamikei buruz arituko naiz. Izan ere, uste dut hizkuntza-sozialazioa eta praktika-komunitatearen paradigma oso baliagarriak direla nerabeekin ikerketak garatzeko.

3.3.4. Gazteak, nerabeak eta euskara

*We are plenty in here
Euzkaditik eginak
and we want to advertise
pasatzen dan egiak
Today-ko gazteak
janzten dira pretty,
powder ipini eta
enseguida all ready
Side-walkien pasatzen den
people guziari
begia ginatu eta
come on right, in honey⁶²*

Aipatu dudan bezala, Fishman eta Sanchez Carrionen teoria soziolinguistikoei jarraituta, euskararen biziberritze prozesuan aritu direnen artean haur eta gazteen hizkuntza-praktikak garrantzitsutzat hartu izan dira. Horren harira, 1990eko hamarkadatik aurrera ikerketa arloan ere lan ezberdinak garatu dira gazteak eta euskara lotuz⁶³. Nire asmoa ez da lan horien guztien errepasso egitea, ezta ikerketa horietatik ondorioztatutakoak zehatz lantzea. Baina, gazteak eta euskara lotzen direnean azken urteetan nabarmendu diren bi alor jorratuko ditut, nerabezeroaren hizkuntza-praktikak ulertzeko gakoak direla iruditzen baitzaizkit. Batetik, gazte hizkerak eta kode-aldaketaren inguruan arituko naiz, lagunartean gazteek dituzten hizkuntza-praktika zehatzetan kokatzeko. Bestetik, dagoeneko ikerketa ezberdinek (Arrue, 2013) erakutsi diguten hizkuntza-mudantza hitz egingo dut.

Gazte-hizkerak eta kode-aldaketa

Hizkuntza sistema guztiek ez dira erabat homogeneousak eta aldaerak dituzte. Mota ezberdinetako aldaerak izaten dira (dialektoak, erregistroak, gizabanako aldaerak...) eta izendapen ezberdinak ere jasotzen dituzte: jerga, argota, slang... Bestalde, hiztun berberak ez du berdín hitz egiten egoera sozial guztietan eta hizketa-gaiaren arabera, komunikatzeko erabiltzen duen moduaren arabera (idatzizkoa, ahozkoa, tresna baten bidezkoa...) eta solaskidearen arabera aldaera bat edo bestea erabiliko du. Azken honi, erregistroa deitzen zaio eta ikerketa lan honetan gazteekin arituko naizenez, gizarte talde honek ohikoa izaten duen erregistroari erreparatuko diot: gazte-hizkerari. Estibaliz Amorrortuk honela definitzen du

⁶² Peiremans izeneko musika taldeak 2016an kaleratutako “Zortziak bat” kantuan musikatutako bertsoak dira. Simon Gandarias-ek idatzi zituen 1932an, Idahon (AEB), “Today-ko neskatilak” izeneko bertso sortan (Lertxundi, 1996:865).

⁶³ Besteak beste egile hauen ikerketak aipatu daitezke: Iraola, 1992; Esnaola, 1999; Jauregi, 2004; Hernandez, 2005; Bereziartua, 2013. Baina, askoz lan gehiago daude.

gazte-hizkera: “gazteek aisialdian lagunekin daudenean bat-bateko egoeran erabiltzen duten hizkera” (Amorrortu, 2005:36) . Lan honetarako nik ere definizio honen arabera erabiliko dut gazte-hizkera kontzeptua baina argi zehaztuta gazteek

erregistro asko dauzkate: helduek bezala, maila idatzia eta ahozkoa argi desberdintzen dituzte; gainera, maila idatzian bertan badakite aldaera ezberdina erabiltzen erosketa-zerrenda, SMS mezu bat eta eskolako txosten bat idazteko. (...) Ahoz ere ez dute zalantzarik jende aurreko ekitaldi baten aurkezpena egin behar badute hizkera osatuago erabili behar dutela (...). Lagunartean aisialdian beste aldaera bat da egokiagoa(ibid.).

Euskarazko gazte-hizkeraren ezaugarriei buruz egile ezberdinek bat datoz: gazte euskara kolokialaren ezaugarri nagusia euskara nahasia izatea da (Amonarriz, 2005:12)

Euskara eta erdara(k) nahasten dira. Euskarazko zatietan, euskara batua eta euskalkiak nahasten dira. Herri bakoitzean, kontsensuzko forma berriak sortu dira: aditzetan batez ere. Nahasketa horretan, ingurune soziolinguistikoak markatzen du, osagai bakoitzaren proportzioa, zenbat batutik, zenbat euskalkitik, zenbat erdaretatik. (...) Jokaera honen helburu nagusia, komunikazioaren adierazkortasunean irabaztea da. (ibid.)

Hizkuntzak nahastearen gertakaria hizkuntza-ukipen testuinguruetan beti agertzen da, eta gazteen hizkuntza praktikak aztertzerakoan oso ohikoa izaten da hizkuntza-alternantziak hitz egitea. Garatu dugun ikerketaren helburua ez da honen inguruko azterketa bat egitea baina nerabeen artean oso nabarmen gertatzen denez, labur-labur fenomeno zer den azaldu nahi izan dut. Jean-Baptiste Coyos-ek “Soziolinguistika Eskuliburua”-n idatzitako “Hizkuntza-Ukipena” kapituluak dio hiztun talde batek bi hizkuntza ezagutzen dituen edo erabiltzen dituenean, hizkuntza horietan eraginak izan daitezkeela. Izan ere, elebidunen kasuan, hizkuntza-alternantzia fenomenoak ematen da, hau da, bi hizkuntzak erabiltzeko joera. Bi motatakoa izan ohi da: alternantzia situazionala, egoera ezberdinen arabera gertatzen den hizkuntza-alternantzia; eta kode-aldaketa (code-switching), berbaldi berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatu hitz egitea (Coyos, 2010:145).

Hizkuntza-alternantziak, beraz, eragina du erabiltzen den hizkuntzan eta eragin horiek izendatzeko erabiltzen den termino generikoa interferentzia da. Interferentzia-motak ezberdinak daude eta eragiten dioten hizkuntzaren alorraren arabera bereizten dira: interferentzia fonetikoak, sintaktikoak eta lexikalak (ibid.:145). Interferentzia hauek hizkuntzan sartzeko modu ezberdinak daude eta Coyosek, nagusiki, kode-aldaketaren bidez sartzen direla adierazten du, bi era nagusi bereiziz: kode-nahasketa eta kode-alternantzia (ibid.:146). Kode-nahasketa esaldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiliz hitz egitea da; adibidez esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea. Kode-alternantzia esaldi batetik bestera hizkuntza aldatzea da; adibidez elkarriketa batean euskaraz agurtzea eta ondoren erdaraz aritzea. Coyosek, Uriel

Weinrich-i jarraituz, (ibid.) ohartarazten digu interferentzia kontaktuan dauden bi hizkuntzetan izan daitekeela baina praktikan, gehienetan interferentziak norabide berean gertatzen direla, gehiengotik gutxiengora. Euskal Herriko kasuan interferentzien bidez erdaretatik euskararako transferentziak gertatzea da ohikoena, eta hala agertzen da gazteen hizkerari buruz egindako ikerketa ezberdinetan.

Imanol Esnaolak, esterako, 1999an Euskal Herri osoko gazteekin egindako ikerketan gazteen euskarazko lagunarteko hizkeran erdararen presentzia nabarmentzen zuen. Gazte hauen diskurtsuari “gazte” kutsua ematen zioten elementuak erdal jatorrikoak zirela ondorioztatu zuen (Esnaola, 1999:31). Askoz berriagoa den Hanna Lantto-k egindako ikerketan gazteen artean hizkuntza-nahasketa oso nabarmena dela berresten da. Bere ustez, gazteen artean *euskañol* deitzen den hori ez da kalitate txarreko euskara; euskararen hizkera informal bat da (2015:54). Erabileran arazoak dituztenentzat kode aldaketa euskarri bat da, eta arazoak ez dituztenentzat informaltasuna emateko modu bat. Lanttoaren ustez *euskañolak* hizkuntza errealitate ezberdinen artean mugitzeko zubi lana egiten du: “The two systems are intertwined and in a constant dynamic movement” (ibid.:50).

Hizkuntza-mudantza

Ikerketa honetan 13 eta 16 urte bitarteko nerabeek kontutan hartu ditut, eta azken urteetan egindako ikerketek argi adierazten dute adin honetan hizkuntza-praktiketan aldaketa nabarmena ematen dela: nerabezaroan gaztelania erabiltzen hasteko joera oso zabaldua dago; euskararen erabileran beherakadarik handiena haurren eta gazteen datuak konparatuz nabari da:

Eskola barruko erabilera zer puntutaraino iritsi den ikusi dugu. Gailur bat agertu da: Lehen Hezkuntzako laugarren mailan, %61ek esaten dute gela barruan ikaskideekin beti euskaraz edo batez ere euskaraz egiten dutela. Ez bilatu inon horrelako daturik: ez dago inon horrelakorik. Euskararen erabileran daukagun tontorra hori da. Mailetan aurrera egin ahala, gelatik kanpora atera ahala, murriztu egiten da. (Amonarriz, 2014)

Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak egindako 2011ko Arrue ikerketaren arabera ikaskideen arteko gela barruko erabilera irauli egiten da: 9-10 urtekoen artean beti euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago %60k egiten badu ere, 13-14 urtekoen %60k beti gaztelaniaz edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten du. Haurtzarotik gaztarora igarotzerakoan hizkuntza-praktiketan aldaketak nabarmenak ematen dira, gaztetxoek aldaera berria (hizkera, hizkuntza, erregistro...) bereganatzen duten momentuetan. Gertakari hau: hizkuntza-mudantza (mudes linguistiques) izenarekin izendatu zuen Joan Pujolar-ek eta nire

ikerketan ere oso erabilgarria suertatu zait kontzeptu hau. Honela definitzen du Pujolarrek hizkuntza-mudantza:

Emprem el concepte de “muda lingüística” per referir-nos tant als canvis com a les permanències lingüístiques que es troben en qualsevol contemplació dinàmica dels usos lingüístics, és a dir, en la comparació entre els usos lingüístics en dos àmbits o camps relacionals o en dos moments diferents. El concepte es pot projectar també a la comparació entre diferents posicionaments lingüístics dels individus, ja siguin relatius a usos, ja ho siguin a adscripcions simbòliques d'identificació lingüística. (Pujolar, Gonzalez, Font, Martínez, 2010a:45)

Honen arabera, hizkuntza praktika dinamiketan gertatzen diren aldaketak eta iraunkortasunak hizkuntza-mudantzak lirake. Mudantzak denboraren araberako konparazioetan agertzen dira, iraganean erabilitako hizkuntza (lehen hizkuntza adibidez) eta gaur egun (ohiko hizkuntza) erabiltzen denaren artean. Baina mudantzak ere ohiko erabileraren hizkuntza eta identitate hizkuntzaren artean gertatzen dira.

Ikerketa soziolinguistikoetan erabiltzen diren profilak eta kategoriak oso estatikoak dira eta inguru eleanitzetako hiztunen praktikak oso konplexuak dira. Alde horretatik, Pujolarrek adierazten digu hizkuntza mudantzen azterketak kategoría estatikoekin apurtzearekin batera hiztunen bizitzan gertatzen diren aldaketen berri ematen digula:

En aquest sentit, investigar les mudes lingüístiques obliga a un canvi de perspectiva i potser a veure el país d'una altra manera. No tan sols adoptem un punt de vista més diacrònic pel fet de tenir en compte els canvis biogràfics en els usos lingüístics, sinó que també assumim que les etiquetes que pengem als individus són més relatives, contingents, provisionals i, en conseqüència, més diverses i disperses. (Pujolar et al., 2010b:67)

Kataluniako gazteekin egindako ikerketan bost aldaketa une bereizi zituzten:(1) Eskola, (2) Institutua, (3) Unibertsitatea, (4) Lan mundua eta (5) Pribatu mailan (bikotea, lagunak, familia). Nik garatutako ikerketan bigarren unean gertatzen den hizkuntza-mudantzei begiratu diet. Beraz, Pujolarrek une horren aldaketen irakurketak zentratuko naiz: institutuan. Institutu unearen hizkuntza mudantzaren ezaugarria haurtzaroaren hizkuntzari uko egitea litzateke. Katalunian, adin tarte honetan, katalana hitz egiteari uko egiten dion taldea agertzen da eta baita, arrazoi akademikoak medio, gaztelania lehen hizkuntza duten batzuk katalanaren erabilera sozialean murgiltzen direnen taldea ere.

Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzerakoan ikasle aldaketa eta nahasketa ematen da. Askotan, auzo eta herri ezberdinetako pertsonen nahasketa ekartzen du eta, askotan, hizkuntza ohitura ezberdinen nahasketa ekar dezake. Batzuentzat familia hizkuntza ikusgai egiteko aukera izan daiteke. Bestetik, garai honetan agertzen dira gazte kulturaren ohikoak diren

talde antagonismoak. Testuinguru honetan, hizkuntza bat hitz egiteak talde edo tribu baten partaide bihurtzea ekar dezake. Bigarren kapituluan Feixaren hitzak ekarriz ikusi dugun bezala, hizkuntza gazte-taldea identifikatzen duen etiketa gisa erabiltzen da, helduekiko edo beste taldeekiko ezberdintzen dituzten ahozko adierazpenak ageriz (hitzak, esamoldeak, tonua...) (Feixa, 1999:101).

3.3.5. Azken urteetako ikerketen harira

Aurretik aipatu dugun bezala, nerabeengana hurbiltzeko haurtzaro eta nerabezeroaren antropologiak eskaintzen digun tresnak teoriko-metodologikoak erabiliko ditut. Nerabeak prozesuan dauden subjektu gisa hartuko ditudanez, erabateko agentzia dutela kontsideratu dut. “Isildutako” norbanako hauek gizarte ikerketen subjektu bihurtzeak haien “agentzia” eta ekiteko gaitasuna berreskuratzeko lagungarria izan daitekela uste baitut.

Nerabezeroaz gaur eta hemen hitz egiteko, nerabeekin hitz egin behar dugula eta, batez ere, eurek hitz egin behar dutela uste dut. Horrek ez du esan nahi azken urteetan gazteak eta euskara lotuz garatu diren bestelako ikerketei begiratu behar ez zaien. Hona hemen, beraz, labur-labur azken hamarkadan Euskal Herrian garatu diren ikerketen emaitza nagusienak. Orain arte irakurritako orrietan lan hauen erreferentzia egin badut ere, ikerketa hauen ondorio nagusienak eta, batez ere, genero aldagaiari buruz aipatzen dutena (aipatzen badute) laburbilduko ditut.

Aztertutako lanek egungo testuinguruan gazteen hizkuntza-ohiturei buruz ondorioztatzen dituztenak zazpi puntutan laburtu daitezke:

- 1) Euskal hiztun kopurua azken hamarkadetan hazi egin da, nagusiki, gazteen artean.
- 2) Euskalduntze prozesu honetan eskolak izan du paper garrantzitsuena. Honek, ondorio batzuk ekarri ditu. Batetik, elebidunen artean gaztelania etxeko hizkuntza dutenak eta gaztelaniaz errazago aritzen direnen kopurua handia izatea. Bestetik, euskara eskolarekin identifikatutako hizkuntza izatea.
- 3) Haur, nerabe eta gazteena dira euskara gehien erabiltzen dutenen adin tartearak.
- 4) Azken hamar urteetan gazteen euskararen erabileran moteltze bat ematen ari da. Geldiune batera iritsi garela dirudi.
- 5) Etxeko hizkuntzak eta gaitasun erlatiboak aldagai giltzarri dira erabilerako. Gaitasun maila altua duten gazteak eta etxean euskara erabiltzeko aukera dutenak dira gehien erabiltzen dutenak.

6. Egoera ez-formaletan euskara erabiltzeko joera txikiagoa da. Zenbat eta testuinguru formalagoa izan, orduan eta presentzia handiagoa du euskarak.

7. Nerabezaroan gaztelania erabiltzen hasteko joera oso zabaldua dago; euskararen erabilera beharakadarik handiena haurren eta gazteen datuak konparatuz nabari da.

Zerrendatutako egitate horien inguruan, azterketa lan guztietan adostasuna dago. Generoari dagokionez, ordea, nekezagoa da ondorio garbirik ateratzea. Batetik, oso lan gutxietan egiten delako aldagai horren inguruko azterketarik, eta, bestetik, guztiak ez datozelako bat.

Arrue proiektua (Eusko Jaurlaritza, 2013) ikerketa kuantitatibo oso handia da⁶⁴. Aztertu dute neska eta mutilen arteko ezberdintasunak erabilerari dagokionez eta alde gutxi dagoela ondorioztatu dute. Dena den, beti ateratzen da neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dutela euskara eta estatistikoki aldeak adierazgarriak dira. Aldeak handiagoak dira ikasleek irakasleekin hitz egiten dutenean, ikaskideekin hitz egiten dutenean baino, eta baita Lehen Hezkuntzan DBHn baino (2013:55). Antzeko datuak topatzen ditugu bost urtero euskararen kale-erabilera neurtzeko egiten den makro-ikerketa batean: Euskal Herriko Kale Neurketa (Soziolinguistika Klusterra, 2011). Egin diren horrelako azken hiru azterketetan haur eta gazteen artean beti emakumezkoak euskara gehiago erabiltzeko joera neurtu dute. Hona hemen Euskal Herri mailako datuak:

	Haur neskak	Haur mutilak	Gazte neskak	Gazte mutilak
2001	21,3	20,0	14,7	11,4
2006	20,2	19,2	14,4	12,0
2011	19,9	18,6	13,9	12,8

Ikusten denez, ez dira diferentzia handiak, baina oso esanguratsua da kasu guztietan neskei beti euskarazko erabilera handiagoa neurtu zaiela mutilei baino. Hala ere, datu hauen inguruko azterketa egiteko idatzitako artikuluetan ez dugu generoari buruzko aipamenik irakurri. Gainontzeko ikerketa orokorretan ere ez da gaia jorratzen, eta herri mailan egindako bi ikerketara hurbildu behar dugu genero aldagaiaren arabera azterketa linguistikoa topatzeko,

⁶⁴ Euskal Autonomi Erkidegoko diru publikoarekin finantzatutako ikastetxeetan (publiko zein itunpeko) eskolatutako Lehen Hezkuntzako 4. mailako (9 edo 10 urtekoak) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Mailako (13 edo 14 urtekoak) ikasle guztiek parte hartu zuten (LMH4ko 18636 ikasle eta DBH2ko 17184 ikasle). Beraz, guztira, 951 ikastetxe ezberdinetako 35820 ikasleen datuak aztertu ziren

hain zuzen ere, 2013an Gipuzkoako hiru herritan egindako hiru ikerketa ezberdinen ondorioetara: Bergara, Arrasate eta Lasarte.

Lasarte-Orian Pello Jauregik 13 eta 24 urte bitarteko gazteekin garatutako ikerketan (2003) 1992an eta 2002an metodologia berarekin egindako datuen konparazioa egiten da. Generoari dagokionez, 2002n ezberdintasunak nabaritu zituzten: “emakumezkoek gizonezkoek baino errazago eskuratzen dute euskaraz mintzatzeko gaitasuna. Baina gizonezkoek emakumezkoek baino tinkoago eusten diote euskaraz egiteari” (Jauregi, 2003:56). 2012an, ordea, ezin izan zuten gauza bera baieztatu. Nesken eta mutilen erabilera aitortuaren datuak oso antzeko eta homogeenak ziren, eta hau ondorioztatu zuten: “ezin dugu esan generoaren araberrako hizkuntza-portaera bestelakoa antzematen denik (...) Ez dirudi gazteen generoak eragin nabarmena duenik hizkuntza-adierazle nagusietan” (ibid.).

Bergaran gauzatu zen ikerketan nerabeen hizkuntza-erabilera formal eta informala aztertzeko datu-bilketa kuantitatibo eta kualitatiboa egin zen. Ikerketa egiteko abiapuntua gazteen artean euskararen erabilera nabaritutako jaitziera dago. Gainera, bazuten aztertu nahi zuten aldagai garrantzitsuak: mutil gazteen artean jaitziera oso nabarmena eman zela. Horrela diote:

Gazteena asko hazi zen urte batzuetan baina azken urteetan zertxobait jaitzi” egin dela jakin dugu; adinaren eta sexuaren aldagaiei erreparatu, gainera,, “umeetan eta bereziki gazteetan aldea handia da: neskek askoz gehiago erabiltzen dute. Mutil gazteen erabilera asko jaitzi da azken urteetan: helduek baino emaitza apalagoak (...); mutil gazteen erabilera baxua da, hain zuzen ere, neurketak urte gehienetan azaltzen duen daturik kezkarrietako bat. (Soziolinguistika Klusterra,2013:5)

Ikerketan, beraz, nerabeen erabilera eragiten duten sei aldagai posibleak zehaztu zituzten, eta tartean honako aldagai hau formulatu: “Sexuak Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera baldintzatzen du”. Emaitzen artean bi gauza nabarmentzen ziren. Batetik, neskek mutilak baino gaitasun-erlatiboa handiago dutela adierazten duena (nesken %63k euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen dela adierazi zuen, mutilen artean, aldiz %42k soilik). Bestetik, nesken euskararen erabilera nabarmen handiagoa dela mutilena baino. Esanguratsua da, aztertutako toki guztietan (kultur jarduerak, entrenamenduak, Gaztelekuan, koadrilan, kalean eta etxean) nesken erabilera askoz handiagoa dela, ikastetxean ezik. Eskolan nesken erabilera zertxobait handiagoa bada ere oso datu antzekoak ateratzen dira, Arrue ikerketen emaitzak baieztatuz. Bergaran egindako ondorioetan baieztatzen dute harremana badela sexuaren eta hizkuntza erabilera artean “orokorrean neskek mutilek baino euskara gehiago erabiltzen dute esparru gehienetan” (ibid.:46). Gertaera honen inguruko azalpenik ematen ez badute ere, koadrilen

izaerekin lotuta egon daitekela iradoki dute: “ideia hau interesgarria da lotzea Bergarako nerabeen harreman sozialekin: koadrilaren izaerarekin eta koadrilatik kanpoko gizarte harremanekin” (ibid.).

Azkenik, Arrasaten 2012an Itxaro Artolak 15 eta 18 urte bitarteko hamabost gazterekin egindako ikerketa kualitatiboa aipatu behar dut. Bertan jasotzen du gazteen pertzepzioen arabera Arrasaten euskaraz hitz egiteko ohitura daukaten lagun taldeak oso gutxi direla. Euskaraz egiteko ohitura dutenak neskek osaturikoak dira, jeneralean (Artola, 2013:76). Ondorioetan, Artolak argi adierazten du neskek euskaraz hitz egiteko ohitura handiagoa dutela mutilek baino (ibid.:80). Horren arrazoia gizartean ezarritako genero rolei egozten die:

Neskek euskaraz hitz egiteko ohitura handiagoa dute mutilek baino. Fenomenoa ez da berria eta susmoa daukagu horren atzean jendarte eredu patriarkalak ezarritako genero rolen banaketaren zama dagoela. Hau da, mutilak modu ez kontzientean boterearekin eta indarrarekin lotzen dugun gaztelerara makurtzen direla, neskek egoera gutxiagotuan dagoen euskararen zaintza euren gain hartzen duten bitartean (Artola, 2013:80)

Laugarren atala

Analisia

Laugarren atal honetan lanaren alderdi enpirikoa aurkeztuko dut. Lezo eta Pasai Donibanen nerabeekin egindako behaketa eta talde-eztabaidetako informazioa aztertuko dut, aurreko orrietan hausnartutako gaien arabera. Atal hau hiru kapituluetan banatuta dago. Lehen zatian, nerabe hauen identitateak eta praktikak aztertuko ditut. Jarraian, bigarren kapituluan, adin honetako gaztetxoek hizkuntza-sozializazioa nolako den ikusiko dut. Azkenik, hirugarren kapituluan, generoa aldagaiak nerabeen hizkuntza-praktiketan zehazki nola operatzen duen aztertuko dut.

Atal bakoitzean tartekatuta ditut gaztetxoek artean egondakoan behatu nituen egoerak, proposatutako dinamiketan agertutakoak eta egindako talde-elkarrizketetan nerabeek esandakoa. Horretaz gain, ikerketan zehar bururatu zaizkidan hausnarketa metodologiko gutxi batzuk ere azalduko ditut analisi honen kapitulu bakoitzaren hasieran; ibilbide etnografikoan gertatutako egoera zehatz batzuk aitzakiatzat hartuz, nerabeekin ikertzeak dituen ñabarduren inguruko ezaugarrietaz hausnartzea interesgarria iruditu baizait.

Nerabeen testigantzak txertatzeko garaian talde-elkarrizketetan parte hartu zuen pertsona bakoitza kode batekin identifikatu dut: letra bat (M edo N) eta zenbaki bat. Ikerketa lan honetan generoa ardatzak garrantzia duenez, M letrak mutila adierazi nahi du eta N letra neska.

4.1. Lezo eta Pasaiko nerabeen identitateak eta praktikak

Lau mutil iritsi dira, nahiko lasai datozen, agurtu dute eta gelaren pareta batean soinketa egiteko dauden horma-barretan igo dira. Bertan geratu dira zain. Jarraian, beste zazpi neska iritsi dira eta ozen agurtu dute “Kaixoooooooo” eta begiraleengana etorri dira zuzenean beraiekin hitz egiteko “Zer egingo dugu?” “Ahal da jan?”. “Zein da hori? (niri begira. Bitartean mutilak baloiekin jolasten hasi dira gelaren albo batean dauden koltxonetetan. Neska batzuk ere koltxonetetan etzan dira. Beste lau neska etorri dira, kirol entrenamendutik datozenela dirudi (buruko hilea bustita dute). Gauden gela eskolako soinketa-gela handi samarra denez oso akustika txarra du eta horrek anabasa giroa areagotzen du. Ondo entzuten ez denez, denek oso ozen hitz egiten dute soinua handiagoa bihurtuz. Giroan aldaketa nabarmena gertatu da mutil talde handi bat sartu denean. 15 gazte sartu dira ozen hitz egiten eta oso aztoratuak. Ez zaie axola begirale bat azalpenak ematen egotea. Koltxonetetara salto egin dute, batzuk bertan etzan dira, barrezka beste batzuk... “Buaaaaa” “Ja, ja, ja...” “Oleeee...”. (2015-10-23 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia)

Nire aitak kontatu izan dit bera txikia zela, Joxe Miel Barandiaran antropologoa euren baserrian lo egiten zuela tarteka. Ataunen bizi ziren, herritik urrun samar, baina Aralar mendilerrotik gertu, eta Barandiaranek baserri hura erabiltzen zuen triku-harrien bilaketa egiteko oinarrizko kanpamendu gisa. Etxekoekin afaldu eta gosaltzen zuenez, kontakizun zaharrak eta ohitura ez hain zaharrak jasotzen zituen beretzat espreski prestatutako logelara atsedean hartzera joan baino lehen. Nik horrela irudikatzen nuen antropologoaren bizitza, toki batera joan eta bertakoekin elkarbizitzan behatu, entzun, hitz egin eta oharrak hartu. Lasai. Beranduago, antropologo klasikoaren monografia batzuk irakurri ditut, eta haien idatzietan antropologia lana hain idilikoa ez dela sumatzen da. Baina, hala ere, monografia horietako esperientziaren xarma gainditu egiten da, “besteak” ezagutzeko egindako lana abentura polita bihurtuz.

Ikerketa honetarako lehen behaketa egitera joan nintzenean, ordea, ez nuen topatu idealizatutako mundu hori guztia: anabasa, buila, kontrolik gabeko mugimendua... Behaketa egitea erraza ez zela izango konturatu nintzen, eta gazteen iritziak jasotzeko prestatutako dinamikak garatzea hare zailago izango zela pentsatu nuen. Angel Diez de Radak dio antropologoaren lana gauzak egiten dituzten pertsonen tokia analizatzea dela: “(...) analizar un “allí”: un lugar donde las personas hacen cosas. Una antropóloga va allí y mira/escucha lo que hacen esas personas a través del concepto de cultura, que básicamente es a través de preguntarse por las reglas y convenciones que esas personas siguen para hacer lo que hacen (eso es la cultura)” (Díaz de Rada, 2014). Ni ere “han egon nintzen”, Pasaian egon nintzen, Lezon egon

nintzen, baina lehen behaketa-egun horretan ez nuen ez araurik, ez konbentziorik topatu. Anabasa topatu nuen. Eta nire aitarekin gogoratu nintzen: nik ere Barandiaran bezala, mundu bukoliko horretako antropologoa izan nahi nuen.

4.1.1.Sarrera

Ikerketa honetan nerabeen egunerokotasunera hurbiltzeko saiakera egin dut. Hizkuntza-egoeraren gizarte konplexutasuna ulertzeko beraiekin espazioa eta denbora partekatzeaz gain, hainbat dinamika proposatu dizkiet aztertu nahi den errealitate linguistikoa azaltzen laguntzeko. Horretarako, gazte/nerabe identitatea osatzen duten elementuak eta adin honetakoek egunerokotasunean garatzen dituzten praktikak jasotzea abiapuntu interesgarria da. Azken finean, nerabeek euren buruei buruz zer esaten duten, nola definitzen dute euren burua, eta beraientzat gaztea izatea zer den jakitea abiapuntu egokia da hizkuntza-praktiken azterketaren bidean.

4.1.2.Gazte-identitatea: zer da gazte izatea?

Ikerketan parte hartu dutenek gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotzen dute: politikak, modernoak, adiskideak, umoretsuak, irribarretsuak, kirolariak... Edertasuna gaztetasunaren ezaugarri nabarmen gisa agertzen da eta gorputzaren garrantzia agerikoa da: kirola, argazkiak, itxura fisikoa... Sexualitateari erreferentzia egitea ere oso ohikoa da. Badirudi, nerabeek bat egiten dutela Mendebaldeko egungo kulturaren hain txertatua dagoen gaztetasunaren balioarekin, eta hari lotutako ezaugarri nagusiekin. Horren arabera, beraz, Feixak deskribatutako Peter Pan sindromearen ereduaren bereizgarriak (1999:108) garrantzi handia dutela ondorioztatu genezake.

Bestetik, nerabe hauek helduarotik baino haurtzarotik gertuago daudela sentitzen dute euren buruak. Izaera kontuetan alaitasunarekin lotutako ezaugarriak hurrekin elkar banatzen dituzte, nahiz eta praktiketan aldaketak sumatu: jolasa pixkanaka desagertzen doan jarduera da, telebista askoz gutxiago ikusten dute... Helduen izaera ezaugarriak deskribatzen dituztenean, ordea, alaitasuna desagertzen da honelako hitzak azalduz: kezakak, arazoak, lana, ardura, seriotasuna, hausnarketa, kexak, haserreak, gaixotasuna... Honetan ere, beraz, Peter Pan sindromearen ereduarekin bat egingo lukete: “hobe da gazte izatea (edo gazte itxura edukitzea) heldua baino” (Feixa, 1999:108).

Halaber, gazteen identitatea kirola eta festarekin oso lotuta agertzen da. Kirola modu generikoan aipatu da gazteen ezaugarri gisa eta ikerketan parte hartu dutenen artean oso ohiko eta garrantzizko praktika da, aurrerago ikusiko den bezala. Festarekin lotutakoak ere nabarmentzen dira (martxa, festak, parranda, mozorroa, mozkorra...), nahiz eta adin honetako nerabeen egunerokotasunean ez den hain nabarmenki praktikatzan duten jarduera: herriko eta oso gertu dauden herrietako jaietara besterik ez dira joaten.

Esperokoa zen moduan, taldeak gazteen identitatearen autopertzepzioan eragin handia duela jaso dut. Nerabeek pareen taldeari, adinkideei, garrantzia handia ematen diote, eta identitatearen autopertzepzioan funtsezkoak dira. Elkarrizketa informaletan jasotako aipamen ugarietan ikus daiteke fenomeno hori: *“batuta gaude”*, *“denak adiskideak gara”*, *“lagunekin ondo pasatzen dugu”*. Eskola eta etxea, aldiz, euren egunerokotasunean eta behatu ditudan elkarrizketa informaletan presente badaude ere, gutxitan aipatzen dituzte gaztetasunaz hitz egiterakoan.

Nolanahi ere, ikerketa honetan ez dira gazte-kultura ezberdinik (talde, tribu...) daudela antzeman. Talde-identitatea zehazteko Feixak definitzen duen estiloa ez da ageri (1999:97). Talde antagonisten aipamen urriak, etorri berriak diren pertsonekin lotutakoak izan dira. Aurretik aztertu izan ditudan beste kasuetan, Donostiako Gros auzoan adibidez, ikastetxea talde antagonistak eraikitzekeko elementu erabakigarria da, eta gazte hauen talde identitatea oso markatua datorrela ikasten duten ikastetxearengatik (Altuna, 2015:54). Donostiako kasuan euskara estilo marka gisa agertu daiteke, eta ikastoletako gazte taldeen etiketa nagusia *euskaldunero* dela jaso ahal izan nuen. Lezon eta Pasai-Donibanen, ordea, 12-16 urteko nerabeen artean ez da hala gertatzen eta bertan dauden bi ikastetxe ezberdinetan ikasten duten nerabeak elkarrekin ibiltzea ohikoa da.

Hizkuntza, musika, estetika, kultura produkzioak eta jarduera edo erritu bereziak (Feixa, 1999:100) izan ohi dira estiloa definitzeko ezaugarri garrantzitsuak, baina egindako behaketetan ez dut nabaritu arropa ezberdindua erabiltzeko joerarik. Nerabeei galdetuta ere ez dute identifikatu estilo ezberdintasunik etikari, hizkuntzari edo jarduerari dagokionez. Musikari dagokionez, 16 urtekoekin izandako elkarrizketan musika estilo espezifiko batzuk aipatu dituzte (rock, heavy, ska) eta adinkide guztiek ez dutela musika bera entzuten esan dute. Ziur aski, ingurune honetan “tribu” eta talde identitate ezberdinduagoetan banatzeko joera adin honetatik aurrera (16-17 urte) hastea ohikoagoa da.

Euskal Herrian ohikoa izaten den bezala, Lezon eta Pasaian kuadrillak dira lagun taldeak osatzeko gizarte egitura informalak. Nerabezaroa une gakoa izan ohi da koadrila hauen osaketan eta ikerketa parte hartu dutenak horrelakoetan antolatuak daude. Itxaro Artolak ondo zehazten duen bezala “koadrilak antolaketa zehatz eta itxiak izaten dira. Ikusi ez arren, sentitzen diren paretak dituztenak. Lagun kopuru zehatz baten bilgune izaten direlako; lagun horiek aisialdirako eratu duten berezko gunea; berezko ohitura eta arauak dituen; baita linguistikoak ere” (Artola, 2013:79). Bi herri hauetan kuadrillen osaketan ikastetxeak garrantzi erlatiboa du, ikusi dugun bezala bi ikastetxeetako haur eta gazteak elkarrekin ibiltzeko joera baitute. Lezoko neska honek azaltzen duen bezala, ziur aski, eskolaz-kanpoko jarduera gehienetan elkarrekin parte hartzen dutelako (auzoko jolasetan, kirola, musika-eskola, aisialdi monitorizatu...):

Txikitan ya hasten zea ezagutzen zure eskolakoak, ta geo ya handiagoa zarenean, adibidez Kuadrillategin ta hola, ya ezagutzen dituzu beste eskoletakoak. Ta hola normalean elkartzen zera. (Neska, 16 urte, Lezo)

Lagun taldeak osaceran nabarmen eragiten duten bi ezaugarriak adina eta sexua (mutil edo neska kontsideratuak diren pertsonak) dira. Urte berean jaiotako neskek alde batetik eta mutilek bestetik osatzen dute kuadrilla. Sexua taldeak egiteko ezaugarri erabakigarria da, zenbaitetan elkartzen badira ere, neskak neskekin eta mutilak mutilekin taldean ibiltzeko joera oso orokortua dago. Horren arabera, beraz, ikus daiteke ikerketa honetako kuadrilla guztiak klasea, etnizitatea eta lurraldea partekatzen dutela, baina belaunaldia eta generoa taldeak egituratzeko ezinbesteko elementuak direla.

Lagun-taldeak osatzeko genero aldagaiak duen garrantziarekin lotuta badago ezaugarri bat ikerketan agertu dena: mutilen kuadrillen tamaina handiago izateko joera. Horren adibide garbiena Lezoko neska honek deskribatzen duen euren belaunaldiko egoera da: “*gu gera zazpi eta mutilak dira hogeita piku*”(N12, Lezoko neska, 16 urte). Arrazoiei buruz galdetuta ez dut erantzun argirik jaso. Batzuetan neska eta mutilen arteko izaera ezaugarri ezberdinei egozten diote. Besteetan, kirol-praktikekin zerikusia duela aipatzen dute:

M7: igual mutilak inizatiba gehio...

N12: Zabalagoak...Neskak igual gera gehio más como "nik zurekin ez"

M7: Bai hoi da

M8: Eta futbolak zerikusia euki dezake.

N12: Puede ser...

M7: Izan daiteke. Igual edozein kirol kontua...elkar ibiltzea elkarrekin jolasten, zuen artean, eiten da kuadrilla bezela, ez?

(Lezo, 16 urtekoak)

Ikusi dudanaren arabera, bi herri hauetan hizkuntza ez da kuadrillak osatzeko aldagai garrantzitsurik. Hizkuntza nortasunari dagokionez, nerabe hauentzat euskara ez da agertzen gazte identitatearen parte zentral gisa. Pasai Donibanen gazte ezaugarriak irudikatzen egindako dinamikan (Dinamika 1.1) ez da talde bakar batean ere euskarari aipamenik egin. Lezon, aldiz, dinamika hau garatzeko osatutako lau taldetatik bik euskara aipatu dute: batek “*beti euskaraz*” jarri du beraien identitatearen parte balitz bezala, eta beste talde batek euskara beste ezaugarri hauen artean jarri ditu: *Gure natura, Maitasuna, Laguntasuna*. Esanguratsua egin zait bi talde hauek zirela neskez osatutako taldeak. Hizkuntzari aipamenik egin ez duten beste bi taldeak mutilen taldeak ziren. Ikusi daiteke, beraz, Jone Miren Hernandezek Bilbon egindako ikerketan ondorioztatzen duen bezala, Lezo eta Pasaiako nerabeen artean euskara pisu gutxiko aldagaia dela euren burua definitzeko edo aurkezteko orduan (Hernandez, 2005).



Laburbilduz, ikerketan parte hartu dutenek gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotzen dute, eta gazteen identitatea kirola eta festarekin oso lotuta agertzen dela esan daiteke. Adinkideen taldeari berebiziko garrantzia ematen diote, baina ez dira estilo ezberdinetako gazte-kulturak agertzen. Jaiotza urtea eta norberari egozten zaion sexua dira lagun-talde ezberdinak osatzeko funtsezko ezaugarriak, gainontzeko aldagaiak (klasea, etnizitatea eta lurraldea) oso homogenoak direlarik. Agertutako elementu horiek guztiak interesgarriak izango zaizkigu genero ikuspegitik hizkuntza dinamikak ulertzeko. Hain zuzen ere, nerabeen identitatea osatzen duten ezaugarri horiek guztiak genero aldagaiak zeharkatuta baitaude eta, batez ere, lagun-taldeak osatzeko erabiltzen den sexu-banaketaren irizpideak nerabeen praktikan garrantzia izango duelako.

4.1.3. Gazteen praktikak

Marko teorikoan zehaztu dudan bezala, ikerketa honetan gazteek dituzten bizipenetara eta diskurtsuetara iristeko euren egunerokotasuneko praktikatik abiatzeko hautua egin dut. Horretarako, Hizkuntza Antropologian azken hamarkadetan erabiltzen den praktika-

komunitatea kontzeptua garrantzitsua izan da. Lehenago aipatu dudan bezala, kontzeptu hau norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen da, eta behaketetan eta elkarrizketetan jaso dudanaren arabera, Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeek praktika-komunitate ezberdinetan parte hartzen dute.

Adin honetako pertsonen praktikak hiru multzo handietan banatu ditzakegu: 1) Etxea; 2) Eskola; eta 3) Aisialdia. Argi dago eskola eta etxea nerabe hauen bizitzan garrantzi kuantitatibo eta kualitatibo handia dutela, baina, aurretik egindako ikerketa batzuetan agertzen den moduan esparru hauek ez dira gehiegi agertzen gazteen elkarrizketetan. Horren adibidea behaketen hirugarren egunean proposatu nien dinamika da (Dinamika 3.1). Taldeka euren egunerokotasuneko jarduera bat prestatu eta antzeztu behar zuten. Antzeztu zituzten zazpi egoeren artean gehienak aisialdian egiten dituzten jarduerekin harremana zuten: futbola, eskubaloia, zinema, kalea eta liburutegia⁶⁵. Beste antzezpen batean eskola irudikatu zuten, eta bakar batean ikusten zen etxeko giroa .

Nabarmendu behar da eskola eta etxeko antzezpenetan egoera ez atseginak irudikatu zituztela: ikasgela barruko asperdura eta anai-arreben arteko borrokak. Izan ere, bi arlo hauetan nerabeek aipatu dituzten aldaketak praktiketan baino harremanetan zentratu dituzte. Elkarrizketetan nabari da gurasoekin planak egiteko joera pixkanaka murrizten joaten dela lagun taldearekin denbora gehiago pasatzeko joera handituz. Eskolan ere aldaketak irakasleekin dituzten harremanetan eta ikasgaien zailtasunean daudela dirudi. Oro har irakasleekin eta gurasoekin harremanetan agertzen diren aipamen asko gatazkaren bidez deskribatu dituzte: zigorrak, bihurrikeriak, irakasleen kritikak, haserreak, asperdura...

Horren adibide argia Lezon laugarren behaketa-egunaren amaieran gertatu zen. Begirale batekin izandako elkarrizketa informal luze batean eskola gai zentrala zen: irakasleak kritikatzeko zituzten, notei buruz eta hauen ondorioz izaten dituzten zigorrak, ikasgelan egiten dituzten bihurrikeriak, irakasleei jartzen dizkieten ezizenak... Elkarrizketa nahiko txantxa giroan garatu zen arren, eskolaren inguruko bizipen on gutxi agertu zen. Gurasoei dagokionez, behaketetan jasotako elkarrizketa informaletan ere, aipamen ohikoa zigorrarena da. Gurasoen ustez zuzena ez den jokabide baten ondorio gisako zigorrak maiz entzun ditut: notengatik, eskolan egindako bihurrikeriengatik... Gehien errepikatzen diren zigorrak hauek dira: mugikorra erabiltzeko debekua eta asteburuetan lagunekin ateratzeko baimenik gabe uztea.

⁶⁵ Itxuraz, liburutegia eskolarekin harremana badu ere, Pasai-Donibanen nerabe batzuk aste barruan elkartzeko gune gisa erabiltzen dute eta antzezpenean hala ikusi da: jolastu, musika entzun, barrea egin...

Aisialdia da egungo nerabeen praktiken hirugarren multzo garrantzitsua eta, ziur aski, euren talde-identitatearen osaketa garrantzi handiena duena, bertan garatzen baitizute adinkideekin jarduera nagusienak. Lezon eta Pasaian garatutako ikerketan aisialdi-praktikak nabarmen ageri dira nerabeen bizipenen kontakizunetan eta behatu ahal izan diren espazioetan. Aisialdiko praktika hauen azterketa egiteko *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan* argitalpenean (Berri-Otxoa et al., 2003) proposatutako eskema erabili dut.

<ul style="list-style-type: none"> • GUNE • MONITORIZATUAK • KIROLA • KULTURA • AISIALDI TALDEAK • Gaztetxoek aisialdirako helduek propio sortutako jarduerak eta azpiegiturak, normalean begiraleen ardurapean. 	<ul style="list-style-type: none"> • GUNE • BIRZIKLATUAK • KALEA, • PLAZA, PARKEAK, • ATARIAK... • Gaztetxoek erabilpen pribatua ahalbidetzen duten leku publikoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • BEREZKO • GUNEAK • TABERNAK, • LOKALAK, • GAZTETXEAK... • Gaztetxoek aisialdirako sortutako edo beraganatutako espazioak eta denborak.
--	---	---

Gune monitorizatuak

Kirola garrantzi handiko esparrua da. Zalantzarik gabe, eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena da, bai praktikan, bai gazteen zaletasun aldetik ere. Nerabeen arteko hizketaldi informaletan asko errepikatzen den gaia izateaz gain, gazteen artean gehiengo bat kirolaren bat praktikatzen dute eskola orduetatik kanpo. Horren erakusle garbia behaketak burutu dudana Kuadrillategi programan kirolak duen eragina da: ostirala arratsaldetan antolatzen den jarduera honetara gazte asko kirol entrenamendua egin ondoren etortzen da. Lezon adibidez, bost bat neska eskubaloia entrenamendutik zuzenean etortzen dira eta ia mutil gehienak, 15 bat, futbol entrenamendua egin eta gero etortzen dira. Hare gehiago, Kuadrillategi programaren ordutegia egokitzea (ordubete beranduago hastea) adostu zuten entrenamendu hauengatik.

Esan bezala 13-16 urteko gazte gehienek kirol praktikaren bat egiten dutela jaso dugu, baina futbola da nabarmen presentzia handiena duen kirola. Hala ere, mutil eta nesken artean joera ezberdinak daude. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez dago hain orokortua eta kirol aniztasun handiago dago. Eskubaloia da gehien praktikatzen dena, eta saskibaloia eta futbola ere dezente aipatu dira. Horiekin batera beste kirol ugari ere agertzen dira: korrika, dantza, gimnasia erritmikoa, hipika, surfa...

M1: Ez duzuenak egiten kirola...

N1: Bai egiten degu, ez degu egiten futbola, baina bai egiten degu kirola.

M1: Ah bai! Bai, bai...

N2: Futbola ez da mundun dagon kirol bakarra.

(Lezon, 13-14 urtekoak)

Mutilei dagokionez, ia guztiek futbola praktikatzen dute eta batzuk, horretaz gain, beste kirolen bat ere egiten dute. Behaketetan oso argi jaso ahal izan dut mutilek garrantzi handia ematen diotela futbolari, eta euren bizitzaren erdigunea dela agertzen dute: entrenatzeaz eta partidak jokatzeaz gain, futbol profesionala jarraitzen dute, mugikorretan partiden emaitzak jasotzen dituzte, aisialdi tarteetan baloiarekin aritzen dira eta mutil arteko hizketaldien gai nagusia futbola da. Horrek alderdi ezberdinetan ondorio batzuk dituela nabaritu ahal izan dut. Esate baterako, Lezon behatu ditudan saio guztietan mutilen sarrera oso nabarmena zen. Berandu iristen ziren futbol entrenamendu amaitu ondoren, eta hamabost bat mutil batera saioak burutzen ziren gelara sartzen ziren aztoratuak, ozen hitz egiten, une horretan garatzen ari zen dinamikari kasurik egin gabe eta iritsi zirela argi nabarmenduz. Bigarren behaketa-egunean garatutako dinamikan ere (Dinamika 2.1) futbolaren presentzia oso nabarmena izan zen mutilen artean: mutilen mapa guztietan herriko futbol zelaia markatu zuten, bai futbolekin aritzen direlako bai partidak ikustera joaten direlako.

Esan bezala, nesken artean kirol praktikaren bat egitea ohikoa den arren, aniztasuna handiago dago, eta euren aipamenetan eta jokabideetan ez da hainbeste nabarmentzen. Eskubaloia da Lezo eta Pasaiako nesken artean presentzia handiena duen kirola. Batzuk Donostiako Bera Bera taldean dabilta eta beste batzuk Errenteriako Ereintza taldean⁶⁶. Esate baterako, Lezon egindako behaketetan bost neska eskubaloia entrenamendutik zuzenean etortzen ziren baina ez zuten mutilek bezain argi adierazten. Hala ere, eskubaloiak beraien egunerokotasunean garrantzia duela jaso ahal izan dut; elkarrizketa batzuetan kirol honi buruz hizketan entzun ditut eta hirugarren eguneko dinamikan (Dinamika 3.2) eskubaloia entrenamendu bat antzetzuten.

Bada, hala ere, gehiegi sakontzeko aukerarik izan ez dudan alderdi bat: adina aurrera joan ahala kirol-praktika baztertzea. 16 urteko gazteekin izandako elkarrizketan horren zantzuak nabaritu nituen:

Galdera: Zuek kuadrillak guztik ibiltzen zeate futboletan? edo gehienak?

M8: Gehienak. Uain arte bai, gehienak ta uain batzuk hasi dira uzten.

⁶⁶ Bera Bera oso talde indartsua da emakumezko eskubaloia esparruan. Azken urteetan Espainiako Ligako talde indartsuena izan da. Ereintza ere talde garrantzitsua da. Espainako bigarren eta hirugarren mailan jokatzen duen taldea da.

M7: bai, baina gehienak..., gutxienez elkarrekin jolastu kalean bai.

N12: Gu hasi ginen kirolean, kuadrillan bastante. Ta gero ya utzi degu. O sea, no nos interesa; así de claro!

(Lezo, 16 urtekoak)

Elkarrizketa zati motz honetan bi joera nabarmendu daitezke. Batetik, 16 urtetik aurrera kirol arautua uztearen joera; mutiletan eta nesketan ematen dena baina askoz nabarmenagoa nesketan. Bestetik, neskek kirola garrantzi txikiagorekin bizi dutela.

Kultura jardueren presentzia apalagoa jaso dut kirolarena baino. Ez dira kultura jarduerekin lotutako aipamen gehiegirik jaso. Batzuk musikan, antzerkian edo dantzan aritzen badira ere, nerabe hauen kontakizunetan edo dinamiketan jasotako datuetan ez daude oso presente. Aisialdi taldeei eta jarduera antolatuei dagokionez, Kuadrillategi programa da ageri zaigun bakarra. Programa hau gune monitorizatua izan arren birziklatutako gunetara hurbiltzen den eredia dela ikusi ahal izan dut. Egiten den herrietan arrakasta duen jarduera da, eta nerabeei zergatik hartzen duten parte galdetu diet. Gehien bat, ondo pasatzen dutelako eta lagunekin hizketan eta jolasten egoteko tartea eskaintzen dietelako parte hartzen dute. Bada, nire ustez, beste elementu garrantzitsua honelako aisialdi programetan: begiraleek gazteekin lortzen duten konplizitatea. Behatutako bi herrietan gazteek begiraleekin hitz egiteko joera oso nabarmena da. Begirale batek esan zidan bezala “*gazteek gauza asko kontatzen dizkirate, batzuetan gehiegi!. Gurasoei kontatzen ez dizkieten gauzak nirekin konpartitzen dituzte*”. Horrela, interesatzen zaizkien gaien inguruan elkarrizketa informal asko entzun ditugu: sexua, drogak, harremanak... Badirudi, nerabeek interesa duten gai horien inguruko informazio beharra dutela, eta gurasoekin eta irakasleekin nekez aipatuko luketen kontuak, begiraleekin konfiantzaz aritu daitezkeela.

Gune birziklatuak

Ikerketan parte hartu duten nerabeentzat kalea da aisialdi ez-formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa. Adin bereko gazteekin konpartitzen dituzte espazio hauek, lagun-talde edo kuadrilla ezberdinak toki berean elkartzeko joera baitute: plaza, kale eta parkeetan. Euren deskribapenetan espazio hauen deserosotasuna eta, zenbaitetan, asperdura ageri dira: “*Neguan hotza pasatzen dugu kalean*”, “*bankuetan egoten gara sin más*. Egon aditza asko errepikatu dute, eta egote horretan honelakoak aipatu dituzte: hitz egin, argazkiak atera, mugikorrarekin aritu, gozokiak jan. Lezon, adibidez, toki bakoitzean zer egiten duten galdetzerakoan bat bateko erantzuna “*guztietan eserita egon!*” izan da. Badirudi, hala ere,

mutilak neskak baino gehiago mugitzeko joera dutela. Behaketaren bigarren eguneko dinamikan (Dinamika 2.1) mutil talde batek egindakoa ikustera hurbildu nintzen eta mapan toki asko markatu zituztela ikusi nuen. Horren inguruan galdera luzatu nien eta hala erantzun zidan mutil batek: *“somos nómadas!, mugitzen gara”*. Nesken maparen aurkezpena egiterakoan, ordea, mapan kokatu dituzten toki guztietan neskek gauza bera egiten dutela esan zuten *“hitz egin eta txutxumutxuak kontatu”*. Hala ere, gune birziklatuetan mugimenduzko jarduera batzuk egiten dituztela jaso ahal izan dut: baloi jolasak, harrapaketa ibili, musika entzunez dantza...

Ez dirudi, bizi diren herrietatik gehiegi aldentzen direnik, baina, hala ere, nesken artean asteburu batzuetan Donostiara joateko joera jaso dut. Hiriburuan bi jarduera egiten omen dituzte: argazkiak atera eta arropa dendetan ibili. Nesken artean argazkiak ateratzea lagunarteko aisialdian ohikoa den jarduera dela jaso ahal izan dut: behatutako talde guztietan horrekin lotutako aipamenak agertu dira. Azkenik, espazio birziklatu hauetan tarteka egiten duten beste praktika bat ere agertu da: festa. Aurretik aipatu dudan bezala, lehen egunean nabarmen agertu zen jarduera hau, nahiz eta euren herriko jaietatik aparte, oraindik, ez dirudi oso ohikoa duten praktika denik.

Berezko guneak

Berezko guneak gaztetxoek aisialdirako sortutako eta berreskuratutako espazio eta denborak dira. Berezko gune hauek gazteen identitate osaketan garrantzia handia dute (Hernandez, 2011: 590), baina ikerketako nerabeek ez dituzte berezko gunerik apenas erabiltzen. Ziur aski honen arrazoiak adina da; gehienak lokala edukitzeko, Gaztetxe moduko espazioan edo taberna giroan ibiltzeko adina nahikorik ez duelako. 16 urte dituztenen artean lagunartean lokala hartzeko joera dagoela dirudi. Hala ere, neska eta mutilen artean ezberdintasunik dagoela adierazi didate eta elkarrizketatu ditudan adin honetako mutilak lokala duten arren, neskek ez dute horretarako gurasoen baimenik jaso. Gazteago direnei gai honi buruz galdetuta, denek adierazi dute gogo handia dutela lagunarteak lokal bat alokatzeko, nahiz eta oraingoz zaila ikusten duten:

Galdera: Gustatuko litzaizueke lokala edukitzea?

M4: Bai! Joe!. Gela batean goxo, lagunekin hitz egiten eta ez kalean hotza pasatzen.

(Lezoko 14 urteko nerabea)

Lokala duten mutilei bertan egiten dutenaren inguruan galdetuta, nagusiki, bi motatako erantzunak jaso ditut. Batetik, bideo-jokoetan jokatzeko edo filmaren bat ikusteko pasatzen dute bertan denbora. Bestetik, erre nahi dutenentzat toki pribatu eta aproposa omen da:

M7: Gutxigora behera ya da egunari bukaera emateko. Egote dena hor egun guztia da erretzen dulako, sin más...

M8: Hoi da. Edo jolasten.

M7: Egualdi txarrakin Play-a jolasten.

M8: Edo pelikula bat ikustea.

M7: Konpetizio bat egin, Play-ena. Geo nahi bazu pelikula bat ikusi si eso, eta etxea.

(Lezokoak, 16 urte)

Lokalen fenomenoaren bidez egungo gazteek jarduera publikoen pribatizazioaren alde egin dute. Feixak proposatutako “gelaren kultura” ereduari jarraituz aisialdiaren pribatizazioa handitzen ari da:

Egungo aisialdian bi fenomeno ematen ari dira: pribatutasuna eta teknologizazioa. Batetik, egungo gazteek jarduera publikoen pribatizazioaren alde egin dute eta lonjen fenomeno horren muturreko adibidea litzateke. Bestetik, teknologia “berriak” aisialdia egituratzeko eta kudeatzeko tresna garrantzitsuak bihurtu dira (Hernandez, 2011:595).

Hain zuzen ere, pribatutasunaren alde ari den elementu garrantzitsua informazio eta komunikazio teknologien (IKT) arloa da. Horregatik, ez dut nerabeen praktiken atal hau amaitu nahi, ikerketa honetan IKTei buruz jasotakoa aipatu gabe.

Informazio eta Komunikazio Teknologia

Feixak proposatutako *Blade Runner sindromearen* gazteak (gaztaroaren XXI. mendean sortutako eredu berria) gizarteratzeko eredu birtual baten beharra dute (2011:108). Interneteko komunitate birtualaren agerpenarekin, gazteek ia derrigorrezkoa dute IKTen sarean murgiltzea, eta telefono mugikorra da horretarako tresna nagusia. Pasaian eta Lezon garatutako ikerketan telefono mugikorrek nerabeen aisialdian erabateko presentzia dutela jaso dut. Behatutako saioetan tresna hauek oso presente egon dira, eta adin honetako talde dinamikan parte hartzeko beharrezkotzat jotzen dute. Erabilera hauek ematen diete mugikorrei: musika entzun, argazkiak atera, mezuen bidez komunikatu, futbol partiden emaitzak jarraitu eta jokoetan aritu.

Oso esanguratsua egin zait behatu ditudan guneetan mugikorren inguruan araudi bat ezarria zutela. Ikasturte hasieran Kuadrillategi programaren begirale eta gazteen artean adostu zuten mugikorrek ez zituztela erabiliko. Hala ere, betetzen ez den araua da. Pasaian gazteak iristerakoan kutxa batean sartu behar zituzten mugikorrek eta saioa bukatu arte ezin zuten jaso. Gazte batzuk ez dutela nahi adierazten zuten, eta, orokorrean, araua betetzeko arazo handirik ez bazegoen ere, nerabe batzuk telefonoa eskuan ikusi izan ditut. Lezon ahalegin handirik ez zen egiten araua betearazteko. Ondorioz, gazte askok etengabe erabiltzen zituzten mugikorrek, bai talde txikietan bai talde handietan zeudenean. Mezuak jaso eta bidaltzen zebiltzatela zirudien. Nirekin zituzten zenbait elkarrizketa informaletan ere mugikorra eskuetan edukitzea ohikoa zen: hizketan ari dira baina era berean mugikorrari adi daude.

Itxuraz, mugikorraren bidez sortzen diren sare sozialetan egotea oso garrantzitsua da adin honetako nerabeentzat bizitza sozialaren erdigunean egoteko. Horren adibidea da Lezon jaso nuen elkarrizketa hau:

M1: Nik ez det ia erabiltzen mobila.

N1: Bai! Ixo! Ez dezu edaten, ez zera ateratzen gauetan, ez dezu mugikorra erabiltzen, o sea!... Kar, kar, kar...Ez dezu erderaz hitz egiten...

M2: Ez dauka vida sozialik

(Lezoko gazteak, 13-14 urtekoak)



Horrenbestez, nerabe hauen egunerokotasunaren praktikak laburbildu ditzakegu aisialdiko jardueren garrantzia hartzen dutela esanez. Horien artean, kirola oso presente dagoen praktika da, nahiz eta, mutil eta nesken artean joera ezberdinak nabari diren. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez da hain orokorra eta kirol aniztasun handiago dago. Mutilek garrantzi handia ematen diote futbolari, eta euren bizitzaren erdigunea dela agertzen dute. Bestetik, nerabe hauentzat kalea da aisialdi ez-formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa. Lagunartean kalean egote horretan ere ezberdintasun batzuk deskribatu dituzte, mutilak neskak baino gehiago mugitzeko joera dutela adieraziz. Azkenik, oso esanguratsua da telefono mugikorrek nerabeen aisialdian duten erabateko presentzia. Jarraian, beraz, praktika hauek guztiak dituzten gazteen hizkuntza jarduera nolakoa den aztertuko dut. Hau da, praktika-komunitate anitzetan parte hartzen dituzten Lezo eta Pasai-Donibaneko neska eta mutilen hizkuntza-praktiketan murgilduko naiz.

4.2. Lezo eta Pasaiako nerabeen hizkuntza-sozializazioa

Bigarren taldea hiru mutilez osatua dago. Bideo grabazioa egitera joan naizenean oso aztoratuak topatu ditut. Ez dirudi gauza handirik prestatu dutenik eta hasi garenean grabatzen lotsatu dira. Ez dira beraien artean ados jartzen eta berriro hasi behar izan dugu. Hiru mutilen arteko kaleko borroka bat antzeztu dute. Lurrera erortzen dira, batetik bestera bortizki mugitzen dira. Elkarrizketarik ez dago, builak eta irainak soilik: “Hijo de puta!” ,“ostia que dolor!”, “puto nigger!”. (2015-11-20 Pasai Donibane. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia)

Mari Luz Esteban 2016ko otsailen Ikerketa Feministak eta Generokoak Masterrean metodologiari buruz hitz egiterakoan eszenaren garrantziari buruz hitz egin zigun. Bere ustez, lan etnografiko batean garrantzitsua da eszenak topatzea: elkarrizketak egiterakoan eszena zehatzei buruz galdetu behar da, ondoren, eszena horiek deskribatzeko. Nik egindako behaketan eszena ugari topatu ditut, eta horietako batzuk txosten honetan deskribatzen ari naiz, baina orri honetan islatzen den eszena ohikoa bihurtu zitzaidan behaketa lanean zehar. Hizkuntza ikertu nahi nuen eta behatutako testuinguruan hizkuntza gutxi agertzen zela konturatu nintzen. Edo solasaldi, elkarrizketa edo hizkera garatu gisa ulertu daiteken hizkuntza, behintzat, ez nuen topatzen. Agertzen ziren hitz solteak, esamolde motzak, deiak, irainak, barreak, kalifikatiboak... Eta dena mugimenduarekin oso lotuta, espazioan kokatzeko moduarekin, testuinguru horretan aktuatze/jokatzeko moduarekin.

Zorionez, behaketa aurrera joan ahala, hizkuntzaren dimentsio anitzak behatzen ari nintzela konturatu nintzen. Elkarrizketa garatu bat, soilik, hizkuntza praktikatzeko modu bat dela. Beste modu asko daudela, tartean isiltasuna. Konturatu nintzen, hitz egiteko eta ez-hitz egiteko modu horiek guztiak asko adierazten dutela.

4.2.1. Hizkuntza-sozializazioa

Hizkuntza sozializazioaren bidez pertsona bat komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzen ditu (Kasares, 2014:47). Prozesu hau haurren harreman sozialak hasten diren unean abiatzen da eta gizon-emakumeen bizitza osoan jarrai dezake. Nire ikerketan nerabezaroan ematen den hizkuntza-sozializazioan zentratu naiz, eta horretarako aurreko kapituluan jasotako gazteen praktiketan oinarritu naiz.

Haur eta nerabeen sozializazioan etxea eta eskola garrantzi handiko guneak dira, eta azken hamarkadetan eman den euskararen biziberritze prozesuan bi gune hauek ezinbesteko papera jokatu dute. Euskalduntze prozesuan eskolak izan du paper garrantzitsuena, eta honek, ondorio batzuk ekarri ditu. Batetik, elebidunen artean gaztelania etxeko hizkuntza dutenak eta gaztelaniaz errazago aritzen direnen kopurua handia izatea. Bestetik, euskara eskolarekin identifikatutako hizkuntza izatea. Hain zuzen ere, bigarren aldagai hau oso argi agertu da Lezo eta Pasai Donibaneko gazteen artean. Eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute:

Galdera: Ba al dago toki edo jardueraren bat euskerarekin lotzen dezuena?

M8: Eskola igual, klasetan. Hoi da.

N12: Ya, bai. Eskolan. Klasetan. Beti da "euskeraz hitz egin behar dezute hemen" (...) esaten dizute "euskeraz hitz egin, tío!. Euskerako klasean zaude, eh!". Gela barruan gero patioan ez.

(Lezo, 16 urtekoak)

Etxea eta euskararen arteko lotura, aldiz, anitzagoa dela jaso ahal izan dut. Nerabe hauen gurasoen artean hizkuntza-egoera ezberdinak daudenez, etxean hizkuntza-sozializazio prozesu ezberdinak bizi dituzte. Dena den, haurtzaroarekin konparatuz, bai eskola, bai etxea, pixkanaka garrantzia galtzen hasten dira aisialdian garatzen dituzten beste praktiken aldean, eta horrek isla argia du hizkuntza gizarte prozesuetan.

Praktiken azterketan ikusi den bezala, ikerketa parte hartu duten nerabeen artean gune monitorizatuak eta birziklatuak garrantzi handia dute. Hain zuzen, azken urteetan euskararen inguruan egindako hainbat ikerketak, aisialdian garatzen diren jardueren garrantzia azpimarratu izan dute. Horren adibide esanguratsuena Arrue izeneko ikerketa da (Eusko Jaurlaritza, 2013). Bertan ondorioztatu zuten DBH2n hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko jardura antolatuetan

dela ikasleen eskolako erabilera orokorrean garrantzia handiena duen aldagaia⁶⁷. Beraz, eskolaz kanpoko hizkuntza-giroak eskolaren baitako erabileran duen zeharkako eragina handia da (Eusko Jaurlaritza, 2013:61). Horrek bat egiten du, hirugarren kapituluan azpimarratu dudan ideiarekin: aisialdia da gazteen identitatea osatzeko ezinbesteko gunea: “gazteek, neurri handi batean, aisialdiaren bitartez eraikitzen dute euren bizimodua, izaera, diskurtso... euren gazte izateko era” (Hernandez, 2011:591).

Kirola da aisialdiko hauen artean nabarmendu den praktika, eta hizkuntzari dagokionez, nerabe hauen kirol praktiketan euskararen presentzia ez dela oso handia esan behar da. Bigarren eguneko dinamikan jaso nuenaren arabera (Dinamika 2.2) bi dira soilik euskararekin erabat identifikatu dituzten kirolak: esku-pilota eta arrauna. Gehien praktikatzen dituzten kirolean futbola, esku-baloia eta saski-baloian euskaraz eta gaztelaniaz aritzen direla diote. Hala ere, behatutakoaren arabera, kirol hauetan gaztelaniak askoz presentzia handiagoa du euskarak baino. Nabarmenena futbolaren kasua da: ia mutil guztientzat oso garrantzitsua den praktika da eta ikerketa honetan futbolarekin lotuta jaso diren hizketaldi, esamolde, antzezpen eta bestelako erreferentzia guztiak gaztelaniaz izan dira.

Horren adibide da hirugarren eguneko dinamikan (Dinamika 3.2) Lezoko mutil talde batek bideo grabaziorako antzeztu zuen egunerokotasunaren eszena: futbol entrenamendu bat antzeztu zuten, mutil bat entrenatzailearen papera jokatu zuen eta gainontzekoak futbolari gazteen rola antzeztu zuten. Entrenatzailearena egiten zuena builaka aginduak ematen zituen etengabe, eta den-dena erdaraz adierazten zuen; *“a correr!, venga, sin más historias!, a la ducha!, eso es hostia!...”* (Lezo, 14 urteko mutilak). Antzezpena bukatu zenean begirale bat protagonismo handiena hartu zuen mutilarengan hurbildu zitzaion eta galdetu zion: *“Dena erderaz egin duzu, ez al dakizu euskeraz hala?”* Mutilak hala erantzun zuen: *“Es que entrenatzailea antzezten ari nintzen”*. Beste elkarrizketa batean beste mutil batzuei egoera horren inguruan galdetu nien eta hau izan zen aipatu zutena:

“Ohitura daukagu euskaraz egitea ta...bañon, egia da erderaz e bai asko... Igual, segun ze entrenadore e bai, entrenatzaileak esaten badizu zerbait gaztelera, momentuan igual, ez dakit, kirolean zelako edo, gaztelera. Ohitura hartu eta gaztelera pasatzen zea” (Lezo, 16 urteko mutila).

⁶⁷ LHn garrantzia duen bigarren aldagaia da.

Bigarren eguneko dinamikan ere futbola eta gaztelania elkarri lotuta ageri dira esaldi esanguratsu honen bidez: *“futbol zelaian erderaz egiten dugu arbitroei insultatzeko eta jefeez ez dakitelako euskeraz”*. Honek garrantzia handia du futbola delako, beharbada, gaur egun maskulinitatea performatzeko gizarte jarduera garrantzitsuena:

“En nuestra sociedad ese mundo que representa el deporte en general y el fútbol en particular, actúa de referencia y legitimación para el mantenimiento de un espacio de socialización específica, la cual está ligada a valores relacionados al éxito y el protagonismo sociales (...) [y] la existencia de dicho espacio contribuye al mantenimiento de una sociedad androcéntrica” (Diez, 2002:161)

Hau da, maskulinitatearen ezaugarriak hain ondo zehazten dituen kirol jarduerak (futbolak), eta erreferente gertuenak (“jefea” izendapenez aipatzen duten entrenatzailea, arbitroa...) gaztelaniarekin lotuta agertzen dira. Zer esanik ez, komunikabidean etengabe agertzen zaizkigun jokalaria eta talde ezagunenak eta hauen inguruko kontakizunak. Lezoko neska batek elkarrizketa batean hala gogoratu zien mutilei: *“zuek esan dezute hitz egiten dezutela futbolaz; futbola ikusten dezute erderaz. Ta ordun, igual, ohitura hartzen dezute erderaz hitz egiteko”*. (Lezoko 16 urteko neska).

Antzeko egoera gertatzen da nerabeek dituzten beste kultur-ekoizpenen kontsumoarekin. Jaso ditudan datuen arabera, nerabeek kontsumitzen dituzten kultur-produktu gehienak gaztelaniaz (nagusiki) edo ingelesez dira. Telebista, adibidez, gaztelaniaz ikusten dute:

N12: Telebista erderaz ikusten degu dena.

M7: Nik euskeraz ikusten nun txikitan telebista ta, zen hoi Doraemon, Lazkao Txiki ta holakoak baino...

N12: Ta uain ze ikusiko dezu?

M7: ... handitan hasten bazea ikusten: futbola gazteleraz, "Mujeres y hombres" hori gazteleraz, "La que se avecina" gazteleraz...azkenian ikusten dezu ta ikasten dezu.

N12: Gazteleraz dena.

(Lezoko 16 urteko neska eta mutila)

Zinema ere gaztelaniaz ikusten dute. Pasai Donibaneko lehen eguneko behaketa Arimen Gauaren arratsean izan zen, eta begirale batek aipatu zien Pasaiako beste talde batean beldurrezko film bat ikusi behar zutela. Hori entzuterakoan, nerabe baten erantzuna hau izan zen *“Ja, una peli de miedo, euskaraz!... bua, ba ordutan que mierda!”*. Badirudi beldurrezko

filmak euskaraz ez dutela beldurrik ematen. Ikusi dituzten azken filmak galdetzerakoan euskarazko pelikularik ez da agertzen. Musika ere ez da gehiegi agertu den gaia, baina agertu denean ingelesezko eta gaztelaniazko musika aipatu dute nagusiki. Hau da, gaztetxo hauek entzuten duten musika bi hizkuntza horietan entzuten dute. Bestelakoa da musika-eskolarekin duten harremana. Lezoko nerabe asko herriko musika-eskolan dabilta, eta ikerketan parte hartu dutenek adierazi dutenez bertan erabiltzen duten hizkuntza euskara da.

Itxuraz, kultura eta kirol jarduera bakoitzak badu hizkuntza iruditegi propioa. Trikitixa, euskal dantza, musika-eskola edo esku-pilota bezalako jarduerak euskararekin erabat lotzen (eta praktikatzen diren) bitartean, beste estiloetako adierazpen artistikoak edo jarduerak gaztelaniarekin errazago identifikatzen dira: judo, dantza erritmikoa... Lezoko behaketa batean izandako elkarrizketa informal hau horren adibide esanguratsua iruditzen zait: neska talde bat “Beldurbarik” izeneko bideo lehiaketari buruz hitz egiten ari ziren, eta lehiaketan parte hartu duen neska bat taldean dagoenez mugikor batean erakusti zidaten hark eta bere lagun batzuk egindako bideoa. Hip hop abesten duten neska talde bat dira, eta abestiaren letrak aldarrikapen feministak dituzte. Abestiaren hitza ia erabat gaztelaniaz da, eta gurekin dagoen begiraleak neskari esan zion hurrengoan dena euskaraz egin behar dutela. Neskak irribarre egin zuen eta saiatu zirela erantzun zuen, baina zaila zela eta ez zuela errimatzen. Horregatik, gehiena gaztelaniaz egitea erabaki zuten.

Gune birziklatuei dagokionez, aurreneko puntuan azaldu dudana bezala, euskara ez da agertzen gazte identitatearen parte zentral gisa. Lagunartean gaztelania eta euskara nahastea da hizkuntza egoera ohikoena. Egindako beste ikerketetan agertu den bezala, hemen ere joera orokor bat nabaritu dut: egoera ez-formaletan euskara erabiltzeko joera txikiagoa da. Horretan badira eragiten duten bi faktore, diglosia egoeran oso ohikoak direnak. Batetik, elkartzen den jende kopurua handitzearekin batera gizarte mailan nagusia den hizkuntza (gurean gaztelania) erabiltzeko joera handitzen da. Hala adierazi izan didate ikerketan parte hartu duten nerabeek: talde handitzeak erderarako joera ere ekartzen du, euskaraz “ez dakienik” badago denak erderaz egiteko joera. Bestetik, ezezaguna diren pertsonekin hizkuntza nagusia erabiltzeko joera ere oso bereganatua dute. Horren adibidea da, Pasai Donibaneko neska talde batek adierazitakoa: Donostiako dendetan gaztelaniaz hitz egiten dute beti dendariak erdaldunak direlako. Denda batean sartu eta dendariak hala egiten omen dute: “Kaixo, ¿qué querías?” eta horren aurrean beraiek erdaraz erantzuten dute.

Hernandezek planteatu zuen “Gazteek zergatik ez duten euskaraz egiten” galdetzea baino, galdera hau egin beharko genukeela: “Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei? Zer eskaintzen die gazte eta euskaldunak (edo gazte euskaldunak) izateko (edo sentitu ahal izateko)?” (Hernandez, 2011:603). Atal honetan deskribatu ditudan ikusita, nahiko argi ikusten da, nerabeei euskarak gauza handirik ez diela eskaintzen euren gazte-identitatea eraiki ahal izateko. Horrek, nire ustez, ondorio logiko bat dauka: haurtzaroan baliagarria zitzaien hizkuntza (euskara) ordezkatu edo osatu behar dute, eta hori, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, hizkuntza-mudantza prozesuaren bidez ematen da.

4.2.2. Hizkuntza-mudantza


Aurreko atalean erreparatu dudana hizkuntza-sozializazio horren bidez, Euskal Herriko nerabeen artean⁶⁸ hizkuntza-mudantza prozesua ematen da. Hirugarren atalean azaldu dudana bezala (3.3.4. kapitulua), azken urteetan egin diren ikerketek argi utzi dute Euskal Herrian nerabezaroan hizkuntza-mudantza ematen dela: 11 eta 13 urte bitarteko artean gaztelania erabiltzen hasteko joera oso zabalduta dago, eta euskararen erabilera behar bezalako handiena haurren eta gazteen datuak konparatuz nabari da. Lezoi eta Pasai Donibanen garatu dudana ikerketan ere oso argi ageri zait hizkuntza mudantzaren fenomenoak.

Argi dago, mudantza bat egiaztatze bi denbora eperen artean dagoen aldaketa neurtu behar dela. Aztertzen ari naizen hizkuntza-mudantza behaketaren bidez neurtzeko ikerketan parte hartu duten gazteak duela bi edo hiru urte nolako hizkuntza-praktika zituzten behatu behar izango nuke. Ikerketa honen ezaugarriak, ordea, ez didate hori egiten utzi eta gaur egun behatu ditudan 60 gaztek zituzten hizkuntza-praktikak besterik ez ditut behatu, datu horiek elkarrizketetan eta haiei proposatutako dinamiketan jasotakoarekin osatuz.

Zaila da zehazten nerabe hauek gaztelaniaz edo euskaraz mintzatzen diren. Egindako zortzi behaketetan nerabeak euskaraz eta gaztelaniaz entzun ditut. Zehatzena litzateke, etengabe bi hizkuntzak nahasten dituztela esatea. Beraiek ere hala adierazi dute, eta bigarren eguneko dinamikan (Dinamika 2.1) osatu behar izan duten herriko mapan, batez ere, pegatina horiak jarri dituzte⁶⁹. Hona hemen, adibidez, Lezoi talde batek egindako mapa:

⁶⁸ Baita gizarte diglosia egoeran dauden beste testuinguruetan ere, Katalunian adibidez.

⁶⁹ Dinamika honetan pegatinen koloreen arabera herriko toki ezberdinetan zer hizkuntza erabiltzen duten adierazi behar zuten: berdea: euskara, horia: euskara eta gaztelania, gorria: gaztelania.



Gazteen kontakizunaren arabera, hizkuntza ohituren aldaketa Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzaren artean gertatzen da:

Galdera: Diferentzia dago orain eta duela sei urte nola hitz egiten zenuten?

N12: Bai, lehen askoz gehiago egiten genuen euskeraz. Nik ustet baita ez genekielako hainbeste erderaz. Ta nola berria den ta ez dakit zer, ba zer guay dagon!.

Galdera: Aldaketa noiz eman zan?

M7: Ba gutxigora behera seigarren maila da gazteleraz hasten denean...

N12: Nik ustet institutuan.

M7: Askotan e bai gero egiten da kontrakoa...DBH pasatzian edo handitzean berriz gazteleratik euskarara buelta. Biño ikusten dituzu txikiak, DBH1 edo seigarren mailakoak denak gazteleraz hor, ta bazilatzen ta hola. Handitasun puntu bat ematen die.

Beraz, 11 eta 12 urtekoen artean ematen da aldaketa, eta prestigioarekin lotuta dagoela ematen du, aurrerago sakonago aztertuko dugun bezala. Goiko lerro horietan irakurri daitekeen moduan, 16 urtekoek diote Bigarren Hezkuntzan aurrera joan ahala, hasierako hizkuntza-mudantza baretu egiten dela, zenbaitzuk euskara gehiago erabiltzen dutelarik. Ez ditut horren inguruko daturik jaso, eta bi herri hauetan bi urtero egiten diren Kale Erabileraren neurketek ez dute horren zantzurik ematen. Beraz, ezin dut ondorio argirik atera.

Izan ere, gazteek hain argi adierazten duten hizkuntza-mudantzaren egitatea, Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketan berresten da (Soziolinguistika Klusterra, 2014 eta 2015). Hona hemen haur eta gazteen artean bi herrietako datuak:

1. Taula: Euskararen kale-erabilera adinaren arabera Pasaian eta Lezon (Soziolinguistika Klusterra, 2014 eta 2015)

PASAIA ⁷⁰			LEZO		
	Haurrak 2-14 urte	Gazteak 15-24 urte		Haurrak 2-14 urte	Gazteak 15-24 urte
2001	24,1	10,5	2002	51,8	20,4
2003	35,5	20,9	2004	52,5	19,8
2006	34,8	17,2	2008	50,6	13,0
2009	32,8	15,6	2010	52,8	29,3
2012	30,4	22,2	2012	57,0	46,6
2015	39,4	17,6	2014	55,4	16,8

Taula horretan, beraz, argi geratzen da haurtzarotik gaztarora hizkuntza praktiken aldaketa handi samarra gertatzen dela, eta gazteen artean euskara erabiltzeko joera asko murrizten dela. Interesgarria litzateke adin tartek beste modu batean antolatuak egotea eta 11-16 urte tartean datuak jasotzea, ikusten ari garen bezala hor ematen baita hizkuntza-mudantza prozesua. Generoari dagokionez ezin izan dut jaso neskek eta mutilek aldaketa honetan erritmo ezberdinik ote duten. Nerabeek ez dute hori identifikatu eta ditugun datu kuantitatiboetan ere ez da hortaz daturik agertzen.

Hortaz, Katalunian gertatzen den bezala (Pujolar et al., 2010b:67) hemen ere hizkuntza-mudantza ematen dela berresten du, Lezon eta Pasai Donibanen egindako azterketak. Ohartarazi behar da, ez dela erabateko aldaketa. Ez dira erabat euskaraz hitz egitetik, erabat erdaraz hitz egitera pasatzen. Nagusiki, euskaraz hitz egitetik, hizkuntza nahasketara pasatzen dira, baina nahasketa horretan gaztelaniaren presentzia oso handia da, gehienetan nagusitzen delarik.

Antropologiaren ikuspegitik hizkuntza-mudantza igarobide erritu gisa uler daiteke. Van Gennep edo Turner-en eskemei jarraituz gero, igarobide errituetan prestaketa praktika batzuk egongo lirateke (preliminarrak), eta beste batzuk transformazio gauzatzeko (liminarrak). Aipatutako hizkuntza-mudantza zehatz honetan, nerabezaroa litzateke garai liminarra, eta haurtzaroa garai preliminartzat har dezakegu. Horrela, haurtzaroan gaztelania erabiltzen hasiko

⁷⁰ Adinaren araberako Pasaiako datuak orokorrak dira. Hau da, ez daude Pasai Donibaneko datu zehatzak adinka. Horrek, kopuru horien irakurketa baldintzatzen du, Pasai Donibane Pasaiako testuinguru “euskaldunena” baita. Horren adierazle da Pasaia osoko euskararen erabilera datua %20,2 den bitartean, Pasai Donibanekoa %35,5 da (2014) Hau da Lezoko datuaren oso antzekoa %35,8. Pentsatzekoa da adinka banatutako Pasai Donibaneko datuak Lezoko datuen antzekoak izango direla.

lirateke txantxa eta jolas moduan. Horiek igarobide erriturako prestaketa-praktikak lirateke. Transformazioa institutu garaian gertatzen da, bertan, hizkuntza nahastu ez-formal hori praktika liminarra gisa hartuz.

4.2.3. Hizkuntza-alternantzia

Hizkuntza-nahasketa beraz, nerabezeroaren ezaugarri nagusia litzateke. Behatu ahal izan dudanaगतिक, euskara eta gaztelania *continuum* batean daude nerabe hauen hizkuntza-praktiketan. Hanna Lantto-k Bilboko gazteekin garatutako ikerketa batean ondorioztatu zuen bezala, Lezon eta Pasai Donibanen ere “the two systems are intertwined and in a constant dynamic movement” (Lantto, 2015:50). Bi hizkuntzak elkarrekintzan dabilta mugimendu konstante batean: gazteak euskaraz ari dira hizketan eta gaztelaniazko olatua dator denak gaztelaniaz hizketan hasteko. Eta alderantziz, gaztelaniaz ari dira eta euskaraz dator olatuta. Euskara eta gaztelania *continuum* batean daude, besteak beste, oso modu naturalean egiten dutelako aldaketa, ia konturatu gabe, hitz jarioa apurtu gabe. Gazte batzuk euskaraz egiteko joera handiago dute eta beste batzuk gaztelaniaz mintzatzen dira gehiagotan. Baina hizkuntza batetik bestera egiteko jauzia oso barneratuta dute denek:

N6: Nik zortzi urtekin ez nekin erderaz. Orain gehio erderaz...

N9: Bueno komentario batzuk bai, o sea, batzutan ateratzen zaigu.

N6: A ver! Hitz egin, hitz egiten degu euskeraz baina komentario batzuk erderaz, batzutan nos sale del alma hitz egitea erderaz.

(Pasaia, 14 urteko neska)

Behatutako gazteentzat ez euskara ez gaztelania ez dira arrotza. Lezo eta Pasai Donibaneko behaketa guztietan euskara entzun nuen. Lezon zenbait gazte euskaraz hitz egiten iristen ziren eta elkarrizketa luzeetan euskaraz hitz egiteko arazorik ez dutela nabaritu nuen. Hala ere, euskara entzun banuen ere gaztelania oso presente dagoela eta askotan nagusitzen dela jaso nuen. Hizkuntza-alternantzia, beraz, fenomeno argia da. Gazteentzat oso ohiko zaie bai nesken kasuan bai mutilen kasuan ere, gaztelania eta euskara nahasten dute etengabe. Gehienetan, gaztelaniazko esamoldeek euskaraz burutzen ari diren “diskurtoa” apurtzen dute. Batzuetan, kode-nahasketa da (esaldi berean hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea), Lezoko neska baten galdera honetan ikusten den bezala: “*Zu zara de nuestro equipo?*”. Beste esaldi hau ere oso adierazgarria da “*...bestela nos van a hacer bullying*”. Besteetan, kode-alternantzia da (esaldi batetik bestera hizkuntza aldatzea), Lezoko beste adibide honetan bezala: neska bat begiraleari

bi galdera jarraian egin dizkio: “Zer egin behar dugu?, No tenemos que ir a Altamira, ¿no?” (Lezon, 2015/11/06) Edo Pasaian mapen dinamika egiten zuten bitartean (Dinamika2.1.) honako elkarrizketa hauek:

- *“Esta es mi casa!. Ni ibiltzen naiz....*

- *¿Dónde?, Nosotros aquí, hemen.*

- *No pongas eso!*

- *¿Por qué?*

- *Ez, ez, ez jarri*

Baina, hizkuntza-alternantzia lagunarteko hizkera informalaren forma ohikoa eta onartuena dela argien adierazten duen elkarrizketa, Pasai Donibanen jasotako hau da:

Galdera: Kalean zaudetenean zer hizkuntza entzuten da? Nola egiten duzue?

N6: Normala... Ez da euskaraz ez da erderaz

Galdera: Zer da normala?

N6: Normala...

N8: ¿El qué? Ez naiz enteratu

N6: ...hori da normala: “el que ez naiz enteratu”

Bestalde, behatu dudak guneak monitorizatuak zirenez, begiraleen presentziak zertxobait baldintzatzen zuen hizkuntza-praktika. Begiraleekin euskaraz hitz egiteko joera nabari nuen, bai begiraleengandik sortzen diren elkarrizketetan, bai gazteek sortzen dituzten elkarrizketetan ere. Badirudi begiraleekin euskaraz egin behar dutela oso barneratutako araua dela, baina hau ez da beti hala gertatzen eta elkarrizketa informalagoa bihurtzen zen heinean begiraleekin gaztelaniaz egitea ere ez zen arraroa. Lezon jasotako egoera hau horren adibide da:

Giroa geroz eta deskontrolatuago dago. Lur guztia zikintzen ari dira eta begiraleak saiakera batzuk egin dituzte giroa baretzeko baina ez zaizkit oso saiakera tinkoak izan direla irudit. Begirale batek erratza bat atera du eta mutil batzuegana hurbildu da, gehien aztoratu den mutilari erratza luzatu dio “*eh, ni ez naiz izan!*” esan du batek eta beste batek atzetik “*eh, no mientas!, Garazi, yo no he echado!*”. Garbi dago haserre giroan mutil hauek erdaraz hobeto moldatzen direla. Mugikorrek ere etengabe erabiltzen dituzte. Momentu batean gazte batek builaka pozik esan du “*Gol del PSG!*” Badirudi ospakizunetarako ere gaztelaniak baliagarria zaiela. (Egunerokoa jasotako oharra. Lezo 2016-12-04, 13-14 urteko gazteak)

Begiraleei euskaraz egiteko saiakerarik egiten ez duten gutxi batzuk topatu baditut ere, orohar monitoreekin euskaraz egiteko saiakera egiten dute. Adinkideekin, ordea, euskaraz egiteko saiakera txikiagoa da, eta, esan bezala, bi hizkuntzak batera tartekatzea da ohikoena. Hortaz, hemen ere, Euskal Herrian egin diren beste ikerketetan agertzen den fenomenoak ageri zaigu: egoera ez-formaletan euskara erabiltzeko joera txikiagoa da, zenbat eta testuinguru formalagoa izan, orduan eta presentzia handiagoa du euskarak. Izan ere, Lezoko 16 urteko neska batek esan zidan bezala: *“Ikusten delako nobedadea erderaz hitz egitea. Igual etxean entzuten dezu baina ez da berdina. Ya lagunekin erderaz hitz egitea da "más guay”*”. Azken hitz hauek (*guay izatea*) dira, ziur aski, hizkuntza-mudantzen arrazoiei buruz galdetzerakoan, gazteek gehien errepikatu dituztenak. Ikus ditzagun beraz, nerabeek nola interpretatzen duten aldaketa horren fenomenoak.

4.2.4. Ohitura eta hizkuntza-ideologia

Hizkuntza-mudantza gertatzen dela, beraz, nahiko argi dago, eta igarobide horren ondorioz Pasai Donibane eta Lezoko gazteek erdera nagusitzen den euskara eta gaztelania nahasten den hizkuntza-praktika ohikoa bihurtzen da. Baina zein dira hizkuntza-mudantza gertatzeko arrazoiak?. Ziur aski, ez da ikerketa-lan hau galdera potolo horren erantzun garbia emateko marko egokiena, baina Lezoko eta Pasai Donibaneko gazteek oso pista interesgarriak eman dizkigute. Behaketetan egindako bigarren dinamikaren bidez, ikerketan parte hartu duten nerabeek hizkuntzen inguruan dituzten iritziak jaso ahal izan nituen.

Esan daiteke, hizkuntza bat edo bestea egiteko gazteek eman dituzten arrazoiak bi multzotan antolatu daitezkeela: ohiturak eta diskurtsoak. Ohitura terminoa adiera zabalegi du kontzeptualki lan honetan zehazteko, baina zuzen-zuzenean praktikari egiten dio erreferentzia. Hiztegiaren arabera, ohitura bat “egintza bat askotan errepikatzearen ondorioz hartzen den aritzeko era edo modua” litzateke. Aztertzen ari naizen hizkuntzaren gaian, beraz, askotan errepikatzearen ondorioz hartzen den hizkuntza-praktika litzateke, nerabeek aipatzen duten euskara edo gaztelania erabiltzeko ohiturazko arrazoi hori. Diskurtsoek, aldiz, hizkuntza-ideologia edo ideologia linguistikara garamatza. Soziolinguistika Hiztegiaren arabera, hizkuntza-ideologia “pertsona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa” da. Ideologia hori erabilera, diskurtso edo portaera linguistiko jakin batzuen bidez adierazten da (Eusko Jaurlaritzak, 2010:15). Finean, gorago aipatzen nuen galderari erantzuko lioke ideologiak: Zer esakintzen dio euskarak gazteei?. Edo modu zabalagoan formulatuz gero: Zein paper jokatzeko du hizkuntza bakoitzak komunitate horretan?.

Ikerketan parte hartu duten gazteek ohitura maiz aipatutako arrazoia izan da euskaraz egiteko: *“lagunekin egoten naizelako, horrela ateratzen zaigulako, txikitatik ikastolan euskaraz hitz egin dugulako, etxean beti horrela egin dugulako...”* Itxuraz, etxeak, eskolak, aisialdiak eta, neurri apalagoan, ikaskideen arteko harremanek ahalbideratu dute nerabetasunera iritsi arte euskaraz hitz egiteko ohitura. Ohitura hau haurren munduari loturiko praktika ezberdinekin egon da lotuta (zaintza, hezkuntza, pailazoak...) baina hizkuntza-praktiken azterketan ikusi dugun bezala, nerabegarora iristean praktikan aldaketa nabarmenak ematen dira eta euskara garrantzi handia galtzen du.

Euskaraz egiteko arrazoiaren beste ardatzean diskurtsuak daude. Nerabe hauek euskararen inguruan, hizkuntza-sozializazioaren bidez, jaso duten hizkuntza-ideologia litzateke. Gazteek euskaraz egiteko arrazoiaren diskurtsua, derrigortasunarekin batera, nortasuna eta ardurarekin lotzen dute. Hau agerian geratu da jaso ditudan honelako esaldiotan: *“euskara gurea”, “bestela desagertuko da”, “euskaraz egin!”*. Horren adibidea da, Lezoko 14 urteko gazte honek aipatutakoa: *“Bestela galduko da. Geroz ta jende gutxio hitz egiten, gero ta gutxio, gero ta gutxio...Azkenen bukatuko dira bost pertson ez dakit zenbat jende artian”*. Derrigortasunarekin lotutako diskurtsuak ere oso presente dituztela nabari da. Gehienetan eskolarekin lotutako diskurtsuak dira Pasai Donibaneko elkarrizketa honetan jaso ahal izan nuen bezala:

Galdera: Esan duzue eskolan denbora guztian euskaraz egiteko esaten dizutela...

N3: Bai, baino inorrek ez du egiten kaso.

Galdera: Nola sentitzen zarete horrelakoetan?

N4: Pues direla pelma batzuk...daude hor ñi ñi ñi ñi ...Ta gainera esaten dezu zerbait...Arina! Larria! Kalera!...Encima con una sonrisa en la cara! Baina bueno ez dute ezer esaten azkenen. Gero segitzen dezu erderaz ta...(Pasaiako 13 urteko neska)

Derrigorrezko diskurtso horiek DBHko ikasketetan murrizten direla dirudi, edo gutxienez, nerabeek ez dituzte hain garrantzitsutzat hartzen. Gainera, euren praktika-komunitateetan euskarak presentzia gutxiago duenez, euskaraz egiteko dituzten bi arrazoi multzoak, ohitura eta ideologia, nahiko ahulduta geratzen dira. Haurtzarorik jasotako euskararen inguruko diskurtsuak, neurri batean barneratu dituzte, baina ez zaizkie hain baliagarriak egiten. Ohitura eta inertzia batzuk oraindik bizirik diraute, baina nerabeen munduan ohitura berriak hartzen eta garatzen ari dira.

Genero ikuspegitik, ez dituzte identifikatu diskurtso ezberdinak daudenik neska edo mutilei zuzenduta. Hau da, neskek ez dute identifikatzen euskara zaindu beharraren mezua gehiago

zuzentzen zaienik. Aipamen bakarra jaso dut nesken ardura horren inguruan: *“Es que generalian neskak dira euskeraz eiten dutenak. (...) Ordun, ez dakit, igual beaiek dakate responsabilitate gehio ez?. Ordun, bai.* (Lezoko 16 urteko mutila).

Gaztelaniaz egiteko arrazoei dagokionez, ikerketan parte hartu dutenek aipatzen dituztenak ohiturarekin lotuta daude. Hori bai, beraiek ez diren beste pertsonen ohiturei egozten diete erdaraz hitz egitearen motiboa. Gehien errepikatu dena beste adinkideek dituzten ohiturak dira: *“ez dakitelako, erdara gehiago egiten dutelako, gogorik ez dutelako...”*. Helduen ohiturak ere askotan ageri dira: *“entrenatzaileek, etxekoek, dendariak... erderaz egiten duelako.”* Gaztelaniarekin lotutako ideologia-linguistikorik ez da agertzen hizkuntza hori erabiltzeko arrazoei buruz galdetzerakoan. Baina nerabezaroan gaztelaniaz hitz egiteko dauden motiboak aipatzerakoan gaztelaniaren prestigioa eta euskararen prestigioa (eza) behin eta berriro agertzen da, eta argi dago hizkuntza baten prestigioa hizkuntza-ideologia dela: *“persona edo giza talde batek hizkuntzei buruz dituen ideien multzoa”* (Eusko Jaurlaritza, 2010:15). Bourdieuren planteamenduei jarraituta esango genuke nerabe hauek konturatzen direla kapital sinbolikoa metatzeko gaztelania ezinbesteko hizkuntza dela. Nerabeen artean gaztelaniaren prestigioa bi hitzekin laburbiltzen da: *guay izan*. Egindako elkarrizketetan askotan aipatu dute arrazoi hori:

“Jendeak pentsatzen du erderaz eiteagatik dela guay eta euskaraz hitz eiteagatik dela...en plan...una mierda” (Pasai Donibaneko 14 urteko neska bat)

“Gehienak iteko los guays eiten dute hitz egin erderaz, porque erdera da mas guay” (Pasai Donibaneko 13 urteko neska bat)

Prestigio honi buruz galdetuta Lezoko gazteek heldua izatearekin lotzen dute,

Galdera: Zergatik uste dezue gaztelera guay dela?

N12: Nobedadea delako igual. Ta gehienetan ere gurasoei erderaz entzuten... Nik, adibidez, gurasoei erderaz entzuten diet. Ta ordun zen como " eh! haundiagoa naiz ze badakit hitz egiten beraiek bezela!"

M7: Hemen ere Lezon jende asko etorri da kanpotik eta ordun gurasoak askotan beraien artean gaztelera egiten dute ze asko ez dakite euskeraz ta hola. Ta ordun ikusten dezu handi bat gaztelera ta esaten dezu "nik ere haundia izan nahi det"

N12: Edo "ulertu diot, ah que guay!" Ilusioa egiten dizu.

Aurreko fenomeno horren ifrentzua euskaraz duen prestigio eza litzateke. Euskaraz hitz egiteko joera handiago duten gazteen diskurtsuen arabera, adin honetako nerabeen artean euskarak

prestigio mugatua du. Gaztelaniaz egitea “guaiago” izateaz gain, zenbaitetan euskaraz egiteagatik barregerri geratu direla aipatzen dute.

Behin jun nintzan lagun batzuekin Trintxerpera uste det zela, ta zeuden bere klaseko batzuek. Ta hasi ginen euskaraz hitz egiten gu ta “qué haceis hablando en vasco? Haceis el ridículo”. (Pasai Donibaneko, 13 urteko mutil bat)

Prestigio-eza horrek, gainera, ohitura berriak sortzen ditu, haurtzaroan lagunartean euskaraz egiteko ohitura zutenak gaztelaniaz mintzatzera pasaz:

N12: Ohitura. Nire kuadrillako gehienekin erderaz egiten det. Baina ya ohitu garelako erderaz. Euskeraz egin dezaket eh! Baina hobeto erderaz.

M7: Azkenean guaya dena gazteleraz egiten du ta ordun, azkenean, guay izate horrekin ohitura bat hartzen dezu eta ya zaila da aldatzea.

(Lezoko 16 urteko gazteak)

Laburbilduz, eta asko sinplifikatuz, esan daiteke hizkuntza-mudantzaren atzean hizkuntza-ideologia dagoela. Haurtzaroan euskararen inguruan jasotako mezuak ahultzearekin batera, nerabeak heldutasunera begira daude. Heldu izate horretan gaztelania nabaritzen dute prestigio-hizkuntza gisa, kapital sinbolikoa edukitzeko gaztelania garrantzitsua dela, eta ez dituzte euskararekin lotutako diskurtsu erakargaririk topatzen. Horri gehitzen zaio gazteen aisialdiko jardueretan euskarak duen presentzia urria. Ondorioz, ohitura aldaketa ematen da, hizkuntza-mudantza gertatzen da. Izan ere, Txerra Rodriguez soziolinguistikak Jakin aldizkarian idatzi zuen bezala:

Nerabeek ez dute gezurrik esaten (gezur sozialak, behinik behin). Nerabeek beste inork baino hobeto usaintzen dute jendartean nagusi diren joerak, jendartean nagusi diren lurrazpiko bidezidorrak. Jendartera moldatzea dute langintza potoloena nerabeek, nabarmenduz eta transgresore jokatu, baina gehiegi nabarmendu barik, beti ere. (Rodriguez, 2016: 141)

Azken finean, behatu ditugun prozesuetan oso argi ikusten da hizkuntzaren bidez euren identitatea nola *performatzen* duten. Hau da, hizkuntza-identitatea ere, generoarena bezala, etengabeko osaketa eta aldaketa prozesuan dagoela. Baina, zer harremana dute subjektu osaketan hain garrantzizkoak diren bi kategoria (hizkuntza eta generoa) hauek?. Genero aldagaiak garrantzia al du hizkuntza praktiketan eta horien bidez eratzen diren hizkuntza-identitateetan?. Orain arte azaldutako ataletan, hainbat zantzu agertu dira. Jarraian, zehatzago aztertuko dut genero aldagaiak hizkuntza-praktiketan duen eragina.

4.3. Generoa hizkuntza-praktiketan

Mutil bat eta neska bat pilota batekin jolasten hasi dira. Zutik daude, lau bat metro dute haien artean. Neskak pilota botatzen dio mutilari eta honek hartu eta neskari bueltatzen dio. Bota eta hartu jolasean aritu dira une batean, koltxonetetan eserita dauden bi mutil builaka hasi diren arte zutik dagoen mutilari esanez “eh! Mete-fichas!”. Neskak eta mutilak pilotarekin jolasten jarraitu dute baina koltxonetetako mutilak ez dute etsi eta jolasean dagoen mutila zirikatzen segitu dute. Azkenean, zutik dagoen mutila buelta eman du eta barrezka pilota indarrez bota die beste bi mutileei. Hauek barre egin dute eta pilota indarrez bota diote eta honek berriro ere gauza bera egin du. Jolasa aldatu denez neskak alde egin du eta zutik zegoen mutila beste mutilen dinamika sartu da: pilota indarrez bota besteari jotzeko asmoz, koltxonetetan txantxetako borrokan hasi dira (2015-11-06 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Jolasa aspaldi interesatu zaidan gaia izan da. Urteak eman ditut euskarazko jolasen inguruan lana egiten: bilketa lana, argitalpenak, formazio ikastaroak... Jolasa, gehienetan, hurrekin lotuta ageri zaigu, eta nerabeekin garatu dudan ikerketa hau planteatzerakoan, ez nuen pentsatu jolasa eta jokoa hain presente egongo zirenik nerabezaroan. Baina Lezoko behaketan deskribatu dudan eszena hori jaso eta gero, konturatu nintzen jolasa eta jokoa informazio iturri oso interesgarriak izan daitezkeela. Teresa del Valle-k eman zigun eskola zoragarri batean, *diskurtsiboak ez diren formei* arreta jarri behar diogula esan zigun, isildutako taldeen ahotsa jasotzeko hizkuntza baino informazio handiago eman baitezakete. Ikerketa honetan nerabeen jolasei begiratu diet, baina ez dut alderdi honetako lanketa metodologiko zehatzegia egin. Beharbada, aurrerago heldu beharko nioke zeregin horri, bururatu zaizkidan galderak erantzuteko metodologia egokiago bat antolatuz: Nola gorpuzten da hitza jolasetan? Jokotetan? Nola agertzen dira emozioak jolas hauetan? Haserrea? Zirika? Txantxa? Nerabezaroan ez al daude oso gertu hitz egiteko formak eta jolas/jokoak?

Teresa del Vallek aipatzen duen moduan, identitate-dinamikak jolasean agertzen baitira: “la dinámica identitaria aparece en el juego donde cabe distinguir diversas clases: como el juego sexual, de azar, de destreza, de fuerza, de agilidad física y mental. En cada uno de ellos se definen y redefinen roles y posiciones y se expresan valores. Cronotopos genérico sería la confluencia donde se expresa el juego con todo lo que abarca de asignaciones de protagonismos, escenificación de valores vinculados a destreza, habilidades, inteligencia, fuerza física” (Del Valle, 1999b:215). Neska eta mutilaren artean hitzik ez. Jolasean ari ziren.

4.3.1.Sarrera

Aurreko orrietan ikerketa parte hartu duten gazteen marko kultural orokorra osatzen saiatu naiz. Gazte-identitatea esploratu ondoren, euren praktikak azaldu ditut: zertan (jarduerak), non (tokiak) eta norekin (harremanak) ibiltzen diren. Hortik abiatu naiz, jarraian, hizkuntza-praktiken azterketan murgiltzeko eta azterketa honetan generoa erdigunean agertzea saiatu naiz. Baina, azken azpi-atal honetan genero ardatzean gehiago sakonduko dut. Sozializazio sexistak nerabeen euskararen praktika sozialean duen eragina esploratu nahi dut, bi galdera orokor hauei erantzuten saiatuz: Nerabeen bizipenetan eta diskurtsuetan genero-rolen arabeko hizkuntza ezberdintasunik identifikatzen eta deskribatzen dute? Hizkuntza ezberdintasun horiek nolakoak dira?

4.3.2.Neska eta mutilen arteko ezberdintasuna?

Atal teorikoan sakon aztertu dudana bezala, gure gizartean energia handia erabiltzen da gizon eta emakumeen kategoriaren arabera banaketa garbia egon dadin. Katetoria horien arabera izendatzen diren subjektuei ezaugarri ezberdinak ezartzen zaizkie, desberdinkeriazko harremanak sortuz. Ikus ditzagun, Lezon eta Pasai Donibanen egin ditudan behaketetan eta eztabaida-taldeetan genero diferentzia hauek nola agertu diren.

Gazteek zer diote?

Argi dago ez daudela maskulinoak edo femeninoak, gizonenak edo emakumeenak, definitu daitezkeen jokabide edo jarrera unibertsalak. Jokabide horiek aldatzen dira denboran eta espazioan (Diez,2002:159). Hala ere, ezaugarriak naturalizatzeko prozesua oso indartsua da eta harrigarria da, Ilustrazioak ezarritako pentsamendu eskemak bizirik mantentzen direla egiaztatzea. Egin ditudan eztabaida-taldeetan neskak eta mutilak ezberdinak ote diren galdetu diet eta erantzuna baiezkoa izan da. Zertan ezberdintzen diren azaltzerakoan oso argi agertzen dira gizonezkoei eta emakumezkoei egozten zaizkien ezaugarriak. Lezon 16 urtekoekin egindako talde-elkarrizketako une ezberdinetako hausnarketak oso ondo adierazten dute nerabeen ikuspegia:

N12: mutilak mugituagoak dira, beti. Gure adinean mutilak dira mas "goazen hau egitera!" eta neskak egoten gea geldik.

M7: Bai, (...) uain dela gutxi Andoainera jun gea baserri batea. Osea, eiten ditugu gauzak. Haiiek ikusten ditugu geldigo, ez diela asko mugitzen. Hemen inguruan egon, geldi egon... Eta igual gu eoten garenian kalia jolasten, ba beraiek geldi banku batian.

N12: Gehiago kostatzen zaigula bezela gauzak eitea. Bai, hauek beti mugitzen, beti mugitzen.

M8: Gu saiatzen ia ahal degun guztitan jolasten egoten

Aktibitatea da, oso nabarmen azaltzen duten ezberdintasun nagusia. Nerabe hauen deskribapenetan mutilak mugimenduarekin lotzen dituzte, neskak, aldiz pasibotasunarekin, geldi egotearekin, aktibitate ezarekin. Alderdi hau ekimenarekin harremana duela iruditzen zait, eta gaztetxoek diotenaren arabera mutilek “gauzak egiten dituzte”, ekimena dute:

M7: igual mutilak inizatiba gehio.

N12: Zabalagoak...Neskak igual gera gehio más como "nik zurekin ez"

Esanguratsua da ekimena eta ekimen-eza beste pertsonetikiko batzuk eta besteak dituzten jarrerekin lotuta agertzea. Irudikatzen dituzten ereduaren arabera mutilen mugimendu eta ekimen hori “zabalagoak” izatera eramango lukete edo alderantziz. Nesken kasuan, ordea, baztertzailagoak lirateke; besteekiko harremanak baztertzailagoak dituztenez, zailagoa dute ekimen ezberdinak egitea. Genero ikuspegi kritiko batetik esan behar da, sozializazio ezberdindua oso argi agertzen dela nerabeek deskribatutako panorama dikotomiko horretan Marko teorikoan azaldu dudana bezala, neskak perfekziorako sozializatzen dira eta mutilak ausardiarako. Ausartu daitekeena, etengabe gauzak egiten egon behar du: joan, etorri, igo, jaitsi... Jokoan jarri ditzake bere gaitasunak, eta gaitasun-ezak, batzuetan ondo aterako zaizkio, besteetan gaizki. Baina, arriskatu daiteke eta etengabeko joko horretan ekimenerako trebatu egiten da. Perfekziorako sozializatzen dena, aldiz, oso ondo planifikatu eta prestatu behar du egin beharreko hori jende aurrean egin baino lehen. Emakumeek ausartzeko tarte handirik ez dute eta taldearen indarra barrura begirako indarra bihurtzen da. Kohesioa beharrezkoa dute eskatzen zaien perfekziorako, kanpora begira modu egokian agertzeko. Mutilen taldeko indarra kanpora begirakoa da ausartzeko bidea libre dutelako. Hortaz, nesken taldeak “baztertzailagoak” agertzen dira eta mutilenak aldiz “zabalagoak”.

Honek guztiak badu batzuei eta besteiegi egotzen zaizkien jarrerekin harremana:

M7: Nik ustet mutilak piskat astuagok, brutogo bezela...

N12: Ah! Bale...Puede ser!

M7: Ta neskak piskat handi planta bezela. Mutilak brutogo edo hitz egiten ta neskak txintxugo edo handiyo balira bezela.

N12: Bai, formalago.

Gizonak indartsu eta oldarkor agertzen dira, emakumeak, aldiz, apal, txintxo, umil agertzen zaizkigu. Gizonari arrazoa egozten zaio, ezaugarri hauen bidez definituz: indarra, aktibitatea, autonomia, independentzia, sexualki oldarkorra... Emakumeari, ordea, natura egozten zaio ezaugarri hauen arabera: pasibotasuna, ahultasuna, besteen iritzien menpekotasuna, apaltasuna, lotsa, umiltasuna, sedukziorako gaitasuna... Lezon egindako behaketaren eszena honek oso ondo adierazten du nerabeen pertzepzioa:

Kartulinan toki asko markatu dituztela ikusi dut eta horren inguruan galdera luzatu diet. Hala erantzun dit mutil batek: “*somos nómadas!, mugitzen gara*”. Nesken maparen aurkezpena mutil batek egin du (...) Mapan kokatu dituzten toki guztietan neskek gauza bera egiten dutela irakurri du mutilak “*hitz egin eta txutxumutxuak kontatu*”. Hori da neskek idatzi dutena eta mutilen ahotsean hori irakurtzean neskak parrez hasi dira. Lotsa puntu bat duen parra izan dela iruditu zait. (2015-11-06 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Izaera ezaugarri guzti hauek praktikekin oso lotuta daude, praktiken azterketa egiteko landu dudan kapituluan argi geratu den bezala. Mutilen praktika garrantzitsuena kirola da, erdigunean dagoen jarduera nagusia da. Nesken artean argazkigintza eta moda (erosketekin lotuta) ageri zaizkigu praktika esanguratsu gisa, hau da irudiari lotutako jarduerak. Garbi ikusi dugu, hala ere, nesken artean kirol-praktika ere oso ohikoa dela, nahiz eta mutilen artean duen neurrian ez izan. Esanguratsua da ikustea kirola oso maskulinoa irudikatzen den esparrua izanik, kapital sinbolikoa lortzeko alor garrantzitsua dela. Normalean, nesken kirolaren bidez kapital sinboliko hori lortzea oso zaila bada ere, zenbaitetan, ezustean, lortzen da. Hona hemen, horren adibide bat:

Lau neska dira eta nahiko garbi dute zer antzeztuko duten. (...) Euskaraz ari dira egingo dutena planifikatzen. Filmaketa txukun joan da, eskubaloi entrenamendu bat antzeztu dute. Zehazki entrenamenduetan egiten dituzten ariketa batzuk antzeztu dituzte. Ereintza eskubaloi taldean aritzen direla esan didate. (...) Bideoan indartsu eta oso txukun jokatzeko dutela ikusten da, eta denen aurrean bideoa erakutsi dutenean mutilen artean sorpresa eta miresmen arteko giroa sortu da “Ueeeeee, ostia! Que profesional!”(2015-12-04 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Edonola ere, oso bitxia da Rousseauk *Emilio* liburuan zerrendatu zituen ezaugarri batzuk, egungo nerabeen ahotan eta praktiketara ikustea: “*las niñas, casi desde que nacen, quieren ir*

bien vestidas; no satisfechas con ser bonitas, pretenden que las vean así (...) [Mutilak ordea] poco les importa lo que puedan pensar de ellos con que sean independientes y se diviertan”.

Behaketan zer azalarazten da?

Gaztetxoek deskribatutako diferentzia horiek berresten, udazkenean egin nituen behaketetan generoaren araberako ezberdintasunak ematen direla jaso ahal izan nituen. Espazioaren okupazioa da horietako bat. Neskak eta mutilak espazioan kokatzeko joera ezberdinak dituzte. Behaketa egunetan, esaterako, dinamikak hasi bitartean nesken joera begiraleen inguruan hizketan geratzea zen. Mutilak aldiz, gelaren alboak okupatzen zituzten, gehienetan mugimendua eskatzen duten gauzak eginez: pilota batekin jolasean, borroka jolasak, bultzaka... Mugimendu honek, noski, espazio handiagoa eskatzen du. Horretaz gain, behaketetan ikusi ahal izan dut nik planteatutako talde-dinamikak garatzeko ere mutilek espazio handiago okupatzen dutela eta erdigunean kokatzeko joera dutela: bideoaren grabazioetan eremu zabalagoa okupatzen dute, azken eguneko meriendan mahairen toki zentralak hartzen dituzte, bideo-proiekzioan lehenengo lerroan esertzen dira...

Izan ere, nik planteatutako talde-dinamiketan espazioaren erabileraz gain, beste ezberdintasun batzuk jasotzeko aukera izan nuen. Talde txikiak osatzeko garaian, esaterako, oso gutxitan egiten zituzten neskak eta mutilak elkartzen ziren taldeak. Lagun-taldeak osatzeko genero aldagaiak duen garrantzia horrelako dinamiketan errepikatzen dela ikusi ahal izan dut. Bestalde, dinamika hauetan ere mugimenduarekin lotutako ezberdintasunak berriro agertzen dira: mutilak askoz gehiago mugitzen dira, neskak lasaiago aritzen dira. Gainera, mutilek azkarrago egiten dituzte eskatutako dinamikak; neskek denbora gehiago behar dute. Neskei gauzak ondo egiteko nahia handiago ikusten zaie, eta zenbaitetan larritasun puntu bat ere nabaritu nien dinamikan adierazi nahi zutena nola egin asmatzen ez zutelako. Aipatutako perfekziorako sozializazioa egon daiteke joera honen atzean.

Dena den, behaketetan ikusi ditudan jokabideetan nabaritu dut ezberdintasun handienak. Mutilak askoz aztoratuago ibili ziren: borrokak, builak, zirika, korrika, oilartuak, koltxonetetan etzanda kasurik egin gabe, janaria elkarri botata... Zenbaitetan neskak ez daude gustura mutilen jarrerekin eta hala adierazten diete, nahiz eta hauen jarrera aldatzen ez den. Jokabide ezberdin hauen bidez presentzia, ausentzia eta protagonismo diferente bideratzen dira, desberdinkerri nabarmenak sortuz. Batetik, behaketak egin nituen lokaletan sartzeko garaian mutilak askoz

gehiago nabarmentzen ziren: ozenago hitz eginez, iritsi direla garbi utziz, mugimenduaren bidez...

Bestetik, nahiz eta talde txikietako jardueretan, oro har, neskek lan handiago egin, lan hauen emaitzak talde handian aurkezteko garaian mutilek protagonismo handiagoa hartzen zuten. Mutilek gehiago eta ozenago hitz egiten zuten eta mintzatzeko direnean taldea (neskak eta mutilez osatua) nahiko adi egoten zen. Neskek hitz egiten zutenean, aldiz, askoz atentzio txikiagoa lortzen zuten. Bourdieuren uztez hitzen boterea hizlariaren bozeramaile paperean datza (Bourdieu, 1985:69) eta hemen behatutako egoeran, mutilek hitzen boterea dutela dirudi, mutil identitatea dutelako. Edo gutxienez, botere sinboliko handiagoa dutela mutil izateagatik eta, beraz, gainontzekoak adiago entzuteko euren hitzak. Mutilen protagonismoa beste egoera batzuetan islatua geratzen zen. Talde txikietan egindakoa talde handian azaldu behar zenean, nor hasiko zen galdetzen nuen. Gehienetan, mutilen taldeak hasten ziren, beraiek baitziren lehenengoak “gu hasiko gara” ozen esaten zutenak. Pasaiako lehen eguneko adibide hau horren erakuslea da:

“Zein hasiko da?” galdetu diet eta mutilek berehala esan dute “Guk” eta besteei aukera eman gabe hasi dira. Azalpenak ematen zituzten bitartean besteek entzuten zuten eta tarteka barre egiten zuten kartulinetan jarritako gauzengatik, batez ere, sexuarekin harremana zituzten kontuekin. Neskek azalpenak eman dituztenean, ordea, mutilei gehiago kosta zaie adi egotea eta beraien artean hizketan edo zirikatzen aritu dira (2015-10-23 Pasai Donibane. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Lezoko beste adibide hau ere oso esanguratsua da:

Talde handian elkartu garenean ea nor hasiko den galdetu dut eta mutilak aurreratu dira “eeeeeee, hasten gara gu, empezamos nosotros!”. Arreta ere eskatu dute “eeeeeee, entzun!”. Mapa erakutsi eta azaldu ostean ere txalo bat eskatu dute “¿Qué pasa? Un aplauso!”. Hirugarren taldean neskek egin dute lan gehiena, baina aurkezpena egiteko garaian protagonismoa mutil batek hartu du (2015-11-06 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia)

Behaketetan nabaritu nuenez, beraz, neskek hitz egiten zuten baino gutxiago entzuten zitzaien. Batetik, mutilek ozenago hitz egiteko joera adierazten zutelako, eta, bestetik, nesken hitz egiten zutenean, askotan, arreta ez zitzaielako jartzen. Horra hor, beraz, marko teorikoan ikusi dugun hizkuntzari lotutako paradoxa: emakumeen nortasuna adierazteko hizkuntza elementu garrantzitsua den arren, lehenesten den hizkera gizonena da. Henrietta Moore-k dioen bezala: “No es que las mujeres estén calladas, es que no se las puede oír (Moore, 1988). Testuingurua horrela izanda ez da harriztekoa mutilek ekimenarako prestuago egotea neskak baino. Hare gehiago, ez zait arraroa iruditzen zenbait egoeretan neskek agertu nahi ez izatea; askotan arretarik jasotzen ez dutelako, eta beste zenbaitetan txantxa egiten zaielako. Lezon azken eguneko bideo-proiektzioetan gertatutakoa (Dinamika 4.1.) horren adierazle da:

Bi neska sartu dira eta proiektorea prest dagoela ikusi dutenean niregana hurbildu dira beraien bideoa ez jartzeko eskatuz. Aurreko egunean ere gauza bera eskatu zuten eta begiraleari *whattappez* ere eskaera bera egin diote. Talde honetako beste neska bat etorri da eta berdin: “ez, ez, ez, ez, ez... borratu gure bideoa, mesedez... ez dauka graziazik”. Lotsatuta daude eta begiraleak (mutila) zirikatzen ditu. Neskak errepikatu dute “mesedez, ez jarri!”(2015-12-04 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Orain arte ikusitakoak dira, beraz, neska eta mutilen artean behatu nituen ezberdintasun nagusienak. Laburbilduz, esan daiteke, behatutakoa eta nerabeekin izandako talde-elkarrizketetan jasotakoa bat datorrela. Mutilek mugimendurako joera handiago adierazi dute, beraien presentzia nabarmentzen dute eta espazio handiago okupatzen dute. Gainera, mutilek jarrera oldarkorragoa adierazten dute eta gehiago entzuten zaie. Protagonismoa bereganatzen saiatzen dira eta, gehienetan lortu ere lortu egiten dute. Salbuespenak ere badaude, noski. Zenbaitetan aztoratuak zeuden neskak behatu ditut, baita talde handian protagonismoa hartzen zutenak ere. Mutil taldeak dinamiketan lasai parte hartzen ere ikusi ditut, eta espazio egokiak utziz gero mutilekin elkarrizketa giroa lortzea posible dela ere agerian geratu da.

Behaketetan jaso ahal izan ditut genero-arauarekin guztiz bat ez zetozen jokabideak eta analisisan jasota geratu direnak. Salbuespenezko adibide hauek oso interesgarriak direla iruditzen zait, arautik kanpo edo mugan dauden subjektuak eta jokabideak, araua bera eta erdigunea argien erakusten digutenak baitira. Izan ere, performatibitatearen planteamentuetatik abiatuta, salbuespen horiek identitate osatze ez-determinatua erakusten digute. Egia da, etengabeko presioa jasaten dugula maskulinitatea edo feminitatea performatzeko, Buttlerek dion bezala, identitate hori uneoro definitzen delako, ez dago itxita, ez bukatuta. Behaketetan mutilak maskulinitatea antzezten ikusi ditut etengabe, eta beraien hitzetan ere behar hori jaso dut: *“Iten da beti "Pressing Catch" bata bestian gainean bota. Azkenian, zaude jolasten, ez dakit, "Pressing Catch" hor jotzia edo futbola jolasten...”* (Lezoko 16 urteko mutila).

Baina performance nozioaren arabera, etengabeko prozesu horretan, norberak badu identitatea osatzeko ahalmena eta, esan bezala, salbuespenek horren berri ematen digute. Eskubaloian maila altuan aritzen diren Lezoko nesken antzezpeneren bidez, indarra eta mugimendu erakustaldia eman zuten. Edo, atal honen hasieran agertzen den lekuan lekuko kontakizunak (mutil bat eta neska bat pilotarekin jolasean) ere generoaren mugak non dauden eta bakoitzak bere papera betetzeko presioak nola egituratzen diren ikusteko adierazgarria da. Edo, bideo-jokoetan aritzen den neskaren salbuespenak, mutilen onarpena (estatusa?) lortzeko baliagarria dela erakusten digu.

Honek guztiak, hizkuntza-praktiketan eragina duela nabaritu dut, batez ere, hitz egiteko modu ezberdinetan. Ikus ditzagun, bada, Lezo eta Pasai Donibanen garatu dudana ikerketan jasotako datuak hizkuntzari dagokionez generoak sortzen dituen ezberdintasunena.

4.3.3. Hizkuntza-praktiketan ezberdintasunak?

Lan honen lehen atalean ikusi dugun bezala, Euskal Herrian lehen ikerketa soziolinguistikoak egin zituen José Maria Sanchez Carrion *Txepetx*-ek, emakumea eta gizonen arteko hizkuntza erabilera ezberdinak deskribatu zituen, euskararen galeraren protagonista nagusi gisa emakumea identifikatuz (1981). Sanchez Carriónen planteamendua Lluís V. Aracil-ek “L’esprint de les dones” artikuluan planteatutakoaren bat egiten zuen: hizkuntza-minorizazio prozesuetan emakumeen elebiduntzea gizona baino beranduago hasten da, baina, hala ere, azkarrago amaitzen dute prozesua. Hau da, emakumeak beranduago hasten dira hizkuntza nagusia ikasten, baina azkarrago “ahazten” dute euren jatorrizko hizkuntza (Aracil, 1998:117). Ikuspegi hauen arabera, emakumeen prozesua negatibismoz betetzen dute, Sanchez Carriónen kasuan gizon eta emakumeen arteko “berezko” ezberdintasunei erreferentzia eginez, eta Aracilen kasuan gizarte roletan lotuz: gizona aktibo/irekiago eta emakumea pasibo/itxiago.

Harrigarria da, Lezo eta Pasai Donibanen jasotako nerabeen lekukotasunetan antzeko banaketa egin izana: “*mutilak mugituagoak dira (...) eta neskek egoten gea geldik*”; “*igual mutilak iniziatiba gehio (...) Zabalagoak...Neskek igual gera gehio más como "nik zurekin ez"* (Lezoko 16 urteko neska-mutilak). Hala ere, 1970. hamarkadatik hona gauzak aldatu dira gizarte eta kulturalki, eta hizkuntzaren ikuspegi sozialetik begiratuta ere Euskal Herrian gertatutako aldaketa nabarmena da: duela 40 urte euskararen galera prozesua oso azkarra zen, eta gaur egun biziberritze prozesuaz hitz egin daiteke.


Biziberritze prozesu horretan generoaren aldagaia kontutan hartzeko hasi zenean, *euskararen feminizazioaz* hitz egin zen. Kike Amonarrizek hala plazaratu zuen 1995ean: “une honetan euskararen erabilera ‘feminizazio’-prozesu batean sartu dela esan genezakeelarik, batez ere adin gazteetan (...) gaur egun, eta batez ere neska gazteek euskararekiko atxikimendu-maila altuago azaltzen dute” (1995:93). Amonarrizen ustez, sexuen arteko rol-banaketak egoera minorizatuan dauden hizkuntzen erabilera eragina du. Hala ere, artikulua hori argitaratu zenetik 20 urte pasa dira, eta oraindik orain, ez da argitu euskararen biziberritze prozesuan gizon eta emakumeen artean ezberdintasunik ematen ote den, nolakoak diren eta zergatik ematen diren ezberdintasunak. Esan daiteke, gaur egun, ez dagoela adostasun handirik emakumeak

euskararen galera eta berreskurapen prozesuetan duen paperaren inguruan. Txerra Rodriguez soziolinguistikan aditua adibidez honela formulatzen du zalantza hau: “Galdera bat datorkit burura: (...) Berreskuratze prozesuetan zelan jokatzten dute emakumeek? Azken kale neurketaren arabera, emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara adin tarte guztietan. Datu bat baino ez da, baina adierazgarria, ezta?” (Rodriguez, 2015:45). Ikus dezagun, bada, zer ezberdintasun jaso ditut nik, argi utzita nire ikerketan ez dudala soilik “zelan jokatzten duten emakumeek?” galdetu, gizonezkoak nola jokatzten duten ere galdetu eta behatu dut.

4.3.4. Neskek euskaraz egiteko joera handiagoa dute

2001etik Euskal Herrian hizkuntzaren sei Kale Neurketa (Soziolinguistika Klusterra, 2011) egin dira eta alde handia ez bada ere, kontutan hartzekoa da guztietan emakumezkoen erabilera beti dela gizonena baino altuagoa. Gainera, adin-taldeen arabera datu guztietan errepikatzen da joera hori. Nik egindako ikerketa garatu diren herrien datuek ere joera hori berresten dute. Pasaia osoko datuak (Pasai Donibaneko datu zehatzik ez dago) kontutan hartuta emakumeen euskararen erabilera kalean %21,6 da eta gizonena %18,7 (Soziolinguistika Klusterra, 2015).

Lezon diferentziak nabarmenagoak dira, emakumeen euskararen erabilera kalean %41,4 da eta gizonena %30,2. Joera hori erakutsi dute azken 15 urteetan egindako neurketek ondoko grafiko honetan ikusi daitekeen bezala (Soziolinguistika Klusterra, 2014):



Ikerketaren partehartzaileen adin tarteko daturik ez daude eta ezin dut, beraz, joera hauek datu kuantitatiboan bidez berretsi. Nerabearoekin beste herrietan egindako ikerketa zehatzetan ere ez dago datu kuantitatibo handirik neskek mutilek baino gehiago egiten dutela adierazten duenik. Bergaran Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketa da bakarra kuantitatiboki baieztatzen duena harremana badela sexuaren eta hizkuntza erabileraren artean “orokorrean neskek mutilek baino euskara gehiago erabiltzen dute esparru gehienetan” (Soziolinguistika Klusterra, 2013:46). Bestalde, askotan errepikatu dudana bezala adin-tarte honetan hizkuntza-mudantza gertatzen da: Lezo eta Pasai-Donibanen haurtzaroan euskararen erabilera handia da eta nerabearoan gaztelaniaren presentzia nabarmen handitzen da. Hizkuntza-mudantza prozesu honetan, generoa aldagaiaren araberrako ezberdintasunik ematen denik ezin izan dut behatu. Hau da, aldaketa dinamikan neska eta mutilen artean erritmo ezberdinik ote dagoen ez dut jaso, horretarako denboran luzatuko litzatekeen ikerketa beharko bainuen.

Nerabeen artean jasotako iritziak bat datozen azken urteetako datuak iradokitzen dutenarekin: neskek euskaraz gehiago hitz egiten dute mutilek baino: *“Es que generalian neskak dira euskeraz eiten dutenak. O sea, zuk ikusten bazu txikien kuadrillak, nik ikusi detenagatik gehienbat neskak eiten dute euskeraz (...) Ikusten bazu Antxon, ikusten bazu San Pedron, Donibanen, neskak egiten dute gehio euskeraz mutilek baino”* (Lezoko 16 urteko mutila). Elkarrizketetan parte hartu duten gehienek oso garbi dute horrela dela, baina mutil batzuk zalantza zuten. Behaketa batean (Dinamika 2.1.) zalantza azaltzearekin batera, mutil batek euskaraz gutxiago hitz egiteko arrazoi bat ere bota zuen:

Hizkuntzari dagokionez, mutilen kartulinar ia pegatina guztiak horiak dira eta neskarena, aldiz, pegatina berde gehiago dago. Hori ikusita, ea neskek euskaraz gehiago egiten duten galdetu dut. Ez dira ados jarri. Mutilek ezetz esan dute eta neskek baietz. Mutil batek, hala ere, hala erantzun du “Bueno, eske gu gera askoz gehio”. Hau da, badirudi mutil gehiago direla neskak baino eta horrek eragiten duen hizkuntza ohituretan. (2015-11-06 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Hau da, aurretik ikusi dugun bezala, talde handitzeak erderarako joera ekartzen du, euskaraz “ez dakienik”⁷¹ egoteko aukerak handitzen direlako, denak erderaz egiteko joera areagotuz. Gainera, aipatu den bezala mutilen lagun-taldeak handiagoak izaten direnez, horrek azalduko

⁷¹ “Ez dakien” etiketarekin katalogatzen diren gazteak ez dira euskaraz egiteko inolako gaitasunik ez duten gazteak izaten. Aztertutako testuinguruan nerabe guztiak ikasten dute euskara eta, beraz, gaitasuna ziurtatuta dago, nahiz eta askorentzat mugatutako gaitasuna izan. “Ez dakiten” izendapenarekin, beraz, etxean euskara jaso ez dutenak eta, gainera, eskolatik kanpo euskaraz egiteko inolako ohiturarik ez dutenak (eta haurtzaroan izan ez dutenak) izendatzeko erabiltzen dute.

luke, hipotesi honen arabera, neska eta mutilen arteko ezberdintasuna euskara-praktikari dagokionez. Badaude, dena den, nesken erabilera handiago azaltzeko beste arrazoi batzuk:

Galdera Eta zergatik uste dezue gertatzen dela hori?

M7: Mutilak guay-ago direlako.

N12: Ui! Miralo! Kar, kar...

M7: A ver! Esan nahi det trolakin, ordun... pues azkenean guaya dena gazteleraz egiten du ta ordun, azkenean, guay izate horrekin ohitura bat hartzen dezu eta ya zaila da aldatzea.

N12: Es que nik pentsatzen det, zuek esan dezute hitz egiten dezutela futbolaz; futbola ikusten dezute erderaz. Ta ordun igual ohitura hartzen dezute erderaz hitz egiteko.

Elkarrizketa horretan, neskek gehiago erabiltzeko bi arrazoi ematen dute. Lehenengoa, prestigioarekin lotuta dago: *guay izatearekin*. Ulertu daiteke gaztelaniaren bidez mutilak estatus berezia lortuko luketela eta horregatik gaztelaniaz egiten dute hizkuntza horrek ematen dien balore sinbolikoa handitzeko nahian. Badago beste faktorea horri gehitzen zaiona: mutilek botere estatus batetik abiatzen direnez, gaztelania erabiltzeak ez die ekartzen arazo handirik. Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeek maiz entzuten dute (eskolan eta zenbait etxeetan) euskaraz hitz egin behar dutela. Derrigortasun moduko bat jasotzen dute euskararen erabileraren inguruan. Baina, mutila izateak mutilei ematen dien posiziotik errazagoa dute agindu horri aurre egitea, batez ere, hurrei eta transmisioari oso lotuta dagoen agindua dela konturatzen direlako. Neskak, ordea, beste posizio batean daude, eta gainera, etengabe ikusi dugun bezala euskararen transmisioaren ardura emakumeengan fokalizatua jarraitzen duenez, euskaraz egitearen agindua propioago sentitzen dute.

Lezoko elkarrizketa horretan, bestalde, badago beste arrazoi bat mutilek gaztelaniaz egiteko: futbola. Aisialdiko jardueren hizkuntza ohiturak duten garrantzia sakon aztertu dut lan honetan, eta, zalantzarik gabe, kirol praktikak mutilen artean duen garrantzia oso handia denez, eta kirola, batez ere, gaztelaniari lotuta agertzen zaigunez, aldagai honen garrantzia ere kontutan hartzekoa da.

4.3.5. Neskek eta mutilek hitz egiteko modu ezberdinak dituzte

Ikusi dugu neska eta mutil nerabeen artean gorputz dinamika ezberdinak agertzen direla. Mutilen artean mugimendua nabarmentzen da eta nesken artean geldirik edo lasaiago egoteko joera. Bourdieuren ustez gorputzaren erabilerak eta hizkuntzarenak harreman estuan daude: “El

lenguaje es una técnica corporal y la competencia propiamente lingüística, y muy especialmente la fonológica, es una dimensión de la hexis corporal donde se expresan toda la relación del mundo social y toda la relación socialmente instruida con el mundo” (Bourdieu, 1985:59-60). Beraz, hor topatu dut neska eta mutilen arteko hizkuntza praktiken lehen ezberdintasuna.

Gorputz espresio ezberdindu honek hitz egiteko moduetan eragina duela iruditzen zait. Izan ere, behaketa hauetan gaztetxoek erabili duten hizkeraren inguruan jaso dugun datu adierazgarrietako bat honako hau da: mutilen artean elkarrizketa luzerik apenas ez dut entzun. Euren arteko komunikazio egoera arruntena esaldi eta, batez ere, esamolde motzez osatutakoak dira: *“somos porreros!, los mejores, los putos amos!” “Quita, quita que te atropello!” Eh! Tú, joder, déjame!” Jo! Idatzi ondo!...Tú eres tonto!” (...)* *“Ke putosida!”* (Lezo, 2015-10-23, mutilak). Hizkera oso informala da, baina ez dago elkarrizketarik: biraoez beterik, oso agresiboa edo umoretsua, builak, oihuak...

Hirugarren behaketa-egunean proposatutako bideo grabazioetan ere (Dinamika 3.2.) ez zituzten elkarrizketa luzeak antzeztu, eta gainontzeko egunetako dinamiketan ere talde handitan aurkezpenak egindakoa oso esaldi laburrak erabili zituzten. Mutilek beraiek, elkarrizketa luzeak edukitzeko zailtasunez hitz egin zidaten. Lezoko mutil batzuk baserri batera joan zirela bi egun pasatzera kontatu zidaten, eta baserri hartan lasaiago egonez hitz egiteko aukera handiago izan omen zuten:

M7: Hor ginen sei mutil bakarrikan ta ahal genun denbora luzeo... hamar minutu hizketan lasai.

N12: Kar, kar, kar, kar... Hamar minutu... (parrez). Ez dago gaizki (ironiaz)

M7: Atsalde osoa ezingo genuke. Atsalde osoa mutilen artean... (...) astuak gera e bai. Igual neskak hitz egiten dute mutilez xuabego edo, ez dakit. Mutilak ahal degu hitz egin xuabe, baino gaudenen talde handian, hasten da bat berotzen, beste harek txorrada bat esaten ta ordun... Ez da modu berdina.

N12: Nesken artean arratsalde osoa egoten gara hitz egiten. Beti dago zerbait kontatzeko.

Garbi agertzen da, beraz, mutil eta nesken hitz egiteko moduen artean ezberdintasuna. Ezarritako genero rolaen arabera bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio, eta ikusten ari garen bezala, mutilen solasaldietan esaldi labur eta amaitu gabeak erabiltzen dituzte (etenak, isiluneak...), mugimenduan dagoen gorputzak garrantzia du komunikazioan, etenak, isiluneak, komunikazio monosilabikoa... Elkarrizketa motzez edo esamolde laburrez osatutako hizkera berezi honek badu eragina hizkuntza aukeraketan. Txantxa giroan, haserretzerakoan edo elkar zirikatzerakoan euskaraz egitea kosta egiten zaie, erraz pasatzen dira gaztelaniara:

Tarteka elkarri buila egin diote edo “borrokan” aritu dira jolasean. Horrelakoetan gaztelania gehiago entzuten zaie: “*el que fue a Sevilla perdió su silla*”, “*¿en serio estás haciendo eso?*” (...) “*qué yo no he sido!*” “*si ya!*” “*pués claro, yo no he manchao*” (2015-10-30 Pasaia. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Aurreko kontakizunean ikusten den bezala, mutilen arteko zirika jokoetan gaztelania oso erabilia da, giro horretan gaztelaniaz hobeto moldatzen direla argia da.: “*Nik igual esaten dut zeozer euskeraz ta geo hitz bat gaztelera ezta?. Ez dakit "Ze ai zea? Kabron!" edo holako zerbait. (...) Igual "burroago" sonatzen du erderaz*” (Lezoko 16 urteko mutila). Oso giro lehiakor eta desafiatailea da. Esaldiak motzak dira eta “gaizto” planta egitea garrantzitsua dela dirudi. Honako, egoera honetan ere mutilen artean ohikoa dela behatu ahal izan dudun oldarkortasuna gaztelaniaz garatzen dela ikus daiteke:

Jolasten geunden bitartean euskaraz hitz egiten zuten baina bi mutil artean “oilar jokoa” sortu da, eta desafioa erdaraz garatu da. Mutil horietako bat txanda batean nahastu da eta bestea barrezka hasi da txarra dela esanez eta bera inoiz ez duela akatsik egingo ozen esaten. Besteari jokabide hori ez zaio gustatu eta haserretu ez bada ere desafioari eutsi dio. Jolasa luzatu den tarte guztian horrela jarraitu dute. Ez dute jolasaren dinamika oztopatu baina orohar talde-jolasa euskaraz garatu bada ere, bi mutil hauen arteko tira-bira erdara hutsez izan da. (2015-11-13 Pasaia. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia).

Badirudi, beraz, hitz egiteko moduetan ere ezberdintasunak argiak direla, eta nerabeen artean pertzepzio hori dute:

“Neskak ta mutilek ezberdin?... Hitz egiteko modua bai. Depende e bai ze pertsona. Baldinbadijoa de matxote, ba doa de guay ta insultatzen jendeai. Egiten bromas de mierda por la calle. Neskak gea gehio komunikatzeko ta beaiek dia en plan atea behar diezula dena en plan con sacacorchos, ez dute kontatzen deus. Gu gea kotorras!”(Pasai Donibaneko, 13 urteko neska).

Txutxu-mutxuka aritzea, beraz, nesken ezaugarritzat hartzen dute eta neskek beraiek horrela jaso dute. Pasaian, adibidez, neska talde batek etxe batean lagunartean gaua pasatzea antzeztu du eta egin dituzten gauzen artean txutxu-mutxuka aritzea antzeztu dute (Dinamika 3.2.). Lezon ere mapen dinamikan (Dinamika 2.1.) neska talde batek adierazi du beraien aisialdi denboran horretan aritzen direla. Behaketetan, hala ere, nesken kasuan, hizketa egoera anitzagoak sumatu ditut: zenbaitetan, mutilen hizkeraren antzera aritzen dira (esamolde motzez osatutako komunikazio egoerak), besteetan, talde txikietan baina tonu baxu samarrean. Begiraleekin

hizketaldi luzeagoak edukitzeko joera handiago ere neskei somatu diet. Aniztasun honen barruan, hala ere, zirikatze edo irainez betetako esamoldeen erabilera mutilen artean askoz nabarmenagoa da. Neskek horrelako hizkera erabiltzeko lotsa agertzen dute:

M7: Hombre! ez da berdina...mutilak igual gehio bazilatu ta hola. Neskak igual gehio gauzak kontatu ta hola.

N12: Bai. Neskak bazilatu ta ez. Lotsatiagok izaten dira.

Gizarte arauen arabera hizkuntza zuzenarekiko transgresorea den hizkera erabiltzeko (irainak, hitz “itsusiak”...) mutilak legitimatuak sentitzen dira. Nesken artean, aldiz, lotsa agertzen da, hizkera hori ez erabiltzeko nolabaiteko gizarte presioa nabaritzen dutelako. Adierazgarria iruditzen zait, gai honi buruz Gasteizko irakasle bazuekin hizketan aritu nintzenean, andereño batek esan zidana: “egia da neska gazteek geroz eta gehiago erabiltzen dituztela hitz horiek, eta ze itsusi geratzen den!”. Interesgarria iruditzen zait, hala ere, nesken joera honek, ezarritako genero roletan fisurak daudela adierazi dezakelako. Izan ere, oldarkorragoa den hizkera erabiltzen duten neskak, kirolean modu indartsuan edo bideo-jokoetan aritzen direnak bezala, toki anbiguoan geratzen baitira.

Hitanoari dagokionez, esan behar dut ez dudala behatu forma hauen erabilera. Gazteei galdetuta esan didate Lezo eta Pasaian ez dela ohikoa euren adinekoen artean hikaz hitz egitea. Zenbait nagusien artean ohikoagoa da, eta nerabe mutilen artean batzuetan esamolde zehatz gutxi batzuk erabiltzen dituzte: “*noa jun behartzu?*” “*ba etzekit*” edo “*eztit uste*”. Nesken artean ez dute *noka* erabiltzen. Beraz, Begoña Etxeberriaren planteamendua, hika formaren erabilera mutilen arteko solidaridadearen marka dela (Etxeberria, 2001:257) berresteko nahikoa elementurik ez dut.

Laburbilduz, beraz, neska eta mutilen artean hizkera modu ezberdinak jaso ditut. Diferentzia hauek genero bakoitzari ezarritako ezaugarrien rolen araberakoak dira, eta oso lotuta daude batzuk eta besteek garatzen dituzten gorputza dinamiken: mugimendua edo geldotasuna: “*tipiko mutilak jota edo bazilatzen edo korrika, ta neskak bankuan exeita hitz egiten*” (Lezoko 16 urteko mutila). Izan ere, ahotsa eta hitz egiteko manera ere gorputzaren parte baitira⁷².

Horren arabera, beraz, marko teorikoan jolasa eta jokoaren inguruan planteatutakoa zentzua daukala esatera ausartu naiteke. Hau da, jokotzat hartu daitekeen hizkera eta jolastzat hartu

⁷² Joana Masó-ri Argian egindako elkarrizketa batean hala planteatzen zuen: “gorputzak bere horretan aurkitzea zaila da. Ez dakigu zehatz nola hasten den, non bukatzen. Ahotsa, adibidez, gorputzaren parte da? Eta hitz egiteko manera? Adierazteko era? Gorputza mugitzeko era ere gorputzaren parte da? (Argia, 2016/02/28)

daitekeena bereizi daitekeela eta generoaren arabera banaketa ere egin daitekeela uste dut. Jokoan bestea agertzen da eta modu horretan erabilitako hizkuntza oso maskulinoa litzateke. Txantxa, erronka, iraina eta ziriak betetako hizkera da eta mutilak hizkera horretan trebatuak dira. Beste aldean, jolas gisa definitu daitekeen hizkera dago. Hizkera honen ezaugarri nagusia elkarrizketa da, parte hartzen dutenen arteko nolabaiteko disoluzioa ematen da. Hizkera hau femeninotzat hartuko litzateke eta neskek horretan trebatuko lirateke: solasaldi luzeak, txutxumutxuak deituak izaten direnak... Azken finean, batzuk eta besteek hizkuntza *performatzen* ari dira. Hizkuntzaren bidez, identitate zehatz batzuk jokatzen/antzeztzen ari dira, eta hizkuntza erabilera horren bide genero identitate batzuk performatzen ari dira: “*neskak piskat handi planta bezela. Mutilak brutogo edo hitz egiten ta neskek txintxugo edo handiyo balira bezela*” (Lezoko 16 urteko mutila).

4.3.6. Hizkuntza-praktiken ezberdintasunen arrazoiak esploratzen

Nerabeekin egindako ikerketa honetan argi geratu da, genero rolen arabera banaketa oso argia dela. Hori dela eta, nerabeek neskeen ezaugarriak eta mutilen ezaugarriak garbi identifikatu eta ezberdintzen dituzte, eta hizkuntza-praktiketan diferentziak nabaritzen direla ikusi ahal izan dugu. Beraz, nire ustez, lekuan lekuko lanaren bidez lan honen hasieran planteatzen zen tesi nagusia berresten da: hizkuntza eta bere erabilerak gizartearen isla direla eta gizartea generoaren arabera antolatua dagoenez eta, norbanakoen sozializazio prozesuan “bi sexuen” arabera bereizketa egiten indar eta energia handia erabiltzen denez, horrek eragina du hizkuntzaren gizarte erabileran.

Nerabeen euskara praktiketan generoa ardatzak eragina duela ikusi ahal izan dut eta marraztutako ibilbide horretan, hori horrela izateko hainbat arrazoi zirriborratzen saiatu naiz. Amaitu aurretik, ordea, euskararen erabilera eta generoaren arteko harremana lotzerakoan aipatu izan diren arrazoiak zerrendatu nahi ditut, eta nire ikerketan ikusitakoaren arabera arrazoi bakoitzean nire kokapena zein den esatera ausartuko naiz.

Prestigioaren teoriak: “*mutilak guayagok*”

Euskal Herrian generoa eta euskararen erabilera aztertu izan denean prestigioaren teoritik egin da (Hernandez, 2004:85). Egindako ikerketak urriak badira ere, egindako lanetan emakumezkoen hizkuntz jokaeren aldakortasuna nabarmendu izan da. Horien arabera badirudi emakumezkoen jokaerak hizkuntzak duen prestigioarekin lotuagoak daudela gizonezkoen

kasuetan baino (Hernandez, 2005:50). Argi dago, hizkuntza bakoitzari lotzen zaizkion balioek, adjetiboek eta prestigioak (hizkuntza-ideologia alegia) eragina duela hizkuntza-praktiketan, baina generoaren arabera botere-harremanak kontutan hartu eta ulertu gabe, nekeza da ondorio garbirik ateratzea.

Gainera, Eckerti jarraituz, esan beharko nuke gizona eta emakumezkoek bere ingurune hurbilari lotzen diotela prestigioa edo estatusa gehienetan “ingurune hurbil horretan uztartua egotea eta onartua izatea bilatzen dute. Pertsona baten ingurunea komunitate ezberdinez osatuta dagoela dio Eckertek, eta horien partaide izatea izango du helburu” (Hernandez, 2005:51). Beraz, prestigioarena kontuan hartzeko aldagaia da eta ikerketa honetan ikusi den bezala, nerabeek oso argi identifikatzen dute euskara edo gaztelania erabiltzeak estatus kontua ere badela (*guay izatea, handia izatea...*). Baina, prestigioaren aldagaia maila orokorrean hartu beharrean praktika-komunitatei begiratzea komeni zaigula uste dut, norbanakoarentzat hizkuntzaren prestigioa aldatu baitezake gune batetik bestera, baita Euskal Herriko toki batetik bestera.

“Nola txertatu generoa-ikuspegia hizkuntza-politikan” artikuluan iradokitzen da, gaur egun, hizkuntzen irudien inguruan generoaren arabera ezberdintasunak egon daitezkeela “litekeena da emakumeek eta gizona euskara balio eta irudi ezberdinekin lotzea eta horrek hizkuntza erabiltzeko nahiemenan eragitea” (Oruesagasti et al., 2014:77). Nire ikerketan ez dut aldagai horretan gehiegi sakondu, eta ezin dut esan Lezo eta Pasai Donibaneko neska eta mutilen artean balio edo irudi ezberdinak lotzen dituztenik. Hala ere, zantzu batzuk agertu dira eta, beharbada, garbiena Lezoko elkarrizketa batean esandako esaldi honekin laburbildu daiteke “*Mutilek gaztelaniaz gehiago egiten dute guayago direlako*”. Hau sakonago aztertzea oso interesgarria litzateke, Ane Ortega, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jaqueline Urla edo Belen Uranga garatu izan dituzten hizkuntza-identitatearekin lotutako ikerketa ildoak kontutan hartuta, eta argi edukita nerabeen artean zerbait komunikatzea baino, norberaren izaera komunikatzailea izateak garrantzi handiago izaten duela.

Hezkuntza eta arauetako atxikimendu handiago: “*mutilak brutogok ta neskak txintxugok*”

Nire lanean zehar oso argi geratu da sozializazio prozesuaren bidez bi subjektu mota sortzen direla: neskak eta mutilak. Mota horietako bakoitzari ezaugarri zehatz batzuk ezartzen zaizkio eta ezaugarri horien arabera jokatzeko espero da. Ikerketan parte hartu duten nerabeek oso garbi identifikatzen dituzte ezaugarri horien arabera “nesken jokabideak” eta “mutilen jokabideak”

zein diren “mutilen jokaerak”. Eredu horren arabera, Hernandezek dion moduan “emakumezkoek atxikimendu handiagoa erakusten dute hezkuntza eta arauetik, eta horretarako sozializatuak dira, sistema indartzeko; gizonezkoak, aldiz, arauen kontra joan ohi dira, eta apurtzailea izatea beraien identitatea sortzeko edo garatzeko elementu bat da” (Hernandez, 2005).

Honako hau, prestigioarekin zuzenean lotuta dagoen elementu da. Batez ere, gizarte mailan “sexu bakoitzetik” espero den jokabideari lotuta. Ideia hau, gaztetxo batek esandako esaldi honekin laburbildu daiteke: “*Mutilak brutogo edo hitz egiten ta neskek txintxugo edo handiyo balira bezela*”. Ikerketa garatu den testuinguru soziolinguistikoan ikusi ahal izan dut hezkuntza sistema formala euskararekin oso lotuta agertzen dela. Bertan arauak eta derrigortasunezko diskurtsuak euskara erabiltzearen aldekoak dira, eta neskek atxikimendu handiagoa agertzen dute arau hauekiko. Testuinguru horretatik kanpo, ordea, helduek ezarritako arauetatik at dagoen esparruan gaztelaniaren presentzia handiagoa da, eta mutilak gehiago nabarmentzen dira gaztelaniaren praktikan.

Dena den, nire ustez beharrezkoa da ohartaraztea, adin honetako gaztetxoen artean hizkuntza-arauen kontra jotzea, era berean gizarte-arauen alde joatea ere badela. Izan ere, euskaraz egitearen agindua, batez ere, eskolaren bidez bideratzen den haur eta nerabeentzako ezarritako araua da. Baina, helduen gizarte egituretan eta praktikan gaztelania da nagusi. Beraz, nerabeen artean gaztelania erabiltzea sistema formala sinbolizatzen duten erakundeek (eskola, batez ere, baina baita familia zenbait kasuetan) aurka agertzeko modu bat da, baina gizartean oso agerikoa den hizkuntza arauekin bat egiteko modua ere bada. Euren adinekoei ezarritako arauaren transgresioaren bidez, mutilak boterea duten helduen mundura prozesua azkarrago egingo lukete, besteak beste, estatus hori lortzeko ere sozializazio prozesuak abantaia gehiago ematen dizkielako. Neskek, aldiz, araua betetzeko agindua sendoago dutenez mantsoago emango lukete urratsa, eta gainera, presio handiagok biziko lukete.

Interesgarria litzateke ikuspegi horren arabera hizkuntza-praktiken azterketa egitea eta Itxaro Artolak Arrasaten egindako ikerketan planteatzen duen susmoa betetzen den ikustea:

Neskek euskaraz hitz egiteko ohitura handiagoa dute mutilek baino. Fenomenoa ez da berria eta susmoa daukagu horren atzean jendarte eredu patriarkalak ezarritako genero rolen banaketaren zama dagoela. Hau da, mutilak modu ez kontzientean boterearekin eta indarrarekin lotzen dugun gaztelerara makurtzen direla, neskek egoera gutxiagotuan dagoen euskararen zaintza euren gain hartzen duten bitartean. Portaera-ezberdintasun hori gainditzerik izango ote genuke euskalgintzaren diskurtsoa ekologiaren eta feminismoaren iturrietatik edanez eta, funtsean, justizia sozialean oinarrituz eguneratuz gero? (Artola, 2013:80).

Euskararen transmisioaren rola : “*igual beaiek responsabilitate gehio*”

Euskararen transmisioaren eta zaintzaren rola aurreko puntuan aipatutakoarekin oso lotuta dago, eta lan honetan egin dudan errebaso historiko-kulturalean ikusi den bezala euskararen kasuan oso errotuta dagoen egitatea da. Azken urteetan ere biziberritze prozesuan euskara behar izan diren lanbideetan emakumeen presentzia handiago izan da, eta emakumezkoek bete ohi dituzten lanbideetan euskararen eskaera eta erabilera handiago da (Amonarriz, 1995). Esan daiteke, beraz, transmisioa emakumeen gain egoten jarraitzen duela (Oruesagasti et al., 2014:82). Hau oso argi ikusten da eskola esparruan. Haur eta Lehen Hezkuntza irakasleen artean emakumeen presentzia nagusia da, eta adin tarte horietan ere euskararen presentzia eskoletan askoz nabarmenagoa da beste gizarte edozein esparruan baino. Horrek ekarriko luke neskek errazago identifikatzea rol hori betetzen duten emakumeekin. Zaintza feminitatearekin lotzen denean, beraz, euskararekin ere oso lotuta agertzen da, eta beraz, euskara zaintzaren ardura maila handiago batean geratzen da nesken bizkar gainean.

Dena den, Lezon eta Pasai Donibanen garatutako ikerketako gaztetxoaren artean ez dute alderdi hau identifikatu. Ez dute uste euskara zaintzearen ardura modu ageriagoan neskengan jartzen denik. Eurek behintzat ez dute identifikatu. Ez dituzte identifikatu diskurtso ezberdinak dagoenik neska edo mutilei zuzenduta. Hau da, neskek ez dute identifikatzen euskara zaindu beharrezko mezua gehiago zuzentzen zaienik. Aipamen bakarra jaso dut nesken ardura horren inguruan: “*Es que generalian neskek dira euskeraz eiten dutenak. (...) Ordun, ez dakit, igual beaiek dakate responsabilitate gehio ez?. Ordun, bai*” (Lezoko 16 urteko mutila). Beraz, ez dirudi diskurtso esplizitu eta agerikoa dagoenik neskei zuzendua, eta aurreko puntuetan ikusi dugun bezala rol paper ezberdinak jokatzearekin lotuta agertuko litzateke euskara (ere) zaintzearen ardura femeninoarena.

Taldearen egiturak: “*gu gehio gara*”

Lagunarteko taldeen egiturak bai nerabeekin izandako elkarrizketetan, bai ingurukoekin izan dituzten elkarrizketa informaletan maiz ateratzen den aldagaia izan da. Orohar, neskek talde txikiagotan ibiltzeak euskaraz egiteko ohitura mantentzean lagunduko lukeela litzateke arrazoi honen oinarria. Hala dio Lezoko mutil batek: “*Gu gehio gara, hogeita zazpi edo...hogeitamar. Neskek gutxio, ta guk aukera gehio degu batzuk guraso erdaldunak edukitzeko*” Nolabait,

taldea handia izateak euskaraz hain ondo moldatzen ez den norbait egotea dakar, eta halakoetan denek euskaraz egitera pasatzen direla diote.

Bergaran gazteekin egindako ikerketan ere horrekin lotuta egon daitekeenik iradoki zuten: “orokorrean neskek mutilek baino euskara gehiago erabiltzen dute esparru gehienetan (...) ideia hau interesgarria da lotzea Bergarako nerabeen harreman sozialekin: koadrilaren izaerarekin eta koadrilatik kanpoko gizarte harremanekin” (Soziolinguistika Klusterra, 2013:46). Horren arabera, nesken koadrilak egonkorragoak direla adierazten dute eta horregatik haien ohiturak ere, hizkuntza-ohiturak barne, egonkorragoak mantenduko lituzkete. Mutilek, berriz, harremanetarako aukera zabalagoa edukiko lukete, eta horrek talde-hizkuntza aldatzeko joera handituko luke.

Kontutan hartzeko eta eragina izan dezakeen aldagaia dela iruditzen bazait ere, ez zait iruditzen beste arrazoiak bezain indartsuagoa den arrazoa denik neska eta mutilen arteko hizkuntza-praktika ezberdinak azaltzeko.

Aisialdi eta kirol praktikak: “*entrenatzailea antzezten*”

Lan honetan ikusi den bezala aisialdiako praktikak garrantzia handia dute aztertutako adin tartean eta praktika hauetan ezberdintasunak ematen dira neska eta mutilen artean. Nik jasotakoaren arabera nerabe mutilen bizitzen erdigunean (eta batez ere futbola) dago, eta kirolean euskararen presentzia oso txikia da. Entrenatzailearen papera antzezten zuen mutilaren erantzuna litzateke horren adibidea: “*Es que entrenatzailea antzezten ari nintzen*”. Aipatu dugun bezala, gainera, kirol praktika hauek, gaur egun, maskulinitatearen ezaugarriak zabaltzeko eta zehazteko oso baliagarriak direla.

Aldagaiu honen garrantziarekin bat egiten dute Bergaran egindako ikerketan, eta baita, Oruesagastik, Arakistainek eta Otaegik Gasteizen egindako azterketan. Bergarako ikerketan aipatzen dute neskek giro euskaldunagoa duten ekintza gehiago egiten dituztela (dantza, musika...) eta kultur kontsumoa indibidualetan ere neskek gehiago jotzen dute euskarazko ekoizpenetara (irratia, musika, liburuak...) (Soziolinguistika Klusterra, 2013:8). Gazteizen egindako azterketan ere eskolaz kanpoko jardueren ezberdintasunak egoteak neska eta mutilen hizkuntza-jokaeretan diferentzia dakarrela berresten dute (Oruesagasti et al., 2014:76).



Aipatutako arrazoi horiek guztiak sozializazioaren bidez garatzen diren genero rolengatik zeharkatuta daude. Genero banaketak ezartzen dituen betebeharrak (aisialdiko praktiketan, talde egituretan, jokatu beharreko roletan eta diskurtsuetan) hizkuntza-praktiketan ere eragin handia dute. Azken atal honetan zerrendatu ditudan faktore guztiek nolabaiteko eragina izango dutela uste dut, baina argi dagoena zera da: generoaren arabera subjektu ezberdinak eraikitzeak, hizkuntza-praktika ezberdinak sortzen laguntzen duela, eta horrek, desberdinkeriazko botere harremanak mantentzen laguntzen duela.

Gazte gehienak kanpoan dabilta baina gela txukuntzen ari ginen bitartean batzuk barrura sartu dira eta aulkietan eseri dira. Guztira zortzi mutil eta bi neska daude. Begiralea eurekin eseri da eta hizketan hasi dira. Nik alde egiteko asmoa nuen, baina hurbildu naiz eta beraien ondoan eseri naiz. Eskolari buruz hitz egiten ari dira, gehien bat irakasleak kritikatzeko, baina nahiko txantxa giroan: irakasleen izaera, jartzen dizkieten ezizenak, pasadizoak, zigorrak, bihurrikeriak... Neska bat da gehien hitz egiten duena eta gainontzekoak adi entzuten diote eta tarteka elkarrizketan sartzen dira. Begiralea gazteen institutu berean ikasi zuenez bertako irakasle asko ezagutzen ditu, beraz, monitoreak elkarrizketan oso integratua dago. Nahiko altu hitz egiten dute, baina elkarrizketa bat da. Gaurko saioan elkarrizketa bat sortu den une bakarra dela sententzia dut eta gustura nago. Isilik nago, beraien artean eserita, eta adi entzuten diet. Ez dirudi ni bertan egotea axola zaienik. Nirekiko nahiko konfidantza hartu dutela iruditzen zait eta begiraleekin duten harremana nirekin ez badute ere, bertan egotea arazorik gabe onartzen dutela uste dut. Hiru mutil, mugikorrarekin dabilta eta tarteka elkarrizketan sartzen dira. Piska bat hareago hiru mutil beste begiralearekin hitz egiten ari dira. Lehen oso aztoratuak zeuden mutilak dira, baina orain lasai daude monitorearekin hizketan. Giro atsegina da orain dinamika antolatzen aritu garenean baino. Luzez egon gara elkarrizketa giro horretan, eta lehen egunean nituen zalantzak desagertu zaizkit.

Alde egiteko ordua iritsi da. Dena txukun utzi dugu eta kanpora atera gara. Kotxe aldera abiatu naizenean begiraleak eta gazteak agurtu ditut. Nerabe batek galdera luzatu dit “ez zara gehiago etorriko?” Agian berriro itzuliko naizela esan diet baina, printzipioz, ikerketarekin bukatu dudala esan diet. Berriro agurtu dira “Agur, Jaimeeee!” ...

...nerabeekin antropologia lana egitea polita dela pentsatuz, azken bi hilabeteetan behaketa lana egiten egon naizen tokitik aldendu naiz.

(2015-12-04 Lezo. Lekuan lekuko egunerokoaren zatia)

5. Ondorioak

1

Hitz bat erabiltzen dudanean -esan zuen Humpty Dumpty mesprezu handiko doinuz-, hitz horrek nik aukeratzen dudana esan nahi du... ez gehiago ezta gutxiago ere.

Kontua zera da – esan zuen Aliziak- ia eragin dezakezun hitzek hain gauza desberdinak adieraztea.

Kontua zera da – esan zuen Humpty Dumptyk- aruemailea nor den, horixe da dena.⁷³

Humpty Dumpty adierazten duen bezala, gakoa arauemailea nor den jakitea da. Beste hitz batzuekin esanda, kontua zera da: boterea nork duen jakitea. Horregatik, lan honen garapenean zehar, bai genero dinamiketan, eta bai hizkuntza dinamiketan botere harremanei begiratu behar zaiola oso argi geratu zait. Hizkuntza gizarte logika orokorrez zeharkatuta dago eta, gainera, oso aldagai berezia da kultura baten barruan hedapen elementu delako eta, era berean, ispilu gisa funtzionatzen duelako. Beraz, hizkuntza egitate konplexua da, eta bere bitartez botere sinbolikoa ezartzen da. Hizkuntzen erabileraren bidez, beraz, botere harremanak ezartzen dira, eta sortzen diren hierarkia horietan generoa garrantzitsua da. Hau da, gizonen eta emakumeen hizkuntzaren bidez lortu dezaketen kapital sinbolikoa ezberdina da eta desberdinkeriak sortzen ditu. Baina, era berean, sozializazio prozesua zeharkatzen duen genero eraikuntzak subjektuen hizkuntza-praktika ezberdinak eragiten ditu. Hau da, elkarren artean ezberdin gisa eraikitzen diren subjektuen (gizonen eta emakumeen) hizkuntzaren erabileran generoak eragina du. Hori zen nire ikerketaren abiapuntua (sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean duen eragina aztertzea), eta lan honen hirugarren atalean egindako esplorazio teoriko-metodologikoan ainguraketa sendoak topatu ditut ibilbide hori egiteko.

Batetik, Kritika Feministak duela hamarkada batzuk ezarritako oinarri teorikoak oso baliagarriak egin zaizkit generoaren eraikuntza soziala ulertzeko. Era berean, azken urteetako feminismoak identitatea osatzeko prozesuaren inguruko planteamendu berritzaileak iradokitzaileak suertatu zaizkit hizkuntzaren bidez osatzen dugun identitate prozesua ulertzeko. Bestetik, nerabeekin garatutako ikerketa hau Hizkuntzaren Antropologian azken hamarkadetan

⁷³ Ondorioetako azpiatalak hasieretan erabili ditudan zita guztiak Alizia, ispiluan barrena liburuko VI. Kapituluak dira (Carroll, 1995)

proposatutako kontzeptuetan eta ikuspegian oinarritzeak hizkuntzaren praktikei begirada berri batekin hurbiltzeko aukera eman dit. Alde horretatik, planteamendu teoriko-metodologiko horiek oinarritzekoak suertatu zaizkit sozializazio bidez egiten den sexuaren araberrako banaketaren sailkapena egiteko (mutilek zer egiteko gai diren erakutsi behar dute, neskek bere izaera zertan datzan adieraztea dute helburu), eta batzuen eta besteen hizkuntza-praktika ezberdinak oinarritzeko.

2

“Ezatsegin guztietatik inoiz ez dut aurkitu Humpty Dumpty bezalakorik”

Ispilu barreneko bidaian Aliziak topatu zuen pertsonaia berezietakoa da Humpty Dumpty: arraultza harroa eta hitzen maisu. Humty Dumpty badu gauza bat argi: hizkuntza botere kontu bat da. Humpty Dumpty: arraultza harroa eta arraultza arra, hesiaren gainetik neskari harrokeriaz hitz egin ziona.

Nire etnografia bidaia honetan ez dut horrelako pertsonaia harropuztik topatu, baina bidean bai aurkitu ditut generoa eta hizkuntzaren boterezko harremanak gurutzatzen diren tokiak. Konturatu naiz azkeneko bi mendeetan Euskal Herrian hizkuntza-ordezkapen prozesua eta emakumeen bazterketa era paraleloan gertatu direla. Biak arlo publikotik kanpo geratu ziren, eta azken hamarkadetan “etxetik ateratzeko” ahalegina handia egin bada ere, oraindik, bai euskararen biziberritze prozesuan, bai emakumearen askapenean ere, bide luzea geratzen dela.

Izan ere, lan honen bigarren atalean argi geratu den moduan, euskararen transmisioaren eta zaintzaren papera emakumearen bizkar geratu dira, nolabait euskararekiko ardura femeninoa indartuz. Azken bi mendeetako diskurtsuetan eta praktketan konstante gisa agertu zaigun transmisio ardura hori. Emakumeei ezarritako papera hizkuntzaren birsorkuntza ziurtatzea izan da. Amaren figuraren bidez, iragana eta etorkizunaren arteko lotura irudikatu izan da, horretarako transmisioaren ardura estrategia sinboliko indartsua bihurtuz. Baina transmisioa nahiko rol pasiboa da, ez da dinamikoa: zuk duzun zerbait ematen duzu, baina ez da oso ekintza sortzaile aktiboa eta ez du beti eman beharko lukeen emaitza lortzen. Eta emaitzarik ematen ez duenean emakumeak erruduntzat hartzea ohikoa ere izan da. Horregatik, zenbaitetan euskararen galeraren errua emakumeei leporatzea ere ohikoa izan da. Ardura, beraz, emakumeen esku utzi bada ere, eta euskararen euste eta biziberritze lanean andreak lan handia egin badute ere, paradoxikoki arlo publikoan gizonezkoak izan dira euskararen (hitzaren) jabe agertu direnak.

Emakumeei transmisore papera egotzi zaie, baina euskararen biziberritze dinamika publikoan ez zaie protagonismorik aitortu.

Ikerketa honen hasieran formulatu nuen hirugarren hipotesia, beraz, azterketa historiko-sozialaren bidez berretsi ahal izan dudala uste dut: historikoki euskararen zaintzeko eta transmititzeko ardura emakumearekin lotu izan da, eta euskara eta emakumea lotzen duen iruditegi hori bizirik dirau; hizkuntzaren biziberritze funtzioa femenino omen diren ezaugarri batzuekin lotzen da. Baina lan enpirikoaren bidez ezin izan dut hipotesia berretsi, behaketetan eta talde-elkarrizketetan parte hartu duten nerabeek ez baitute argi identifikatu euskararen zaintza eta transmisio lana nesken ardurapean geratzen ote den. Hala ere, gai hau jorratzeko egindako lanketa egokiagoa edo zehatzagoa egin beharko litzatekela uste dut, behaketa saioetarako prestatutako talde-dinamiketan eta talde-elkarrizketetan garrantzi gutxi izan duen gaia izan baita.

3

Zazpi urte eta sei hilabete!- errepikatu zuen Humpty Dumptyk pentsakor-. Adin deserosoa. Orain, nire aholkua entzun nahi izango bazenu, esango nizuke: “gelditu zazpi urteetan”...baina beranduegi da.

Adina izan da, generoa eta hizkuntzarekin batera, nire ikerketa lan honetako ardatz garrantzitsuetako bat. Nerabeekin garatutako ikerketa izanik, adinaren inguruan sortzen diren gizarte kategoriez hausnartu dut, Mendebaldeko egungo gizarteak duen izaera helduzentrikoaren arabera botere harreman batzuk ezartzen eta garatzen direla azalduz. Nerabezaroan aldaketa garrantzitsuak ematen direla onartuta ere, nerabeak ez dira bukatu gabeko helduak, “prozesuan dauden subjektuak” baizik. Horregatik, Haurtzaro eta Nerabezaroaren Antropologiak eskaintzen dituen tresnak eta proposamenak oso baliagarriak egin zaizkit garatu dudan ikerketarako: nerabeen ahotsak eta ikuspegiak jaso ahal izan ditudalako. Azken finean, ikerlariaren *hesi gainetik* jaitsi ahal zian dut gazteekin aurrez-aurre egoteko.

Planteamendu antropologiko horiei jarraituz, hizkuntza-praktiketan neska eta mutilen artean diferentziak ematen ote diren azterketara iristeko, lehendabizi, nerabeen identitateak eta praktikak aztertu ditut. Gazte-identitateari dagokionez, ikerketan parte hartu dutenek gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotzen dute, eta gazteen identitatea kirola eta festarekin oso

lotuta agertzen dela esan daiteke. Adinkideen taldeari berebiziko garrantzia ematen diote eta jaiotza urtea eta sexua dira lagun-talde ezberdinak osatzeko funtsezko ezaugarriak. Lezo eta Pasai Donibaneko 13 eta 16 urte bitarteko nerabeen artean ez dira estilo ezberdinetako gazte-kulturak agertu eta euskara pisu gutxiko aldagaia da euren burua definitzeko edo aurkezteko orduan.

Bestalde, nerabe hauen praktikak laburbildu ditzakegu aisialdiko jardueren garrantzia hartzen dutela esanez. Kirola oso presente dago, nahiz eta, mutil eta nesken artean joera ezberdinak nabari diren. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez da hain orokorra eta kirol aniztasun handiago dago. Mutilek garrantzi handia ematen diote futbolari, eta euren bizitzaren erdigunea dela adierazten dute. Bestetik, nerabe hauentzat kalea da aisialdi ez-formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa. Lagunartean kalean egote horretan ere ezberdintasun batzuk deskribatu dituzte, mutilak neskak baino gehiago mugitzeko joera dutela adieraziz. Azkenik, oso esanguratsua da telefono mugikorrek nerabeen aisialdian duten erabateko presentzia.

4

Gaztetxoen hizkuntza-sozializazioari dagokionez, Lezon eta Pasaian garatu dudan ikerketan nahiko argi ikusten da nerabeei euskarak gauza handirik ez diela eskaintzen euren gazte-identitatea eraiki ahal izateko: euskararekin lotzen duten guneak batez ere eskola eta etxea (neurri txikiagoan) dira. Baina nerabezaroan gune hauek garrantzia galtzen dute aisialdiko jardueren aldean. Eta aisialdi eremuan garatzen dituzten praktika nagusienetan (kirola, musika, komunikabideak...) euskararen presentzia oso apala da. Horrek, nire ustez, ondorio logiko bat dauka: haurtzaroan baliagarria zitzaien hizkuntza (euskara) ordezkatu edo osatu behar dute, eta hori, hizkuntza-mudantza prozesuaren bidez ematen da. Nerabezaroan ematen den hizkuntza-mudantza Euskal Herrian egin diren beste ikerketa batzuetan garbi deskribatu da. Pasai Donibane eta Lezoko gazteek ere adin tarte honetan gaztelania gehiago erabiltzeko joera argia erakutsi eta deskribatu dute. Lagunartean erdara nagusitzen den euskara eta gaztelania nahasten den hizkuntza-praktika ohikoa bihurtzen da.

Esan daiteke, hizkuntza bat edo bestea egiteko gazteek eman dituzten arrazoiak bi multzotan antolatu daitezkeela: ohiturak eta diskurtsoak. Jaso ahal izan dudanaren arabera, hizkuntza-mudantzaren atzean hizkuntza-ideologia dagoela dirudi. Haurtzaroan euskararen inguruan

jasotako mezuak ahultzearekin batera, nerabeak heldutasunera begira daude. Heldu izate horretan gaztelania nabaritzen dute prestigio-hizkuntza gisa. Nerabeek kapital sinbolikoa edukitzeko gaztelania garrantzitsua dela pertzibitzen dute, eta ez dituzte euskararekin lotutako diskurtsu erakargarririk topatzen. Horri gehitzen zaio gazteen aisialdiko jardueretan euskarak duen presentzia urria. Azken finean, behatutako prozesuetan oso argi ikusten da hizkuntzaren bidez nerabeek identitatea nola *performatzen* duten. Hau da, hizkuntza-identitatea ere, generoarena bezala, etengabeko osaketa eta aldaketa prozesuan dagoela ondorioztatu daiteke, eta prozesu horretan etengabe heldu izatera iritsi behar dutela jasotzen dutenez pertsona helduaren papera *performatzeko* gaztelaniaz “jokatzen dute eta jolasten dira”.

5

“Jolasa balitz bezala hitz egiten du” pentsatu zuen Aliziak.

Generoa aldagaiak nerabeen hizkuntza-praktiketan zehazki nola operatzen duen aztertuta neska eta mutilen arteko ezberdintasun argiak ematen direla ondorioztatu dut, eta alde horretatik, behatutakoak eta nerabeekin izandako talde-elkarrizketetan jasotakoak bat datoz. Mutilek mugimendurako joera handiago adierazi dute, beraien presentzia nabarmentzen dute eta espazio handiago okupatzen dute. Gainera, mutilek jarrera oldarkorragoa adierazten dute eta gehiago entzuten zaie. Protagonismoa bereganatzen saiatzen dira eta, gehienetan lortu ere lortu egiten dute. Salbuespenak ere badaude, noski. Zenbaitetan aztoratuak zeuden neskak behatu ditut, baita talde handian protagonismoa hartzen zutenak ere. Mutil taldeak dinamiketan lasai parte hartzen ere ikusi ditut, eta espazio egokiak utziz gero mutilekin elkarrizketa giroa lortzea posible dela ere agerian geratu da. Salbuespenezko adibide horiek oso interesgarriak iruditzen zaizkit, arautik kanpo edo mugan dauden subjektuak eta jokabideak, araua bera eta erdigunea argien erakusten digutenak baitira. Performatibitatearen ikuspegiaren arabera salbuespen horiek identitate osatze ez-determinatua erakusten digute. Maskulinitatea edo feminitatea jokatzeko etengabeko presioa jasotzen badugu ere, norberak badu identitate propioa osatzeko ahalmena eta salbuespenek horren berri ematen digute.

Hizkuntza-praktikei dagokionez Pasai Donibane eta Lezoko nerabeen artean neskek euskara gehiago egiten dutela ondorioztatu dut. Gaztetxoek hala identifikatu dute eta behaketetan horrela dela berretsi ahal izan dut. Neskek gehiago erabiltzeko bi arrazoi ematen dute: hizkuntza-prestigioa eta aisialdiko praktikak. Lehenengo arrazoia, beraz, prestigioarekin lotuta dago: *guay izatearekin*. Ulertu daiteke gaztelaniaren bidez mutilak estatus berezia lortuko luketela eta horregatik gaztelaniaz egiten dute hizkuntza horrek ematen dien balore sinbolikoa

handitzeko nahia. Mutilek botere estatus batetik abiatzen direnez, gaztelania erabiltzeak ez die ekartzen arazo handirik. Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeek maiz jasotzen dute euskara erabiltzeko agindua, baina, mutila izateak mutilei ematen dien posiziotik errazagoa dute agindu horri aurre egitea, batez ere, haurrei eta transmisioari oso lotuta dagoen agindua dela konturatzen direlako. Neskak, ordea, beste posizio batean daude, eta gainera, etengabe ikusi dugun bezala euskararen transmisioaren ardura emakumeengan fokalizatua jarraitzen duenez, euskaraz egitearen agindua propioago sentitzen dutela pentsatu daiteke. Bigarren arrazoa, aisialdiko praktiken lotuta dator, batez ere, kirol praktikekin. Mutilen artean nerabezeroan garatzen den jarduera arrakastuena kirola da, eta ikerketa honetan (eta beste batzuetan) agerian geratu den bezala euskararen presentzia kirolean oso apala da. Nesken artean, aisialdiko praktiken aniztasuna handiagoa da eta, hortaz, euskaraz egiten diren jarduera gehiagoetan parte hartzeko aukera handiago dute.

Bestalde, oso deigarria egin zait neska eta mutilen artean hitz egiteko modu ezberdinak topatu izana. Mutilen artean elkarrizketa luze gutxi jaso ditut. Euren arteko komunikazio egoera arruntena esaldi eta, batez ere, esamolde motzez osatutakoak dira. Ezarritako genero rolaren arabera bakoitzari hitz egiteko modu bat dagokio, eta mutilen solasaldietan esaldi labur eta amaitu gabeak erabiltzen dituzte (etenak, isiluneak...), nesken artean, aldiz, solasaldi luzeagoak eta giro lasaiago batean edukitzeko joera nabarmentzen da. Diferentzia hauek oso lotuta daude batzuk eta besteek garatzen dituzten gorputza dinamikekin: mugimendua edo geldotasuna.

Horren arabera, beraz, marko teorikoan jolasa eta jokoaren inguruan planteatutakoa zentzua daukala ondorioztatu dezaket. Hau da, jokotzat hartu daitekeen hizkera eta jolastzat hartu daitekeena bereizi daitekeela eta generoaren araberrako banaketa ere egin daitekeela uste dut. Jokoa norbera eta bestea aurrez-aurre agertzen dira eta egoera horretan erabilitako hizkuntza oso “maskulinoa” litzateke. Txantxa, erronka, iraina eta ziriak betetako hizkera da eta mutilak hizkera horretan trebatuak dira. Beste aldean, jolas gisa definitu daitekeen hizkera dago. Hizkera honen ezaugarri nagusia elkarrizketa da, parte hartzen dutenen arteko nolabaiteko disoluzioa ematen da. Hizkera hau femeninotzat hartuko litzateke eta neskak horretan trebatuko liriateke: solasaldi luzeak, txutxu-mutxuak deituak izaten direnak... Azken finean, batzuk eta besteek hizkuntza *performatzen* ari dira. Hizkuntzaren bidez, identitate zehatz batzuk jokotzen/antzezten ari dira, eta hizkuntza erabilera horren bide genero identitate batzuk *performatzen* ari dira.

Laburbilduz...

Nerabeekin egindako ikerketa honetan argi geratu da, genero rolen arabera banaketa oso argia dela. Hori dela eta, nerabeek nesken ezaugarriak eta mutilen ezaugarriak garbi identifikatu eta ezberdintzen dituzte, eta hizkuntza-praktiketan diferentziak nabaritzen direla ikusi ahal izan dugu. Beraz, nire ustez, lekuan lekuko lanaren bidez lan honen hasieran planteatzen zen tesi nagusia berresten da: hizkuntza eta bere erabilerak gizartearen isla direla eta gizartearen generoaren arabera antolatua dagoenez eta, norbanakoen sozializazio prozesuan “bi sexuen” arabera bereizketa egiten indar eta energia handia erabiltzen denez, horrek eragina du hizkuntzaren gizarte erabileran.

Ikerketa honen xede nagusia nerabeen hizkuntza-praktiketara eta diskurtsuetara gerturatzea zen genero-rol arabera ezberdintasunik ematen ote den esploratuz. Jarritako helburuak bete dira, eta hipotesietan formulatutakoa ere berresteko moduan nagoela uste dut. Hipotesi nagusia zen, sozializazio sexistak hizkuntzaren praktika sozialean eta hiztunen hizkuntza-iruditegian eta diskurtsuetan ageriko eragina duela pertsonen bizipenak, praktikak eta hizkuntza-praktikak baldintzatuz eta gizonen emakumeekiko duten botere harremana mantentzen lagunduz. Nire ustez, ikerketa enpirikoan nahiko zantzu azaldu direla hori horrela dela berretsi ahal izateko aurreko puntuan zehazki azaldu dudana bezala.

Hipotesi zehatzei dagokionez, biak berretsi daitezkeela uste dut. Batetik, Pasai Donibane eta Lezoko nerabeen artean euskararen erabileran sexuen arabera ezberdintasuna ematen da: neskek euskara gehiago erabiltzeko joera dute. Bestetik, hizkuntza erabiltzeko moduetan ezberdintasun argiak ematen dira: mutil eta nesken artean egoera komunikatiborako erabiltzen duten hitz egiteko moduetan eta hizkuntzarekiko duten harremanean diferentzia nabarmenak daude.

-Aitzingibel deitzen da bide luze bat egiten duelako aurretik eta beste bat atzetik, noski.

-Eta bide luze bat alde bakoitzean -gaineratu zuen Aliziak.

Lan honen aintzinsolasean ikerketa hau bidaia bezala irudikatu dudala idatzi dut. Amaierara iritsi naizenean Humpty Dumtyk eta Aliziak definitzen duten *aitzingibel* hitzarekin topo egin

dut, eta kontzeptu hori ezin hobeto datorkidala konturatu naiz. Hilabeteetako bide luzea egin dut, aurrera, atzera eta alde bakoitzera mugituz. Hizkuntza, nerabezaroa eta generoa gaiak alde batetik eta bestetik zehazki aztertu ditut, alderdi eta ikuspegi ezberdinak topatuz. Genero eta Feminismo ikerketaren ikuspegiak, Hizkuntzaren Antropologiarena eta Haurtzaro eta Nerabezaroaren planteamenduek bidean kokatu naute, baina, batez ere, Lezo eta Pasaiako nerabeak izan ditut bidaide. Eurek eman diote erantzuna ikerketa honetan planteatzen nituen galderei. Eurekin batera iritsi naiz zerrendatzen ari naizen ondorio hauetara.

Izan ere, azken bi hamarkadetan “euskararen erabilera” kezka iturria bihurtu da, eta gehienetan haur, nerabe eta gazteengan jarri da lupa auzi hau planteatzerakoan. Ikerketa lan honetan, ordea, argi geratu zaidan kontua hauxe da: nerabeak helduen munduaren emaitza eta ispilu dira, nerabeen mundutik gustukoa ez duguna, helduen mundutik gustatzen ez zaiguna da. Eta ondorio horrek berdin balio du hizkuntza-praktikak deskribatzeko eta, baita, genero desberdinkeriaz hitz egiteko. Lan honetan nerabezaroaren eta generoaren ispiluan barrena ibili naizela aipatu dut, eta hala izan da, batez ere, nerabeekin egoterakoan oso ondo islatua ikusi dudalako gure gizartearen egitura. Beharbada, nerabeen ispilu horretan ikusten duguna *emergentzia etnografiko*⁷⁴ bat da, gure gizartean izan den gertakari esanguratsu bat eta hainbat gauza ulertzen laguntzen diguna. Horrekin batera, lan honetan ondorio nagusi bat atera dut: euskararen biziberritze prozesua genero ikuspegiarekin aztertzeak oso garrantzitsuak eta interesgarriak diren gakoak eskaintzen dizkigula. Bide horretan, beraz, euskararen ikerketa sozialean genero teorietan azken hamarkadetan garatutakoak aplikatu beharko genituzke, ziur bainaiz hizkuntzaren gizarte dinamikak ulertzeko oso baliagarriak direla.

Beharbada, haur, nerabe eta gazteei buruz hitz egin baino, haur, nerabe eta gazteekin hitz egin eta egon behar dugula uste dut. Haien ahotsak entzun behar ditugu, asko esateko dutelako eta gakoak diren gauza asko adierazten digutelako. Beharbada, euskarari buruz gutxiago hitz egin behar dugu, eta gizartean ditugun praktika, diskurtso eta arau sozial eta kulturei buruz (eta kasu honetan genero ardatza bereziki kontutan hartuta) gehiago hitz egin behar dugu eta zalantzan jarri behar ditugu, horiek baitira boterezko hizkuntza harremanak mantentzen dituztenak.

⁷⁴ Emergentzia etnografikoa zer den azaltzeko Carmen Diez-en artikulua erabili dut “Tradiciones culturales y legitimación del poder masculino” http://www.gazeta-antropologia.es/?p=3023#N_23_. Diezen arabera: “En su momento fue descrito como una “emergencia etnográfica” para describir una situación en la que un aspecto de la realidad social emerge con nuevas características, posibilitando el análisis social desde nuevas y múltiples perspectivas. Este concepto de emergencia etnográfica ha sido utilizado por el antropólogo James Fernández (1986), para hacer alusión a aquellos “incidentes reveladores” que suponen un test de entendimiento antropológico.



Egin dudan lan hau esplorazio-ikerketan bat izan da eta aurrerago egin nahi ditudan beste hainbat ikerketen abiapuntua izatea nahiko nuke. Izan ere, niretzat ikuspegi berria eduki duen lan honetan murgildu naizen unetik, konturatu naiz bidexka, albo bide eta bidezidor ugari duen ikerketa lerroa izan daitekeela. Esplorazio bidaia bat egiten duzunean, aurrerantzean esploratzeko lurralde mirezgarri asko topatzen dituzulako. Edo Svetlana Alexiévich⁷⁵ idazleak aipatzen duen bezala:

Puntu bat idatzi duzu, eta berehala hiru puntu bilakatu dira...

⁷⁵ Svetlana Alexiévich “La guerra no tiene rostro de mujer” liburuan idatzitako esaldia (2015:27)

Erreferentziak

- ABASOLO, Resu; LOPEZ DE MUNAIN, Juana; URBE, Arantxa (2004). *Ilunetik argira: Elbira zipitria*. Xangorin.
- ACOSTA, Ainhoa (2013) “El rol de las mujeres vascas en la transmisión del euskera: el idioma en las dinámicas de género e identidad” in *Euskonews* 656. Eusko Ikaskuntza. <<http://www.euskonews.com/0656zkb/kosmo65601es.html>>
- AGIRREZABAL, Lore et. al (2009) *Euskararen berreskuratzea. Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*. Eskoriatza: Garabide Elkartea.
- AMONARRIZ, Kike (1995) “Euskararen erabilpenaren feminizazioa” in *BAT*, 15: 89-96. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- AMONARRIZ, Kike (2005) “Gazte hizkeraren egungo egoera eta garrantzia” in *Gazte Hizkera*:11-24. Donostia: Urtxintxa
- AMONARRIZ, Kike (2014-08-09) “Ezinbestekoa da minimoetara iristea” in *Berria*.
- AMORRORTU, Estibalitz (2005) “Gazte hizkeraren bila? Soziolinguistikatik hausnarketa pare bat” in *Gazte Hizkera*:35-43. Donostia: Urtxintxa.
- ALBERDI, Uxue (2013) “Bertsolaritza feminista”. Kontsulta on-line <<https://www.youtube.com/watch?v=QtJiatyqW1s>>
- ALTUNA, Jaime (2015) “Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan” in *BAT* 97:39-65.
- ALVAREZ, Amaia (2004) “Euskara hizkuntza sexista al da?” in *Erabili.com*. Kontsulta on-line <http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1078235452/>
- ALVAREZ, Amaia (2005) “Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian” in *Jakin* 148:37-75.
- ARACIL, Lluís Vicent (1983) “Emakumezkoen sprinta” in Falcón, Xabier. Lluís Aracilen idazlan hautatuak:115-122. Bilbo: Udako Euskal unibertsitatea.
- ARANA, Goio (2012) “Adela, geurea” in *Sustatu* 2012-12-11. Kontsulta on-line <<http://sustatu.eus/goioarana/1355132240#erantzunak>>
- ARESTI, Gabriel (1964) *Harri eta herri*. Itzaropena
- ARESTI, Nerea (2000) “El angel del hogar y sus demonios. Ciencia, religión y género en la España del siglo XIX” in *Historia Contemporánea*, 21:363-394. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
- ARETXABALETA, Jasone (1994) “Lehenego andereñoak” in *Emakunde*, 16:38-41.
- ARINAS, Txema (2016) “Zintzoak, zintzoegiak” in *Berria*, 2016-06-09.
- ARTOLA, Itxaro (2013) “Euskararen ainguralekuak Arrasateko gazteen hizkuntza-portaeran: zergatik eta non hitz egiten duten euskaraz” in *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 89:61-83.
- ARZALLUZ, Amets (2013) “Ama hizkuntza” in *Berria*, 2013-03-24.
- AZURMENDI, Joxe (1964) “Neskatxak ez dute euskeraz itzegin nai” in *JAKIN aldizkaria* 16:62-68.

- BARANDIARAN, Alberto (koord.) (2013). *Euskararen berreskuratzea. Hezkuntza*. Eskoriatza: Garabide Elkartea.
- BEITIA, Iñigo (2016) *Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak* Argitaratu gabeko Gradu Amaierako Lana.
- BEREZIARTUA, Garbiñe (2013) “Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo” in *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 89:25-42.
- BERRIO-OTXOA, Kotxesi; MARTÍNEZ, Zesar; HERNÁNDEZ, Jone M. (2003) *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)* Soziologiako Euskal Koadernoak 13. Eusko Jaurlaritza.
- BILBAO, Paul eta LARREA, Imanol (2010) “Hizkuntza-politika eta hizkuntza-plangintza” in *Soziolinguistika Eskuliburua*: 231-286. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- BOURDIEU, Pierre (1985) *¿Que significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madrid: Akal.
- BUTLER, Judith (1990) “Variaciones sobre sexo y género: Beauvoir, Wittig y Foucault” in Seyla Benhabib (ed.) Valencia, Alfons el Magnànim.
- BURKE, Peter (2004) *Lenguas y comunidades en la Europa moderna*. Madrid: Akal.
- CARROLL, Lewis (1995) *Alice*. Pamiela.
- CASAS, Ferran, (2006), “Infancia y representaciones sociales”, in *Política y sociedad*, 43-1. Zenbakia, Universidad Complutense de Madrid. 27-42
- CASTELLANOS, Gabriela (1995) “¿Existe la mujer? Género, lenguaje y cultura” in Arango, Luz Gabriela, Leon, Magdalena eta Viveros, Mara. *Género e Identidad. Ensayos sobre lo femenino y lo masculino*: 35-59. Tercer Mundo Editores
- CONNELL, Robert W. (1997) “La organización social de la masculinidad” in Teresa Valdés y José Olavarria (eds), *Masculinidades, Poder y Crisis*. Santiago de Chile: ISIS-FLACSO.
- COYOS, Jean-Baptiste (2010) “Hizkuntza-ukipena” in *Soziolinguistika Eskuliburua*:135-184. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- CRYSTAL, David (1999) “Death sentence” in *The Guardian* 1999-10-25.
- DE MIGUEL, Ana (2015-12-13) “Bi koloreren diktadurapean” in Berria.
- DEL VALLE, Teresa (1985) *Mujer vasca: imagen y realidad*. Barcelona:Anthropos.
- DEL VALLE, Teresa (1987) “Contradicciones en torno a la actividad lingüística de la mujer vasca y su reflejo en Korrika” in *Kobie Antropología Cultural*, 2:14-21.
- DEL VALLE, Teresa (1988) *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona:Anthropos.
- DEL VALLE, Teresa (1999) “El genero en la construccion de la identidad nacionalista” in *Foru Hispanico. Revista Hispanico de los Paises Bajos*, 16:37-44.

- DEL VALLE, T. (2015) “Procesos de la memoria: cronotopos genéricos” in *Revista de Estudios de Género*. La Ventana, 1(9):7-44.
- DIEZ, Carmen (2002) “Deporte, socialización y género” in Medina, Xavier eta Sánchez, Ricardo (eds.) *Culturas en juego. Ensayos de antropología del deporte en España*: 150-180. Icaria.
- ECKERT, Penelope (1989):“The Whole Woman: Sex and Gender Differences in Variation” in *Language Variation and Change*, 1-03:245-267. Cambridge University Press
- ECHEVERRIA, Begoña (2001) “Privileging masculinity in the social construction of Basque identity” in *Nations and Nationalism*, 7(3):339-363.
- ESCRIBANO, Daniel (2015) “Diglosia Euskal Herriarentzat?” in *Jakin* 211:99-134.
- ESNAOLA, Imanol (1999) *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*. Bilbo: UEU.
- ESTEBAN, Mari Luz (2004) “Zôon andro-ginos: Gizabere arra eta emea, politikan berdin?” in *Uztaro*, 48:61-77.
- ESTEBAN, Mari Luz (2011) *Crítica del pensamiento amoroso*. Barcelona: Edicions Bellaterra.
- ETXEBARRIA, Igone (2000) *Sorne Unzueta Utarsus*. Gazteiz: Eusko Jaurlaritz.
- EUSKO JAURLARITZA (2010), *Soziolinguistika Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.
- Kontsulta on-line <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/Hiztegiak/Soziolinguistika_DF.pdf>
- EUSKO JAURLARITZA (2013) *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritz.
- FARWELL, Aritz (2016) “Modernitaterako euskararen gaitasun eza iritzi zabala zen XX. mendearen hastapenetan”. Kontsulta on-line < http://www.ehu.es/eu/web/guest/preview-campus/-/asset_publisher/107v/content/n_20160311_euskara-en-el-siglo-xx>
- FEIXA, Carles (1999) *De jóvenes, bandas y tribus. Antropología de la juventud*. Barcelona: Ariel.
- FEIXA, Carles (2006) “Gazte izatea: gaur, atzo, bihar. In *Gazteak eta balioak. La Caixa Fundazioa*..
- FEIXA, Carles (2011) “Juventud, espacio propio y cultura digital” in *Revista austral de ciencias sociales*, 20:105-120.
- FERNANDEZ, Idoia (1994) *Oroimenaren hitza: ikastolen historia, 1960-1975*. Bilbo: UEU
- FERNANDEZ, Irantzu (2016) *Nerabegarako maitasun bizipenen etnografia: Harremanen antolaketa, gorputz-lana eta heteroaraua Bilboko gatetxoan artean*. Doktorego-tesia (argitaratu gabe). UPV/EHU
- FERRANDIS, Francisco (2011) *Etnografías contemporáneas. Anclajes, métodos y claves para el futuro*. Anthropos
- FISHMAN, Joshua. A. (1991) *Reversing language shift: Theoretical and empirical foundations of assistance to threatened languages*. Multilingual matters.
- FOUCAULT, Michel (1984) “Disciplina” in *Vigilar y castigar. El nacimiento de la prisión*. Mexico: Siglo XXI. 124-210

- FUNES, Jaume (2005) “El mundo de los adolescentes: propuestas para observar y comprender” in *Intervención socioeducativa*, 29, 78-102.
- GALEANO, Eduardo (2000) *Días y noches de amor y de guerra*. Laia.
- GARCIA, Oihana (2016) “Hizkuntza-transmisioaren kate-begi isilak” in *Elhuyar.eus*. On-line kontsulta <<http://komunitatea.elhuyar.eus/eraldaketa-elhuyar-da/2016/02/22/hizkuntza-transmisioaren-kate-begi-isilak>>
- GONZALEZ, Olatz, (2005) *Pelota vasca. un ritual, una estética*. Bilbao:Editores muelle de Urbitarte.
- GUTIERREZ, Arantza (2016) “La radio, de medio femenino a vocera feminista” Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra (Komunikazio ikasgaiaren apunteak) UPV/EHU.
- GUGLIELMI, Flavio (2013) “Sobre el poder y sus regularidades” in *Nuevo Itinerario Revista Digital de Filosofía*, 10 Resistencia, Chaco,
- HARDMAN. C, [1973] 2001, “Can there be an Anthropology of Childhood”, in *Childhood*, 8: 501-507.
- HERNANDEZ, Jone M. (2004) “Euskara dela eta... neskek zer diote?” in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 53:79-95.
- HERNANDEZ, Jone M. (2005) *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- HERNANDEZ, Jone M. (2008). “Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiati” in *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 69: 27-42.
- HERNANDEZ, Jone M. (2011). “Baina gu ere gazteak izan ginen. Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur” in *Euskera*, 55-2: 579-607.
- HOLMES, Janet eta MEYERHOFF, Miriam (1999) “La comunidad de práctica: teorías y metodologías en investigación de lengua y género” in *Language in Society Cambridge University Press*, 28:173-183. Itzulpena:On-line kontsulta <http://www.lenguasdecolombia.gov.co/sites/lenguasdecolombia.gov.co/files/Traducc_comunidad_de_practica.pdf>
- IRAOLA, Joxe Mari (1994) *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian*. Lasarte-Oriako Udala.
- IRIZAR, Mikel (2013) “Aberria izatekotan” in *Argia* 2013-03-27.
- IRURETA, Onintza (2016) “Pena da feminismoa eta euskalgintza elkartu ez izana, ez mugimenduak, ez administrazioak” in *Argia* 2491:34.
- JAGOE, Catherine, BLANCO, Alda, ENRIQUEZ, Cristina (1998). *La mujer en los discursos de género: textos y contextos en el siglo XIX*. Icaria Editorial.
- JAUREGI, Pello (2003). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)*. Lasarte-Oriako Udala.
- JOCILES, María Isabel, FRANCÉ, Adela, Poveda, David (2011), “El estudio etnográfico de la infancia y de la adolescencia: posibilidades y retos” in Jociles, M. I., Francé, A., Poveda, D. (eds) (2001), *Etnografías de la infancia y de la adolescencia*, Madrid: Catarata. 9-36

- KASARES, Paula (2014) *Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozialazioa familia euskaldunetan*. Euskaltzaindia.
- LANTTO, Hanna (2015) *Code-switching in greater Bilbao. A bilingual variety of colloquial basque*. Helsinki: University of Helsinki.
- LARRAÑAGA, Carmen (1997) “Del bertsolarismo silenciado” in *Jentilbaratz*, 6: 57-73
- LARSON, Reed W., WILSON, Suzanne (2004) “Adolescents across place and time: Globalization and the changing pathways to adulthood” in R.M. Lerner y L. Steinberg (Eds.), *Handbook of adolescent psychology*: 299-330. NJ: Wiley.
- LERTXUNDI, Anjel (1996). “Tradizioa, idazlearen kale kantoitik” in *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 41(3): 861-872.
- LEYRA, Begoña, BARCENAS, Ana María (2014) “Reflexiones etnográficas sobre el ocio infantil” in *Revista Latinoamericana de Metodología de las Ciencias Sociales*, 4(1).
- LORDE, Audre (2016) *Audre Lorde*. Susa.
- LLONA, Miren (2002) *Entre señorita y garçonne. Historia oral de las mujeres bilbainas de clase media (1919-1939)*. Málaga: Universidad de Málaga.
- MACDOUGALL, David (1998) *Trasncultural cinema*, Princeton University Press
- MACDOUGALL, David (2005), “Films of childhood” in Macdougall, David (2005) *Film, ethnography, and the senses. The corporela image*:67-93.
- MAQUEIRA, Virginia (2001) “Género, diferencia y desigualdad”, in *Feminismos, debates y teorías contemporaneas*: 127-190. Alianza Editorial, Madril.
- MENDIBIL, Gontzal (2011) “Biltzen, berotzen, bozten” in *Berria* 2011-08-06.
- MENDIZABAL, Zuriñe (1990) “Emakumea, euskara. Iragan hurbila eta etorkizuna” in *Emakunde*, 3:59-60.
- MIHN-HA, Thrin (1983) *Reassamblages: From the Firelight to the Scream*. Filma. AEB
- MOORE. Henrietta (1991) *Antropología y feminismo*. Madrid: Cátedra.
- MOSELEY, Christopher (ed.) (2010) *Atlas de las lenguas del mundo en peligro, 3ra edición*. Paris: Ediciones UNESCO. On line kontsulta <<http://www.unesco.org/culture/en/endangeredlanguages/atlas>>
- OLAZIREGI, Mari Jose (2003). “Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa” in *IKER*, 14:203-221.
- OTAEGI, Gorka (2013) “Euskara batuak ez die euskalkie kalterik egiten” in *Periódico Bilbao*, 286:4)
- OZAITA, Josu (2014) “Tolosaldeko gazteek (16-28 urte) hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktika” in *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 91:83-103.
- TRABUDUA , Polixene. (2002) *Crónicas de Amama*. Sabino Arana Kultur Elkargoa-Emakunde.
- PUJOLAR, Joan, GONZALEZ, Isaac, FONT, Anna, MARTÍNEZ, Roger. (2010a) *Llengua i joves. Usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Generalitat de Catalunya.

- PUJOLAR, Joan, GONZALEZ, Isaac, MARTÍNEZ, Roger (2010b) “Les mudes lingüístiques dels joves catalans” in *Llengua i ús. Revista Técnica de Política Lingüística*, 48:65-75.
- RAZKIN, Uxue (2016) “Maria de Maeztu (1881-1948): Emakumeen hezkuntzaren alde” in *Zientzia Kaiera*. Kontsulta on-line < <http://zientziakaiera.eus/2016/01/29/maria-de-maeztu-1881-1948-emakumeen-hezkuntzaren-alde/>>
- RODRIGUEZ, Txerra (2016) Pasilloetan galduta in *Jakin*, 214:141-143 . Jakin Fundazioa.
- RUBIN, Gayle (1986) “El tráfico de mujeres: notas sobre la economía política del sexo” in *Nueva Antropología*, III-30:95-145. Mexico.
- SANCHEZ CARRION “Txepetx”, Jose Maria (1981) “La Navarra Cantábrica” in *Fontes Linguae Vasconum* 37:19-99. Iruñea: Institución Príncipe de Viana.
- SANTROCK, John (2011). *Adolescence*. Boston: McGraw-Hill .
- SARASUA, Jon (2004) “Kulturaren zurrumbiloen” in *Erabili* 2004-11-19.
- SAUJANI, Reshma (2016) “Teach girls bravery, not perfection.” Kontsulta on-line <http://www.ted.com/talks/reshma_saujani_teach_girls_bravery_not_perfection>
- SCHIEFFELIN, Bambi. B.; OCHS, Elinor (1986). “Language Socialization” in *Annual Review of Anthropology* 15, 163-191.
- SHAFFER, David R., KIPP, Katherine (2007) *Psicología del desarrollo: infancia y adolescencia*. México: Thomson Editores.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011) *Euskal Herriko hizkuntzen kale erabileraren neurketa*. Kontsulta on-line <<http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=aurkezpena>>
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2013) *Bergarako nerabeen hizkuntza-erabilera formala eta informala*. Kontsulta on-line <http://www.soziolinguistika.eus/files/Bergarako%20nerabeak%20eta%20euskarazko%20ahozko%20jarduna_diagnostikoa.pdf>
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2014) *Lezoko hizkuntza-erabileraren Kale Neurketa 2014*. (Argitaratu gabe).
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2015) *Pasaiaiko hizkuntza-erabileraren Kale Neurketa 2015*. Kontsulta on-line < http://www.pasaia.net/es/ficheros/1_13346es.pdf>
- UGALDE, Mercedes (1995) “Dinámica de género y nacionalismo. La movilización de vascas y catalanas en el primer tercio de siglo” in *Ayer*, 17: 121-155. Asociación de Historia contemporánea.
- UNZUETA, Sorne (1931) *Itxartu, eusko alabea!* . Armiarma.eus . Kontsulta on-line <http://www.basquepoetry.eus/?i=poemak&b=605>
- URLA, Jackie (1999) “Basque Language Revival and Popular Culture” in Douglass, William A.; Urza, Carmelo; White, Linda; Zulaika, Joseba (1999):*Basque Cultural Studies*. Reno: University of Nevada.
- ZARRAGA, Arkaitz (2010) “Soziolinguistikari sarrera” in *Soziolinguistika Eskuliburua*:21-84. Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.
- ZULAIKA, Joseba (1991) *Violencia Vasca: la metáfora y el sacramento*, Madrid: Nere

Eranskinak

Garatutako dinamiken azalpen zehatza

Metodologia atalean aipatu dudana bezala, behaketetan etnografian ohikoa den jasoketa (grabazioak, egunerokoa...) egitearekin batera Haurtzaro eta Nerabezeroaren Antropologian proposatzen diren zenbait talde-dinamika erabili ditut. Behaketa lana egiten egon naizen egun bakoitzean bina dinamika proposatu nituen. Dinamika hauetan, lehendabizi, nerabeak, 5-6 lagunez osatutako taldeetan elkartzen ziren proposatutakoa egiteko. Ondoren, talde txikietan osatutako dinamikaren emaitza elkar banatzen zuten, talde handian denon artean landu nahi den gaiari buruz hausnarketa eginez. Dinamika hauetan sortutako material guztia (kartulinetan egindako grafikoak, mapak, bideoak...) jaso dut informazio iturri garrantzitsua dela iruditzen zaidalako. Jarraian, dinamika hauen azalpen zehatza aurkezten dut:

Lehen egunean gazteen errealitatea eta egunerokotasunera hurbiltzeko bi jarduera antolatu nituen:

Dinamika 1.1. Gazteen argazkia: gazteen nortasunaren ezaugarriak irudikatu behar zituzten collage teknika erabiliz. Galdera hauei erantzutea bilatzen zen: nolakoak gara bertako gazteak? Zer ezaugarri ditugu? Zer ezberdintasunak daude gazteen artean? Zertan ezberdintzen gara beste tokietako gazteengandik?

Dinamika 1.2. Haur izatetik heldu izatera: haurrak definitzen dituzten ezaugarriak eta helduenak zerrendatzeko dinamika baten bidez gazteen eta beste adinekoen artean ematen diren aldaketak jaso zen.



Bigarren egunean gazteen hizkuntza kartografia egin genuen. Euren hizkuntza-praktikak, hizkuntza-guneak eta hizkuntza-eragileak ezagutzera hurbildu nahi izan nuen.

Dinamika 2.1. Gazteen hizkuntza mapa : *Mapeo* izenez ezagutzen den dinamikaren bidez herriko plano hartuta beraien egunerokotasuneko guneak markatu behar zituzten, ondoren gune bakoitza hizkuntza-praktikaren araberako kolore batekin lotzeko.



Dinamika 2.2. Hizkuntzaren giltzarrapoa eta giltza : planoan zehaztutako gune horietan euskararen erabilera errazten dituzten elementuak eta oztopatzen dituztenak zerrendatu behar zituzten giltzarrapo edo giltzaren irudiaren bidez.



Azken bi egunetan gazteen gaur egungo jarduna irudikatzeko eskatu zitzaizaien esketx motz batzuen bidez. Antzeppen hauen bidez hizkuntzarekiko harremana eta jarduera adierazteko eta jasotzeko aukera izan nuen. Lau dinamika programatu ziren:

Dinamika 3.1. Antzeppenaren prestaketa

Dinamika 3.2. Taldeka bideo grabazioak

Dinamika 4.1. Bideo proiektzioak eta hausnarketa

Dinamika 4.2. Merienda eta ikerketaren agurra



Talde-elkarrizketen gidoia

Gazte identitatea

Nola osatzen dira kuadrillak?

Kuadrillen arabera ezberdintasunak al daude? Zertan ezberdintzen dira? Hizkuntzan?

Lezon zuen adineko guztiak talde antzekoak osatzen dituzue? Nola egiten dira kuadrillak? Bereizketa egiten al da eskolaren arabera? Lizeoak eta Institutukoak? Jantzkeran ezberdintasunik bai? Ikastetxe barruan estilo ezberdinak?

Euskara talde hauetako baten ezaugarria al da? Zurriolako adibidea kontatu...

Lezoko zuen adinekoek gehiago hitz egiten dute euskaraz Errenteriakoak baino? San Juangoak baino? Donostiakoak baino?

Genero identitatea

Ezberdinak al zarete neskak eta mutilak?

Gauza ezberdinak egiten al dituzue? Kirola, eskolaz kanpokoak, jaietan, jolasak, telebista, mugikorra...

Toki ezberdinetan ibiltzen al zarete?

Elkarrekin ibiltzen al zarete?

Praktikak

KIROLA

Zer kirol praktikatzen duzue?

Zer hizkuntzarekin lotzen duzue futbola? Zergatik?

Entrenamenduetan? Partidetan? Irratian? Telebistan? Mugikorretan?

Beste kirolak zer hizkuntzan? Arrauna? Saskibaloia? Pilota? Eskubaloia?...

KULTURA

Zer kultur jarduera egiten dituzue? Musika? Dantza? Arteak?

Zer hizkuntza erabiltzen duzue bertan?

Kultur jarduera batetik bestera ezberdintasunik?

Garrantzia al dute zuen egunerokotasunean? Nolakoa?

GUNE BIRZIKLATUTAKO AISIALDIA

Egon, hotza, mugitzen, aspertzen... Gustatuko litzaizueke beste modu bat edukitzea? Nolakoa?

Festa asko aipatu da? Zer egiten duzue festetan? Asteburuetan festarik egiten al duzue?

Mugikorrak asko erabiltzen al dituzue? Denek al duzue? Institutuan? Etxean? Zergatik zigortzen zaituztete mugikorrik gabe?

Bideo-jokoetan aritzen al zarete? Nola? Bakarrik?

Musika. Gustukoak dituzuen taldeen izenak? Edo abestiak?

Telebistan zer ikusten duzue? Asko ikusten al duzue? Txikitan baino gehiago?

Zinematan zein izan da ikusi duzuen azken filma?

BEREZKO GUNEA

Zuen adinekoek lokaletan ibiltzen al dira? Tabernetan?

Gustatuko al litzaizueke lokala edukitzea?

Hizkuntza-praktikak

Zeinekin hitz egin duzue gaur arratsaldean? Zer hizkuntzan?

Duela lau urte euskara gehiago egiten al zenuten? Zergatik?

Haurrek zuek baino euskara gehiago egiten dute? Eta helduek?

Nola moldatzen zarete hobeto? Euskaraz? Gaztelaniaz? Egoera guztietan?

Kalean erdaraz egiteko joera duzuela jaso dugu. Zergatik gertatzen da hori?

Gauza guztietarako balio al du euskara?

Adibideak: arbitroa iraintzeko, lagunak zirikatzeke, haserretzeko, gauza politak esateko, txistek kontatzeko...

Berdin hitz egiten duzue lagunekin eta helduekin? Eta begiraleekin?

Berdin hitz egiten al duzue mutilekin? Neskekin?

Ezberdin hitz egiten al dute neskek? Mutilek? Hitz edo esamolde ezberdinak erabiltzen dituzue?

Gehiago hitz egiten al dute mutilek? Neskek?

Euskaraz zeintzuk hitz egiten dute gehiago? Zergatik?

Zertaz hitz egiten dute batzuk eta besteek?

Nahasten al dituzue hizkuntzak?

Nola idazten dituzue mugikorrek mezuak? Idatziko elkarrizketa tipikoa?

Elkarrizketa asimetrikoak erabiltzen al dituzue? Batek euskaraz esan eta besteak erdaraz erantzun denbora guztian.

Hika erabiltzen al duzue?

Zuen inguruko norbaitek erabiltzen al du? Zertarako?

Hizkuntza-pertzepzioak

Ba al dago toki edo jarduera bat euskararekin lotzen duzuen?

Gaztelaniaz hitz egitea gustatzen al zaizue? Ingelesez? Euskaraz? Zergatik?

Euskarak gauza batzuetarako ez duela balio uste duzue?

Euskaraz hitz egin behar dela uste duzue? Zergatik?

Nola sentitzen zarete zure ingurukoek euskaraz egiten ez dutenean?

Nola sentitzen zarete helduek “euskaraz hitz egin” esaten dizuetenean?

Zer esango zeniekete helduei euskarari buruz?

Eta agintariei?

Zer irakasle izan dituzue? Emakumeak? Gizonezkoak?

Uste duzue neskek ardura gehiago duzuela euskaraz?

Neskei gehiago esaten al dizute euskaraz egiteko?